

Gerraosteko Euskal Herrian eraikitzea. Eibarko berreraikuntza (1937-1957)

Francisco Javier Muñoz Fernández

2009ko Juan San Martin
ikerketa-bekan saritutako lana



GERRAOSTEKO EUSKAL
HERRIAN ERAIKITZEA.
EIBARKO BERRERAIKUNTZA
(1937-1957)

2009ko JUAN SAN MARTIN IKERKETA-BEKAN SARITUTAKO LANA

Francisco Javier Muñoz

Eibarko Udala eta Udako Euskal **Unibertsitatea**
2013

© Eibarko Udala

© Udako Euskal Unibertsitatea

© Francisco Javier Muñoz

Eibarko Udalaren ISBNa: 978-84-8438-???-?

UEUren ISBNa: 978-84-695-8668-6

Azalaren diseinua: Igor Markaida

Azaleko argazkia: Eguzkia Eibarko etheen patio batera sartzen. Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Fondoa. Sig. 35.066. HIF

Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak: Eibarko Udala

www.eibar.es

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546

www.ueu.org

Liburu hau Buruxkak liburutegi digitalean erabiltzaileen esku jartzen da eta Aitortu-Ezkomertziala-Laneratorririk gabe 2.5 lizentziarekin banatzen da. Lizentzia honekin, edukiak kopiatu, banatu eta erakutsi ahal izango dituzu, ondorengo baldintzak beteaz:

- Edukiaren jatorrizko egilea aipatu behar duzu.
- Ezin duzu edukia helburu komertzialetarako erabili.
- Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta.

*Armillak halakoa izateko
bukatu gabe egoteagatik den,
edo eraitsia izanagatik,
atzean sorginkeria bat baldin badago
edo apeta hutsa den,
ez dakit.*

*Kontua da ez duela paretarik,
ez sabairik,
ez zorurik;
ez du hiri antzik ematen dion ezer.*

Italo Calvino. *La città invisibili*

Aurkibidea

EIBARKO ALKATEAREN AGURRA.....	9
UEUKO ZUZENDARIAREN AGURRA	11
ESKERRAK	13
LABURDURAK.....	15
SARRERA	17
1. ARKITEKTURA ETA HIRIA AUTARKIA-GARAIAN	19
1.1. Harri eta zementuzko falangismoa.....	19
1.2. Arkitektura eta hiria Estatu berri baten zerbitzura	20
1.2.1. Hiri eta arkitektura propio baten definizioa	20
1.2.2. Arkitektura eta hiria zigortu, zelatu eta kontrolatu	29
1.2.2.1. Erakunde berrien sorrera	29
1.2.2.2. Erbestea eta zigorra heriotzaren ostean	31
1.2.2.3. Profesioa kontrolatzeko beste bitartekari batzuk: irakaskuntza eta argitalpenak	33
1.3. Gerraosteko eraikuntza-arazoak.....	35
1.4. Dirección General de Regiones Devastadas y Reparaciones.....	39
2. EIBARKO BERRERAIKUNTZA	47
2.1. Gerraosteko hiriaren erronkak	47
2.2. Hiri-antolaketa berria	50
2.2.1. Hiriaren txikizioa eta hasierako berreraikuntza-lanak	50
2.2.2. Urbanizazio-plan berria	56
2.2.2.1. Plan urbanoaren definizioa	56
2.2.2.2. Plan urbanoaren garapena	60
a) Eraistek, hondakinak kentzea eta hasierako urbanizazioak	60

b) Ego ibaiaren estaltze eta bideratzea	65
c) Estolderia, ur-hornikuntza, argiztapena eta beste zerbitzu batzuk	71
2.2.3. Hiria eta botere berria	73
2.2.4. Hiri-antolaketa berriaren emaitzak eta mugapenak	75
2.3. Arkitektura publikoa eta hiria	79
2.3.1. Zerbitzu publikoak	79
2.3.1.1. Udal-zerbitzuak	79
2.3.1.2. Estatuaren zerbitzuak	88
2.3.1.3. Beste erakundeetako zerbitzuak	92
2.3.2. Osasunerako arkitektura	93
2.3.3. Hezkuntzarako arkitektura	97
2.3.4. Elizaren arkitektura	107
2.3.5. Aisia eta arkitektura	116
2.4. Etxebizitza	121
2.4.1. Etxebizitzaren arazoa	121
2.4.2. Gizarte-etxebizitza	124
2.4.1.1. Etxebizitzaren gabeziari aurre egiteko erakundeak eta ekimenak	124
2.4.1.2. Babestutako etxebizitzak	129
a) Dirección General de Regiones Devastadas	129
b) Obra Sindical del Hogar	139
c) Udal-etxebizitzak. IMESA. Inmobiliaria Municipal Eibarresa	149
d) INVren poligono berria. Cooperativa de Viviendas Cristo Obrero	154
2.4.2.3. Etxebizitza babestuen mugaketak	158
2.4.3. Etxebizitza eta ekimen pribatua	162
2.4.3.1. Errentagarritasuna eta Estatuaren laguntzak	162
2.4.3.2. Etxe pribatuen eraikuntza: araudiak eta profesionalak... ..	164
2.4.3.3. Etxe motak eta formak	169
a) Auzo-etxeak	169
b) Dentsitate gutxiko etxeak	182
c) Etxea eta tailerra	185
2.4.3.4. Etxe-espazioaren antolaketa	193
2.4.3.5. Etxebizitza jabegoan. Alokairuen legislazioa eta jabego horizontalaren garapena	199
2.4.4. Etxebizitza: konpondu gabeko arazoa	202
2.5. Industriadako arkitektura	203
2.5.1. Eibar: hiri industrialia	203
2.5.2. Arkitektura industrialaren garapena	207
2.5.2.1. Hasierako lanak	207

2.5.2.2. Profesionalak: arkitektoak eta ingeniariak	209
2.5.2.3. Arkitektura industrialaren ezaugarriak eta ereduak.....	210

ONDORIOAK..... 225

ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA..... 229

1. Artxiboak	229
2. Bibliotekak.....	229
3. Argitalpenak.....	230
4. Iturriak	231
5. Bibliografia	238

ERANSKINA..... 245

1. Eibarren lan egin zuten arkitektoak. 1937-1957	245
2. Eibarren lan egin zuten ingeniariak. 1937-1957	247

Eibarko alkatearen agurra

Eibarko Udalak UEUrekin lankidetzan Juan San Martinek bere bizitzan gogotsu landutako esparruak jorratzeko aukera ematen die Juan San Martin bekaren bitartez, bai ikertzaile gazteei, bai adituei.

Oraingo honetan eskuartean duzuen lana bekaren IX. deialdiaren emaitza da.

Lan honen emaitza ikusita, zorionak eman nahi dizkiot bekaren irabazle eta lanaren egile izan den Francisco Javier Muñoz, Eibarko hiriaren berreraikuntzaren klabeak aztertu, jaso eta irakurleon esku jarri dituelako. Gaur egun ezagutzen dugun Eibarren itxura urbanistikoaren jatorria zein den, nola, nork eta zergatik hartu ziren hartutako erabakiak... hori guztia jasotzen du lan honek.

Seguru nago irakurketa honetan gure hiria hobeto ulertzeko eta gehiago estimatzeko arrazoiak topatuko dituzuela.

Miguel de los Toyos Nazabal
Eibarko alkatea

UEUko zuzendariaren agurra

Interneten oso ohikoa da etiketak edo hitz gakoak jartzea irudiei, testuei eta abarri. Sarrera honi hasteko honako etiketak jarriko nizkioke: krisia, Eibar, euskara, ikerkuntza eta jakintza. Hau da, egoera ekonomiko latza bizi dugu, eta hala ere, Eibarko Udalak apustu handia egin du eta egiten jarraitzen du ikerkuntza sustatzeko. Ez edonolakoa, Eibarko herriari atxikia, hau da, bertakoa eta euskaraz. Unibertsitateetan egingo litzatekeen mailakoa baina sarri egiten ez dena.

Oroimena eta herentzia. Udalak UEUekin Juan San Martin beka sortu zuen duela zenbait urtez eibartar euskaltzalea oroitzeko eta omentzeko. Nekez sortuko zuen udalak halakorik Juan San Martin moduko figurarik herrian egon izan ez balitz. Bekak ikerketa-proiektuak gauzatzeko aukera ematen die ikertzaileei. Horri esker, Juan San Martinen emariak aurrera jarraitzen du bihotz eta buru gazteagoen eskutik. Hori da, besteak beste, Juan San Martinek bere herri txiki-handi maiteari utzitako herentzia.

Argitalpena, Historia eta Arkitektura. Ikerketa-proiektuetako batzuk, beka ez ezik, argitalpen bihurtzera ere iristen dira. Esku artean dugun Francisco Javierren proiektua horren adibide da. Bere ikerketa duzu honako liburu hau. Bertan gerraosteko Euskal Herriaren eraikitzea aztertzen du, Eibarko kasutik abiatuz. Historialarientzat, arkitektoentzat, eibartarrentzat zein zaletuentzat ezin interesgarriagoa den liburua.

Zorionak eta eskerrak. Egileari zorionak egindako lanarengatik eta eskerrak Eibarko Udalarari UEUren eta euskararen alde egindako guztiarengatik.

Karmele Artetxe Sanchez
UEUko zuzendaria

Eskerrak

Eskerrik asko lan hau egiten lagundu duten pertsona eta erakunde guztiei, bereziki 2009ko Juan San Martin IX. ikerketa-bekarekin Eibarko Udalak eskainitako aukeragatik.

Eskerrik asko ere Eibarko Udaleko Artxiboari, Eibarko Udaleko IMESA erakundeari, Gipuzkoako Artxibo Orokorrari, Bizkaiko Foru Artxiboari, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Nagusiari, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Artxiboari, Espainiako Gobernuaren Administrazioaren Artxibo Nagusiari, Donostiako eta Bidebarrietako Udal Liburutegiei, Bizkaiko Foru Liburutegiari, Donostiako Koldo Mitxelena Liburutegiari, Sancho el Sabio Liburutegiari, Euskal Herriko Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko liburutegiei, Euskal Herriko, Madrileko eta Bartzelonako Arkitektoen Elkargoetako liburutegiei, bereziki, Bizkaiko Ordezkaritzakoari, baita Kataluniako eta Espainiako Liburutegi Nazionaleri ere, haien laguntzarik gabe lan hau egitea ezinezkoa izango bailitzateke.

Eskerrik asko ere nire familiari eta bikoteari bere sostengua eta animoengatik.

Laburdurak

AAN	Administrazioaren Artxibo Nagusia
BFA	Bizkaiko Foru Artxiboa
EAEHAAN	Euskal Autonomia Erkidegoaren Herri Administrazioaren Artxibo Nagusia
EHAEOA	Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Artxiboa
EUA	Eibarko Udal Artxiboa
GAN	Gipuzkoako Artxibo Nagusia

Sarrera

1972an Italo Calvinok *Le città invisibili* edo *Hiri ikusiezina* izeneko liburua idatzi zuen. Bertan, idazle italiarrak zeharo txikituta geratu zen Armilla hiriaren inguruko deskribapena egiteko, ez zuen kontuan hartu ezagutzen ez zuen gerraosteko Eibar, baina agian bai gerra edo ezbehar baten ostean desagertutako beste hiriren bat. Eta hala Armillak, Gipuzkoako udalerrriak bezala, «*ez du paretarik, ez sabairik, ez zorurik; ez du hiri antzik ematen dion ezer*» (Calvino, 2003: 63).

Armillak ez, baina Eibarrek gerra bukatu osteko ezerezaren gainean bere berreraikuntzari ekin zion. Hasierako urteetan, tokiko erakunde publiko eta ekimen pribatuaren borondateak eta gogoak abian jarri zituzten lan antzuak, pixkanaka, Estatu totalitario berriak berreraikuntza gauzatzeko sortu zuen Regiones Devastadas izeneko erakundeak kontrolatu eta zuzendu zituen¹.

1. Orain arte egin diren Estatuko gerraosteko berreraikuntzaren inguruko lanak, orokorrak edo leku konkretu batzuetakoak izan dira. Manuel Blanco Langeren artikulua eta argitaratu gabeko doktoresia Regiones Devastadas-en lana aztertzen aitzindariak izan ziren, eta horri jarraitu zion 1987an Madrileko *Ministerio de Obras Públicas y Transportes*-ek antolatutako erakusketa eta katalogoak. Bi lanei esker, Regiones Devastadas-ek zuzendu zituen berreraikuntza-lanen inguruko egitekoa lehen aldiz modu orokorrean aztertu zen. Ondorengo urteetan, laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, berreraikuntza-lanen ikerketa monografiko eta sakonagoak egin dira Almeria (Ruiz García), Aragoi (López Gómez, Forcadell Álvarez eta Sabio Alcutén), Gaztela-Mantxa (Almarcha Núñez-Herrador) eta Andaluziako zenbait udalerriren inguruan —Granadako Guadix eta Pitres, Kordobako Espejo eta Jaen— (Rodríguez Domingo, Sorroche Cuerva, Marín Muñoz). Euskal Herriari dagokionez, berreraikuntza-lanen inguruko azterketak Pilar Murrek hasi zituen bere argitaratu gabeko 1979ko lizentziaturako memorian, gaiaren inguruko lehen emaitzak eskainiz. Lana partziala izan eta bukatu gabe geratu zen, ikertzaileak hainbat artxibo kontsultatzeko arazoak izan zituelako. Izan ere, dokumentazioa kontsultatzeko arazoak izan baitira berreraikuntzaren inguruko ikerketak atzeratu dituztenak. 1987an Murrek gaia berreskuratu eta Gernikako berreraikuntzaren inguruan artikulua bat idatzi zuen, Bizkaiko udalerrian lan egin zuten presoengatik Etxaniz eta Palaciok eginiko lana ere aipatzeko dugularik. Enrique Noainek, berriz, Irun aztertu du, Maurice Culot eta Geneviève Mesuretek zuzendutako liburuek ere aipatzen dutena. Ikerketa hauei, azken urteetan, Javier Muñozek egin dituenak gehitu behar zaizkie, Eibarri eta beste zenbait udalerriri erreferentzia egiten diotenak. Ezin ditugu ahaztu, halaber, Eibarko arkitektura aztertu duten beste lan orokorrago batzuk, Euskadiko, Gipuzkoako edo arkitekto konkretu bati erreferentzia egiten diotenak.

Blanco, 1984: 66-71; Blanco, 1985: 38-41; Blanco, 1986; AA.AA., 1987; Ruiz García, 1993; López Gómez, 1989: 27-44; López Gómez, 1995; Forcadell eta Sabio, 2008; Almarcha, 1997; Rodríguez Domingo, 2001: 647-669; Sorroche, 2001: 725-736; Marín Muñoz, 2007; Mur, 1979; Mur, 1987: 12-17; Etxaniz eta Palacio, 2003: 202-217; Noain, 1986: 251-292; Culot eta Mesuret, 1998; Muñoz, 2006a: 33-76; Muñoz, 2006b: 823-830; Muñoz, 2007: 361-397; Muñoz, 2008: 1-20; Muñoz, 2009b: 967-978; Más Serra, 1990; AA.AA., 2004; Apraiz eta Martínez Matía, 2008; Tabuenca, 1989a; Tabuenca, 1989b: 1-12.

Aurreko hiribilduarekin zerikusirik ez zuen hiri-antolaketa berri baten gainean, Regiones Devastadas-ek, Eibarko Udalak, eta beste erakunde askok, ekimen pribatuarekin batera, Eibarrek behar zituen zerbitzu eta azpiegituretako batzuk eraikitzeari ekin zioten. Instituzio publikoek herriaren egitura urbano eta oinarrizko zerbitzu publikoak egin zituzten; ekimen pribatuak, berriz, maiz Estatuak eta udalak aurreikusitako laguntzekin, etxeak eta, batez ere, industriak eraikitzeari ekin zion.

Eibar hazteko lekurik ez zuen industriagune garrantzitsua zen oraindik, askotan, enpresen interesen arabera moldatu zena. Garapen ekonomikoak, halaber, herriaren hazkunde demografiko azpimarragarria ahalbidetu zuen, baita hiriaren garapena zaildu ere. Biztanleriak behar zituen etxeak ez baitziren sekulan nahikoak izan, eta ondorioz, ezta zeuden zerbitzuak ere.

Modu egokian garatzeko espaziorik ez zuen hazkunde ekonomiko eta demografikoari, gerraosteko krisia eta mota guztietako gabeziak gaineratu zitzaizkion. Ondorioz, 1937an hasi ziren lanak ia hogeitaz luza ziren. Hortaz, urteak aurrera joan ahala, jada egokiak ez ziren eta berritu beharra zuten proiektu eta irizpideen arabera berreraikuntza izan zen.

1957an, Regiones Devastadas desagertu zen, eta harekin Eibarren berreraikuntza-lanak bukatutzat eman ziren; nahiz eta aurreikusitako obra asko egin barik geratu ziren. Beraz, hiriaren arazoak berdina izateaz gain, hazkundeak eraginda, areagotu ziren. Horrela, espazio, etxe, zerbitzu eta komunikazio egokien beharra eta industriaren gehiegizko saturazioa izan ziren hiribildu berriak izan zituen ezaugarriak.

Halere, errautsetatik kementsu birsortzea ahalbidetu zuen indarrak Gipuzkoako eta Estatuako hiri-industriagune garrantzitsuenetarikoa definitzen lagundu zuen, bizitza, amets eta desio askoren lekuko izan zena, dena eta jarraitzen duena, baina jada pareta, sabai, zoru eta hiri-antz bereizgarri eta propio batekin.

1. Arkitektura eta hiria autarkia-garaian

1.1. HARRIZKO ETA ZEMENTUZKO FALANGISMOA

Gerra Zibilaren ostean, elbarri geratu zen herriaren gainean, indarkeria, beldurra, pertsekuzioa eta zentsura erabili zituen erregimen basatia inposatu zen. Osatzen hasi zen Estatu berriak bere ideiak gizarte-esparru guztietara hedatu zituen: justiziara, ekonomiara, hezkuntzara, erlijiora, bai eta hiria eta arkitektura ulertzeko moduetara ere. Hortaz, falangismoa harrizkoa eta zementuzkoa ere izan zen. Hau da, gerraosteko hirigintza eta arkitekturaren garapena, garai bereko beste Estatu totalitarioen antzekoa izan zen: Alemania nazi, Italia faxista, Portugal salazarista edo behialako Sobiet Batasun estalinistaren parekoa. Erregimen guztiek hiri-espazioa eta arkitektura botere autoritario berriarekin identifikatu nahi izan zituzten, baita, antza, herriaren beharrei erantzuten zieten proiektuak kontrolatu ere.

Espainiako gerraosteko diskurtsoa berreraikuntzan, eta «nazioaren berrezarpenean eta onbideratzean» zentratu zen. Erregimen berriak berreroslea eta etorkizunekoa izan nahi zuen espiritua agertu zuen eta estatu-burua, Francisco Franco jenerala —Hitler, Mussolini, Salazar edo Stalin bezala—, Estatu berriaren arkitekto. Horretarako, ezinbesteko izan zen edozein lan urbanistiko, arkitektoniko, eta artistikoren eszenifikazio propagandistikoa, beste hainbat elementurekin batera, antzestu nahi zen erregimen berria finkatzeko. Horrela, nahiz eta diktaduraren hasierako urteetan nahi baino lan gutxiago burutu, batzuetan irizpide kontrajarri jarraituz, egin ziren proiektu eta bukatutako plan bakanak errentagarri bihurtu ziren prentsan, irratan eta inaugurazioetan izan zuten hedatze mediatiko nabarmenari esker. Betiere, itxuraz, herriak bizi zuen hondamendia sorrarazi zuen aurreko gobernu demokratikoaren kudeaketa kritikatu, eta ezerezetik irteteko eta Inperio berri bat berreraikitze erregimen berriaren gaitasuna goraiatu². Eta hala gertatu zen Eibarren txikizioarekin, edo berreraiki behar izan ziren gainerako herri guztiekin³.

2. “Imperio. ¿Qué sentido tiene para nosotros la palabra IMPERIO?”, *Vértice*, 9, 1938ko apirila, zenbata gabe. Cárdenas, 1941: 155.

3. Horren adibide gisa irakur daitezke: “Ante la ciudad arrasada”, *ABC*, 1937ko maiatzaren 5a, 1. or. “Ofrecimiento al Caudillo del título de primer vizcaíno”, *ABC*, 1950eko ekainaren 20a, 9. or. “La opinión internacional manifiesta unánime indignación contra la salvaje destrucción de Guernica”, *La Vanguardia*, 1937ko apirilaren 29a, 7. or. “Toda Guipúzcoa conquistada”, *La Voz de España*, 1937ko apirilaren 27a, 1. or. “Con la ocupación de Eibar toda la provincia ha quedado liberada”, *El Diario Vasco*, 1937ko apirilaren 27a, 1. or. “Por donde pasó la horda. Irún, Eibar y Elgueta”, *El Diario Vasco*, 1940ko urtarrilaren 31, 1. or.

Estatuak bermatu zituen proiektuetan, aginte totalitario berriak bere burua identifikatzen zuen imajinarekin bat zetorren arkitektura eta hirigintza «nazional» bat babesten saiatu zen. Nahiz eta, halaber, arkitektura eta hirigintza heterogeneoak izan ziren. Halere, ordena berriaren garaipena aurkezten zuen arkitektura eta hirigintza berria, enkarguetan, lehiaketetan, erakusketetan bai eta eraikuntza eta profesioaren monopolizazioan ere definitzen saiatu zen Estatua. Izan ere, hiria eta arkitektura proiektu politiko orokorrako baten parte zirela ulertu zuen Estatuarentzat berebiziko garrantzia izan zuen haiek kontrolatzeak, eta hori izan zen gobernu berriaren asmoa profesioa monopolizatzeko sortu zituen bitarteko guztiak baliatuz, hala nola arkitektura- eta hirigintza-arloko erakunde berriak, profesionalen zigorrak, arkitektoen elkargoen eta geroko arkitektoak trebatzen ziren arkitektura- eskolen kontrola, eta argitalpen profesionalen zuzendaritza eta zentsura. Nahiz eta hiria eta arkitektura berriz definitu zituen kultura ofizialaren usteak, gerraosteko miseriak mugatu zuen.

1.2. ARKITEKTURA ETA HIRIA ESTATU BERRI BATEN ZERBITZURA

1.2.1. Hiri eta arkitektura propio baten definizioa

Erregimen berriarentzat hiria eta arkitektura tresna politikoak izan ziren, eta ondorioz Estatu berriaren konfigurazioan garrantzi handiko elementuak. Ideia hori gerraurreko urteetan garatzen hasi zen Ernesto Giménez Caballero eta beste intelektual batzuen eskutik. Idazle eta agitatzaile politiko eta kultural horrek, *Acción Española* (1931-36) izeneko aldizkarietik eta antzeko argitalpenetatik, ideia faxistak bereganatu eta Mendebaldeko arte eta kulturaren dekadentzia salatu zuen (Giménez Caballero, 2005; 1939 [1932]; 1933; 1935). Haren ordez arte tradizional eta kontserbadore bat defendatu zuen, baita arkitekturaren eta Estatuaren arteko erlazioa hobetsi ere. Hau da, arkitektura borroka politikoaren tresnatzat hartu zuen, eta arkitektoa Estatuaren ideien zerbitzura zegoen soldadutzat, bien arteko lana identifikatuz.

Jarraian, Estatuak kontrolatzen zituen *Arriba* (1935-79) bezalako egunkarietatik, Iruñean argitaratzen zen *Jerarquía* (1937-38) eta Donostian erredakzioa zuen *Vértice* (1937-46) aldizkarietatik, *Escorial* (1940-50), *Arbor* (1944-) eta zenbait arkitektura-buletin lagun (*Reconstrucción* eta *Revista Nacional de Arquitectura* kasu), Espainia berriaren garatu eta ezarri beharreko kultura nazional beraren ikuspegi ia absolutu eta, halaber, mugatua definitu zen. Argitalpenak Estatu totalitarioaren zerbitzura zegoen beste arma bat balira bezala ulertu ziren⁴. Haietan zenbait arkitekto, artista, arte-kritiko, idazle eta politikariek urte batzuk lehenago Giménez Caballerok agertu zituen ideiekin bat zetozenak plazaratu zituzten (Bonet, 1981; Cabrera, 1998; Cirici, 1977; Díaz Sánchez eta Llorente, 2004; Llorente, 1995; Ureña, 1982). Horien guztien iritziz, gerraurreko abangoardiako artea kaotikoa, dekadentea, indibidualista, mekanizatua,

4. “Manifiesto Editorial”, *Escorial*, 1, 1940ko azaroa, 7.-12. or. Aldizkaria Dionisio Ridruejo politikariak eta Pedro Laín Entralgo idazleak zuzendu zuten.

atzerritarra eta gizatasunik, publikorik, historiarik eta errorik gabekoa zen. Horren aurrean, aberriaren zerbitzura zegoen artista/artisau borrokalari eta propagandista bat defendatu zuten, espainiar kultuaren izaera eta tradizioa bilduko lituzkeena, besteak beste, arraza, katolikotasuna eta nahi inperialistak.

Kritikarako lekurik utzi gabe, salbazio, onbideratze eta espiritualitatearen proposamen higieniko bat ari zen definitzen, herria berrerosi eta heztea helburu zuena. Funtsean, dominazio, kontrol, pertsekuzio eta zentsuran oinarritutako gizarte berriarekin bat zetorren arte berria zehazten saiatu ziren.

Arkitekturaren kasuan, espainiar arima eta Estatuaren espiritu eta nahiekin bat zetozen ereduak aldarrikatu zituzten (AA.AA., 1939; Almagro, 1943: 105-156; García Viñolas, 1943: 243; Bidagor, 1944: 8-12; Moya, 1944: 17-22; Camón, 1947: 1-3), desorientaturik omen zeuden garaiko eraikin eta hiri-antolaketari egokia zen norabide bat proposatuz⁵. Baina aurreko urteetan ez bezala, mundutik isolatuta geratu ziren arkitektura eta hirigintza izan ziren. Lagunak ziren erregimen totalitarioak salbu, atzerriko hiri, arkitektura eta eraikuntza-tekniken berritasunak kontuan hartu ez zituztenak.

Profesional batzuek tradizioak erabilitako jarrera eta proposamenak garaiko erronkei aurre egiteko elementu lagungarriak zituzten bitartean (Muguruza, 1940: 13-16); beste batzuentzat «arrazak» historian zehar errepikatutako ezaugarriak abiapuntu, hiria eta arkitektura egiteko estilo bat definitu beharra zegoen. Pedro Bidagor arkitekto donostiarraren hitzetan: «*Lo mismo que nuestro Ejército ha terminado con una invasión política, nosotros, ejército de paz, vamos a terminar con un signo de liberalismo urbano*» (Bidagor, 1939: 57). Eta Víctor d'Ors arkitektoak idatzi:

Esta magna reconstrucción de España que prevemos, tiene que realizarse en un estilo arquitectónico nuevo. A la vez que español y moderno. La vida de nuestros días, nuestra técnica y nuestra misma 'poética' —por decirlo así— de los materiales que empleamos nos conducen a un conjunto de normas en las que debe insuflar las tendencias y características que han sido constantes al traducir al lenguaje de formas español cualquiera de los llamados estilos históricos y que, por lo tanto, revelan la especial idiosincracia del alma nacional (Ors, 1937)⁶.

Eta haren kideak, Diego de Reinak, 1944an argitaratutako *Ensayo sobre las directrices arquitectónicas de un estilo Imperial* izeneko liburu ezagunean gaineratu:

El problema estético de mayor envergadura que el Nuevo Estado nos plantea a los arquitectos españoles, es la necesidad de encontrar una plástica que sea digna de exponer los ideales patrios con majestuosa severidad y estática grandeza. Todas las demás cuestiones de índole artística, matemática o constructiva, pierden importancia

5. Laviada, M.; Moya, L. eta Uzqueta, Vizconde de (1940): "Sueño arquitectónico para una exaltación nacional", *Vértice*, 34, 1940ko iraila, zenbatu gabe. Erreproduzitua: Urrutia, 2002: 243.

6. Azpimarraketa gurea da.

ante aquella, no admitiendo siquiera comparación la magnitud filosófica necesaria para resolver las dificultades que las últimas puedan plantearnos, con la precisa para valorar justificadamente los elementos componentes de una nueva arquitectura nacional (Reina, 1944: 122)⁷.

Jarraian, arkitektura eta hirigintza espainiarraren konstanteak biltzen zituen eredia eta izaera nazionalekoak omen ziren balio espiritual, kultural eta estilistikoak baieztatzen zituzten formak proposatu ziren, hau da, herri-arkitektura, baina nagusiki Escorial eta haren eragin klasizistak, hispaniar neoklasizismora arte heltzen zirenak. Hortaz, Giménez Caballerok aurreratutako ideiak bereganatu zituzten berriz ere, zehazkiago Filipe II.aren garaiko eraikina espainiar jenioaren eredu eta Estatua lortzeko arte gisa aurkeztu zuena⁸. Izan ere, erregimen berriak tradizioaren eta Espainiako historiaren garairik handiosenaren, Filipe II.aren inperioaren, ondorengo gisa ulertu zuen bere burua, eta hura berrezartzen saiatu zen, baita arkitekturaren eta hirigintzaren erabilerarekin ere (1. eta 2. ird.).



1. irudia. Eibarko eraikin baten egoera gerra ostean.

Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 11.006. HIF.

7. Azpimarraketa gurea da.

8. Gainera Escorialekiko interesa hainbat liburu eta artikuluren argitalpenak lagundu zuen. Besteak beste: Ruiz de Arcaute, 1936; Mélida, 1940; Íñiguez, 1948: 221-336; López Serrano, 1944; Serrano Plaja, 1944; Comas, 1946; Portabales, 1945.



2. irudia. Eibarko San Andres elizaren egoitza erakin berria.

Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 14.001. HIF.

Hala deskribatu zuen Luis Gutiérrez Soto arkitektoak gerra bukatzean profesioak hartu zuen norabidea:

Durante los tres años de duración del nuestro Movimiento Nacional, este sentimiento nacionalista fue incrementándose, hasta culminar en la más bella exaltación de nuestros sentimientos históricos y tradicionales. En la guerra volvimos a conocer nuevamente España, en sus campos de batalla, en el andar de sus caminos, en el dramatismo y belleza de sus pueblos y de sus iglesias castellanas, y sentimos más que nunca todo el peso y la gloria de una tradición y de una historia que, por desgracia, casi habíamos olvidado.

Lógicamente, al fin de nuestra guerra, a la hora de la reconstrucción, este sentimiento nacionalista y tradicionalista se impuso a toda otra consideración; dos tendencias marcan este periodo, una se apoya en las tradiciones populares regionales, en la

reconstrucción de pueblos destruidos, y otra, que inspirándose en la arquitectura de los Austrias y de Villanueva, y en El Escorial como precursor de la sencillez, ha de marcar el camino de una arquitectura estatal netamente española, expresión exacta del sentimiento espiritual y político de la nación. Por eso volvimos a revivir las frías y pétreas portadas herreritas y las torres y tejados de pizarra de traza escurialense, y las plazas porticadas como en el siglo XVIII y los escudos con águilas, yugos y flechas, y nuevamente, como Villanueva en el siglo XVIII, nuestra arquitectura vuelve a ser española y madrileña, con un rotundo mensaje del ladrillo, el granito y la piedra de Colmenar; porque a fuerza de sinceros, sentimos como un poder obsesionante de hacer una arquitectura ‘Así’, a la española, en abierto contraste con aquella otra que nuestros sentimientos, quizás equivocadamente, consideraron falsa y apátrida⁹.

Besteak beste, César Cort, Víctor d’Ors, Pedro Bidagor, Diego de la Reina eta Fernando Chueca definitzen saiatu ziren Estatu berriak bereak egin behar zituen hiri eta eraikin espainiarren betiereko ezaugarriak¹⁰. Egitura urbanoan Errenazimentuko plaza nagusi espainiarra nabarmendu zuten, Estatuaren botere guztiak agertzeko lekuri egokiena zelakoan: udaletxea, Falangeren etxea eta eliza: «*Digna trilogía, en lo espiritual, político y administrativo. Estos tres órdenes siempre enlazados: Estado, Iglesia, Movimiento se ligarán en esta Plaza*» (Pineda, 1940: 8-15). (3., 4. eta 5. ird.). Beste Estatu totalitarioen ideiekin bat eginez, kirolerako lekuak ere garrantzizko lekua izan zuen.

Arkitekturan, berriz, aurreko urteetan jada definituta zegoen erregionalismoarekin batera, klasizismo berri bat definitu zuten: modu simetrikoak, ordena hierarkikoak, lerro zuzenak, artisau-materialen erabilera edo imitazioa, eta errepertorio apaingarri bereizgarri bat: frontoi, moldura, Escorialean oinarritutako pinakuluak, arbelezko teilatuak, eta abar. Hots, garai hartako hiriguneetan gero eta ohikoagoak izan ziren elementuak.

9. «*Pero como todos movimientos de exaltación, hoy remitida la fiebre y pasado el ambiente que lo creó, es posible pensar que quizá fuimos demasiado lejos dejándonos llevar de nuestros sentimientos; pero, equivocados o no, esa arquitectura ahí está y ahí quedará, para que la historia la juzgue, porque el gran milagro de la arquitectura es poder explicar, mediante su propio lenguaje, las más recónditas pulsaciones del clima humano, asentado sobre el suelo, sus testimonios sólidos y elocuentes*». Juan Daniel Fullaondori egindako deklarazioak eta hurrengo liburuan bilduak: *La obra de Luis Gutiérrez Soto*, COAM, Madril, 1978, 24. or.

10. Ors, V. d’, “Confesiones de un arquitecto”, *Fe*, cfr. Bonet, 1981: 50; Reina, 1944: 14-15; Chueca, 1981 (1947); Bidagor, 1939: 57-62; Cort, 1941; Ors, V. d’, 1941: 51-65.



3. irudia. Dirección General de Regiones Devastadas-en kartela.
Ministerio de Educación Cultural y Deporte (MECD), Archivo General de la Administración (AGA), Obras Públicas, signatura F-04264-022-01.



4. irudia. Gernikako Foruen Plaza berria.
Reconstrucción aldizkarian argitaratua, 1945eko abuztua-iraila.



5. irudia. Gernikako Foruen Plaza berria.
MECD, AGA, Obras Públicas, signatura F-04244-030-01.

Arkitektura eta hirigintza ofiziala, gerraurreko urteetan garatu eta orokortu zen hirigintza liberal eta arkitektura arrazionalistaren kontrako kritikekin lagundu zen¹¹, jada Alemanian, Italian eta Portugalen ere egin zituztenak¹². Izan ere, Espainiak Alemania, Italia eta Portugaleko erregimenekin zuen afinitate ideologikoak bat egin zuen ere hiria eta arkitektura ulertzeko moduetan. Modu horretan, 1939tik aurrera atzerriko hirigintza eta arkitekturaren inguruko aipamen ia bakarrek Berlinen (Bidagor, 1941: 2-25; Lotz, 1943: 7-12), Erroman¹³ edo Lisboan¹⁴ egiten ziren proposamenei egiten zieten erreferentzia eta ez arras ezagunak ziren Alvar Aalto, Le Corbusier, Ludwig Mies edo Frank Lloyd Wright-en lanei.

11. Giménez Caballero, 1935: 53 eta hur.; Moya, Luis, “Sueño arquitectónico para una exaltación nacional”, opus cit.; Palacios, 1945: 405-415 (Instituto de España delakoan 1940ko urtarrilaren 6an irakurritako diskurtsoa Juan de Villanuevaren II. urteurrenaren omenez); Oors, E. d’, 1944: 365-370; REINA, 1944: 13; Muguruza, 1940: 15.

12. Álvarez de Miranda, 1945: 1-43; Reina, 1944: 59-81.

13. Morales y Fraile, 1939; “Exposición de Roma de 1942”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **4**, 1941, 51-57; Piacentini, 1942: 1-6; Ballio, 1942: 7-13; Guidi, 1943: 343-348; “La avenida de la Conciliación, en Roma”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **82**, 1948ko urria, 386-92; Giménez Caballero, 1939.

14. “Pasisagem e monumentos de Portugal”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **8**, 1942, 48-50; “Sección extranjera. Construcción de habitaciones obreras en Portugal y la política social del nuevo Estado”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **28**, 1944ko apirila, 152-156.

Hortaz ez da harritzekoa 1941eko azaroa eta 1942ko urria bitartean Lisboan, Madrilan eta Bartzelonan «Neue Deutsche Baukunst» (Arkitektura alemaniar berria) izeneko erakusketa antolatu izana. Bertan arkitektura-proposamen nagusiki klasiko, eta hirigintza- eta ingeniari-tza-lanak erakutsi ziren katalogoa eta hitzaldiak lagun¹⁵. Wilhelm Kreis eta Rudolf Wolters arkitektoek, Albert Speeren subordinatuak¹⁶, etxebizitza eta ingeniari-tzarekin batera (zubiak eta autopistak), hirigintza izan zuten mintzagai: gune historikoen erreforma eta espazio publikoaren definizioa eraikin monumentalez inguratutako plazekin eta ordena berria agerian utzi nahi zuten manifestazioetarako egokiak ziren kale zabalekin. Urte bat geroago, 1943an, Paul Bonatz arkitekto germaniarrak Madrilan ere eman zuen hitzaldian, sustrai nazionalak bilatzeari erreferentzia egin zion (Bonatz, 1943a: 390-397; 1943b: 398-400).

Baina Espainiako erregimenak erabili zituen hiria eta arkitektura ulertzeko moduak propioak balira bezala aurkeztu nahi zituen, eta ez kanpoko ideien menpe zeuden planteamenduak balira bezala. Horregatik, Alemaniako erakusketarekin batera, «Exposición de Arquitectura Española» izeneko beste bat antolatu zen Madrilan¹⁷. Filipe III.aren garaian eraikitako Santa Cruz Jauregiaren berritzea (Muguruza, 1942b: 44-47), arrantzaleentzako etxeak¹⁸, Zaragozako Pilar aurreko enparantzaren urbanizazioa¹⁹, edo Valle de los Caídos²⁰ moduko proiektuen aurkezpenekin. Alegia, arkitektura espainiarraren izaera espezifiko nabarmendu nahi zuten obrek.

Escorial berria, Valle de los Caídos (1940-58), santutegi katoliko, monasterio eta kuartela, Estatuak enkargatu zituen beste lan batzuekin batera, hala nola Aire Ministerioa (1939-54) (6. ird.) edo Gijoneko Lan Unibertsitatea (1946-65), erregimen berriak arkitektura ofizial bat definitzeko egin zuen saiakeraren adibide izan daitezke. Madrilan Aire Ministerioaren egoitza berria egin zuen Luis Gutiérrez Soto arkitektoaren esanetan: «*El valor representativo del edificio era para*

15. “La exposición de Arquitectura Moderna alemana”, *La Gaceta del Norte*, 1942ko maiatzaren 8a, 1. or.; “El Caudillo inauguró ayer una Exposición de Arquitectura española y otra de Arquitectura moderna alemana”, *La Gaceta del Norte*, 1942ko maiatzaren 7a, 1. eta 5. or.; Lindscheidt, 1942: 337-342.

16. Albert Speer Lisboako erakusketaren inaugurazioan egon zen eta bertan hasi zuen Escorialera eroan zuen bidaia. Eraikinaren zurruntasunak erakarri zuen arkitektoa, antza, ordura arte jarraitu zuen arkitekturaren gehiegikeriaren akatsez jabetu zelarik. Speer, 2002 (1969): 342.

17. “Exposición de trabajos en la Dirección General de Arquitectura”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **10-11**, 1942, 3. or.


18. Muguruza, 1942: 4-7; Miguel, 1942: 8-11; “Anteproyecto de poblado de pescadores”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **11-12**, 1942, 12-15; “Mejoramiento de la vivienda en el poblado de pescadores”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **11-12**, 1942, 16-17. Beste proiektu batzuk aldizkari bereko 1943ko irail-urriko 21-22 zenbakian agertu ziren.

19. “Plaza de Catedrales en Zaragoza”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **11-12**, 1942, 32-37; Borobio, 1941: 39-46.

20. Muguruza, Oyarzábal eta Muñoz Salvador, 1942: 55-63.orr. “Concurso de anteproyectos para una gran cruz monumental. Convocado por el Patronato del Monumento Nacional a los Caídos”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **18-19**, 1943ko ekaina-uztaila, 244-75.

*mi tan importante que a ello supedité otras consideraciones»*²¹. Eta Luis Moyak bere gerraosteko eraikin esan-guratsuenari erreferentzia egin zioenean, Gijoneko Unibertsitateari, zera esan zuen:

El error básico hubiese sido hacer una arquitectura moderna pero con medios del siglo XIII, porque no teníamos ni hormigón ni hierro. Está hecha igual que El Escorial, porque no teníamos otros materiales que la piedra. Era más barato incluso que el ladrillo, porque el ladrillo había que cocerlo y se necesitaba carbón. La piedra no había más que sacarla de allí con explosivos, que sí teníamos. Se hicieron bóvedas por todas partes, porque no teníamos hormigón para hacer forjados planos²².



6. irudia. Luis Gutiérrez Soto. 1939- 1954. Aire Ministerioa. Madril.
Revista Nacional de Arquitectura aldizkarian argitaratua, 1943ko abuztua.

Nahiz eta Estatu Espainia berriarekin bat etorri nahi zuten hiria eta arkitektura definitzen eta kontrolatzen saiatu zen, hirigintzak eta arkitekturak jorratu zuten bidea, halabeharrez, heterogeneoa izan zen eta ordura arte garatu ziren bide ezberdinak egon ziren presente.

Hirigintzaren kasuan, Pedro Bidagorrek gerraurreko arrazionalismoarekin bat egiten zuten eskala urbanoko zenbait antolaketa proiektatu zituen. Metropolitarra, Madrilera (1941) edo Bilboko (1943) Hiri Antolatze Planean egin zuten bezala, eta probintziala, Gipuzkoako Probintzia Antolatze Planean egin zuten moduan

21. "Sesiones de crítica de arquitectura. El Ministerio del Aire", *Revista Nacional de Arquitectura*, 112, 1951, 41. or. Erreproduzitua: Sáenz de Oiza, 2006: 13. Azpimarraketa gurea da.

22. Luis Moyak Ángel Urrutiari Madrilera eginiko deklarazioak 1979ko apirilaren 20an. Urrutia, 2002: 247. 1948an hasi zen proiektuan parte hartu zuten ere Ramiro Moya Blancok, aurrekoaren anaiak, Enrique Huidobro Pardok eta Pedro Rodríguez Alonso de la Puenteak.

(1942)²³. Planak hiria gailendu eta udalerrri bakoitzaren arazoak, beharrak eta soluzioak (etxebizitza, industria, aisia, zirkulazioa, etab.), eskala ezberdinetan baina elkarrekin eta denbora-tarte batean ulertzen zituzten antolaketa funtzionalak ziren. Baina paperean gelditu ziren proposamenak izan ziren, hiriek aurreko urteetako dinamika urbanoarekin jarraitu baitzuten. Hiri-funtzioen zonifikazioa (industria, etxebizitza, zirkulazioa, eta espazio berdeena) izan zen aplikatu zen gerraurreko ideia funtzionala bat, nagusiki planta berriko udalerrri edo, Eibar bezala, parte handi batean berreraiki behar izan ziren horietan.

Arkitekturari dagokionez, arrazionalismoak hirietako zenbait etxebizitzatan eta proiektu funtzionaletan jarraitu zuen. Erregimenak nahiago izan zuen gomutatze inperialistako arkitektura akademizista, aldiz, eraikin ofizialetan nagusiki, eta herri-tradizio edo erregionalismoarekin bat egiten zuena landaguneetan edo guneez hain urbanoetan. Emaizta, egitura urbano tradizional baten gainean, jada ezaguna zen erreperitorio formal bat azaleko modu batean erabiltzen zuen eklektizismoa izan zen.

Baina Estatuaren berreraikuntza eta eraikuntzan ezin izan zuten parte hartu hil, erail, erbesteratu edo erregimen berriak zigortu zituen profesionalak. Gainera, gobernuak hiria eta arkitektura kontrolatzeko hainbat erakunde sortu zituen, arkitektoen trebakuntza, argitalpenak eta bizitza profesionala fiskalizatuz. Izan ere, gerraostean txikituta geratu zen Estatuaren berreraikuntza materiala izatearekin batera, morala ere izan zen:

El problema de construir los pueblos no es solamente de índole material; es también de índole moral; es necesario reconstruirlos dotándolos de una adecuada educación social, problema que no podemos soslayar, pues de poco serviría construir pueblos nuevos si no lográsemos crear un nuevo espíritu de convivencia social en aquellos españoles que van a ser sus habitantes (Moreno Torres, 1941b: 6).

1.2.2. Arkitektura eta hiria zigortu, zelatatu eta kontrolatu

1.2.2.1. Erakunde berrien sorrera

Hiria eta arkitektura bere proiektu politikoaren elementu bat gehiago balira bezala ulertu zuen Estatuak, eta profesioa zenbait erakunderen bitartez nahi izan zuen kontrolatu. Hala azaldu zen Arkitektoen I. Biltzar Nazionalan, Falangeko Arkitektura zerbitzuak 1939ko ekainaren 26-29 bitartean Madrilen antolatu zuena. Helburua erregimen berrian arkitektoak izango zuen papera zehaztea izan zen, eta bertan, ez kasualitatez, ondorengo urteetan sortu ziren erakundeetan kargu nagusiak izan zituzten profesionalak bildu ziren, besteak beste, Pedro Bidagor, Carlos de Miguel, José Fonseca eta Pedro Muguruza elgoibartarra, baina baita urte haietako

23. "Plan de Ordenación de la Provincia de Guipúzcoa", *Revista Nacional de Arquitectura*, **16-17**, 1943ko apirila-maiatza. "Decreto de 25 de enero de 1944 por el que se crea la Comisión Provincial del Plan de Ordenación de Guipúzcoa", *Boletín Oficial del Estado*, **110**, 1946ko apirilaren 20a, 1.181-1.182.

arkitekturaren garapenean nabarmendu ziren Víctor d'Ors, Luis Gutierrez Soto eta Eugenio Maria de Aguinaga donostiarra²⁴.

Muguruzak Espainia berria sustraietatik berreraikitzearen garrantzia azpimarratu zuen, eta horretarako lan koherente bat bideratu, eta profesioa diziplinaz eta modu hierarkikoan antolatuko lukeen estatu-organismo baten beharra aldarrikatu zuen. Modu horretan, Jainkoaren eta Espainiaren zerbitzuan, eta estatu-buruarengan fedea izango lukeen arkitekto-urbanisten anaitasun eta milizia baten esku egongo litzateke herriaren erregenerazioa, zeinak batasuna, handitasuna eta askatasuna lortuko lituzkeen. Funtsean, Muguruza Falangeren proiektu politikoaren mesedetan ari zen jartzen arkitektura.

En un momento en que la Política [jarraitzen zuen esaten Muguruzak] (...) está marcando unos nuevos derroteros perfectamente definidos, es necesarios que los técnicos, todos, absolutamente todos, se definan y sitúen con una claridad absoluta ante la Política, de la que han de ser en unos momentos orientadores, y en otros servidores fieles, (...) para marcar el cauce, el camino a seguir para un mejor resultado, en el bien nacional (Muguruza, 1939: 5-6).

Handik gutxira, 1939ko irailean, Gobernazio Ministerioaren baitan *Dirección General de Arquitectura* (DGA) edo Arkitektura Zuzendaritza Nagusia sortu zen Muguruzaren zuzendaritzapean, Pedro Bidagorrek hirigintza-sekzioaren ardura izan zuelarik²⁵. Erakunde berriaren helburua hau zen: «*Ordenar la vida material del país con arreglo a los nuevos principios*», zeren eta

(...) la importancia representativa que tienen las obras de Arquitectura como expresión de la fuerza y la misión del Estado en época determinada, inducen a reunir y ordenas las diversas manifestaciones profesionales de la Arquitectura en una dirección al servicio de los fines públicos²⁶.

DGAren egitekoa arkitekto eta laguntzaile teknikoen lana antolatzea eta zuzentzea zen, berreraikuntza arkitektura- eta hirigintza-irizpide bateratu baten arabera gauzatzeko. Baina DGAK ezin izan zuen hainbat erakunderen esku zegoen Estatu osoko arkitekturaren eta hirigintzaren garapena kontrolatu. Izan ere, arkitektura eta hiria, besteak beste, hurrengo instituzioen menpe zeuden ere: *Dirección General de Regiones Devastadas*, *Dirección General de Bellas Artes*, *Instituto Nacional de la Vivienda* (INV), *Obra Sindical del Hogar y Arquitectura* (OSH), *Instituto Nacional de Colonización* (INC), *Patronato Nacional Antituberculoso* (PNA),

24. Biltzarrean egon ziren ere: Gaspar Blein, Cabello, Cantó y Casés, César Cort, Miguel Ángel Esteve, González del Valle, Valentín Lavín, Esteban de la Mora eta Luis Pérez Mínguez.

25. “Decreto de 23 de septiembre de 1939 por la que se crea la Dirección General de Arquitectura y funciones que le corresponden”, *Boletín de la Dirección General de Arquitectura*, **43-44**, 1943ko otsailaren 1-28a, 8.-9. or. “Decreto de 23 de septiembre de 1939. Nombrando al arquitecto Don Pedro Muguruza Otaño Director General de Arquitectura”, *Boletín de la Dirección General de Arquitectura*, **11-12**, 1941eko urriaren 1-31, 3. or.

26. “Ley creando la Dirección General de Arquitectura”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **1**, 1941, 2. or. Azpimarraketa gurea da.

edo *Instituto Nacional de Previsión* (INP). Bakoitza, beren arteko koordinaziorik gabe, irizpide ezberdinei eta batzuetan kontrajarri jarraituz, esparru ezberdinetan (berreraikuntzan, kontserbazioan, etxebizitzan, kolonizazioan eta osasunean) aritu zen. Gainera, batzuetan tokian tokiko erakundeek beren bide propioari ekin zioten, Eibarko Udalarekin gertatu zen bezala.

Osasunarekin, berreraikuntzarekin eta ondarearen kontserbazioarekin erlazioa zuten erakundeak izan ziren sortzen aurrenak, gudan bertan, nahiz eta haien antolakuntza eta eraginkortasuna gerra bukatzean nabarmendu zen. 1938ko urtarrilaren 30ean, *Servicio Nacional de Regiones Devastadas* delakoa sortu zen²⁷, eta urte bereko urtarrilaren 11n *Servicio Nacional de Bellas Artes*. 1939ko abuztuaren 8tik aurrera berreraikuntzaz arduratzen zen instituzioak *Dirección General de Regiones Devastadas y Reparaciones* izena hartu, eta 1941etik aurrera arte ederretakoak *Dirección General de Bellas Artes*. Bi erakundeek, 1937tik aurrera modu isolatu eta partzialean hasi zituzten berreraikuntza- eta kontserbazio-lanak, politika koherente eta orokor baten arabera antolatzea izan zuten helburu.

Regiones Devastadas-eko arduretako bat etxebizitzak eraikitzea izan zen, 1939ko apirilaren 14ko Etxebizitza Babestuen Legea garatu eta INV eta OSH erakundeen bidez artikulatu zena. 1939an sortu zen INVk legeak ematen zituen laguntzak kudeatzeko, eta 1941ean sortu zen OSHk etxebizitza babestuak eraikitzeko.

Etxebizitzarekin batera, osasuna erregimen berriaren ardura nagusietako bat izan zen. Etxearen hobekuntza osasunarekin baitzegoen erlazionatua. Hasieran 1936ko abenduaren 20an sortu zen PNAren egitekoa garaiko gaixotasun larrienaren, hots, tuberkulosiaren heriotza-tasa jaitea izan zen hainbat erietxe eraikiz. Eta arazoa arintzen joan zen heinean, 1948tik aurrera, INPtik, jada 1908tik existitzen zena, ospitaleak eta anbulatorioak eraikitzen hasi ziren, ondorengo gizarte-segurantzaren oinarriak jarri zituen asistentzia-sistema sortuz. Azkenik, INCK, 1939ko urriaren 18an sortua, ureztatze, partzelazio eta herri berrien eraikuntzarekin, landa-munduaren ustiapena bermatu nahi izan zuen.

Hortaz, DGAren egiteko nagusiak, nahi baino mugatuagoak izan ziren: profesionalak arkitektoen elkargo ofizialen, irakaskuntzaren eta argitalpen profesionalen bidez kontrolatzea eta zigortzea, baita garaiko eraikuntza-egoera kaskarra erregulatzen saiatzea.

1.2.2.2. *Erbestea eta zigorra heriotzaren ostean*

Gerratik sortu zen Estatuan ezin izan zuten parte hartu hil, erbesteratu edo aurreko erregimen demokratikorekin kolaboratu zuten eta zigortuak izan ziren

27. "Ley organizando la Administración Central del Estado", *Boletín Oficial del Estado*, **467**, 1938ko urtarrilare 31, 5.514-5.515. "Decreto nombrando Jefe del Servicio Nacional de Regiones Devastadas y Reparaciones a don Joaquín Benjumea Burín", *Boletín Oficial del Estado*, **549**, 1938ko apirilaren 23a, 6.920. or.

profesionalak. Izan ere, heriotza, erbestea, kartzela, lan bortxatuak, depurazioak, zentsura eta edozein hirigintza- eta arkitektura-proiekturen kontrola izan ziren Estatu berriaren errepresio-, baztertzeko- eta berrezitze-neurriak, bai eta garaipen militarra goraiatzeko, disidentzia baztertzeko eta izututa zegoen gizartea kontrolatzeko, «onbideratzeko» eta antolatze modua ere.

Prozesu horren pilareetako bat ehun bat arkitekto eta arkitektura-ikasleren heriotza izan zen, baita eraikuntzarekin erlazioa zuten hamaika pertsonarena ere²⁸. Gainera profesional ugari, batez ere botere errepublikanoarekin konprometituak eta beren burua arriskuan ikusi zuten berrogeita hamar bat arkitekto erbesteratu ziren. Asko Frantziara joan ziren, eta Bigarren Mundu Gerraren ostean, nagusiki Amerikara eta, gutxi batzuk, Europako beste herrialdeetara. Mexiko, Venezuela eta Txile izan ziren profesional gehienak hartu zituztenak. Hala gertatu zen Urbano de Manchobas Careagarekin, 1926az geroztik Eibarko udal-arkitektoa eta EAJko militantea izan zenarekin. Ermuan 1887an jaio eta Madrileko Arkitektura eskolan 1912an titulatu zen, Ziburun eta Anberesen egon ostean, 1939an Caracasen ezarri zen arkitekto-lanetan 1968an hil zen arte (AA.AA., 2007a: 168). Hain zuzen ere Toribio Echevarria idazle, politikari eta sindikalista sozialista eibartarra hil zen urte eta hiri berean²⁹.

Erbesteratu ziren arkitektoek, geratu ziren beste profesionalek bezala, Estatuak hasitako arazketa politiko-soziala jasan zuten. Alegia, erregimen berriaren errepresio-bidea, 1939ko otsailaren 9ko *Ley de Responsabilidades Políticas* izeneko legeak artikulatu zuena. Legearen helburua «erruak garbituz» aberriaren berreraikuntza espiritual eta materiala izan zen³⁰. Horretarako, gerra bukatzean, 1939ko uztailan, profesional bakoitzaren jokabidea aztertzen hasi ziren, hasieran arkitekto elkargo bakoitzak, eta 1940ko otsailaren 24tik aurrera, DGAREN agindua betez, Madrilan egoitza zuen *Junta Superior de Depuración de Arquitectos* izeneko erakunderen bitartez³¹. Ezarri berri zen erregimenaren kontra agertu zirenei 1942ko otsailerako jarri zizkieten zigor ohikoenak ekonomikoak eta kargu publikoetan gaitasungabetzea izan ziren, ez baitzituzten pertsona egokiak kontsideratzen halako lanetan jarduteko. Zigorren helburu nagusia doktrinamendu politikoa eta soziala izan

28. Balldellou, 1995: 16. “Arquitectos caídos por Dios y por España”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **1**, 1941, 4-13.

29. Bere erbesteratzearen testigantza utzi zuen hurrengo liburuetan: Echevarria, 1992 (1941); Echevarria, 1990 (1968); *Indalecio Prieto. Toribio Echevarría. Espistolario 1941-1946*, Eibarko Udala. Ego Ibarra, Donostia, 1991.

30. “Ley de Responsabilidades Políticas”, *Boletín Oficial del Estado*, **44**, 1939ko otsailaren 13a, 824-847.

31. 1939ko abenduaren 5ean sinatutako informea. AAN. 8. 51/18959. Hurrengo testua da: «Orden dictando normas par la depuración de la conducta política y social de los Arquitectos», *Boletín Oficial del Estado*, **59**, 1940ko otsailaren 28a, 1455-1457. Erreproduzitua: “Disposiciones de la Dirección General de Arquitectura aprobadas durante el años 1940”, *Boletín de la Dirección General de Arquitectura*, **1**, 1941eko maiatzaren 1-15a, 8-12, eta Díaz Langa, 1977: 43-49.

zen, eskarmentua³². Horregatik zigorrik gogorrenak agian erbestera joan zirenei jarri zizkieten, eta hala Urbano de Manchobas, beste hainbat lankide bezala, profesiotik behin betiko baztertu zuten³³.

1.2.2.3. Profesioa kontrolatzeko beste bitartekari batzuk: irakaskuntza eta argitalpenak

DGA profesionalen trebakuntza, aldizkariak eta elkargoak kontrolatzen saiatu zen ere. Modu horretan, Madrileko eta Bartzelonako arkitektura-eskolak DGAREN menpe geratu ziren, eta hango irakasleak depuratu ostean, arkitektura-kultura ofiziala sustatu zutenekin ordezkatu zuten. Pedro Muguruza bera Madrileko arkitektura-eskolako katedraduna izan zen. Estatuko hiriburuaren kasuan, eskolaren eraikina, gainera, bermatu nahi izan zituzten forma klasikoaren arabera berreraiki zen 1943an³⁴ (7. ird.). Ondorioz, arkitektura-eskoletan ez zen arkitekto modernoekin berri eman; Bartzelonakoan ikasi zuen Antoni Moragasek gogoratzen zuen bezala, Wrighten izena ez zuela 1949 arte publikoki entzun³⁵.

Beste hainbeste gertatu zen eskoletako, elkargoetako edo arkitektoen estudioetara heltzen ziren aldizkari profesionalekin. Izan ere, kanpoko argitalpenen presentzia ezohikoa izan zen, eta bertoko publikazio gehienak Estatuak kontrolatzen zituen bere ideiak agertuz, kritika eta eztabaidari lekurik utzi gabe.

1940ko apirilean, Regiones Devastadas-eko propaganda tresna gisa, jaio zen *Reconstrucción* (1940-56) aldizkaria izan zen lehena³⁶ (8. ird.). Urte bat geroago DGAREN zuzendaritzapean agertu ziren *Revista Nacional de Arquitectura* (RNA) (1941-1958) eta *Boletín de la Dirección General de Arquitectura* (1941-44), 1946az geroztik *Boletín de Información de la Dirección General de Arquitectura* izena hartu zuena. Hasierako urteetan buletinak ekimen konkretu zein legalen inguruko izaera informatiboa zuen, eta RNA, berriz, informazio orokorra emanez, garaiko arkitektura argitaratuaren erreferente nagusia izan zen.


32. *Informe justificativo del criterio seguido por la Junta Superior de Depuración de Arquitectos en el desarrollo de la labor que la fue encomendada*, Madril, 1941eko uztaila. AAN. 8. 5/18959.

33. *Relación de Arquitectos depurados pertenecientes al Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro*. Datarik gabeko dokumentua, 1942ko apirilaren 9a baino beranduagoa. AAN. 8. 5/18959. Beste zigor batzuk publikoki agertu zituzten: «Orden por la que se imponen las sanciones que se indican a los Arquitectos que se mencionan», *Boletín Oficial del Estado*, **198**, 1942ko uztailaren 17a, 5.529-5.530. «Orden de Gobernación de 9 de julio de 1942, por la que se impone las sanciones que se indican a los arquitectos que se mencionan con motivo de su depuración político-social», *Boletín de la Dirección General de Arquitectura*, **29-30**, 1942ko uztailaren 1-31, 18-20.

34. López otero, 1943: 296-300; Sainz de los Terreros, 1944: 197-200; «Trabajos realizados por lo alumnos de primer años de la Escuela Superior de Arquitectura de Madrid en la clase de `Detalles y conjuntos arquitectónicos y sus aplicaciones a la composición ornamental'», *Revista Nacional de Arquitectura*, **34**, 1944ko urria, 372-378.

35. Moragas Gallisá, A. de (1962): «Los diez años del Grupo R», *Hogar y Arquitectura*, **39**, 1962ko martxo-apirila, 16-27; berriz editatua: Urrutia, opus cit., 287-299.

36. Aldizkaria Donostiako Librería Internacional liburu-dendan saltzen zen.



7. irudia. Pascual Bravo. 1941- 1943. Madrileko Goi Arkitektura Eskola.
Revista Nacional de Arquitectura aldizkarian argitaratua, 1943ko abuztua.



8. irudia. *Reconstrucción* aldizkaria.
 MECD, AGA, Obras Públicas, signatura F-04264-026-01.

Urte horietan kaleratu ziren beste buletin batzuk. Madrileko *Obras* eta *Cortijos y Rascacielos*, gerrarekin beren lana eten ostean, 1943 eta 1944an berriz ere agertu ziren, baina ez aurreko urteetan izan zuten garrantziarekin. Eta Bartzelonan Katalunia eta Balearretako Arkitektoen Elkargo Ofizialaren *Cuadernos de Arquitectura* (1944-70) gero eta gehiago nabarmentzen zen bitartean, Euskal Herrian ez zen errepublika-garaiko argitalpen-bizitasunaren parekorik izan, eta egunkariak izan ziren bertoko hiria eta arkitektura komentatu zituzten bakarrak, baina egunkari nazionalista eta ezkertiarren ahotsa isilaraziz, eta horien ordeztu erregimenaren propagandaren zerbitzura zeuden egunkari falangistak irekiz eta bermatuz. Gipuzkoan, Eibarren berreraikuntzaren berri eman zuten *El Diario Vasco*, eta gerraostean jaio ziren *Domingo: semanario nacional* eta *La Voz de España* horren adibideak dira.

1.3. GERRAOSTEKO ERAIKUNTZA-ARAZOAK

DGAren beste egiteetako bat garaiko eraikuntza-krisiaren aurrean neurriak hartzea izan zen. Berreraikuntza- eta eraikuntza-lanak giza baliabide eta baliabide ekonomiko eta material egokirik gabe burutu behar izan ziren, Estatu nazionalistaren ideologia ekonomiko autarkikoak areagotu zuen krisi ekonomiko larri baten testuinguruan. Ondorioz, eraikuntzaren industria gelditu zen eta, Eibarko berreraikuntzan gertatu zen moduan, burutu ziren proiektu bakanetan urteetako atzerapenak eta, batzuetan, kalitate gutxiagoko lanak ohikoak izan ziren, lanak bertan behera geratu ez zirenean, baita mota guztietako laguntzak izan zituzten proiektuetan ere.

Hasierako urteetan ez zen dirurik izan eta ekonomiaren prozesu inflazionistak eta monetaren ezegonkortasunak kredituak lortzea zaildu zuten promotore, eraikitzaile eta familien artean. Hori zela-eta, lan asko ez ziren ordaindu. Egoera horren aurrean, hainbat kontratistak instituzioek egindako proiektuetan parterik ez hartzea erabaki zuten, bereziki berreraikuntzarekin erlazioa zutenetan. Nahiz eta beste batzuetan lanik ez zuten kontratistek, enkarguak lortzeko bete ezin zituzten baldintza ekonomikoak merkatzen zituzten, kasu horietan beren porrota eraginez. Egoera horren aurrean, instituzioak eman gabe geratu ahal ziren lanen adjudikazioen beldur ziren, eta maiz, lehiaketarik egin gabe, kezkarik sorrarazten ez zieten enpresa eta profesionaleri enkargu zizkieten, edo instituzioek zuzenean lanak administrazio-prozeduraz burutu, Eibarren eta beste udalerrri batzuen berreraikuntzan maiz gertatu zen bezala³⁷.

Diru-iturrien gabeziari teknikari eta langile kualifikatuen falta gaineratu zitzaion. Gudak eragindako hildakoei, erbesteratutakoak eta erregimenak zigortutakoak eta beren lana egin ezin izan zutenak gehitu behar izan zitzaizkien, nahiz eta hainbat erakunde gutxi ordaindutako preso errepublikanoen eskulanaz baliatu ziren obrak merkatzeko. Regiones Devastadas-ek, esaterako, presoek kanpamentuak zituen

37. 1949ko urriaren 28ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1949. A.11-70.*

Eibar, Elgeta eta Gernikan³⁸, eta Estatuak, instituzioen eta industrien eskulan-beharrak asetzeko, Bilbon beste bi (Rodrigo, 2003: 139-40, 214-16).

Dirua eta eskulan desegokia ez ezik, materialak ere falta ziren, eskuarki, zementua, burdina eta haren eratorriak, edozein eraikuntza gauzatzeko ezinbestekoak zirenak³⁹. Kanpotik ekarri behar ziren beruna, zink eta eztainua ere falta ziren, bereziki Bigarren Mundu Gerraren ostean. Halaber, beste neurri batean, proiektuak marrazteko erabiltzen zen paper begetala eta pintura, olioia eta material zeramikoak (adreilua eta teilak) ere falta izan ziren. Izatez, energia- (argindarra) eta ikatz-gabeziak ez zuen behar beste materialen fabrikazioa ahalbidetu.

Material gutxi egotean haien prezioa garestia, eta soldatena bezala, etengabe igotzen zen. Beraz materialen prezioak behin eta berriro berritu behar zirenez, obren aurrekontuak zehaztea ezinezkoa zen. Erregaien faltak eta komunikazio-sareen egoera kaskarrak teknikari, langile eta materialen garraioa oztopatu eta garestitu zuten ere; batez ere, Eibarren eta berreraikuntza-lanak egin behar ziren herrietan, nagusiki gune urbano garrantzitsuetatik kanpo zeudelako⁴⁰.

Egoera larri horren aurrean Estatuak material, garraio eta soldaten prezioak noiz edo noiz ezarri zituen, eskaera gehien zuten materialen (burdina, zementua, beruna, zink, beira, egurra eta abar) prezioa eguneratuz, eta material zeramikoen kasuan zona geografikoaren arabera prezioa ezarriz. Portland zementu artifizialak, esaterako, tonako 126,50 pezeta balio zituen 1942an, 183 1946an, 224 1948an eta 313 1950ean⁴¹. Adreilu arruntak Gipuzkoan, berriz, 11,90 pezeta balio zituen 1942an,

38. "Una obra del Caudillo. La redención de penas por el trabajo", *Reconstrucción*, **1**, 1942ko apirila, 28-32; Casares, F. (1940): "La redención de penas, signo de política nacional", *El Correo Español-El Pueblo Vasco*, 1940ko urtarrilaren 26a, 3. or.; "Documentos del poder civil. La redención de penas por el trabajo", *Boletín Oficial de la Diócesis de Vitoria*, **15**, 1945eko uztailaren 16, 388-390; Martínez Sostre, 1954: 121-122.

39. Burdinaren gabeziak burdinaz egindakoetan eragin zuen: hoditeria, galdarak, kalefakzioarako berogailuak, kableak, sukaldeak, komuneko zisternak, bainuontziak, torlojuak, ehun metalikoak, etab. Halaber, zementuaren ondorengoak ere falta izan ziren: zoruak, harlauzak, hoditeria, harri artifiziala.

40. "La clausura de las reuniones de técnicos de Regiones Devastadas. Interesantes discursos del director general Sr. Moreno Torres y del ministro de Obras Públicas", *La Gaceta del Norte*, 1941eko urriaren 10a, 1. or.; Moreno Torres, 1946: 9; Peña Boeuf, 1940: 5.

41. "Orden por la que se fija el precio de venta y se regulariza el comercio del Cemento Portland artificial", *Boletín Oficial del Estado*, **134**, 1942ko maiatzaren 15a, 3.423. or.; "Orden de 14 de marzo de 1946 por la que se modifica el precio de venta de los cementos 'Portland' artificial", *Boletín Oficial del Estado*, **76**, 1946ko martxoaren 17a, 2.070. or.; "Orden de 17 de mayo de 1948 sobre precios de venta del cemento Portland", *Boletín Oficial del Estado*, **141**, 1948ko maiatzaren 20a, 2.015. or.; "Orden de 21 de abril de 1950 por la que se fija nuevo precio de venta para el cemento Portland artificial", *Boletín Oficial del Estado*, **118**, 1950ko apirilaren 28a, 1.858. or.

13,10 1944an eta 18,65 1947an, harik eta 1950ean haren prezioa libre utzi zen arte⁴², hau da, egoera normalizatzen hasi zen arte (9. ird.).



9. irudia. Adobez egindako adreiluak gerra ostean.

Memoria que eleva al Caudillo y su gobierno el Instituto Nacional de la Vivienda.

Madrid: INV, 1943, liburuan argitaratua.

Materialen gabeziak behartu zuen ere, 1940tik aurrera, DGAK egin beharreko lanaren garrantziaren arabera haiek mugatu eta onartzea. Burdina eta zementua izan ziren aurrenak. Baina gabeziaren aurrean, nagusiki ekimen pribatuak erabiltzen zuen merkatu beltza sortu zen.

42. “Orden de 13 de mayo de 1942 por la que se fijan precios de venta y regulación del comercio de los materiales cerámicos de construcción”, *Boletín Oficial del Estado*, **135**, 1942ko maiatzaren 15a, 3.423-3.425; “Orden por la que se modifican los precios de los materiales cerámicos de construcción”, *Boletín Oficial del Estado*, **307**, 1944ko abenduaren 2a, 8.225. or.; “Orden de 5 de marzo de 1947 por la que se modifican los precios de los materiales cerámicos de construcción”, *Boletín Oficial del Estado*, **66**, 1947ko martxoaren 7a, 1.594-1.595; “Orden de 21 de marzo de 1950 sobre materiales cerámicos de construcción”, *Boletín Oficial del Estado*, **83**, 1950eko martxoaren 24a, 1.255. or.

Burdina erabiltzeko murriztapenak araudi, norma eta jarraibideak izan zituen lagun⁴³, bai obra ofizialetan bai obra partikularretan⁴⁴. Horrekin batera, eta eraikuntza obrak ez atzeratzeko, zementu-ekoizpen kuota finko bat finkatzen saiatu ziren⁴⁵, eta atzerrian produzitzen ziren eta estatuan eskasak ziren materialak (nikela, kromoa, eztainua, kobrea, aluminioa eta haren aleazioak) interesen handiko obretara mugatu nahi izan ziren⁴⁶. Ildo berean, garaiko aldizkari garrantzitsuenetan, *Reconstrucción* eta RNAn, eraikuntza-materialen autarkia bermatu zen, tokian tokiko material arrunt eta garraiorik behar ez zutenen erabilera proposatuz eta ohiko prozedura merkeagoak aurkeztuz⁴⁷.

Berreraikuntza-lanen kasuan, lanak burutu behar ziren herri bakoitzaren materialen ikerketa egin zen, bertoko materialen kantitate eta kalitatea aztertuz (Cárdenas, 1941b: 145-155). Modu horretan berreraikuntzako hainbat lanetan, Gernikakoetan esaterako, bertoko tradizioa imitatzen zuen harri landua erabili zen (Cárdenas, 1940a). Beste kasu batzuetan, armazoi eta solairua hormigoizkoa izan

43. Horren adibide izan daitezke 1941, 1942 eta 1944an promulgatu zirenak: “Decreto sobre restricciones en el uso del hierro en la edificación”, *Boletín Oficial del Estado*, **71**, 1941eko martxoaren 12a, 1.766-1.767; “Decreto por el que se aprueba el Reglamento sobre las restricciones del hierro en la edificación”, *Boletín Oficial del Estado*, **214**, 1941eko abuztuaren 2a, 5.848-5.853; “Orden por la que se aprueba la Instrucción definitiva para el proyecto de ejecución de obras de hormigón”, *Boletín Oficial del Estado*, **153**, 1944ko ekainaren 1a, 4.299-4.318; “Disposiciones legales”, *Boletín de Información de la Dirección General de Arquitectura*, **1**, 1946ko abendua, 26. or. 1942ko ekainaren 26ko agindu bati erreferentzia eginez.

44. Erakunde publikoek sustatuko obretan, justifikatutako kasuetan salbu, ez zen onartu armazoi metalikorik fatxadetako murrutetako langaretan, horma-bitarteetan eta patioetan, ezta estali inklinatuetan ere. Haren ordez, beste prozedura batzuk bermatu ziren: zurezko armazioak eta ganga trenkatuak kasu, eta erabilera mugatu: balkoi, baranda, hoditeria eta abarretan. Obra partikularretan, berriz, ez zen onartu burdinaren erabilera armazoi bertikal eta estali inklinatuetan. Horrekin batera, udalak animatzen zituzten, eraikitzeko lizentzia eskatzen zuten obretan, burdinaren erabilera murrizten ziren proposamenak egiteko. Gainera Estatuak burdina gutxiago erabiltzen zuten obrei zementu-horniketan lehentasuna ematen zien.

45. “Orden sobre fabricación mensual de 150.0000 toneladas de cemento Portland artificial”, *Boletín Oficial del Estado*, **305**, 1941eko azaroaren 1a, 8.563. or.

46. “Orden por la que se impone la adopción de medidas para regular el empleo de metales”, *Boletín Oficial del Estado*, **228**, 1942ko abuztuaren 16a, 6.163. or.

47. *Reconstrucción* aldizkarian Antonio Camuñas arkitektoak adreiluaren erabilera azpimarratzen zuen eta kareharri hidraulikoen antzeko ezuagarriak zituen mortero bat lortzea proposatzen zuen adreilu eta teilarekin (Camuñas, 1943a: 177-190; Camuñas, 1943b: 150). Haren kide Antonio Cámarak, berriz, aldarrikatzen zituen «*los materiales populares baratos y aplicarlos con técnicas adecuadas, haciendo la reconstrucción labor misional; llevando obreros de Andalucía, Extremadura y Albacete a enseñar el tapial y las bovedillas; obreros catalanes, para distinguir la técnica del material cerámico; vasconavarros, la de la madera; gallegos, la de la piedra, y mujeres andaluzas, para que enseñen por España esa superstición maravillosa de la cal y la limpieza*» (Cámara Niño, 1940: 12). Halaber, RNAk ere material eskuragarri eta herriaren eraikuntza-baliabideekin bat zetozenen erabilera proposatu zuen, zeramika kasu, zementu-zeramikazko zoru armatuetan erabili ahal zena, Italian egiten ari zenaren antzera, eta hala hormigoi armatuzko zoruaren alternatiba bihurtu. (A.D.M. “Los forjados de piso en cemento-cerámica armada, en relación con la economía nacional, para la reconstrucción de España”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **1**, 1941, 68. or.)

beharrean, egurrezkoa egin zen, edota hondakinetakoak berrerabili ziren, Eibarren maiz gertatu zen bezala. Egoera hori saihesteko Regiones Devastadas-ek Eibar eta Gernikan materialak pilatzeko biltegiak ireki zituen, eta Eibarko Udalak biltegi propioa irekitzearekin batera⁴⁸, materialen hornitze-lehiaketak antolatu zituen eraikitzaile batzuek merkatu librean lortutakoak bereganatzeko⁴⁹. Materialak modu ofizialean lortzea prozedura geldoa eta ez oso ziurra baitzen, beti lanak atzeratzen zituena.

Horrela, kalitate eskasagoko materialak erabiltzea ohikoa izan zen, horrek izan zituen kontserbazio-arazoekin, baina garaian bertan aurreikusi eta etsipenez onartu eta pairatu ziren, besterik egiteko aukerarik ez zegoen eta. Esaterako, beste egoera batean erabiliko ez litzatekeen kalitate txikiko hormigoia erabili zen, eta, horrek, ohikoak ziren hezetan-arazoak areagotu zituen. Gainera ikatzaren gabeziak produktutako material zeramikoaren kalitatean eragin zuen. Izan ere, teilak modu egokian ez egostean, izotzarekin zatitu eta apurtzen ziren, hezetan ere bideratuz.

Material eta profesionalen gabeziari aurre egiteko modurik eraginkorrena, agian, espazio-dimentsioak gutxitzea izan zen. INVko zuzendariak, Federico Mayok, Regiones Devastadas-eko *Reconstrucción* aldizkarian apuntatu zuen bezala:

(...) no es menor la labor que se ha intentado para el abaratamiento de la construcción por supresión de cosas inútiles, reducción de alturas, disminución de superficie de huecos, etc., que se reflejan en las Ordenanzas, y también con la normalización de tipos y elementos de construcción (Mayo, 1941: 31-32).

Hortaz, eraikuntza-industriak oraindik berea ezin egin zezakeen, eta eraikuntza-arazoei aurre egiteko eraginkorra izan ahal zen eraikuntzaren estandarizazioa arrotza izan zuten gerraosteko berreraikuntzako urteetan.

1.4. DIRECCIÓN GENERAL DE REGIONES DEVASTADAS Y REPARACIONES

Aipatu dugun moduan, Regiones Devastadas izan zen berreraikuntzaz arduratu zen erakunde nagusia. Baina Euskal Herriari dagokionez, estatuan 1936-39 bitartean hedatu zen Gerra Zibila, 1937rako bukatuta zegoen, eta jarraian txikituta geratu ziren hainbat udalerritan, besteak beste, Gernika, Irun eta Eibarren, berreraikuntzalanak hasi ziren. 1937ko martxoaren 19an Iruneko Udalak komisio tekniko bat osatu zuen, eta urte bereko uztailearen 28an *Junta Irunesa de Reconstrucción Inmobiliaria*. Segituan 1937ko maiatzean hondakinak kentzen hasi ziren Eibarren, eta uztailean Gernikako Udalak herria berreraikitzekeo junta izendatu zuen⁵⁰.

48. 1949ko martxoaren 18ko eta abenduaren 2ko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Comisión Municipal Permanente. 1949.* A.11-71.

49. EAEHAAN. I-355-1, 101.

50. Horren inguruan kontsulta daitezke: *Proyecto de reconstrucción de la ciudad de Irun*, Talleres Offset, Donostia, 1939, 19-20; MUR, 1979: 157 eta 163; Muñoz, 2006b: 823-830; Muñoz, 2008.

Baina oraindik sortzen hasi zen Estatu berriak ikusi zuen ezen baliabide eta norabide zehatzik gabe hasi ziren lanek berreraikuntza-politika orokor baten beharra zutela, eta aurreratu dugun bezala, 1938ko martxoan *Servicio Nacional de Regiones Devastadas* sortu zuen Joaquín Benjumearen zuzendaritzapean. Gerra bukatzean, *Dirección General de Regiones Devastadas y Reparaciones* izena hartu zuen Gobernazio Ministerioaren baitan. Garai hartako hainbat erakunde bezala, guda bukatu arte zerbitzua ez zen modu eraginkor batean lan egiten hasi, 1946 arte José Moreno Torres zuzendari, eta ondorengo urteetan José Marcián Pérez buru.

Regiones Devastadas-ek Europako zenbait herrialdek Lehen Mundu Gerra bukatzean burututako berreraikuntza-lanak izan zituen eredu (Moreno Torres, 1948). Horrela, erakundearen aurreneko izena erakunde belgikarraren izena gogora ekartzen digun bitartean, hots, *Service des Régions Dévastées*, finantzaketa-sistemak Italiako erakundea izan zuen inspirazio. 1939ko martxoaren 16an sortutako *Instituto de Crédito para la Reconstrucción Nacional* (ICRN) Regiones Devastadas-ek egindako proiektuen sostengu ekonomikoa izan zen, eta hainbat udal-lan, eraikin erlijioso eta eraikin partikularren berreraikuntza lagundu zituen zergak kenduz eta interes txikiko eta epe luzerako maileguak emanez. Institutuak 1938ko martxoaren 25eko dekretuaren eta urte bereko ekainaren 11ko ordenaren arabera diru-laguntzak arautu zituen. Kaltetu partikularrek Regiones Devastadas-era zuzendu behar ziren jasotako kalteak aitortzeko, eta perito batek hala baieztatu ostean, berreraikuntza-proiektua aurkeztu behar zuten⁵¹.

Halare, zenbait udalerri, Gernika eta Eibar kasu, zeharo txikituta geratu zirenez, ezin izan zioten beren berreraikuntzari aurre egin. Hori zela-eta, estatu-buruak berreraikuntza-lanak bere gain hartzen zituen legea promulgatu zuen 1939ko irailaren 23an (Adopzio Legea). Ondorioz, udalerri batzuk adoptatu (Gernika, Eibar) eta beste batzuk erdi-adoptatu ziren, haien txikizioaren garrantziaren arabera⁵². Gainera

51. Institutuak ezarritako laguntzak jasotzeko, interesdun partikularrek hala eskatu behar zituzten, beren jokabidearen inguruko txosten batekin batera, Falange Española Tradicionalista y de las JONSek egiten zuena. Jarraian Regiones Devastadas-ek jasotako kalteak eta haien balorazioa ziurtatu behar zuen, eta espedientea onartua bazen, jada burutu beharreko proiektuaren lizentzia lagun, berreraikuntzari ekiten zioten, edo industria- eta baserri-esparruko kalteak baziren, diru-laguntzak jaso.

Moreno Torres, 1944: 345-346; *Instituto de Crédito para la Reconstrucción Nacional. Memoria de la gestión realizada desde 1 de julio de 1939 a 31 de diciembre de 1946*, Industrias Gráficas Magerit, Madril, 1947, 7-9; *Ministerio de la Gobernación. Junta Nacional de Reconstrucción de Templos Parroquiales*, Publicaciones de la Dirección General de Regiones Devastadas y Reparaciones, Madril, 1941; “Ley creando el Instituto de Crédito para la Reconstrucción Nacional”, *Boletín Oficial del Estado*, **81**, 1939ko martxoaren 22a, 1.642-1.643; “Decreto estableciendo la prestación personal para la reconstrucción nacional”, *Boletín Oficial del Estado*, **137**, 1939ko maiatzaren 17a, 2.689. or.; “Ley disponiendo que a los efectos de la reconstrucción nacional se hagan participe, en los daños de guerra a todos los interesados en la propiedad inmueble”, *Boletín Oficial del Estado*, **254**, 1939ko irailaren 11, 5.059-5.060. GAN. JD-S 980/2.

52. “Boletín Legislativo”, *Reconstrucción*, 1940eko apirilaren 1a, 35-36.

udalerrri horiek 1940ko uztailaren 13ko legearen arabera aldi baterako erregimen ekonomikoa izan zuten⁵³. Eibarko Udalak hala eskatu zuen 1940ko abenduan bere egoera ekonomiko kaskarraren aurrean, baina nahiz eta Gipuzkoako Diputazioaren oniritzia izan, gainetik zegoen gobernadore zibilak ez zuen onartu, udalerrriaren egoera hain larria ez zela uste zuelako, eta horren ordez, eta bere atribuzioak konplutuz, bere esanetan, kudeaketa egokia burutzen ari ez zen udal-korporazioa aldatzea erabaki zuen 1941eko irailean⁵⁴, gestio publikoak diktadurapean izan zituen mugapenak eta jasan zuen autoritarismoa agerian utziz.

Aurreratu bezala, berreraikuntza-lanek hainbat arazo eta gabeziari egin behar izan zieten aurre, zeinak Regiones Devastadas konpontzen saiatu zen ahal izan zuen moduan. Egoera horren aurrean, Estatuak Gerra Zibilean esanguratsuak izan ziren udalerrietan zentratu zuen berreraikuntza: Belchite (Zaragoza), Brunete (Madril) edo Gernikan, eta ez hainbeste Eibarren, nahiz eta udalerrri horien eta besteen berreraikuntzak ez ziren sekula bukatu. Alabaina, egin ziren proiektu bakanak modu propagandistikoan erabiltzean, benetakoa barik sinbolikoa zen berreraikuntza errentagarri egin zen. Horretarako Prentsa eta Propaganda Bulegoa sortu zuen Regiones Devastadas-ek, *Reconstrucción* aldizkaria eta hainbat monografia argitaratzearekin batera, garaiko hedabideetan etengabeko presentzia izan zuten inaugurazio-ekitaldiak eta erakusketak antolatu zituen⁵⁵. Eta hala, berreraikuntza-lanak «zaharkitutako Espainiaren hondakinen gainean» «*Inperio berria*» eraikitzekeo esfortzua azpimarratzeko eta goresteko erabili ziren⁵⁶.

Berreraikuntza-lana gauzatzeko eta kontrolatzeko, Madrilen egoitza nagusia zuen Regiones Devastadas-ek estatu osoan probintzietako komisioak eta eskualde-bulegoak ireki zituen. Hego Euskal Herrian eskualde-bulegoak zabaldu ziren hasieran Bizkaiko hiriburuan eta geroago Gipuzkoakoan. Bilbon ezarri zen bulegotik «adoptatutako» Gernika, Mungia eta Zornotza, eta «erdi-adoptatutako» Durango, Bilbo, Getxo, Arabako Legutioko eta Gipuzkoako udalerrietako berreraikuntza-lanak kontrolatu ziren Gonzalo Cárdenas arkitektoa buru eta Luis Maria Gana arkitekto laguntzailea zirela. 1940tik aurrera Donostian bulego nagusi bat ireki zen Eibarko eta Iruneko bulego laguntzaileekin batera, «adoptatutako» Eibar eta Elgeta, eta «erdi-adoptatutako» Irunen berreraikuntza-lanak burutzeko. Bertan Joaquín Domínguez Elosegui arkitekto buruak, José Antonio Ponte Picavea arkitekto laguntzaile nagusiak

53. Iturmendi, 1940: 12-14; “Ley por la que se establece un Régimen Municipal transitorio para los Municipios adoptados por Su Excelencia el Jefe del Estado”, *Boletín Oficial del Estado*, **210**, 1940ko abuztuaren 28a, 5.210-5.216.

54. GAN. JD-S: 980/2.

55. “Ayer se inauguró la Exposición de Reconstrucción de España”, *El Diario Vasco*, 1945eko abuztuaren 24a, 1. or.; “Apertura de la Exposición de Regiones Devastadas”, *La Voz de España*, 1945eko abuztuaren 24a, 1. eta 4. or.; “La exposición de la reconstrucción de España en San Sebastián”, *ABC*, 1945eko abuztuaren 30a, 9. or.

56. “Las obras de reconstrucción de Guernica”, *Reconstrucción*, 1941eko iraila, 10-16; Gómez Aparicio, 1940: 9.

Francisco Ortigosa Alzuela eta Miguel Apraiz Barreiro arkitekto laguntzaileek eta Félix Calderón ingeniariak lan egiten zuten⁵⁷.

Ondorioz, Euskal Herrian egin ziren berreraikuntza-lanak, zeukaten interes estrategiko, industrial eta ekonomikoagatik gerra-tokia izan ziren udaletan zentratu ziren, gehienak, Espainiako hainbat udalerrri ez bezala, tamaina ertainekoak eta izaera urbanoa zutenak. Gainera Gernika, Eibar eta Irunen kasuan garrantzi ekonomikoko udalerrriak ziren.

Regiones Devastadas-ek berreraiki beharreko herrien urbanizazioa, etxebizitzaren eraikuntza eta beharrezko zerbitzuak eraiki zituen, arduradunen arabera, osasungarritasuna bermatu nahian (Palanca y Martínez-Fortún, 1940). Garaiko arkitekto esanguratsuenek parte hartu zuten kaleak, enparantzak, etxebizitzak, udaletxeak, posta- eta telegrafo-etxeak, epaitegiak, eskolak, osasun-etxeak, garbitokiak, Guardia Zibilaren etxe-kuartelak, elizak, merkatuak, hiltegiak, frontoiak eta kiroldegiak proiektatzen⁵⁸. Gehienetan jada existitzen ziren egitura urbano eta proiektuak aprobetxatuz, herria urbanizatu, alde zaharretako kaleak berrantolatu, komunikazio-bide berriak diseinatu eta herriak zabaltzeko eremu berriak planifikatu ziren, etxebizitza eta industrietarako zonifikazioak ezarriz.

1937ko apirilaren 26an bonbardatu zuten Gernika izan zen Regiones Devastadas-en eskutik berreraikuntza-lanak hasi ziren lehen lekua. Estatuarentzat berebiziko garrantzia baitzuen mundu osoan ezaguna zen herriaren berreraikuntzak, baita Bizkaian merkataritza, industria, nekazaritza, komunikazio eta ekonomia gune garrantzitsuan zentratzeak ere. Hortaz ez da harritzekoa Cárdenas eta Ganak herriaren berreraikuntza-proiektua 1938ko abuzturako bukatua izatea (Muñoz, 2008), Eibarkoa bi urte beranduago egin zen bitartean.

Bizkaiko udalerrria hiru aldetan partzelatu zen: alde zaharra eta etxebizitzak, industria-gunea eta nekazaritza-gunea, zirkulazioa ere kontuan hartu zelarik (ardatz nagusi eta sailhesbide batekin)⁵⁹. Horrekin batera, espazio urbano berria definitu zuten, Santa Maria elizaren ondoan zegoen Udaletxeko Plaza. Arkuteriaz inguratutako

57. Berreraikuntza-lanak egin ziren ere Donostian eta Elgoibarren Gipuzkoan, eta Bizkaian: Bedia, Bermeo, Dima, Elajebeitia, Gamiz-Fika, Gatika, Gordexola, Gerrikaiz, Las Carreras, Lezama, Maruri, Portugalete, Trapagaran eta Muskizen.

58. Bizkaiko bulegoarekin kolaboratu zutenak: Eugenio María de Aguinaga, Emiliano Amann, Emilio de Apraiz, Jesús Rafael de Basterrechea, Ricargo Bastida, Adolfo Gil, Jesús Guinea, Ángel de Gortázar, Ismael Gorostiza, José María Sainz Aguirre, Luis Saracho, Estanislao Seguro, Manuel María de Smith, Anastasio Tellería Gernikako udal-arkitektoa, eta Fernando Urrutia, baita Madrilen Regiones Devastadas-en lan egiten zuen Luis Calvo arkitektoa ere. Gipuzkoako bulegoarekin, berriz: Raimundo Alberdi, Ramón Cortázar, Gipuzkoako probintzia arkitektoa, José Iribarren Iruneko udal-arkitektoa, Ramón Martiarena, eta Madrilen Regiones Devastadas-en lan egiten zuen Mariano Nasarre Auderá.

59. Cárdenas, G. eta Gana, L. M. de (1940): *Reconstrucción de la Villa de Guernica. Memoria*, Ministerio de la Gobernación. Dirección General de Regiones Devastadas. Comisión de Vizcaya, Bilbao, 7. or. Testu mekanografiatua. BFA. Administratiboa. DV-DC-0170.

enparantza zen, garaiko beste proiektuekin bat eginez, Espainiako hirigintzan ohikoa zen plaza nagusiaren egitura berreskuratu nahi zuena (Cárdenas, 1940b: 22-27; Santa María del Villar, 1943: 1-6). Bertan, halako espazioetan, jada aipatu bezala, maiz presente zeuden eliza, udaletxea eta Falangeren etxea kokatu ziren, hirigunea botere zibil eta erlijiosoaren gune errepresentatiboa bilakatu nahian, Amorebietan eta Elgetan egin zen moduan (Saracho, 1948: 135-138).

Eibar ondoan dagoen Elgeta nekazari udalerrria, eskualde horretako aisialdirako espazio bezala planteatu zen (10. ird.). Horretarako udala bi aldetan banatu zen, bat negukoa edo iraunkorra zena, eta beste bat oporretarako dedikatua⁶⁰. Amorebieta, Eibar eta Irunek, berriz, gerraurrean burututako planak aprobetxatu zituzten beren berreraikuntza hasteko. Modu horretan, 1938an Amorebietan 1934an proiektatu zen udalerrria zeharkatzen zuten erreka desbideratzea berrartu zen⁶¹. Irun mugako hirian, 1936ko irailean sutan kiskali zena, 1939ko otsailaren 4an José Iribarren udal-arkitektoak diseinatutako berreraikuntza-plana, 1926ko Zabalkunde eta Barne Erreforma proiektuan oinarritu zen⁶². Eibarko udalerrri industrialak ere, 1937ko apirilean partzialki txikituta geratu zena, aurreko urteetako Ego ibaiaren estaltzearekin jarraitu zuen.

Hortaz, hirigintza-lanak herrien erreforma eta hazkundean, zonifikazio eta sarreretan zentratu ziren. Eta hala ordura arte herrietan ohikoak izan ziren fatxada gutxi eta hondo askoko etxeen ordez, kale eta etxadi erregularrak proiektatu ziren erdiguneetan. Herriguneetatik kanpo, berriz, patio gabeko etxadi irekiak; eta guztietan gutxieneko higiene-baldintzak bermatu.

Etxadien eta beste eraikinen eraikuntza, Gernikan, Eibarren eta Elgetan gertatu zen bezala, urte haietan berriztu edo egin ziren udal-ordenantzek erregulatu zuten. Ordenantzek eraikinen bolumena eta etxeen barne-antolaketa arautu zuten, gelen aireztapena eta gutxieneko pieza kopuru bat ezarriz (sukaldea, komuna eta bi edo hiru gela)⁶³. Izan ere Regiones Devastadas-en egiteko bat, txikitutako udaletan, beste edozein lekutan baino beharrezkoagoak ziren etxebizitza egoki eta


60. Cortázar, R. (1940): *Proyecto de reconstrucción de la villa de Elgueta. Memoria*, Donostia. Testu mekanografiatua. Ponte, J. A. (1942): *Pueblo adoptado de Elgueta. Proyecto de urbanización. Memoria*, Donostia. Testu mekanografiatua. EAEHAAN. I-355-1,102 eta 103.

61. *Proyecto de canal de desviación de aguas de los arroyos de Larrea, Garitondo y Boroa en Amorebieta (Vizcaya) contra los efectos de sus crecidas. Memoria*. AAN. (04)081.001, 20.681.

62. José Antonio de Elizalde eta José Luis Recarte arkitektoek Gipuzkoako udalerrriak 20ko hamarkadan antolatutako lehiaketa irabazi zuten. "Irun. Proyecto de urbanización de la zona oficial", *Revista Nacional de Arquitectura*, 5, 1941, 42-49; *Proyecto de la reconstrucción de la ciudad de Irun*, Talleres Offset, Donostia, 1939, 20. or.; Navas, 1957: 25 eta 61.

63. Cárdenas eta Gana, 1940, opus cit. Testu mekanografiatua. BFA. Administratiboa: DV-DC-0170. *Ayuntamiento de Elgueta. Ordenanzas de edificación*, Elgeta, 1940. Testu mekanografiatua. EAEHAAN. I-355-1, 102.

higienikoak eraikitzea izan baitzen⁶⁴. Horretarako Regiones Devastadas-ek Estatuak sortu zituen beste erakundeen (INV, OSH) eta, Eibarren kasuan, udalaren laguntza izan zuen baliabide gutxi zituzten pertsonentzat etxeak egiteko. Baina Regiones Devastadas-ek baliabide gehiagoko pertsonentzat ere etxeak egin zituen⁶⁵, nahiz eta iniziatiba pribatua izan zen mota horretako eraikin gehiago egin zituenak, Estatuaren laguntzekin: ICRNren bidez eta 1944tik aurrera promulgatutako eta aurrerago aipatuko ditugun lege batzuen bitartez (Álvarez Bermejo, 1961: 241 eta 477) (11. ird.).



10. irudia. Elgetako urbanizazio-plan berria. José Antonio Ponte eta Joaquín Domínguez Elósegui arkitektoak. Donostia, 1942ko otsaila. MECD, AGA, Obras Públicas, signatura F-04260-05

64. “La obra de la Dirección General de Regiones Devastadas, creada en la guerra. Unas 8.500 viviendas reconstruidas y más de 1.000 de nueva planta”, *La Gaceta del Norte*, 1943ko uztailaren 4a, 3. or.

65. Etxeak Gernikan: Eugenio de Aguinaga (1941) eta Luis Saracho (1944). Etxeak Zornotzan: Jesus Rafael de Basterrechea (1941) eta Luis Saracho (1946). AAN. (04) 081.001, 20.685, eta 20.691. Etxeak Irunen: José Antonio Ponte (1948). AAN. (04) 081.001, 20.274 eta 20.268, EAEHAAN. I-353-5, 50, 53 eta 54. Etxeak Eibarren (Maria Angela etxadia): Joaquín Domínguez Elosegui eta José Antonio Ponte Picavea (1941). EAEHAAN. I-354-3, 80.



**11. irudia. Gernikako Adolfo Urioste kalea.
BFA/ DFB. FH R.417-1082.**

Berreraikuntza-lanak nahi baino astiroago joan ziren beti, eta urteak aurrera joan ahala moteldu. Modu horretan, nahiz eta hainbat proiektu egin gabe eta bukatu gabe egon, 50eko hamarkadaren hasierako berreraikuntza-lanak bukatutzat eman ziren, eta Regiones Devastadas-ek bere lan-esparrua zabaltzen joan zen. Horren adibidea izan daiteke 1953ko urriaren 14 eta 15ean Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako zenbait udalerritan gertatutako uholdeen konpontze-lanak instituzioak bere gain hartu izana⁶⁶. Azkenik, 1957ko otsailaren 25ean sortu berri zen Etxebizitza Ministerioak Regiones Devastadas eta beste zenbait erakunderen funtzioak bere gain hartu zituen, nagusiki etxebizitzarekin erlazioa zutenenak, INV eta OSHrenak. Regiones Devastadas-en beste funtzio batzuk DGAK hartu zituen. Hortaz 1957an

66. Kalteak industria, merkataritza, etxebizitza eta komunikabideetan gertatu ziren nagusiki, leku batzuetan, antza, ibaietako espazio naturalak okupatuta zeudelako eta aurreko urteetan egindako deforestazioagatik. Bizkaian lanak honako udalerrri hauetan egin ziren: Arratzu, Bakio, Barakaldo, Basauri, Bilbo, Etxebarri, Ermua, Galdakao, Gorniz, Getxo, Ugao, Sopela, Sopena, Zamudio eta Zornotzan. Gipuzkoan: Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketza, Andoain, Anoeta, Ataun, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Berrobi, Donostia, Elgoibar, Eskoriatza, Getaria, Hondarribia, Ibarra, Idiazabal, Irun, Itsasondo, Leaburu, Legorreta, Lizartza, Oiartzun, Olaberria, Ordizia, Oria, Errearteria, Tolosa, Villabona, Zarautz, Zegama, Zestoa, Zizurkil eta Zumarragan. Eta Nafarroan: Arellano, Arga, Arribe-Atallu, Arruazu, Asiain, Bakaiku, Baztan, Bebanza, Bera, Betelu, Doneztebe, Elgorriaga, Errotz, Ezkurra, Faltzes, Gaintza, Ibero, Intza, Iturmendi, Izkue, Lakuntza, Leitza, Lesaka, Amaiur, Mendigorria, Nabarte, Saldias, Sunbilla, Urdiain, Uztegi eta Zugarramurdi.

Informazio gehiago Administrazioaren Artxibo Nagusian gordetzen diren udalerrri bakoitzaren berreraikuntza-espandienteetan topa daiteke, eta uholdeen inguruan: Larrena eta Ondarra, 1954: 59-97.

Regiones Devastadas desagertu zen, nahiz eta 1960ra arte Regionen Devastadas ixteko Komisio Likidatzailea ez zen sortu⁶⁷.

Regiones Devastadas-ek iraun zuen 19 urteetan estatuan burutu ziren berreraikuntza-lan guztiak kontrolatu zituen. Modu horretan, haren lanak eta proiektuak propagandistikoak izan ziren gehiago efektistak baino. Izan ere, sekulan bukatu ez ziren berreraikuntza-lanak, beste hainbat elementurekin batera, erregimen berriaren fatxada altxatu eta zurkaizteko erabili ziren. Antza, espainiar tradizioan oinarritutako fatxada bat izan zen, agian hiri edo arkitektura zehatz bati jarraitzen ez ziona, baina bai egin ziren garaia argi utzi nahi izan zuena: «*Francoren garaia*»⁶⁸. Regionen Devastadas-ek Estatu berri baten imajina finkatzen lagundu zuen, Eibarko berreraikuntzarekin gertatu zen bezala, bere fatxadaren atzean gizarte txikitu baten hondakinak eta arrailak ezkutatu nahi izan zirelarik.

67. *Acta de subasta de materiales de construcción*. EAEHAAN. I-353-4, 38. LLanos, 1988: 47-48.

68. “La obra de Regionen Devastadas referida por el Sr. Moreno Torres”, *La Gaceta del Norte*, 1944ko uztailaren 13a, 3. eta 8. or.

2. Eibarko berreraikuntza

2.1. GERRAOSTEKO HIRIAREN ERRONKAK

1937an Eibar, 1794an Konbentzio Gudarekin gertatu zen bezala⁶⁹, zeharo txikituta geratu eta bere berreraikuntza hasi zuen. Modu horretan, Gipuzkoako hiribilduak bigarren aldiz kiskalirik geratu ostean bere burua altxatu behar izan zuen⁷⁰.

Espainiako Gerra Zibilean eta Frantziako Konbentzio Gudan iraun zuen eraikinetako bat San Andres eliza izan zen, alegia, herriaren jaiotza markatu zuen tenplua. Ez dago Eibar inguruko aurreneko kokalekuak noizkoak diren zehazterik, baina bai XIII. mendeko San Andres elizaren inguruko eta haren altzoan hasi zen elizatearen inguruko informaziorik. Urteak aurrera joan ahala herriak garrantzia hartu eta 1346ko otsailaren 5ean Gaztelako Alfontso XI.ak hiribildu-titulua eman zion Villanueva de San Andres de Eibar izena jarriz (12. ird.).

Hasierako urteetatik Eibar, nekazaritza-ustiapen intentsiboa egiterik ez zegoen alde menditsu eta malkartsua, gune industrial garrantzitsua bilakatu zen. Inguruko burdin mineral, ibaien indar hidrauliko eta ikatza egiteko zur ugariari esker, eskualdeko udalerriak (Elgoibar, Eibar, Ermua eta Soralue) armen fabrikazioan espezializatu ziren Espainiako monarkiak, Errege Katolikoek garaitik aurrera, egindako enkarguei esker. XIX. mendean, Eibar, goraka zihoan eta nazioartean saltzen zen armen fabrikazioan nagusitu eta espezializatu zen, baita armen industriarekin jaio zen damaskinatuan edo haien dekorazioan. Lanaren beharraren ondorioz, herriaren biztanleriak gora egin zuen, eta 1887an 5.103 biztanle bazeuden ere, 1910erako kopurua bikoiztu zen, eta 10.121 biztanle lortu zituen hiriak. Garai horretakoak dira «Garate, Anitua y Cía.» (1892), «Orbea» (1859) edo «Beistegui Hermanos» (1909) enpresak, baita Gerra Zibilarekin desagertu ez ziren udaletxea (1899-1901) —espazio falta zela-eta Ego ibaiaren gainean eraiki zena— eta beste

69. 1794an Espainiari gerra deklaratu zioten Frantziako Konbentzioko tropek Gipuzkoan sartu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusien oztoporik gabe. Alabaina, probintziako hainbat herrik, Eibar nagusiki, ez zuten Batzarren zilegitasunik onartu eta armada frantsesaren aurka antolatu zuten erresistentzia. Jarrera horren aurrean Konbentzioko tropek Eibar erre zuten. Gertakari horren inguruan eta Eibarren historiaren inguruan sakontzeko kontsulta daitezke: Areta, 2003: 367; Celaya, 1970; Iparragirre, 2008: 137 eta hur.; Mugica, 1984 (1910): 43-44; Sarasketa, 2000 (1909): 34; Barrena, 1999: 17-37; Paul, 1976; Calvó, 1997; Elorza, 2000.

70. Horrekin batera, 1649 eta 1708ko suteek, eta 1762 eta 1909ko uholdeek hiria kaltetu zuten ere. Domínguez eta Ponte, 1940: 20.

hainbat eraikin publiko ere, besteak beste oraindik dauden Astelena Frontoia (1904) eta Armeria Eskola (1912)⁷¹.



12. irudia. Eibar, ikuspegi orokorra San Andres parrokiaren inguruan.
(Indalecio Ojangurenen argazkia. 1914) AGG-GAO_OA07998 (cc).

Lehen Mundu Gerraren ostean, 20ko hamarkadatik aurrera armen sektorea krisian sartu eta Eibarko industria jada existitzen zen baina indar handiagoa hartu zuen burdindegian eta bizikleten eta josteko makinen fabrikazioan espezializatu zen, 1920an fundatu zen «Alfa» kooperatiba horren adibidea delarik.

71. Udaletxea, Eibarko hainbat eraikin bezala, 1794an desagertu zen, eta 1800ean berri bat eraiki, nahiz eta haren egoera kaskarraren aurrean, 1871rako beste proiektu bat egitea pentsatu zen. 1901ean inauguratu zen udaletxean polizia, eskolak, Marrazki Akademia, eta etxeak ireki ziren ere. Merkatu plaza ere ibaiaren gainean eraiki zen. 1890-1901 bitarteko proiektua bota, eta 1907-1909 bitartean Gurruchaga arkitektoak egindako planari jarraituz. Garai berekoak dira Alondegia, 1887-1889 bitartean Pedro José Astarloak maisu-lanak egin, eta 1905ean Gurruchagak handitu zuena, eskolak gaineratuz. Baita ospitalea ere, 1806an Juan Bautista de Belauzaraneke eraiki zuena bota ostean, 1897-1901 bitartean, berri bat eraiki zelarik Cortazarren proiektuaren arabera. Urte berean, 1901ean, San Andres asiloa inauguratu zen, eta 1910ean tuberkulosia zuten pertsonentzako galeria. Hiltokia 1852an berria eraiki, eta bota ostean, 1895-97 bitartean, beste bat altxatu zen, hau ere Cortazarren eskutik (Mugica, 1984 (1910): 349 eta hur.; AA.AA., 2004: 469 eta hur).

Gerra Zibilarekin herri guztia zeharo txikituta geratu zen (13. ird.), eta ondorengo urteetan bai erakundeek bai eta inizatiba pribatuak ere, berreraikuntza-lanei ekin eta ezerezetik hiri berri bat altxatu zuten, bertoko produkzioa atzerriko produktuetatik babesten zuen sistema ekonomiko itxiago bat lagun. 1945erako gerraurreko biztanle kopurua berreskuratu zuen hiribilduak, eta berriz ere gune industrial nabarmena bilakatzea lortu. Makina-erreminta, burdindegia, etxerako eta industria militarretako tresnak, bizikletak, josteko makinak eta motorrak izan ziren ondorengo urteetako Eibarko industriaren espezializazioa eta, alboko taulan ikus daitekeen moduan, hiriaren etengabeko hazkundera ahalbidetu zutenak.

Eibarko populazioa. 1887-1960

Urteak	Biztanleak Eibarren	Biztanleak Gipuzkoan
1887	5.103	
1900	6.583	195.850
1910	10.121	226.684
1920	11.888	258.557
1930	12.874	302.329
1931	12.997	
1932	13.161	
1934	13.431	
1937	9.126	
1938	9.837	
1939	9.881	
1940	11.772	331.753
1941	11.681	
1942	11.826	
1943	12.064	
1945	13.823	
1946	14.079	
1948	14.136	
1949	14.742	374.029
1950	16.318	374.040
1953	17.971	
1954	19.054	
1955	23.636	
1956	24.871	
1957	26.856	
1958	27.789	448.400
1959	30.000	
1960	31.725	478.337

Iturria: elaborazio propioa udaleko eta estatuko datuetan oinarrituta⁷².

72. Erabilitako iturriak: Instituto Nacional de Estadística (INE) (1947): *Eibarko Udaleko sesioak*. Eibar. 1947, Gráficas Eguren, Eibar; García Manrique, 1961; Martínez Sostre, 1954.



13. irudia. Eibar, ikuspegi orokorra San Andres parrokiaren inguruan.
(Indalecio Ojangurenen argazkia. 1937). AGG-GAO_OA05007 (cc).

Hortaz, gerraosteko Eibarren erronka nagusia bere berreraikuntza eta aurreko urteetako arazoei erantzun bat ematea izan zen: industriadako, etxebizitzetarako eta garraiorako espazio eta azpiegitura egokien beharrari, eta, urteak aurrera joan ahala, neurririk gabeko industriak eta populazioaren etengabeko hazkundeak sortutako arazoei aurre egitea. Ez baitzen etxebizitzaren eta industriaren arteko orekarik egon, ezta bientzako espazio komenigarri eta ezberdindurik ere. Betiere, gerraosteko erronkak, aurreko hiri-antolaketaekin zerikusirik ez zuen Eibar berri batean garatu behar izan zirelarik.

2.2. HIRI-ANTOLAKETA BERRIA

2.2.1. Hiriaren txikizioa eta hasierako berreraikuntza-lanak

1937ko apirilaren 26an Errepublikaren gobernuaren kontra altxatu ziren tropek zeharo txikituta geratu zen Eibar hartu zuten. Gerra-estrategiari jarraituz, tropa nazionalak Frantziako muga itxi nahi zioten arerioari, eta Irun eta Donostia egun gutxitan hartu ostean Bilborako bidea hartu zuten. Baina arin zihoan kanpaina militarra Eibarren geratu, eta bertan Gerra Zibileko fronte nagusietako bat ezarri zen. 1936ko abuztuaren 29an tropa nazionalak hiria bonbardatzen hasi ziren, eta urrian jarraitu, zenbait eraikin txikituz. Bitartean Eibarko biztanle gehienek herria utzi (hildako eta joandakoen artean 4.000 bat pertsona izan daitezkeela estimatzen

da [García Manrique, 1961: 171]), eta hainbat industriatako makineria konfiskatu eta Bizkaiko zenbait udalerritarra lekuz aldatu zituzten.

1937ko apirilaren 24an tropa nazionalak Elgetan sartu ziren, eta egun horretan eta hurrengoan Eibar bonbardatu zuten bonba su-eragileekin eta bertan zeuden soldadu batzuek etxe batzuei emandako sua lagun, hiria kiskali zuten (Gutiérrez Arosa, 2007: 133-135).

Tropa nazionalak Eibarren sartu zirenean, eraikinen heren bat txikituta eta 150 pertsona baino ez zituzten topatu⁷³. Estimaten da zeuden 488 eraikinetatik 156 zeharo txikituta geratu zirela eta 101 partzialki, hau da 1.756 etxe (horietatik 840 kaltetuta) baino ez zirela geratu gerra hasi aurretik 13.678 biztanle zituen herrian⁷⁴. Udalak egin zituen estimazioen arabera 17.350.000 milioi pezeta galdu ziren, horietatik udalak berak bi milioi galdu zituen, eta gehiena partikularrek beren eraikin (12.200.000), makineria, tresneria, altzari eta abarretan (3.150.000)⁷⁵.

Jarraian, hiria utzi zuten biztanle asko pixkanaka bueltatzen hasi ziren, nahiz eta beste batzuek erbestea edo zigorra jasan behar izan zuten. Eta ahal izan zuten moduan berreraikuntza-lanekin hasi ziren, hasierako urteetan, ulertzekoa zen, inprobisazioa, nahastea eta koordinazio falta nagusi zirelarik.

1937an Eibar txikitu ostean, aipatu bezala, oraindik gerran zegoen Estatuak ez zuen txikitutako herriak berreraikitze erabakirik hartu. Hortaz udalari eta inizatiba pribatuari egokitu zitzairen berreraikuntzako lehen lanak egitea. Berreraikuntzako lehen lanak hiria kiskali eta berehala burutu ziren. 1937ko maiatzaren 11n, zortzi egun lehenago osatu zen eta errekurtsorik ez zuen Eibarko Udala⁷⁶ Gipuzkoako Aldundiari zuzendu zitzaion hondakinak kentzeko laguntza eskatzeko, eta aldundiak urte bereko apirilaren 29an aurreikusi eta maiatzaren 14an onartu eta bidali zuen laguntza. Diputazioak pertsonal teknikoa, langileak (80 inguru) eta lan egiteko lanabesak igorri zituen aldundiko arkitektoaren zuzendaritzapean⁷⁷. Bertan, nagusiki diputazioak ordainduta eta udalak lagunduta, ekainaren 19ra arte, hondakinak kendu, beharra zuten eraikinak zurkaiztu eta kaleak garbitu zituzten. Hondakinak udalak Azitainen erosi zuen hondakindegira eroan zituzten, zeina denbora gutxian bete eta handitu behar izan zuten⁷⁸.

73. *Informe de la situación de las provincias vascongadas bajo el dominio rojo-separatista*, Universidad de Valladolid, Valladolid, 1938, 108-109.

74. García Manrique, opus cit.: 171; EAEHAAN. I-354-3, 75. AAN. (4) 81, 20.259.

75. *Ayuntamiento de Eibar. Provincia de Guipúzcoa. Memoria que en cumplimiento del artículo 166 de la vigente ley municipal, se eleva al ministerio de la gobernación, sección de administración local, sobre la forma en que se desarrollan y tiene organizados sus servicios este ayuntamiento. Año de 1941*. EUA. B.2.29.2.

76. 1937ko maiatzaren 3ko udal-bilkura. EUA *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1937-1938*. A.11-59.

77. Guztira 33.768,51 pezeta inbertitu ziren. GAN. Administratiboa. JD-S 1172/7.

78. 1938ko urtarrilaren 27ko eta maiatzaren 30eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1937-1938*. A.11-59. 1944ko abenduaren 28ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1944*. A.11-65

Diputazioak, udalak eskatutako laguntza ematearekin batera, hasitako prozesuan neurri osagarriak hartu zituen. Udal-arkitektoak ez zegoenez, erabaki zuen ezin zela eraikinik bota edo konponketarik egin diputazioko arkitektoaren iritzi teknikoa kontuan hartu gabe, eta Eibarko alkatearen eta komandante militarren idatzizko baimenik gabe. Gainera lanek, garrantziaren arabera, teknikari arduradun baten ikuskaritza behar zuten (arkitekto edo aparejadore batena) eta aurreko urteetan onartutako eta indarrean zegoen eraikuntza-prozedura eta araudia errespetatu beharra zegoen⁷⁹.

1937ko urriaren bukaeran, udalak Raimundo Alberdi azkoitiarra behin-behineko udal-arkitekto izendatu zuen hil berean⁸⁰, lehen obra partikularrak konpontzeko eta eraikitzeko baimen-eskaerak egin ziren. Bitartean udalak bere ondarea konpontzeko diru-arazoak aitortzen zituen, nahiz eta pixkanaka, eta lehentasunen arabera, lanak egiten hasi zen⁸¹. Baina berreraikuntza modu egokian gauzatzeko hirigintza-plan berri baten beharra zegoen.

Urte bat geroago, 1938ko urtarrilaren 30ean, aipatutako *Servicio Nacional de Regiones Devastadas* sortu zen, eta urte bereko martxoaren 29ko dekretuan Gobernazio Ministerioak gerran kaltetutako ondasunek jarraitu beharreko norma prebentiboak hartu zituen⁸². Horien arabera, ordutik aurrera Estatuaren esku geratzen ziren berreraikuntza-lanak, eta, hortaz, udalak hasitako berreraikuntza bertan behera geratu zen. Egoera horren aurrean Eibarko alkatea, José González Orbea, Gobernazio Ministeriora joan zen, Burgosera, eta bertan dekretua modu murriztailean ez zuela ulertu behar azaldu zioten. Horregatik bueltatzean, maiatzean, Eibarrerako urbanizazio-plan berria egiteko lehiaketa antolatzeke baimena eskatu zion Gobernazio Ministerioari⁸³.

Jarraian, 1938ko ekainaren 11n, martxoko dekretua osatzen zuen beste bat promulgatu zen. Horren arabera tokian tokiko berreraikuntza-komisioak osatu beharra zegoen, berreraikuntzarekin erlazio zuen oro tramitatzeko, nagusiki martxoan sortu berri zen ICRNren diru-laguntzak⁸⁴. Gipuzkoako Berreraikuntza Komisioa ez

79. GAN. Administratiboa. JD-S 1172/7.

80. 1937ko urriaren 20ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1937-1938*. A.11-59.

81. Udalaren lan-brigadak administrazio-sistemaren bidez udal-eraikinen teiltuak konpotzen hasi ziren, suhiltzaileen zerbitzua antolatzen, estolderia eta Bidebarrietako arropa-garbitokia konpontzen, eta hondakinak kentzen. 1937ko urriaren 20 eta 27ko, eta 1938ko maiatzaren 30eko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1937-1938*. A.11-59.

82. "Decreto dando normas permitivas a que han de sujetarse la restauración o reconstrucción de bienes dañados por la guerra", *Boletín Oficial del Estado*, **524**, 1938ko martxoaren 29a, 6.438. or.

83. 1938ko apirilaren 4ko eta maiatzaren 30eko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1937-1938*. A.11-59.

84. Korrespondentzia ofiziala. 1938ko uztailearen 15eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1937-1938*. A.11-59.

zen 1939ko apirilaren 25 arte osatu⁸⁵, eta gordetzen den dokumentazioaren arabera, 1939ko abenduan eta 1942ko iraila bitartean kaltetu partikularren laguntza-eskaerak jaso zituen⁸⁶. Baina aurretik 1938ko abuztuaren bukaeran Regiones Devastadas-ek bere lana eremu ezberdinetan antolatu zuen, hasiera batean Hego Euskal Herria Bilbon egoitza zuen eremuan sartu zuelarik⁸⁷.

Bitartean, eta instituzio publikoek hasitako berreraikuntza-lanen erritmo geldo eta burokratikoaren aurrean, 1938ko urrian, Eibarko hainbat auzokidek, lanekin aurrera jarraitzeko bertoko biztanle eta erakundeek osatuko luketen Berreraikuntza Junta baten antolaketa eskatu zuten, Irunen urte bat lehenago sortu zena gogorarazi ahal diguna⁸⁸. Abendurako udalak, agian auzokideen eskakizunei erantzunez, Berreraikuntza Udal Komisio Berezi bat sortu zuen, nahiz eta haren lana oso mugatua eta partziala izan zen⁸⁹.

1939ko apirilean, Gonzalo Cardenasek zuzentzen zuen Regiones Devastadas-eko Bilboko bulegoak Eibarko urbanizazio-plan berria egiteko udalari herriaren plano takimetroa eskatu zion⁹⁰, zeina Raimundo Alberdi udal-arkitektoak eta Laureano Uzcanga diputazioko topografoak egin zuten.

Urte bat geroago, 1940ko martxoaren 13an, aipatu bezala, Joaquín Domínguez Elosegui Donostiako Proiektuetako Bulego Teknikoaren arkitekto buru izendatu eta Gipuzkoako egoitza berria sortu zen⁹¹. Regiones Devastadas-ek Gipuzkoako udalerrien berreraikuntza modu egokian burutzeko, Donostiako Urbietan kalean ireki zuen bulegoa, eta lanak errazteko, beste bulego bat Eibarren, Arraterako errepidean⁹².

Gipuzkoako zuzendaritzan, gutxienez, 5 arkitektoak (Joaquín Domínguez Elósegui arkitekto buru, José Antonio Ponte Picavea arkitekto laguntzaile, Francisco Ortigosa Alzuela, Miguel Apraiz Barreiro eta José María Ruiz Azpiri), ingeniari batek (Félix Calderón Gaztelu), 3 arkitekto teknikok (Ricardo Blanco Caballero,

85. GAN. JD-S 980/2. “Orden nombrando la Comisión de Reconstrucción para las provincias dañadas por la Guerra”, *Boletín Oficial del Estado*, **118**, 1939ko apirilaren 28a, 2.282. or.

86. GAN. JD-S 980/2.

87. Servicio Nacional de Regiones Devastadas-eko bigarren zonako Sekzio Teknikoaren zuzendariaren ofizioa. 1938ko abuztuaren 30eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1937-1938*. A.11-59.

88. 1938ko urriaren 31ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1937-1938*. A.11-59.

89. 1938ko abenduaren 23ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1937-1938*. A.11-59.

90. Servicio Nacional de Regiones Devastadas-eko bigarren zonaren komunikazioa. 1939ko apirilaren 14ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1939*. A.11-59.

91. EAEHAAN. I-353-4, 38. Regiones Devastadas-eko Eskualde-bulegoko arkitektoburuaren ofizioa udalari. 1940ko apirilaren 29ko udal-bilkura eta 1940ko maiatzaren 14ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1940*. A.11-61

92. “Oficina Técnica de Reconstrucción en Eibar”, *El Diario Vasco*, 1940ko abuztuaren 21a, 2. or. Handik urte batzuetara bulegoa Regiones Devastadas-ek eraiki zuen Maria Angela etxadiko pisu batera lekuz aldatu zen. EAEHAAN. I-354-3, 1.

Fernando Tejero Benito eta Emilio de Francisco Caballero), 4 delineatzailek (Manuel Carrasco Alonso, Francisco Javier Cristóbal Aguado, Jesús Cía Esquiroz eta Pablo de Vicente López), 3 mekanografok (María Luisa Echevarria Mercader, María Luisa Eguiguren Arano eta Elvira Ferreiros Guinea laguntzaile), eta bulegari bat (José Quiroga Valdés) egiten zuten lan⁹³. Horrekin batera Eibarren, aurreratu dugun moduan, berreraikuntza-lanetan laguntzeko preso-kanpamendu bat zegoen. 1940-41 bitartean segurtasun-arrazoiengatik Azitainen, herritik kanpo, eraiki zen kanpamenduak 230 pertsonentzako lekua izan zuen, nahiz eta bertan 368 preso egotera heldu ziren⁹⁴ (14. ird.).



14. irudia. Eibarko preso-kanpamenduko jantokia Estatu berriaren bandera eta Jose Antonio Primo de Rivera eta Francisco Francoren argazkiak lagun. (Reporte Gráfico Eibarren argazkia). MECD, AGA, Obras Públicas, signatura F-04190-005-001.

Hortaz, litekeena da Bilbon hasitako Eibarko hirigintza-plana Gipuzkoako zuzendaritzara bidaltzea eta bertan Joaquín Domínguez Elósegui eta José Antonio Ponte 1940ko iraila arte lanean aritzea. Halaber, maiatzetik aurrera herriak behar zituen eraikin eta zerbitzuen erlazioa egiten hasi ziren⁹⁵. Bitartean, martxoaren 9an, udalak eskatuta, estatuburuak Eibar bere berreraikuntzarako adoptatu zuen⁹⁶.

93. EAEHAAN. I-353-4, 38. Eibarren lan egin zuten profesionalen zerrenda eranskinean ikus daiteke.

94. EAEHAAN. I-354-5, 95, 96, 97, 98. I-354-3. AAN. (04) 081, 20.259,

95. Regiones Devastadas-eko Eskualde-bulegoko arkitektoburuaren ofizioa udalari. 1940ko apirilaren 29ko udal-bilkura eta 1940ko maiatzaren 14ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1940*. A.11-61.

96. 1939ko urriaren 10eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1939*. A.11-59. 1940ko martxoaren 11ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1940*. A.11-61.

Regiones Devastadas-ek zuzendu behar zuen berreraikuntzari jaramonik egin gabe, udalak bere lan propioa egiteko asmoarekin jarraitu zuen⁹⁷. Eta hala 1940ko urriaren 10eko udal-bilkuran udal-teknikariek egindako zabalgunek- eta erreforma-proiektua aztertu zen⁹⁸. Data bertsuetan, 1940ko urriaren 8an, Regiones Devastadas-ek Eibarko urbanizazio-proiektua onartu ostean, udalari igorri zion onar zezan, eta modu horretan ordura arte udal-korporazioak bultzatutako plan guztiak bertan behera geratu ziren⁹⁹. Jarraian, urriaren 26an Eibarko berreraikuntza-lanen hasiera-ekitaldia egin zen, egindako lanen erakusketa eta hitzaldi bat lagun¹⁰⁰. Bertan Eibarko alkatea (José González Orbea), Diputazioko presidentea (Mariano Caravaca), Gipuzkoako gobernadore zibila (Gerardo Caballero militar bilbotarra), Regiones Devastadas-eko zuzendaria (José Moreno Torres) eta Iruneko eta Elgetako alkateak egon ziren¹⁰¹ (15. ird.).

Iniziatiba pribatuaren eta udalaren inbertsioak
Eibarko berreraikuntzan. 1938-1947

Urteak	Diru kopurua (pezetak)	
	Iniziatiba pribatua	Udala
1938	1.057.143,70	
1939	1.012.000,00	99.263,00
1940	3.003.050,00	134.568,98
1941	3.079.637,00	118.470,41
1942	4.933.551,53	100.716,48
1943	5.281.643,00	172.626,89
1944	3.791.681,00	265.831,02
1945	5.338.845,00	
1946	15.962.041,00	
1947*	9.486.540,00	

Iturria: elaborazio propioa udalaren datuetan oinarrituta¹⁰².

97. 1940ko urtarrilaren 29ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1940.* A.11-59.

98. 1940ko urriaren 10eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1940.* A.11-59.

99. Eskualdeko arkitekoburuaren ofizioa. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1940.* A.11-59.

100. 1940ko urriaren 14ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1940.* A.11-61. “Apertura de la exposición de los nuevos planes de reconstrucción”, *El Diario Vasco*, 1940ko urriaren 27a, 2. or. “El Director General de Regiones Devastadas en Eibar”, *La Voz de España*, 1940ko urriaren 27a, 3. or. “La exposición de los planos de la reconstrucción de Eibar”, *El Diario Vasco*, 1940ko urriaren 29a, 4. or.

101. Agian koordinazio falta horren aurrean, baina nagusiki Eibarko Udalak gerraosteko hasierako urteetan finantzaketarekin izan zituen arazoaren aurrean, jada aipatu dugun bezala, 1941eko urriaren 3an Gipuzkoako gobernadore zibilak udal-korporazio berria izendatu zuen, Justo Oria Gorostiaga alkate berria izendatuz. 1941ko urriaren 3ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1941.* A.11-62

*. Urte bereko maiatz arteko datuak.

102. *Eibar.1945*, Gráficas Eguren, Eibar, 1945; *Eibar 1947*, Gráficas Eguren, Eibar, 1947. Udalaren memoriak: EUA. B.2.29.2.

Modu horretan, instituzio publikoen zuzendaritza eta parte-hartzearekin (Regiones Devastadas, Udala, Obra Publikoetako Ministerioa, Obra Sindical del Hogar) hasi zen Eibarren berregitea, ezinbestekoa izan zen inizatiba pribatuarekin batera. Izan ere, berreraikuntza hasi eta 1944 arte inizatiba pribatuak 25 milioi pezeta baino gehiago gastatu zituen, eta 1949an 65 bat milioi, Regiones Devastadas-en inbertsioak 32 milioikoak ziren bitartean.



15. irudia. Eibarko berreraikuntzaren inguruko erakusketa. 1940ko urriaren 26an inauguratua. MECD, AGA, Obras Públicas, signatura F-04257-026-01.

2.2.2. Urbanizazio-plan berria

2.2.2.1. Plan urbanoaren definizioa

1940ko irailean Joaquín Domínguez Elosegui eta José Antonio Pontek Eibarko urbanizazio-plana egin zuten, eta jarraian *Reconstrucción* aldizkarian argitaratu¹⁰³ (16. eta 17. ird.). Plan berrian kalte gehien izan zuen hiriko erdigunean zentratu ziren, egitura urbanistiko zeharo berri bat proposatuz, aurrekoaren irregulartasuna desegokitzat baitzuten. Horrekin batera instituzio bakoitzak behar zituen zerbitzuak eta berreraiki beharreko lanak (publikoak eta partikularrak) zehaztu ziren.

103. EAEHAAN. I-354-3, 76. Domínguez Elosegui eta Ponte, 1940: 20-27. Ikusi eranskina.

Gerraren txikizioa aprobetxatuz, 1955ean lortu ziren 24.000 biztanleentzako hiri berri bat definitu nahi zen. Horretarako planak ezinbestekotzat zuen Ego ibaiaren estaltzea, horrela lortuko ziren-eta beharrezkoak ziren espazio berriak kale eta eraikuntzetarako. Estaltzearen gainean kale berrien eta txikitutakoen trama urbanoa berrantolatzea pentsatu zen, eraikuntza mota ezberdinek ahalbidetuko lituzketen alienazioak eta orubeak beste modu batean definituz, betiere, espazioa modu higienikoago batean aprobetxatu eta zirkulazioa eta loturak hobetu nahian. Kale batzuk desagertu ziren (Barrenkale eta San Andres eliza ingurukoak), beste batzuk sortu (Zuloagatarren kalea, San Agustin eta San Juan) eta zeuden asko zabaldu (Arragueta, Bidebarrieta, Calbeton, Isasi), moldatu (Arrate pasealekua) eta luzatu ziren (Toribio Etxebarria).

Modu horretan erdigunean eraikuntzarako hondo gutxiko orubeak (10-16 metrokoak) definitu ziren eta, Gernikako hirigintza-plan berrian egin zen moduan, zirkulazioa hobetu: Urkizu-Bidebarrieta-Calbeton-Untzaga plaza eta Isasitik pasatzen zen Bilbo-Donostia errepide bakar eta kongestionatuari, alternatiba eta osagarri bat gehituz: Urkizu-Errebal-San Juan-Udaletxea eta San Andres zeharkatzen zituena. Horrekin batera, komunikazioak hobetzeko, autobus-geltoki bat ere aurreikusi zen Julian Etxebarria kalearen bihurgunean.



16. irudia. Eibarko urbanizazio-plan berria. Joaquín Domínguez Elósegui eta Jose Antonio Ponte. 1940ko iraila. MECD, AGA, Obras Públicas, signatura F-4260-4.

http://www.ueu.org/liburuak/gerraosteko_euskal_herrian_eraikitzea/irudiak/fig.16.tif



17. irudia. Eibarko urbanizazio-plan berria. Joaquín Domínguez Elósegui eta Jose Antonio Ponte. 1940ko iraila. EAEHAAN / AGAPCAE. CT22.H.168.4.

http://www.ueu.org/liburuak/gerraosteko_euskal_herrian_eraikitzea/irudiak/irudiak.php?img=Fig.17.jpg

Komunikazio-bide nagusiei jarraituz, hiriaren funtzioen arabeko zonifikazioa egin zen ere: etxea, industria eta aisia. Berreraikuntza-lan gehienak erdigunean egin behar zirenez, etxeak eraikitzeke eremu gisa pentsatu zen nagusiki, baita zezen-plaza ingurukoa (Ipurua) ere, herriaren zabalgunek berria. Lehenengoa orube itxi eta dentsitate handiko eraikinekin eta, bigarrena, orube ireki eta altuera gutxiagoko etxeekin. Industrialdea, berriz, herriaren ekialde eta mendebaldean kokatzea pentsatu zen, kanpoaldean zeuden Azitain eta Otaolan, nahiz eta plan berriaren asmoekin zetozen eta txikituta geratu ez ziren industriak hiri erdian mantendu ziren. Gainera hirigunean gogaikarriak ez ziren tailerrak eraikinen beheko solairuetan onartu ziren, Eibarren izaera industrial nabarmendu zelarik. Azkenik aisialdirako gunea, hiri-erdiguneko plaza eta lorategiekin (Untzaga, San Andres, Maria Angela eta Urkizu), zezen-plazaren ondoan egongo litzatekeen parke batekin, eta Torrekua, Otaola eta Barregua kale artean proiektatutako kiroldegi batekin osatu zen: 6.000 pertsonentzako futbol- eta atletismo-zelaia, frontoia, tenisa, igerileku, hondartza artifizial eta bainuetxea izango litzukeena.

Horrekin batera gerrarekin kaltetuta edo txikituta geratu ziren beste zerbitzu batzuk berregitea edo hobetzea pentsatu zen: ur-hornikuntza, estolderia, argiztapena, hilerria, zenbait zerbitzu publiko (merkatua, alondegia, suhiltzaileak, hiltegia, gizarte-laguntza, etxe sindikala, polizia, posta, telegrafoak, osasuna, hezkuntza eta erlijioa) biltzen zituzten erakin berriak eta Regiones Devastadas-ek etxe gabe geratu zirenentzako etxadia. Untzaga eta San Andres eliza inguruko eraikinek tradizioari jarraitu behar ziotela azpimarratuz, eta urbanizazio-planarekin batera, 1943an onartu ziren udal-ordenantzek markatutako ezaugarri jarraitu beharko liekete.

Hortaz, Regiones Devastadas-ek egindako planean, berreraikuntzan jarraitu beharreko urbanizaziorako eta eraikuntzarako ildo nagusiak markatu zituen, batez ere zeharo txikituta geratu zen hirigunean zentratuz. Eibarko erdiguneko plan urbanoaren garapena, aldi berean burutu behar ziren lau zati hauetan banatu zen: kale, enparantza eta lorategien eraikuntzan, Ego ibaiaren estaltze eta bideratzean, estolderia eta ur-hornikuntzaren zerbitzuan eta kaleen argiztapenean, paraleloki eraistek eta hondakinak kentzea, desjabetzeak eta partzelazio berriak ere egin behar izan zirelarik. Bitartean hiriaren gainerako aldeak, ondorengo urteetan beharrezkoak izango liratekeen udalak eginiko plan partzialen esku geratu ziren.

1943ko otsailaren 23an José Moreno Torres, Regiones Devastadas-eko zuzendari nagusiak, Eibarrera maiz egiten zituen bere bisitako batean, jada hasia zen berreraikuntza-plana aurkeztu eta defendatu zuen udaletxean. Plana, arrazoia eta justizia erabiliz eta interes publikoen arabera, moldatu ahal zela onartuz¹⁰⁴.

104. 1943ko martxoaren 1eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1943.* A.11-64.

2.2.2.2. Plan urbanoaren garapena

a) Eraisteak, hondakinak kentzea eta hasierako urbanizazioak

Udalak Gipuzkoako Diputazioarekin batera hasitako eraisteak eta hondakinen kentzea, Regiones Devastadas-ek bere gain hartu zituen 1940ko maiatzetik aurrera. Lanak kaltetuen geratu zen erdigunean burutu ziren: San Andres pasealekuan, Isasin (Komentua), Plaza Barrian eta egun desagertu diren Ospitale, Arraindegi, Txiriko, Elgeta eta Barrenkale kaleetan (San Andres elizaren inguruan); baita Zuloagarren, Bista Eder, Maria Angela (Errebal), Mazategi, Ibarkurutze, Bidebarrieta eta Arragueta kaleetan ere (18., 19., 20., eta 21. ird.).

Kendutako hondakinak urbanizazio-plan berriko kaleak egiteko erabili ziren kasu batzuetan, eta besteetan Ipuruan, zezen-plaza ondoan, lurren desjabetzeaz gain Regiones Devastadas-ek egin zuen beste hondakindegian bota ziren¹⁰⁵. 1944ko otsailerako hiriguneko hondakinen kentzea bukatzeaz zegoen eta, jarraian, 1945eko otsailean, hondakindegirako urbanizazio-proiektua egin zuten Félix Calderónek, José Antonio Pontek eta Miguel Apraizek¹⁰⁶.

Kale, enparantza eta lorategien urbanizazio-plana, berriz, 1943ko uztailean diseinatu zuten Félix Calderónek, Joaquín Domínguezek, José Antonio Pontek eta Miguel Apraizek¹⁰⁷. Eraiste, hondakinen kentze eta, beharrezkoa balitz, desjabetzeen ostean, planaren egiteko nagusia kaleetako lurren berdintze eta zolaketan zetzan, kasu batzuetan, urbanizazioaren beste fase batzuekin batera egin behar zena: Ego ibaiaren estaltze eta bideratzearekin, eta ur-hornikuntza eta estolderia-sistemarekin. Horregatik, lan guztiak pareloak izan ziren, eta uste baino gehiago atzeratu ziren, 1951n oraindik burutzen ari baitziren.

Udala, bere udal-arkitektoaren eskutik, nagusiki 1947 eta 1956 arte luzatu ziren lurren desjabetze, partzelazio eta permutaz arduratu zen¹⁰⁸. Hirigintza-plan berriarekin bat zetozen partzelazioak egitea, etxeak eraikitzen hasteko ezinbesteko eta aurreneko pausoa zen eta horregatik udalak interes handia jarri zuen egiteko horretan. Alabaina, lanak nahi baino gehiago atzeratzen ziren, jabe batzuk desjabetze,

105. EAEHAAN. I-354-3, 75. AAN. (4) 81, 20.259 eta 20.260.

106. AAN. (4) 81, 20.259, 20.266. EAEHAAN. I-354-3, 78. Bertan, geroago aipatuko ditugun futbol-zelaia, Guardia Zibilaren etxe-kuartela eta OSHren Carlos Larrañaga etxadi zati bat eraiki ziren.

107. EAEHAAN. I-354-3, 78, 79. AAN. (4) 081.001, 20.264 eta (4) 78, 26/16429.

108. 1. blokea (Maria Angelako etxadia eta Merkatua): 1945eko ekainaren 14ko eta azaroaren 28ko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1945.* A.11-66. 1946ko uztailearen 15eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1946.* A.11-67. 1947ko apirilaren 14ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1947.* A.11-68. 2. blokea (Zuloaga, Bidebarrieta, Barrenkale, Arraindegi kaleak): 1946ko martxoaren 15eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1946.* A.11-67. 3. blokea (Ibarkurutze eta Bidebarrieta): 1946ko uztailearen 15eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1946.* A.11-67. 4. blokea (Bidebarrietako Lastarria): 1947ko abuztuaren 14ko eta azaroaren 14ko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1947.* A.11-68. 6. blokea (Txirio, Elgeta kalearen ingurua): 1956ko urtarrilaren 26ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1956.* A.11-84.

partzelazio eta eraikitzearen kontra zeudelako, beren ondasuna galtzen ari zirelakoan, edo etxe-gabeziaren aurrean lursail preziatuaren gainean espekulazioan hasi eta etekin handiagoa ateratzearen zain zeudelako. Eta 1941ean beren eskubideen defentsan «Jabegoaren defentsarako toki-junta» (Junta Local de Defensa de la Propiedad) osatu zuten zenbait (47) etxejabeak eta industria-jabek¹⁰⁹. Regiones Devastadas-eko zuzendariak 1944an *El Diario Vasco* egunkarian eginiko elkarrizketan azaldu zuen lanak atzeratzen zirela askok beren eta beren lagunen interesak interesen orokorren gainean gainjartzen zituztelako¹¹⁰.

Egoera horren aurrean Regiones Devastadas-ek partzelazioa egin nahi ez zutenen lurrak desjabetu zituen¹¹¹, eta udalak eraiki ez zituenak enkantean jarri. 1945eko maiatzaren 15eko lursailak ordenatzeko legearen arabera eta 1947ko maiatzaren 23ko haren araudiaren arabera, eraiki gabeko orubeak enkantean jarri ahal ziren bertan etxeak egin ahal izateko. Horixe egin zuen 1948an Eibarko Udalak Bidebarrieta kalean: jabeek beren lursaila saltzera behartu, eta modu horretan estatuan ia eraginik izan ez zuen legea betearazi¹¹². Beste kale batzuetan, Txirio kalean gertatu zen bezala, ez zen 1957 arte eraiki, besteak beste, lurzoru haien jabeak partzelazioaren kontrakoak zirelako¹¹³.

Eibarko Udalak Regiones Devastadas-ek egindako planarekin bat zetorren erdiguneko partzelazioa egiten zuen bitartean, hiriko beste zenbait alderen urbanizazioaz ere arduratu zen. Espazioek behar zituzten zerbitzu gehigarriak, nahiz eta berandu, burutu (ur-hornikuntza, estolderia eta zoladura jarri). Hala gertatu zen 1945etik aurrera Txonta¹¹⁴, Iparragirre¹¹⁵, Ubitxa¹¹⁶, Ardantza, Matsaria eta Errekatxun¹¹⁷, industriak eskatzen zuen populazioaren hazkundeari erantzun bat eman nahian.

109. EAEHAAN. I-353-1, 11.

110. “La reconstrucción de Irún y Eibar. Lo que nos dice el Director General de Regiones Devastadas”, *El Diario Vasco*, 1944ko martxoaren 3a, 6. or.

111. 1953ko ekainaren 26ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1953. A.11-78.*

112. 1948ko otsailaren 16ko eta martxoaren 15eko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1948. A.11-69.*

113. 1957ko apirilaren 25eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1957. A.11-86.* 1953ko ekainaren 26ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1953. A.11-78.*

114. 1945eko ekainaren 28ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1945. A.11-66.* 1949ko urtarrilaren 28ko eta uztailaren 15eko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1949. A.11-70.* 1953ko irailaren 30eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1955. A.11-82.*

115. 1947ko irailaren 15eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1947. A.11-68.*

116. 1948ko maiatzaren 28ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1948. A.11-69.*

117. 1949ko abenduaren 2ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Comisión Municipal Permanente. 1949. A.11-71.* 1952ko apirilaren 14ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Comisión Municipal Permanente. 1952. A.11-76.* EUA 3161.



18. irudia. Urbanizazio plan-berria hasi aurreko Eibarko lan-irudia. Berdez markaturik kaltetutako eraikinak. Joaquín Domínguez Elósegui eta José Antonio Ponte. 1940ko iraila. MECD, AGA, Obras Públicas, signatura 26-16429-002.

http://www.ueu.org/liburuak/gerraosteko_euskal_herrian_eraikitzea/irudiak/irudiak.php?img=Fig.18.jpg



19. irudia. Eibarko hondakinen kentzeen planoak. Joaquín Domínguez Elósegui.
MECD, AGA, Obras Públicas, signatura 020259-001.

http://www.ueu.org/liburuak/gerraosteko_euskal_herrian_eraikitzea/irudiak/irudiak.php?img=Fig.19.jpg



**20. irudia. Eraikinen hondakinak Eibarko Eritegi kalean.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 11.003. HIF.**



**21. irudia. Eibarko Agustina Errekoletoen komentuaren hondakinen kentzea
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 13.015. HIF.**

1955eko irailaren 13an, Fernando Suárez de Tangil Obra Publikoetako ministroak Eibarrera egin zuen bisitan, udalak 1940ko urbanizazio-plana ia egina zegoela esan eta alde berrien urbanizazioak beharrezkoak zirela aitortu zuen, eta horretarako ministerioaren esku zegoen hiriaren saihebidia beharrezkoa zela eskatu¹¹⁸.

Urbanizazioak, eraistek eta hondakinen kentzeak egiten ziren bitartean, Ego ibaiaren estaltze eta bideratzearekin batera estolderia eta ur-hornikuntza ere egin ziren.

b) *Ego ibaiaren estaltze eta bideratzea*

Regiones Devastadas-ek egin zuen Urbanizazio Plan Orokorrean Ego ibaiaren estaltze eta bideratzea premiazko eta ezinbesteko lana zen. Estaltzea egiteko arrazoi nagusia hiri-antolaketaarako espazio gehiago irabaztea. Tartean ur gutxi eta kutsatua zuen ibaiak sortzen zituen saneamendu-arazoak eta arazo higienikoak eta antiestetikoak saihestea ere izan zen. Baina, esan bezala, ez zen ideia berria, udalak espazioa irabazteko gerran aurretik jada hiru zati estali baitzituen.

Ego ibaiaren estaltzea eta bideratzea 1899an erabaki zen lehen aldiz, hain zuzen ere Ramón Cortázar probintziako arkitektoak 1901ean diseinatu zuen udaletxea eraikitzeko. Estaltze-lanak 1902 eta 1907 bitartean luzatu ziren inguruko kaleetan, Toribio Etxebarria, Ego gain eta Julian Etxebarria kaleetan, merkatu zaharra eraikita zegoen lekuan, eta beste hainbeste egin zen Urkizuko pasealekua eta lorategiak lortzeko (Mugica, 1984 (1910): 369-370). Gerraosteko plana definitu aurretik ere, partikularrek ibaia estali zuten bertan eraiki ahal izateko, Errasti eta Gabilondo enpresek egin zuten bezala. Izan ere, enpresek ibaiaren estaltzean interesa baitzuten, eta ondorengo urteetan ere lan horiek bultzatu zituzten.

Gerraosteko proiektu berriarekin, hiritik pasatzen zen 2.580 metroko luzera zuen ibai osoa estali eta bideratu nahi zen¹¹⁹. Eibarren txikizioarekin ordura arte burutzerik ez zegoen lana egiteko aukera ematen baitzuen. Baina gerraosteko egoera eta lanaren dimentsioak zirela-eta, pixkanaka eta beharren arabera egingo zen proiektu orokorra prestatu zuen Félix Calderón ingeniariak 1941eko urtarrilean (22. ird.). Estaltze- eta bideratze-lanekin batera, ibaian bukatzen zen estolderia eta kolektore-sistema berreraiki eta hobetuko lirateke.

118. 1955eko irailaren 14ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1955. A.11-82.*

119. AAN. (4) 78. 26/16.429, (4) 081.001, 20.261. EAEHAAN. I-354-3, 77. Estaltze-lanez aritzen da ere: Apraiz, 1944: 159-166.



**22. irudia. Ego ibaia estaltzeko eta kanalizatzeko proiektua. Félix Calderon.
Donostia, 1941eko urtarrilaren 20an. EAEHAAN / AGAPCAE. CT23.H.168.3.**

http://www.ueu.org/liburuak/gerraosteko_euskal_herrian_eraikitzea/irudiak/irudiak.php?img=Fig.22.jpg

1941eko ekainean, Calderónek, hiri erdia estali nahi zuen proiektuaren lehen parte diseinatu zuen (31-58 bitarteko profilak), egungo Toribio Etxebarria (23. eta 24. ird.), Zuloagatarren kalearen, Julian Etxebarria eta Bidebarrieta kaleen inguruko aldea. Hainbat obra instituzional eta etxeak eraiki behar ziren espazio berrian. Bertan San Juan eta Julian Etxebarria kaleetako bideari jarraitzen zion ibaiaren meandroa kendu, eta San Andres parrokia ingurutik eta Bidebarrietatik pasatzen zen bideratze berria egin zen (25. eta 26. ird.).



23. irudia. Ego ibaiaren estaltze- eta kanalizazio-lanak Toribio Etxebarria kalean (lehen Maitzaren 2a kalea). (Indalecio Ojangurenen argazkia, 1944)
AGG-GAO_OA04995 (cc).



24. irudia. Ego ibaiaren estaltze- eta kanalizazio-lanak Toribio Etxebarria kalean (lehen Maitzaren 2a kalea). (Indalecio Ojangurenen argazkia, 1944)
AGG-GAO_OA04996 (cc).



25. irudia. Ego ibaiaren estaltze- eta kanalizazio-lanak merkatu zaharraren inguruan.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtsa. Sig. 14.036. HIF.



26. irudia. Ego ibaiaren estaltze- eta kanalizazio-lanak
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtsa. Sig. 14.035. HIF.

Ibaia bideratzeko beharrezko hondeatzeak egin ostean, estaltzea bera burutu beharra zegoen. Lekuaren arabera, bi estalki mota erabili ziren: hormigoi armatuz egindako tramu zuzenak, eta, gehienak, harri-horma gaineko masa-hormigoian egindako arku bikiak (27. eta 28. ird.). Estaltzea ganga-sistemen bidez egiteko arrazoi nagusia ekonomikoa izan zen, hormigoi armatua baino merkeagoa zelako, hura lantzeko eskulan espezializatua ez zegoelako eta harri-hormak botatako eraikinetatik erabili ahal zirelako.



27. irudia. Ego ibaiaren estaltze- eta kanalizazio-lanak San Andres parrokiaren inguruan. Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 13.041. HIF.

Aipatu bezala estaltze-lanak beharrezkoak ziren urbanizazio-planean diseinatutako hainbat proiektu egiteko. Horregatik erdigunean etxe pribatuen eraikuntza eta instituzioek eraiki behar zituzten lanak partzialki egin eta 1949ra arte atzeratu ziren¹²⁰.

¹²⁰. San Andres elizaren handitzea eta Errebal eta Bidebarrieta kaleen arteko Maria Angelako etxadiak dira Ego ibaiaren estaltze horren ganean eraiki ziren eraikinak.



28. irudia. Ego ibaiaren estaltze- eta kanalizazio-lanak Maria Angela etxadiaren inguruan. Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 14.033. HIF.

Regiones Devastadas-ek Ego ibaiaren estaltze- eta bideratze-lanak egiten zituen bitartean, udalerriko hainbat enpresak beren lantokiak eraikitzeko estaltze-lanak beren gain hartu zituzten. Hala gertatu zen «Alfa», «Sarasqueta Hermanos y Laspieur», «Albistegi y Mendivil», «Beistegui Hermanos», «Ayra Durex», «Acitain SA», «Larrañaga y Elorza», «Hijos de Gabilondo» eta «Ferretería Unceta» enprekin.

Urteak aurrera joan ahala, hiria zeharkatzen eta Ego ibaian bukatzen ziren zenbait ubide (Matsaria, Txonta) arrazoi berdinegatik estaltzea beharrezkotzat jo zen¹²¹. Baita, ziurrenik arazo ekonomikoen ondorioz, oso astiro zihoan¹²² eta hiriaren handitze beharrekin bat ez zetorren Ego ibaiaren estaltzearekin jarraitzea ere. Izan ere,

121. 1948an eta 1953an egin ziren proiektuak, hurrenez hurren. EUA. 3156 eta 3136. 1948ko abuztuaren 28ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1948.* A.11-69. 1949ko uztailearen 15eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Comisión Municipal Permanente. 1949.* A.11-71. 1953ko maiatzaren 28ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1953.* A.11-78. 1957ko abuztuaren 20ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1957.* A.11-86.

122. 1952ko otsailaren 8ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1952.* A.11-76.

etengabeko hazkundera eraginda, ibaia gero eta osasungaitzagoa eta desatseginagoa baitzen, ur gutxi zuen ibaira isurtzen ziren hondakinak eta detritusak zirela-eta¹²³. Horregatik 1955ean Eibarko Udalak Estatuari estaltzea bukatzeko eskatu zion, eta 1956an Alfonso Caballero de Rodas Colmeiro eta Félix Calderón ingeniariak proiektua egin eta 1959-63 bitartean burutu zuten¹²⁴. Estaltze- eta bideratze-lanekin batera, estolderia eta ur-hornikuntza ere egin zuten.

c) *Estolderia, ur-hornikuntza, argiztapena eta beste zerbitzu batzuk*

Eibarko txikizioak eta industriaren eta biztanleriaren etengabeko hazkundera ur-hornikuntza eta ebakuazioa zaildu zituzten. Gerrarekin eta geroagoko, 1953ko, uholdeekin, berriztapena eta berregitea beharrezkoa zuen ur-hornikuntza eta estolderia matxuratuta geratu ziren, eta hazkunderarekin beharrak areagotu. Ondorioz, ur zikinak tratatzeko zailtasunak eta ur-gabezia ohikoak izan ziren berreraikuntzak iraun zuen urte guztietan.

1929an Ego ibaiaren kutsadura kezagarria ikusita, egin zen Eibarko estolderia sistemak ur zikinak eta euri-urak banatzen zituen. Urak Ego ibaiaren ondoan, hiriaren punta batean zeuden bi kolektoretan biltzen ziren, euri-urak ibaira bota eta ur-zikinak Azitainen zegoen depuradoran tratatu ostean Egora isuritzen ziren ere¹²⁵. Alabaina, Ermuan ez zegoen depuradorarik, Eibarkoak ez zuen beti funtzionatu (Sagardouy, 1960: 117), industrialdean estolderiarik ez zegoenez, enpresek ur zikinak ibaira botatzen zituzten, eta gainera, nahiz eta gero eta gutxiago izan, zenbait auzokidek ibaia zabortegei modura erabiltzen zuten. Ondorioz, Ego ibaia estetika gutxiko ibai zikin, kirats eta osasunerako arriskutsua zen¹²⁶, eta haren estaltzea eraikitzeke lekua irabaztearekin batera, osasun-arazo bat saihesteko modua ere bazen. Izan ere, uren kutsaduraren ondorioz, sukarrak tifoideko zenbait kasu gertatu ziren, 1936-40 bitartean nagusiki, eta 1953 urtetik aurrera desagertu (Martínez Sostre, 1954: 107-110; Martínez, 1950: 1-10).

Regiones Devastadas-en erdiguneko estolderia eta ur-hornikuntza konpontzeko proiektuak 1942-44 bitartean Félix Calderónek, Joaquín Domínguezek eta Miguel Apraizek egin zituzten¹²⁷, baina berreraikuntzak aurre egin beharreko arazoekin eta

123. 1954ko uztailearen 21eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Comisión Municipal Permanente. 1954*. A.11-81. 1955eko irailaren 14ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1955*. A.11-82.

124. 1956ko abuztuaren 10eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1956*. A.11-84. 1957ko urriaren 31ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1957*. A.11-86. EUA. 3160. GAN. JD-T, 1864-2. Sagardouy, 1960: 118.

125. Ur zikinen hustuketa eta depurazioaren proiektua eta ur-hornikuntza 1929an egin zuten Urbano Manchobas udal-arkitektoak eta Aureliano González ingeniariak. EAEHAAN. I-15-5, 107.

126. Martínez Sostre, 1954: 31-35. 1964an Eibarko enpresek Ego ibaira isurtzen zituzten ur zikinen kopurua kontsultatzeko: *1 Jornadas de sanemamiento de Guipúzcoa 1964*, Talleres Gráficos Sánchez Román, Donostia, 1965, 106. or.

127. AAN. (04). 081.001, 20.264. EAEHAAN. I-354-3, 76, 79 eta I-15-5, 107.

hiriaren etengabeko hazkundearekin, zerbitzua beti txiki geratu eta handitze beharra zegoen. Udal-arkitektoak lanekin modu partzialean jarraitu zuen, baita 1949an Ermurako bidean zegoen industrialderako proiektua egin ere¹²⁸. Aipatu bezala, ondorengo urteetan Alfonso Caballero de Rodas eta Félix Calderónek bukatu zutena.

Udalak ur-hornikuntza inguruko iturburuetatik eskaintzen zuen zerbitzua bi motatakoa zen: iturri publikoen bidezkoa (Aldatze, Abontza, Amaña, Ardantza Berria eta Zaharra, Armeria Eskola, Bidebarrieta, Danbor, Iburgurutze, Isasi, Erreka-txu, Grabatzaile, Loidi, Muzategi, Unbe, Untzaga, Urtzaile, Urkizu eta Urkusua)¹²⁹, eta lehen aldiz 1898an ezarri zen etxez etxekoa, nahiz eta 1929ra arte hau ez zen ur edangarriarekin modu egokian osatu¹³⁰. Gerraren ondorengo urteetan hainbat etxe ur gabe geratu ziren, beste batzuek ez zuten, eta hortaz iturrien erabilera derrigorrezkoa izan zen. Horregatik 1944an udal-arkitektoak Ibarkurutzeko iturri berria egin zuen izen bereko plazatxoan, eta beste batzuk konpondu¹³¹ (29. ird.).



29. irudia. Ibarkurutzeko iturri berria. Raimundo Alberdi, 1944. Sagardouy López- Salazar, Domingo (1960): *Ilmo. Ayuntamiento de Eibar. Memoria municipal. Años 1955- 1959*, Nueva Editorial, Donostia, liburuan argiratua.

128. EUA. 3160

129. Iturri publikoak hurrengoak ziren: Untzaga, Tanbor, Ardantza Berria, Ardantza Zaharra, Aldatze, Muzategi, Ibarrekruz, Grabatzaile edo Grabadores, Urkusua, Loidi (itxia), Bidebarrieta, Armeria Eskola, Unbe, eta Isasi.

130. Herriko lehen iturri publikoa XIX. mendeko lehen herenean eraiki zen, eta lehenengo etxez etxeko zerbitzuak 100 abonatu zituen. Martínez Sostre, 1954: 45-46. EAEHAAN. I-15-5, 107.

131. 1944ko maiatzaren 15eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1944*. A.11-65.

Ur-eskaerari aurre egiteko, 1948-55 bitartean hornitzea handitu zen gerraurreko proiektua kontuan hartuz. Inguruko Sagar-Erreka, Unbe eta Txonta erreketatik ura eroan zen, besteak beste Alfredo Bizcarrondo eta Félix Calderón ingeniariak burutuko proiektuei jarraituz¹³². Modu horretan, 1950 hasieran, 14.742 biztanle ingururekin ur-hornikuntza zerbitzuak 3.553 abonatu zituen¹³³. Garai berean, 1949-51 bitartean, ur edangarrien depuradora egitea pentsatu zen, euri asko egiten zuenean ura uher geratu eta ez baitzegoen erabiltzerik¹³⁴.

Eibarko hiriguneko urbanizazio-plana osatzeko 1945ean Félix Calderónek kaleen argiztapen-sistema diseinatu zuen¹³⁵. Plan berriaren arabera, argi eta telefonoaren kanalizazio guztiak lur azpikoak izan beharko ziren.

Berreraikuntza-planean aurreikusitako beste hobekuntzetako bat 1866an egin zen 3.444m²-ko hilerriaren kokapena izan zen. Herrian bertan zegoen espazio txikia, hiritik kanpo, Azitainen atera nahi izan zen. Baina azkenean hilerriak bere lekuan jarraitu zuen, nahiz eta udalak beharrei erantzunez handitu behar izan zuen, 1948-49 bitartean ondoko lursailak erosiz¹³⁶. Modu horretan, 1959an hilerriak 6.678 m² eduki zituen (Sagardouy, 1960: 120).

2.2.3. *Hiria eta botere berria*

1940an Regiones Devastades-ek onartutako Eibarren hiri-antolaketa berria pixkanaka martxan jartzen zen bitartean, udalerrian hainbat aldaketa, agian sinboliko eta iragankorrak, baina zeharo efektiboak egin ziren hiria okupatu eta berehala. Gerraren ostean txikituta geratu zen hiriaren gainean inposatu zen botere totalitario berria modu askotan eszenifikatu zen, eta Errepublikari erreferentzia egiten zion edozein elementuren ezabatzea horren adibidea izan zen.

132. 1948ko martxoaren 30eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1948.* A.11-69. 1949ko martxoaren 28ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Comisión Municipal Permanente. 1949.* A.11-71. 1949ko otsailaren 15eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1949.* A.11-70. 1950eko martxoaren 11ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1950.* A.11-72. 1951ko otsailaren 22ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1951.* A.11-74. 1953ko urtarrilaren 29ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1953.* A.11-78. 1955eko maiatzaren 4ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1955.* A.11-82. EAEHAAN. I-15-5, 107 eta I-354-3, 79.

133. 1950ko martxoaren 11ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1950.* A.11-72

134. 1949ko ekainaren 17ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Comisión Municipal Permanente. 1949.* A.11-71. 1951ko urriaren 29ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1951.* A.11-74.

135. AAN. (04) 081.001, 20.274. EAEHAAN. I-354-3, 79

136. 1948ko martxoaren 30eko eta urriaren 28ko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1948.* A.11-69. 1949ko urtarrilaren 14ko udal-bilkura eta 1948ko urriaren 28ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1948.* A.11-69. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1949.* A.11-70. EUA. 3150.

1937ko maiatzaren 3an eratu zen udal berriaren aurreneko erabakia errepublika-garaian jarritako leku-izenak kentzea izan zen, eta pixkanaka erregimen berria gogoratzen zutenak inposatu. Modu horretan kale, enparantza eta eraikin publikoak izen berriekin bataiatu zituzten: Generalísimo Francisco Franco, José Antonio Primo de Rivera, 18 de Julio (gerra hasi zen eguna), de los Mártires, de la Victoria, edo Nueva España moduko izenak Eibarren, garaiko hainbat udalerritan bezala, ohikoak bihurtu ziren. Horrekin batera, estatuan lehen aldiz jarri zen aurreko gobernu demokratikoaren banderaren ordezkari inperiala zuen beste bat jaso zen leku orotan, Falangeren sinboloak lagun.

Egoera berria gogoratzen zuten omenaldiak ere ohikoak izan ziren gerraosteko eibartarren artean. Aurrenekoa udal-korporazioak udaletxean «bere» hildakoen memoriari jarritako plaka izan zen, eta jarraian hil berri zen eta hiria hartu zuen Mola jeneralari eginiko omenaldia¹³⁷. 1938an, udalerrri guztietan ohikoa zen martiriei dedikatutako monumentua egitea proposatu zen¹³⁸. 1940an egin zen hiriarren berreraikuntza-planaren arabera, hilobi-monumentua, modu eszenografikoan hiriarren erdian, udaletxearen aurrean, Txaltxazelain, kokatzekoa zen, baina azkenik, 1951n udal-arkitektoak Arrateko zelaian egin zuen¹³⁹. Halako monumentu gehienak bezala, proiektua gurutze bat zen, zeinak Estatuak kontrolatzen zituen 1938an sortu eta zenbait erakunderen esku egon zen «Comisión de Estilo en las Conmemoraciones de la Patria»ren bidez¹⁴⁰.

Martirien aldeko ospakizuna urtero egiten zen jai ofiziala zen, «caídos», «Victoria», «Liberación», «Caudillo» edo «raza» izeneko beste batzuk bezala. Guztiak diktadura goraiatzeko erabili ziren, berreraikitako edozein eraikinaren hasiera-lan, inaugurazio eta bedeinkapenekin egiten zen bezala. Francoren diktadura justifikatu eta babestu zuen Eliza Katolikoa aberri berriaren aldeko ekitaldi publiko guztietan presente egon zen. 1949ko abuztuaren 11n estatuburuak, aurrerago aipatuko dugun babes ofizialeko Carlos Larrañaga izeneko etxadia inauguratu eta entregatu zuenean bezala. Egun horretan Franco jenerala San Andres elizan palio azpian sartu eta barruan tronuan jesarrita ospatu zen Te Deuma jarraitu zuen inaugurazioa hasi aurretik¹⁴¹ (30. ird.). Gainera, elizaren boterearen eszenifikazioak aurreko urteetan baino garrantzi handiagoa izan zuen. Hala gertatu zen ohiko ospakizun erlijiosoekin, edota hainbat udalerritan egin ziren Kongresu Eukaristikoekin. Eibarkoa 1945eko

137. 1937ko maiatzaren 3ko, ekainaren 4ko, abuztuaren 31ko, urriaren 10eko eta abenduaren 1eko bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1937-1938*. A.11-59.

138. 1938ko uztailaren 15eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1937-1938*. A.11-59.

139. 1951ko urriaren 10eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Comisión Municipal Permanente. 1951*. A.11-75.

140. Horren inguruan kontsulta daiteke: Llorente, 1995.

141. “El jefe del Estado inauguró en Eibar un grupo de viviendas protegidas”, *El Diario Vasco*, 1949ko abuztuaren 12a, 1. eta 3. or. “El Caudillo inauguró ayer en Eibar un bloque de docitas viviendas protegidas”, *ABC*, 1949ko abuztuaren 12a, 1. eta 8. or. “La inauguración del grupo de viviendas Carlos Larrañaga revistió caracteres de apoteosis”, *La Voz de España*, 1949ko abuztuaren 12a, 1. eta 4. or.

maiatzaren 10-13 bitartean egin zen, autoritate politiko, militar eta eliztarrak bertan zirela¹⁴².



30. irudia. Estatuburua Eibarko «Carlos Larrañaga» etxadi berriaren inaugurazioan, 1949ko abuztuaren 11n. (Indalecio Ojangurenen argazkia, 1949).
AGG-GAO_OA05215 (cc).

2.2.4. Hiri-antolaketa berriaren emaitzak eta mugapenak

Hiri-antolaketa berriak, aztertu dugun moduan, zailtasun askori egin behar izan zion aurre. Eibarren kasuan, gerraostean ohikoak izaten ziren gabeziei txikituta edo kaltetuta geratu zen trama urbano berri bat egiteak eskatzen zituen estaltze, estolderia, ur-hornikuntza, argiztapen, partzelazio eta desjabetzeak gaineratu zitzaizkien. Hau da, interes publikoak eta pribatuak kontrajarriak zeuden antolakuntza zen, maiz jabegoak edo/eta herriaren motorra zen industriak onartu ez zuena, eta hortaz proiektu batzuk atzeratu, aldatu edo gelditu zituen. Eta hala instituzio eta interes pribatuen artean, industria nagusi zen etorkizuneko hiri-egituraketa definitu zen.

Regiones Devastadas-en hiri-antolaketa industria hiri guztian zegoen presente, eta izugarritzkoa izan zen haren garapenaren eta eragindako hazkunde demografikoaren arabera antolatu zen udalerrria, gehienetan, enpresek kontrolatzen zuten udal-korporazioaren laguntzarekin. Horren adibide dira Ego ibaiaren estaltzea, enpresek ere gauzatu zutena, edo plan urbanistikoaren espazio-aldaketak. Hala gertatu zen kiroldegia egitekoa zen lekuarekin, Alfa, Star eta Errasti enpresek eta

142. *Congreso Eucarístico. Eibar. Mayo de 1945*, Gráfico-Editora SL, Donostia.

partikularrek lantokiak egiteko eskatu zutena¹⁴³, edo zezen-plaza inguruan aurre-ikusitako parkea etxeak eraikitzeko erabili izana¹⁴⁴.

Hiri-planifikazio eta kudeaketa haren ondorioa industria nagusi zen antolaketa urbanoa izan zen. Enpresak presente zeuden udalerrria banatuta geratu zen hiru aldeetan: hirigunean, auzo industrialetan eta industriagunean. Espazio bakoitzak funtzio batzuk hartzen zituen (etxeak, industria eta zerbitzuak), betiere, erosoagoa zen erdigunetik periferiara, hiri-funtzio eta biztanleriaren eta eraikuntza-prozesuaren estratifikazio bati jarraituz.


Hirigunean, Untzaga eta Ibarburutze arteko plazetan, batez ere, zerbitzuak (instituzionalak, bulegoak, erlijiosoak), komertzioak eta maila altuko etxeak zeuden. Regiones Devastadas-ek proiektatutako kale zabal eta jite zeharo urbanoa zuten eraikin altuetan, nagusiki bertokoen eta udalerriko pertsona edadetuen bizitokia. Nahiz eta industria edo tailer arinen bat erdigunean egon, inguruko auzo industrialetan egoten ziren, baita langileen etxeak eta haien etorrerak eragindako komertzio gutxi batzuk ere. Industria-auzoak bertoko, lehen etorkin eta eskulan espezializatuenaren kokaleku nagusia ziren, eta, hortaz, erdigunearekin batera hasierako urteetako eraikuntza-aktibitate nagusia bildu zuen espazioa.

Baziren ere auzo industrial periferikoak, non oso komertzio gutxi eta industrien kokalekua baitzegoen. Haietan industriaren garapenak eskatutako etorkin eta biztanle kopuru handiena pilatzen joan zen, gehienetan espezializatu gabeko langile gazteak, nahiz eta bertokoak eta espezializatuak ere baziren. Berreraikuntzaren azken urteetako promozio nagusiak bertan kokatu ziren. Hiriaren muturretan, berriz, industrialdea kokatu eta garatu zen, hiria bera itxiz, eta ia itoz.

Horrekin batera bazegoen periferia ez-urbano bat, aurreko urteetako baserriekin eta gerraosteko eraikin berriekin osatu zena, nagusiki industrian lan egiten zuten langileen etxeak eta tailer txikiren bat.

143. 1947ko urtarrilaren 27ko, abuztuaren 28ko eta urriaren 14ko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1947*. A.11-68. 1950eko otsailaren 23ko eta apirilaren 27ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1950*. A.11-72.

144. 1953an Joaquín Domínguez inguruaren urbanizazioaz arduratu zen. EUA. 3159.



**31. irudia. Espaziorik gabeko gerra osteko Eibar.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 26.006. HIF.**

Hortaz, aurreikusi ez zen eta ustez baino handiagoa eta beharrezkoagoa izan zen hazkunde ekonomiko eta demografikokoaren aurrean, instituzioek ez zuten garaiz erreakzionatu. Egia da gerraosteko eta berreraiki beharreko hiriaren egoerak ez zuela lagundu, eta 1950ean ordenantzak berritu zirela zona gehiago ezberdinez eta bakoitzean jarraitu beharreko antolakuntza- eta eraikuntza-zehaztapen espezifikoak eginez, hau da, malgutasun handiagoa agertuz. Aldatu beharra zegoena, ordenantzak baino gehiago, hiri-plangintza zen, baina 1958 arte ez zen egin Hiri Antolaketa Plan Orokorrekin. Ondorioz, Eibarrek behar zituen industria, etxe eta mota ezberdinetako zerbitzuak, behar zituen beharren arabera ez eraikitzearekin batera, hirigintza-plan desegoki eta mugatu baten gainean burutu behar izan ziren (31. eta 32. ird.).



32. irudia. Eibarko urbanizazio-proiektua. 1951ko iraila.

EAEHAAN / AGAPCAE. CT21.H.168.4.

http://www.ueu.org/liburuak/gerraosteko_euskal_herrian_eraikitzea/irudiak/irudiak.php?img=Fig.32.jpg

2.3. *ARKITEKTURA PUBLIKOA ETA HIRIA*

2.3.1. *Zerbitzu publikoak*

Gerraostean, etxebizitzak eta industriarako espazioak eraikitzearekin batera hainbat zerbitzu publiko berrezarri beharra zegoen. Lanak gerra bukatu eta berehala hasi ziren, baina 1940ko martxoan Regiones Devastadas-ek kalteak eta beharrak inbentariatu eta ondorengo urteetako plangintza ezartzean, antolaketa sistematikoago bat ahalbidetu zuen. Nagusiki Regiones Devastadas-ek berak, baina baita udalak, Estatuak, Elizak, enpresek eta ekimen pribatuak ere parte hartu zuten berreraikuntza-eta konponketa-lan haietan.

Guztien eskutik janari-hornikuntza, polizia, telefonoa, aurrezkia, osasuna, hezkuntza, erlijioa eta aisialdia beste modu batean eta arkitektura berri baten arabera antolatu ziren.

Batzuetan gerraosteko egoerak lanak etengabe luzatu eta atzeratu zituen eta, hortaz, zerbitzu batzuen eraginkortasuna moteldu. Gainera behar batzuei ez zitzairen modu egokian erantzun, edo erantzun gabe geratu ziren, betiere erakundeen arteko koordinazioa falta izan zelarik.

Hala ere, zerbitzuetako arkitekturarekin normalean ezohikoak ziren eraikinak egin ziren, oro har kalitate arkitektoniko edo/eta hiri-borondate gehiagokoak. Gehienak Eibarren urbanizazio- eta eraikuntza-prozesuan lagungarriak izan ziren, hiriaren egitura eta imajina berria definitzen lagundu baitzuten eta kokatu ziren lekuetan inizatiba pribatuaren ekimenak suspertu.

2.3.1.1. *Udal-zerbitzuak*

Berrantolatu ziren zerbitzuen artean, aipatzekoak dira, udalak, Estatuak eta enpresa pribatu batzuek eskaintzen zituztenak. Udalari dagokionez, kaltetutako udaletxea konpontzearekin batera, beste zerbitzu batzuk berrantolatu eta zentralizatu ziren, hala nola merkatuaren eraikin berria, baita egokiagoak ziren instalazioak egin ere, hiltegia kasu. Bertan behera geratu ziren epaitegia, udal-bulego berriak eta agian premiazkoztat jo ez zituzten frontoi publikoa, bainu-etxea eta igerilekua.

Gerrarekin udal-**merkatua** oso kaltetuta geratu zen eta Regiones Devastadas-ek eraikuntza aurreikusi zuen obra garrantzitsuenetako bat bezala (33. eta 34. ird.). 1942ko maiatzean Francisco Ortigosak proiektua egin zuen gerrako bonbek txikitutako Agustindar Errekoletoen komentuari hondakinen gainean, beste lursail batzuekin batera desjabetu behar izan ziren¹⁴⁵. Komentua 1602an fundatu zen, jada

145. AAN. (04) 081.001, 20.060, EAEHAAN. I-354-4, 83, I-15-5, 107 eta 110. Domínguez eta Ortigosa, 1947: 101-106.

existitzen ziren etxe batzuetan¹⁴⁶, nahiz eta 1791-92 bitartean Ignacio Bicente Errastik eraikin berria egin zuen, eta 1900ean probintziako arkitekto Ramon de Cortazarrek berritu (Bengoa, 2002).



**33. irudia. Udal-merkatu zaharraren egoera gerra ostean.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 13.074. HIF.**

146. Juan Bautista de Elexalde fundatu zuen 1602an bere amaren aginduz Maria de Mallea, horretarako hainbat etxe eman zituen, eta urte bat geroago sartu ziren mojak komentuan (Mugica, 1984 (1910): 182-183).



34. irudia. Udal-merkatu zaharraren egoera gerra ostean.

Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 32.019. HIF.

Regiones Devastadas-eko arkitektoaren proiektuan, merkatuarekin batera, kaltetuta edo txikituta geratu ziren alondegia, suhiltzaileak eta komun publikoak ere egin ziren 1.791 m²-ko lursail batean. Eraikina hormigoiz eta errektangulu formako hiru gorputzez osatuta zegoen. Errebal kalera ematen zuen eta eskaileradun sarrera kokatzen zen gorputz nagusiak hiru solairu zituen. Lehenengoan alondegia zegoen, bigarrenean haragi eta arrainen merkatua, eta hirugarrenean barazkiak. Pisu guztiak errektangulu formako patio baten arabera antolatzen ziren, teilatuko sabai-leihoari eta murruko leiho zati handiei esker argiztatuak (35., 36 eta 37. ird.). Atzeko partean beste gorputz bat zegoen, aurrekoarekin komunikatua eta lau solairutan banatuta. Lehenengoan alondegia, bigarrenean alondegia, karga-kaia, komunak eta eskailerak, hirugarrenean kamara frigorifikoak, oihal-merkatua eta eskailera nagusia, eta laugarrenean fruten merkatua eta komunak zeuden. Bi gorputz lotu haien alde batean hiru solairuko gorputz txikiago eta irten bat zegoen, suhiltzaileen egoitza berria. Eraikin berean komun publikoak kokatu ziren eta gainean plaza ireki bat. Baina ez zen espaziorik izan hiriaren urbanizazio-planean aurreikusi ziren epaitegi eta udal-bulegoetarako.



**35. irudia. Eibarko merkatu berria. 1942ko Francisco Ortigosaren proiektuari jarraituz (Santa María del Villar markesaren argazkia).
MECD, AGA, Obras Públicas, signatura F-04190-011-003.**



**36. irudia. Eibarko merkatu berria.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 13.024. HIF.**



**37. irudia. Eibarko merkatu berria, sarrera nagusia.
MECD, AGA, Obras Públicas, signatura F-04190-012-002.**



**38. irudia. Eibarko merkatu berriko atzeko aldea.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtsa. Sig. 14.011. HIF.**



39. irudia. Eibarko merkatu berriko atzeko aldea (Santa María del Villar markesaren argazkia). MECD, AGA, Obras Públicas, signatura F-04190-012-003.

Arkitektoak proiektuaren memorian esan zuen bezala *«predomina la sencillez de líneas como corresponde a la finalidad del edificio»*. Modu horretan bai barruan eta bai kanpoan soiltasuna izan zen nagusi, simetria antolakuntzarako gidari erabili zelarik. Alboetan zeuden bi sarrera-ateen gainean arkitektoak Escorial gogorarazten zuten pinakuluak kokatu zituen bakarrik, eta fatxada sei leiho zati bertikalekin artikulatu zuen alde batean eta beste hirurekin beste batean. Atzeko fatxada, berriz, produktuak sartzeko atea zegoenez, modu apalago batean landu zen (38. eta 39. ird.). Izkinetan karga-kaiak zeuden, haien artean leiho zati handi bat eta alboetan, berriz, txikiagoak ziren beste leiho batzuk; suhiltzaileen eraikinean zeuden leiho berdinak. Fatxada guztiak Debako harrizko plakekin estali ziren, eta material bera erabili zen eraikinak inguratzen zuen erlaitza egiteko.

Barruan arkitektoak espazio ireki eta jarraituak planteatu zituen, pilareak eta habeak ikusgai utziz, zuriz pintatuak, murrak altuera erdira arte estaltzen zituzten azulejoak bezala. Sartzen zen argiarekin batera, espazio zabalago eta garbiago baten sentrazioa lortu nahian (40. eta 41. ird.).



40. irudia. Eibarko merkatu berriko barrualdea.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 14.016. HIF.



41. irudia. Eibarko merkatu berriko barrualdea.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 14.020. HIF

Egun desagertuta dagoen eraikinaren lanak 1943ko abuztuan hasi eta 1945eko maiatzerako bukatu ziren. Regiones Devastadas-ek, ohi bezala, eraikina Justo Oria Gorostiagak presiditzen zuen udalari ofizialki entregatu zion erakundearen zuzendariak, Moreno Torresek, ekainaren 20an presiditutako ekitaldian¹⁴⁷.

Hiru urtetako lanen ostean, 1956ko apirilaren 26an, Eibarko Udalak merkatu berri bat eraiki zuen, jarraian aztertuko dugun Ipuruako udal-etxebizitzaren proiektuaren baitan (42. ird.). Raimundo Alberdiren ostean, 1950eko urtarrilaren 26an behin-behineko udal-arkitekto izendatu zuten Joaquín Domínguez Elósegui¹⁴⁸ egin zituen planoak 1952ko apirilera¹⁴⁹. Merkatuaren ideiak urte gutxitan inguruak ezagutu zuen etxebizitza-eraikuntza aktibitateari eta, hortaz, ustezko behar bati erantzuten zion. Aitzitik jendeak handiagoa zen eta aukera gehiago eskaintzen zituen Regiones Devastadas-eko merkatura joateko ohitura zuen, eta horregatik Ipuruan hainbat postu ireki gabe geratu ziren (Sagardouy 1960: 134).



**42. irudia. Ipuruako merkatua. Joaquín Domínguez Elósegui. 1952-1956.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 35.050. HIF.**


147. 1945eko ekainaren 28ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1945.* A.11-66. “La reconstrucción de Eibar”, *La Gaceta del Norte*, 1945eko ekainaren 22a, 3. or. “Información de la provincia. Eibar”, *El Diario Vasco*, 1945eko ekainaren 21a, 2. or. “La obra de Regiones en Eibar. Ayer se entregó el nuevo mercado”, *La Voz de España*, 1945eko ekainaren 21a, 1. or. Baina karga egiteko eta ibilgailuak uzteko espazio-arazoaren aurrean, 1952ko urrian José Antonio Pontek lekuaren hondeatzea proiektatu zuen.

148. 1950eko urtarrilaren 26ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1950.* A.11-72.

149. EUA. 3162.

Ipuruako merkatua eraikin txikiagoa zen, kokapen aldapatsura moldatua eta, hortaz, altuera ezberdinak zituena. Solairu bat alde batean, eta bi bestean, errektangulu irregularreko arkitektura multzo bat osatuz. Ortigosak egindako lanari jarraituz, soiltasuna zen nagusi, hemen ere leiho zati bertikalek eta erlaitz handi batek fatxada artikulatzen zutelarik.

Merkatuekin batera, Eibarko eta inguruko biztanleriaren janari-beharrak asetzeko baldintza egokiak ez zituen **hiltegia** berri beharra zegoen¹⁵⁰. Horretarako 1950ean udalak proiektu berria egin zuen¹⁵¹ hiriko irteeran, Donostiarako errepidean, Azitainen, ibaiaren ondoan eta hiltegi zaharra zegoen leku bereko lursailetan. 1951ko uztailen eta 1953ko maiatzean José Antonio Pontek proiektua egin zuen eta jarraian udalak hura egiteko lursailak eman¹⁵² (43. ird.).



43. irudia. Hiltegi berria Azitainen. José Antonio Ponte. 1951/53- 1956.
Sagardouy López- Salazar, Domingo (1960): *Ilmo. Ayuntamiento de Eibar. Memoria municipal. Años 1955- 1959*, Nueva Editorial, Donostia, liburuan argiratua.

1.051,45 m²-ko hiltegia zenbait eraikinek osatuta zegoen: atezaindegia, garajea, ukuilua eta hiltegia bera. Eraikin nagusia hiru gorputzez osatutako luzerako egitura bat zen, erdikoa bi pisurekin, albokoak baino altuagoa zen, eta bertan atezainaren etxea zegoen. Beheko solairuan, berriz, bulegoak, laborategia, komunak, abereentzako

150. EUA. 870.56 (1950).

151. 1950eko maiatzaren 25eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1950. A.11-72.*

152. 1953ko abenduaren 3ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1953. A.11-78. AAN. (04) 081, 20.267, EAEHAAN. I-354-4, 91.*

harrera-gela, baskula, hiltegia, eguraste-gela eta karga-kaia zeuden. Ukuiluak, biltegia eta errausketa-labea beste eraikin batean zeuden. Arkitektoaren esanetan, bertoko arkitekturara moldatu nahi zen hiltegian, berriz ere, soiltasuna zen nagusi, arkitektura-masak modu simetrikoan ordenatzera mugatzen zen antolaketa batean.

Lanak 1954ko apirilean hasi eta Regiones Devastadas-ek eraikina 1956ko abenduaren 11n udalari entregatu zion. Baina hiltegia txiki geratu zen, eta gutxira, 1959an, udalak eraikin nagusia handitu zuen¹⁵³.

2.3.1.2. Estatuaren zerbitzuak

Estatuaren esku zeuden eta leku egokirik ez zuten Guardia Zibil eta Posta eta Telegrafoen zerbitzuak ere antolatu zituen Regiones Devastadas-ek. Baita erregimenak bere boterea finkatzeko herri garrantzitsuetan eraiki zuen Etxe Sindikala edo Falangeren etxea ere.

Gerraostean **Guardia Zibilaren etxe-kuartelak** ez zuen kokapen egokirik. Udalak utzitako eraikina konpontzen zen bitartean, polizia etxe partikular batean zegoen alokairuan¹⁵⁴, eta horregatik beharrezkotzat jo zuten herriko poliziaren funtzio guztiak modu egokian bilduko zituen erakin multzoa egitea. Hiriaren urbanizazio-planoan polizia Ipuruan kokatu zen, zezen-plazaren ondoan. 1944ko otsailerako Miguel Apraizek proiektua egin zuen, eta urte bereko ekainaren 22an Blas Pérez Gobernazioko ministroak proiektuaren lehen harria jarri zuen, José Moreno Torres Regiones Devastadas-eko zuzendari nagusia, Pedro Muguruza DGAKo zuzendaria eta beste zenbait autoritate lagun¹⁵⁵ (44. eta 45. ird.).

Hasierako planaren arabera, forma irregularreko orube itxi batean poliziaren kuartela, Guardia Zibilaren kuartela eta ofizial, ofizialorde eta guardien etxebizitzak bost eraikinetan antolatu behar ziren, garajea eta ukuiluekin batera¹⁵⁶. Eraikuntzalanak Guardia Zibilaren kuartelarekin hasi ziren (beharrezko zerbitzuak, guardia ezkongabeen logelak, eta beste gela batzuk). 1949rako oso aurreratuta eta bukatzeaz zeuden lanak, baina ez, ordea, gainerako eraikuntzak. Urte horretan Miguel Apraizek lanak erraztu nahian proiektua hiru zatitan banatzea erabaki zuen: kuartela, etxebizitzak eta urbanizazioa¹⁵⁷. Ziurrenik ekonomia-arazoek bultzatuta arkitektoak poliziaren kuartela bertan behera utzi, eta guardien etxeak hiru eraikinetan antolatu beharrean bitan egin zuen, aurrerago etxebizitza lantzean ikusteko aukera izango

153. EAEHAAN. I-354-4, 91. Sagardouy, 1960: 129.

154. 1938ko urtarrilaren 18ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1937-1938*. A.11-59.

155. “El Ministro de la Gobernación en San Sebastián”, *Diario Vasco*, 1944ko ekainaren 23a, 1. or. “Esta noche llega a San Sebastián el Ministro de Gobernación. Le acompañan los directores generales de Regiones Devastadas, Arquitectura, Correos y Sanidad”, *La Voz de España*, 1944ko ekainaren 22a, 1. or. “El ministro de la Gobernación en San Sebastián. Se detuvo en Eibar y Elgoibar inspeccionado las obras de Reconstrucción”, *La Voz de España*, 1944ko ekainaren 23a, 1. eta 5. or.

156. AAN. (04) 081.001, 20.263.

157. AAN. (04) 081.001, 20.768, (4) 78. 26/16248. EAEHAAN. I-354-4, 89, 88.



**44. irudia. Guardia Zibilaren etxe-kuartela. Miguel Apraiz. 1944/49- 1955.
(Indalecio Ojangurenen argazkia, 1956).
EAEHAAN / AGAPCAE. Regiones Devastadas. Kutxa 88, Sig- I- 354- 4.**



**45. irudia. Guardia Zibilaren etxe-kuartelaren ikuspegi orokorra.
MECD, AGA, Obras Públicas, signatura F-04191-008-003.**

dugun moduan. 1950ean hasi ziren urbanizazio-lanak, baita biltegia, autobus bat eta bi kotxerentzako garajea, sei zaldirentzako ukuilua eta kuartela ixteko murruekin ere, zeinak frontoi bat egiteko aprobetxatu ziren. Jarraian, 1952ko abenduan José Antonio Ponte egiten hasi zen proiektuarekin jarraituz, orubearen argiztatzea burutu zen, eta lan guztiak 1955 inguruan bukatu ziren¹⁵⁸.

Arkitekturari dagokionez, oso forma apal eta soilak erabili zituen arkitektoak. Kalera ematen zuten eraikinen zokaloak harrizko plakekin estali zituzten, gainerako fatxada lauarekin kolore-, materia- eta ukitze-contrastea ahalbidetuz. Gehien nabarmentzen zen eraikina kuartela zen, izkinetan defentsa eta zaintza-lanetarako bi dorre zituelako eta erdian Espainiako armari inperiala (46. ird.). Jarraian kuartelera sartzeko atea zegoen, ohikoak ziren bi karteekin: «Casa Cuartel de la Guardia Civil» eta «Todo por la patria» Espainiako banderaren koloreekin. Banderak ere ate gaineko hagetan jarri ahal ziren¹⁵⁹.



**46. irudia. Guardia Zibilaren etxe-kuartelaren sarrera nagusia.
MECD, AGA, Obras Públicas, signatura F-04191-008-002.**

158. AAN. (04) 081.001, 20.276.

159. “Casa Cuartel de la Guardia Civil, en Eibar”, *Reconstrucción*, **126**, 1954, 145-152.

Botere polizialak leku egokia izan zuen moduan, EAJren egoitza eta udaletxea okupatzen zituzten botere sindikalak eta politikoak beren espazio propioa izan zuten herriaren kokapen pribilegiatu batean. Urbanizazio-planak aurreikusitako Untzaga plazan, udaletxearen ondoan, Estatuak konfiskatutako Alderdi Sozialistaren Herriko Etxearen gainean. 1940ko ekainean José Antonio Pontek egin zuen proiektuan hainbat zerbitzu jartzea pentsatu zen: partiduaren eta sindikaturen bulegoak, liburutegia, gizarte-laguntza (Fermin Calbeton kaleko etxe batean zegoena), umeen jantokiak, anaitasun-sukaldeak, eta Posta eta Telegrafo etxea¹⁶⁰. Azkenik **Etxe Sindikala** baino ez zen egin, udalaren laguntza ekonomikoarekin, OSHko arkitektoak, Ramón Martiarenak, egindako proiektuari jarraituz, 1955ean onartu eta 1957an bukatu zena¹⁶¹ (47. ird.). Egoitzak udaletxearen eta inguruko etxeen arkiteria-egiturari jarraitu zion, plazako espazioa modu homogeen batean itxiz. Eraikineko arkitekturari, berriz, kultura ofizialarekin bat egiten zuten forma klasikoak erabili ziren, berreraikuntza-proiektuan adierazi bezala.



47. irudia. Untzaga plaza, ezkerrean Etxe Sindikala (Ramón Martiarena 1955-1957) eta eskuman udaletxea. Sagardouy López-Salazar, Domingo (1960): *Ilmo. Ayuntamiento de Eibar. Memoria municipal. Años 1955- 1959*, Nueva Editorial, Donostia, liburuan argiratua.

160. EAEHAAN. I-354-4, 90.

161. EUA. 3136. 1955eko otsailaren 30eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Comisión Municipal Permanente. 1955*. A.11-83.

Gerraren ostean **Posta eta Telegrafo** zerbitzuen eraikinak kaltetuta geratu ziren, eta egoera kaskarrean zeuden etxe zahar batzuetan banatu behar izan ziren. Horregatik, 1937ko azarotik hasi ziren beste lokal bat eskatzen¹⁶². Baina nahiz eta zerbitzua lekuz aldatzeko ideia egon¹⁶³, eta 1940an José Antonio Pontek postetxea Falangeren egoitzan kokatzeko proiektua egin, azkenik postetxeak leku berean jarraitu zuen harik eta 1950ean udalaren eskutik eraikin berria egiteko proposamena abian jarri zen arte¹⁶⁴. Udalak egungo Julian Etxeberria kalearen inguruan lursail bat erosi eta Regiones Devastadas-i eman zion bertan postetxea eta Telefonicarene egoitzak eraiki zituzten. Lekuan aurreratutako urbanizazio-planaren arabera autobus-geltokia egitekoa zen, baina bertan behera uztea erabaki zuten autobus-linea guztiak jada egituratua zeudela argudiatuta¹⁶⁵.

1952ko martxoan eta 1953ko urtarrilean José Antonio Pontek egoitza berriaren proiektuak egin zituen. 421 m²-ko hiru gorputzeko eraikin bat zen, plazaren aurrean forma ahurra hartzen zuena. Ezkerreko gorputzean telefono-zerbitzua kokatu zen, Telefonicak eraiki behar zuena, eta 331 m²-ko beste gorputzetan postetxea eta telegrafoak.

Alabaina, Regiones Devastadas-ek udalaren eskaeren aurrean behin eta berriro errepikatu zuen ez zuela eraikina egiteko dirurik, eta nahiz eta eraikuntza egingo zuela zin egin, 1957an berreraikuntza-lanez arduratzen zen erakundea desagertu zenean, oraindik Posta eta Telegrafo etxea eraiki gabe zegoen¹⁶⁶.

Aldiz, **Telefonicak** gerra aurretik konpainiarentzat lan egin zuten José María de la Vega eta Paulino J. Gayo arkitektoei enkargatu zien bere egoitza 1952an, udalak utzitako orube zatian¹⁶⁷. Kontserbatzen ez den beheko planta eta sotoa zituen eraikin txikia zen, sarrera fatxadan, garaiko klasizismoarekin bat egiten zuen erdiko ate baten inguruan irekitzen ziren bi leihorekin.

2.3.1.3. Beste erakundeen zerbitzuak

Beste enpresa pribatu batzuek ere beren zerbitzuak eskaintzeko bulegoak ireki zituzten, maiz proiektuei errentagarritasuna ateratzeko etxeekin batera eraiki

162. Telegrafoseko Zuzendaritzaren komunikazioa Eibarko Udalarari. 1937ko azaroaren 9ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1937-1938*. A.11-59.

163. Indianukuaren jaruregian kokatzeko ideia egon zen. 1947ko martxoaren 1eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1947*. A.11-68.

164. 1951ko otsailaren 22ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1951*. A.11-74.

165. 1951ko otsailaren 22ko eta azaroaren 29ko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1951*. A.11-74.

166. 1953ko ekainaren 26ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1953*. A.11-78. 1957ko urtarrilaren 23ko eta irailaren 29ko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1957*. A.11-86.

167. EUA. 6875.23 (1952).

zituztenak¹⁶⁸. Horren adibide dira Banco de San Sebastián eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren egoitzak. Lehenengoa 1946an Domingo Agirrebengoak eta Joaquín Domínguez Elósegui diseinatu zuten Bidebarrieta kalean¹⁶⁹. Bertan sotoa, beheko solairua eta lehenengoa finantza-entitatearen bulegorako erabili ziren, eta gainerako bost solairuetan etxeak proiektatu ziren. Fatxadan kultura ofizialaren formak presente zeuden.

Arkitektura ulertzeko modu berari jarraitu zion Aurrezki Kutxak, 1953an José María Muñoz Barojari enkargatu zion eraikinean. Toribio Etxebarria kaleko erakinaren beheko solairuan kokatu zen bulegoa, goiko sei pisuak etxeen alokairurako dedikatuz¹⁷⁰. Modu horretan Kutxak hasieran beste erakundeekin batera eta gero Untzaga plazan bere egoitza eraikitzeke zuen ideia, lursailen partzelazioarekin egon ziren arazoak zirela-eta, bertan behera geratu zen¹⁷¹. Banco Exterior de Españak, berriz, jada eraikita zegoen Rialto eraikinean ireki zuen bere sukurtsala¹⁷².

2.3.2. Osasunerako arkitektura

Regiones Devastadas-ek gerran kaltetuta geratu ziren osasun-zentroak berreraikitzeke asmoa zuen: ospitale-asiloa eta «Higiene Rural» izeneko osasun-zentroa. 1901ean eraikitako San Andres apostolu **ospitale-asiloaren** berreraikuntza-eta handitze-lanak 1943ko ekainean egin ziren Francisco Ortigosak egin zuen proiektuari jarraituz; udalak 1959an jarraitu zituen¹⁷³ (48. ird.). Plan berriarekin Mesedetako mojek zuten ospitale eta asiloko zerbitzuak ezberdindu ziren. Izan ere, ospitalea barik egoitza-funtzioa zuen zentroak: pertsona zahar, umezurtz eta gutxituena. Udalak, diputazioak eta auzokideek ematen zituzten eta Ongintza Junta batek kudeatzen zituen diru-laguntzeei esker funtzionatzen zuen ospitale-asiloa¹⁷⁴.

Regiones Devastadas-ek errepublika-garaian Manchobas udal-arkitektoak 1934an egindako «**Higiene Rural**» osasun-zentroa berreraikitzeke asmoa bazuen ere, 1942an Ortigosak diseinatutako proiektua ez zen gauzatuko¹⁷⁵.

168. EUA. 6863.96 (1945): Urtzaile 2 eta 4.

169. EUA. 6865.35 (1946): Bidebarrieta 21.

170. EUA. 6877.17 (1953): Toribio Etxebarria 29.


171. 1942ko apirilaren 28ko eta urriaren 28ko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1942. A.11-63*. 1953ko urtarrilaren 12ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1953. A.11-78*.

172. EUA. 6881.04 (1955).

173. AAN. (4) 78. 26/16428. EAEHAAN. I-354-4, 85. EUA. 3136.

174. *Ayuntamiento de Eibar. Provincia de Guipúzcoa. Memoria que en cumplimiento del artículo 116 de la vigente ley municipal y circular de la subsecretaría del ministerio de la gobernación de fecha 18 de abril de 1939, inserta en el Boletín Oficial del Estado núm.109, se eleva a dicho ministerio, sección de administración local. Año de 1939*. EUA. B.2.29.2. Sagardouy, 1960: 123 eta 146.

175. EUA. 3148. EAEHAAN. I354-5, 89.



48. irudia. Eibarko ospitale-asiloa. 1943ko Francisco Ortigosaren proiektuaren arabera berreraiki eta handitua. Sagardouy López- Salazar, Domingo (1960): *Ilmo. Ayuntamiento de Eibar. Memoria municipal. Años 1955- 1959*, Nueva Editorial, Donostia, liburuan argiratua.

Gerra eta gerraostean bizitzak eta osasun-egoerak txarrera egin zuten. Malnutrizioak eragindako gaitzak, eta gaixotasun infekzioso eta epidemikoak oso arruntak izan ziren. Guztien artean **tuberkulosiak** heriotza-tasarik altuena zuen, eta gaixo gehienak gizon gazteak ziren¹⁷⁶. Gerra aurretik tuberkulosia arazo larria zen jada, baina larriagoa elikadura egokirik ez zuen gizarte batean, 1939 eta 1952 bitartean janariak errazionamendu-liburuxken bidez edo estraperloz lortzen ziren garaian¹⁷⁷. Izan ere, tuberkulosia, beste gaixotasun batzuk bezala, elikadura txar batekin, baina baita etxe eta lan-baldintza kaskarrekin ere erlazionatua zegoen. Tuberkulosiaren aurkako kanpainak gerran bertan hasi ziren, 1936ko abenduaren 20an Gobernazio Ministerioaren barruan *Patronato Nacional Antituberculoso* (PNA) erakundea sortu zen, zeinak 1908an sortutako *Real Patronato Antituberucoloso* eta beste erakunde batzuk ordezkatzen eta kontrolatzen zituen¹⁷⁸. Patronatuaren egitekoa, gerra eta gerraosteko egoera latzogatik eta baliabide ekonomikoen gabeziagatik, erietxeen eraikuntza eta berritzera mugatu zen.

Eibarko presio atmosferikoa eta altuera zirela-eta, tuberkulosia tratatzeko leku egokitzat hartu zen (Martínez Sostre, 1954: 20). Eta hala 1926an Ciriaco Aguirre medikuaren ekimenez gaixoentzako galeria bat ireki zen herrian. Urte bat geroago, 1927an, udalak Espainiako Gobernuarekin erietxe bat eraikitzeko akordioa sinatu zuen eta 1930ean, Aguirrereren aholkularitzarekin, 40 ohe zituen Victoria

176. "La obra social", *La Gaceta del Norte*, 1944ko irailaren 29a, 4. or.

177. Osasun-egoeraren inguruan kontsulta daitezke: Baron eta Bernabeu-Mestre, 2008: 263 eta hur.; Palanca, 1943.

178. "Decreto creando el Patronato Nacional Antituberculoso", *Boletín Oficial del Estado*, **64**, 1936ko abenduaren 22a, 454-455.

Eugenia Erietxea eraiki zen, ospitale-asiloaren ondoan (Narbaiza, 2006) (49. ird.). Errepublikara-garaian «Servicio antituberculoso-enfermería de Eibar» eta diktaduran, berriz, «Sanatorio Nueva España» izenak izan zituen erietxea Aguirrek zuzendu zuen 1934 eta 1942 bitartean. Izan ere, 1942an zerbitzua mantentzeko diru-arazoak zirela-eta, Patronatuak erietxea ixtea erabaki zuen. Baina tuberkulosia tratatzeko zegoen ohe eskasiaren aurrean 1943an udalak bere jabegokoa zen zentroa berriro irekitzea erabaki zuen, 100 plazarekin. Bertan Miguel Martínez Sostre medikuak eta Mesedetako Ahizpek lan egiten zuten, udalaren, Estatuaren (% 50), diputazioaren (% 25) eta partikularren diru-laguntzei esker¹⁷⁹.



49. irudia. Tuberkulosiaren kontrako erietxea.

Sagardouy López- Salazar, Domingo (1960): *Ilmo. Ayuntamiento de Eibar. Memoria municipal. Años 1955- 1959*, Nueva Editorial, Donostia, liburuan argiratua.

1952tik aurrera tuberkulosiagatik hiltzen zen biztanle kopuruak behera egin zuen botika, elikadura, etxe eta osasun-sistema egokiago baten garapenari esker. Ondorioz, 1954an gaixotasuna tratatzeko ohe gehiago ez jartzea, eta zeudenak kardiopatiak eta birikietako gaitzak sendatzeko erabiltzea erabaki zen.

Tuberkulosia garrantzia galtzen zihoan heinean, Estatu, Europako zenbait herrialdetan garatzen hasi zen osasun- eta prebentzio-sistema nazional bat osatzen saiatu zen. Modu horretan, ordura arte karitate kristauan oinarritutako laguntzen antolaketa gailendu zen, baita udal, diputazio eta ekimen pribatuak sostengatutako ospitale, ongintza-leku, klinika pribatu eta mediku baten zerbitzuak ordain zitzaketen

179. Martínez Sostre, 1954: 123-141; 1943ko apirilaren 14ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1943*. A.11-64. 1945eko apirilaren 14ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1945*. A.11-66.

gaixoen arreta-sistema ere. Hortaz, osasungintza ez zen mugatu gizarte-entzutea zuten gaixotasunak sendatzera, buruko gaitzak edo tuberkulosia kasu; bai, ordea, oraindik eraiki behar ziren osasun-zentroyen bitartez asistentzia indibidual orokor eta koordinatu bat eskaini.

1942ko Derrigorrezko Gaixotasun Asegurua sistema berriaren abiapuntua izan zen, 1944ko Osasun Nazionalaren Oinarrizko Legearen promulgazioa eta beharrezkoak ziren osasun-zentroyen eraikuntza ahalbidetu zuena¹⁸⁰. Lan Ministerioan zegoen *Instituto Nacional de Previsión* (INP) aseguruaren kudeaketaz eta horrek behar zituen zentroyen eraikuntzaz arduratu zen. Hortaz, osasun-erronka berriei erantzuten zien arkitektura espezifiko bat behar zen. 1945ean INPk osasun-instalazioak eraikitzeke plana abian jarri zuen¹⁸¹. Eraikin berriek, aurreko ongintza-sistematik bereizteke (erietxe eta ospitale), **ambulatorio** eta erresidentzia izena hartuko zuten. Aseguratua familia-medikuak zeuden eta hirian kokatuta egon behar ziren ambulatorioetara joaten zen, eta beharrezkoa izanez gero, erresidentzia edo ospitalera. Alabaina, 1948ra arte itxaron behar izan zen planaren lehen obrak eraikitzen hasi arte: 34 erresidentzia eta beste hainbeste ambulatorio. Hasierako lan guztiak sei arkitekto egin zituzten: Álvarez de Sotomayor, Álvaro Botella, Eduardo de Garay, Martín José Marcide, Fernando García Mercadal eta Juan de Zavalak, ia modu eskusiboan Agromán, SA, Eguinoa Hermanos, Huarte y Cía SL eta Ramón Beamonte enpresek eraiki zituzten¹⁸².

Planak Eibarren ambulatorioa eraikitzea erabaki zuen, baliteke Gipuzkoako hirigune handietako bat izatearekin batera, guna industrial garrantzitsua zelako eta lanarekin erlacionatutako gaixotasunak ohikoak zirelako. Horretarako, 1948an udala eta Regiones Devastadas lursail egokiaren bila hasi ziren¹⁸³, azkenik udalak 1953an San Juan eta Toribio Etxebarria kale arteko orubea INPri eman zion¹⁸⁴. Jarraian, Eduardo de Garayk egin zuen oinplanoari jarraituz, lanak hasi eta 1957rako bukatu ziren. Kasu honetan aurreko urteetako arkitektura klasikoa utzi eta adreilu

180. “Ley por la que se crea el Seguro Obligatorio de Enfermedad”, *Boletín Oficial del Estado*, **361**, 1942ko abenduaren 27a, 10.592-10.597; “Orden por la que se dictan normas relativas al Seguro Obligatorio de Enfermedad”, *Boletín Oficial del Estado*, **183**, 1944ko uztailaren 1a, 5.112-5.113; “Ley de Bases de Sanidad Nacional”, *Boletín Oficial del Estado*, **331**, 1944ko azaroaren 26a, 8.908-8.936.

181. 1945ean INPk arkitektura-arduradunek Estatu Batuetan egindako bidaian oinarritutako eta 1947an argitaratutako liburua eta 1946an Institutuak antolatu zuen lehiketako proposamenak —hauek ere argitaratu ziren—, eredutzat erabili ziren hasierako zentroak eraikitzeke (Garay, 1947; *Edificios sanitarios para el Seguro de Enfermedad. Exposición y concurso de anteproyectos para el plan nacional de instalaciones sanitarias*, Gráficas Voluntad, Madril, 1947; *Programa para necesidades. Ambulatorios y residencias clínicas*, INP, Madril, 1946).

182. Gaiaren inguruan gehiako sakontzeke: Pieltáin, 2007.

183. 1948ko irailaren 28ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1948*. A.11-69. 1951ko otsailaren 22ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1951*. A.11-74.

184. 1953ko apirilaren 30eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1953*. A.11-78.

gorria erabiliz berriagoak ziren, eta garaiko prentsak nabarmendu zuen¹⁸⁵, kubikazio ezberdinetako formetara hurbildu zen¹⁸⁶ (50. ird.).



50. irudia. Eibarko anbulatorio berria. Eduardo de Garay. 1957.

Sagardouy López- Salazar, Domingo (1960): *Ilmo. Ayuntamiento de Eibar. Memoria municipal. Años 1955- 1959*, Nueva Editorial, Donostia, liburuan argiratua.

Estatuak arkitektura eta osasun-sistema baten oinarriak finkatzen zituen bitartean, Eibarren **klinika pribatuak** eraiki ziren ere. Horren adibidea izan daiteke Izagirre eta Lecuona doktoreek, 1955ean Ramón Martiarenaren proiektuari jarraituz, Pagaegi kalean ireki zuten Ama-Klinika. Bi solairu klinikarenak ziren eta gainerakoetan etxeak eraiki ziren, modu horretan, banketxeetako bulegoekin egin zen bezala, proiektuarekin etekin ekonomiko handiagoa lortuz¹⁸⁷.

2.3.3. Hezkuntzarako arkitektura

Erregimen totalitario berriarentzat hezkuntzak, osasunak bezala, berebiziko garrantzia zuen, Estatuak Espainia berriko biztanleak hezi nahi baitzituen. Horretarako, errepublika-garaian ezartzen saiatu ziren sistema eta ideiak kendu beharra zegoen. Ondorioz, pedagogia errepublikanoaren bitarteko nagusia izan

185. "El Ministro de Trabajo inauguró el Ambulatorio del Seguro de Enfermedad de Eibar", *El Diario Vasco*, 1957ko apirilak 30, 1.or.

186. EUA. 3148. 1953ko ekainaren 26ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1953*. A.11-78.

187. Horrekin batera Ignacio M. Arrillagak 1929tik bere izena zuen klinika zuzentzen zuen, eta 50eko hamarkadan "Nuestra Señora de Arrate" klinika berria ireki zen. EUA. 6881.09 (1955) eta 6881.01 (1955); Pagaegi 8. Martínez Sostre, 1954: 145-46; *Guipúzcoa, Vizcaya y Álava en la mano*, Gráfico Editorial. Editorial Icharopena, Donostia, 1947, 213. or.; *Guipúzcoa en la mano. Anuario general de toda la provincia. 1958*, Gráficas Ellacuría, Donostia, 1958, 54. or.

zen irakasleria araztu zuten¹⁸⁸. Txarto ordaindua zegoen irakasleria gutxitzearekin batera, geratu zirenen artean gaitasun pedagogikoak edo trebakuntza alde batera utzi (batxilergoa egin gabe nahikoa zen eskolak ematen hasteko), eta egokitasun ideologikoa eta meritu aberkoiak bermatu ziren. Beraz, irakaskuntzarekiko interesik ez zuen sistema, ez zen edukien edo espazioen hobekuntzan zentratu. Izan ere, gerraosteko hasierako urteetako politika atzerakoia izan zen. Horren adibideak izan daitezke 1940 eta 1956 bitartean irakaskuntzarako aurrekontua berdina izatea, edo 1945eko Lehen Hezkuntzako Legearekin eskola-urteak 14 urteetatik 12etara atzeratu izana¹⁸⁹.

Gainera, euskara eta beste hizkuntzen erabilera eragotzi, eta memorizazio eta zigorrean oinarritutako sistema pedagogikoa ezarri zen, nagusiki Elizaren esku utzi zena. Modu horretan, Estatu nazional eta katoliko berriaren egituraketan ezinbesteko garrantzia zuen Elizak, errepublika-garaian galdu zuen nagusitasuna berreskuratu eta txarto ulertutako aberri- eta erlijio-ideia batek errepublika-garaiko sistema laiko eta arrazionalista ordezkatu zuen. Horregatik Elizaren eta erregimenaren sinboloek, abestiek eta gurtzeek garai horretako gela guztietan leku pribilegiatua izan zuten eskoletan. Estatuburuaren argazkia Ama Birjina, gurutze eta tronuratutako Jesusen Bihotzaren kaperekin batera egon zen. Gainera, tokian tokiko irakaskuntza-batzordeak Eliza eta Falangeren ordezkariak kontrolatu zituzten. Ondorioz, ez ziren behar adina eskola eraiki, are gutxiago etengabeko hazkundera zuen Eibar bezalako herrian¹⁹⁰.

Hala ere, Eibarko Udalak gerrarekin bertan behera geratu zen Maltzagako landa-eskola bukatu zuen, txikituta geratu ziren Arrate eta Santa Kruzetakoak berreraiki zituen, kalte txikiak jaso zituen Aginagakoa konpondu (51. eta 52. ird.), eta Arrateko umeentzako udal-aterpetxea berriro ireki zuen, Regiones Devastadas-ek eraikitako «Hogar rural para el frente de juventudes» izeneko proiektuarekin bat zetorrena.

Aipatutako proiektu guztiak hirigunetik kanpo burutu ziren bitartean, erakunde publikoek herrian bertan egindakoak oso gutxi izan ziren: udal-eskola guztien konponketa, Armeria Eskolaren erreforma eta handitzea, Ipuruako eskola eta haurtzaindegi baten eraikuntza. Horiei erakunde erlijiosoek eta enpresek burututako ikasketa-zentroak gaineratu zitzaizkien. Bigarren Hezkuntza Elizak kontrolatzen zuen, udaletxean kokatuta eta txikituta geratu zen Bigarren Hezkuntzako Institutu Publikoa ez irekitzea erabaki zen geroztik.

188. Estatuan 70.000 irakasle inguru depuratu ziren, Bizkaian eta Gipuzkoan depurazio-lege berezia egon zelarik. Gaiaren inguruan sakontzeko kontsula daiteke: Ostolaza, 1996.

189. 1945eko legeak 200 biztanleko eskola bat eraikitzea aurreikusi bazuen ere, proiektua aurrera ateratzeko bitartekorik gabe, ez zegoen halakorik egiterik (“Ley de 17 de julio de 1945 sobre educación primaria”, *Boletín Oficial del Estado*, 199, 1945eko uztailaren 18a, 385-416; “Documentos del Poder Civil. Ley de 17 de julio de 1945 sobre educación primaria”, *Boletín Oficial de la Diócesis de Vitoria*, 16, 1945eko abuztuaren 1a, 423-434).

190. Alabaina, estatuan analfabetismo-tasak behera eta eskolatze-tasak gora egin zuen. 1941ean eskolara joan behar zutenen % 53,7 Lehen Hezkuntzan zegoen matrikulatuta, % 2,98 Bigarren Hezkuntzan eta % 1,67 unibertsitatean. 1950ean portzentajeak aldatu ziren: % 66,9 Lehen Hezkuntzan, % 4,10 bigarreanean, eta % 2,16 goi-mailakoan (Vilanova eta Moreno, 1992: 166 eta 304 eta hur.; Carreas eta Tafunell, 2005: 210-211, 217 eta 227-228).



51. irudia. Eibarko Aginagako eskola, kanpoaldea (Indalecio Ojangurenen argazkia, 1929).
AGG-GAO_OA05105 (cc).



52. irudia. Eibarko Aginagako eskola, barrualdea (Indalecio Ojangurenen argazkia, 1950).
AGG-GAO_OA05091 (cc).

1933an **Arrateko** landa-eskola proiektatu zen, eta udalak berreraikuntzalanak Raimundo Alberdiren eskutik 1942 eta 1944 bitartean burutu zituen *Regiones Devastadas-en* laguntzarekin¹⁹¹. Baina eskola berria egitea beharrezkotzat jo zuten, eta udalak eta diputazioak diruz lagunduta, eskola eta irakaslearen etxe berria egin ziren 1955-57 bitartean¹⁹². **Santa Kruzeko** eskola, berriz, 1948an Joaquín

191. EUA. 3148. AAN. (04) 081.001, 20.260.

192. 1953ko otsailaren 23ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Comisión Municipal Permanente. 1955. A.11-83.* 1957ko apirilaren 25eko udal-bilkura. EUA. *Libro*

Domínguez Elóseguik egindako proiektuaren arabera berreraiki zen, egoera onean zeuden elementuak aprobetxatuz¹⁹³.

1935eko abenduan Eibar eta Soraluzeko udalek **Maltzagako** eskola egiteko proiektua konpartitua hasi zuten. Gerra aurretik egindako lanak 1941-42 bitartean ordaindu ostean¹⁹⁴, 1954an Joaquín Domínguez Elóseguik proiektu berria egin zuen, arkitektura eta material tradizionalak erabiliz, sarrera, bulegoa, komunak, klase bat (82,80 m²), irakaslearen etxea (95,95 m²) eta patio itxia zituen (73 m²)¹⁹⁵.

Horrekin batera udalak Arraten zuen umeentzako **udal-aterpetxea** berritu zuen, santutegiaren ondoan, alokairuan zuten Osoro etxean. Gerra aurretik familia apalen seme-alabak uztail eta abuztu partean eroaten zituzten mendira egun batzuk pasatzera, eta zerbitzu berarekin jarraitu nahi izan zuten gerraostean. 1943an hasi ziren ideia aztertzen eta Raimundo Alberdi udal-arkitektoa umeen koloniaren lehen planoak egiten, baina udalaren egoera ekonomikoak lanak 1946 arte atzeratu zituen¹⁹⁶.

Idea berarekin jarraituz, 1953-57 bitartean, Regiones Devastadas-en egoitza nagusian lan egiten zuen Mariano Nasarre Auderá arkitektoak egindako proiektu-eredu erregionalista finko bati jarraituz, «**Hogar rural para el frente de juventudes**» izeneko aterpetxe eta kirol-lekua egin zuten¹⁹⁷ (53. ird.). «Frente de Juventudes» «Falange Española Tradicionalista y de las JONS» erregimenaren partiduaren sekzioa izan zen, eta gazteak (mutilak eta neskak) politikoki hezte helburua zuen. Erakundea sortu zen 1940ko abenduaren 6ko legearen arabera:

Artículo séptimo. Serán funciones del Frente de Juventudes, para sus afiliados¹⁹⁸:

- a) La educación política en el espíritu de la doctrina de Falange Española Tradicionalista y de las J.O.N.S.
- b) La educación física y deportiva.

de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1957. A.11-86.

193. EUA. 3153. 1948ko uztailaren 17ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1948.* A.11-69.

194. GAN. JD IT 1455/1982. 1941eko martxoaren 28ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1941.* A.11-62. 1942ko apirilaren 14ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1942.* A.11-63.

195. EUA. 3136 eta 3153. 1954ko abenduaren 10eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1954.* A.11-80. 1955eko abuztuaren 25eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1955.* A.11-82.

196. 1943ko uztailaren 28ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1943.* A.11-64. 1945eko abenduaren 28ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1945.* A.11-66. 1946ko otsailaren 14ko, maiatzaren 28ko, irailaren 14ko eta azaroaren 28ko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1946.* A.11-67. 1949ko otsailaren 15eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1949.* A.11-70. *Eibar 1346-1946*, Gráficas Eguren, Eibar, 1946, 22. eta 27. or.

197. AAN. (04) 081, 20.271. EAEHAAN. I-353-5, 89.

198. 1946an Fronteak milioi afiliatu baino gehiago zituen. “Más de un millón de afiliados cuenta el Frente de Juventudes”, *El Diario Vasco*, 1946ko maiatzaren 30a, 6. or.

- c) La educación premilitar para la organización masculina.
- d) La iniciación a la del hogar para la femenina.
- e) Colaborar en la formación cultural, moral y social con las instituciones a las que corresponde, prestarlar y secundar la educación religiosa propia de la Iglesia.
- f) Organizar y dirigir campamentos, colonias, albergues, cursos, academias y cualquier otras obra de este género enderezada al cumplimiento de sus funciones.
- g) Completar respecto de sus afiliados la labor del Estado, principalmente en materia de sanidad, enseñanza y trabajo.

Artículo octavo. Serán funciones del Frente de Juventudes, respecto de toda la junvetud no afiliada y que se encontre en Centros de Enseñanza o Trabajo:


- a) La iniciación política.
- b) La educación física.
- c) La organización de cuantas colonias de verano o instituciones afines sean suvencionadas por Corporaciones municipales y la inspección de las que organicen las entidades privadas.
- d) La vivilancia del cumplimiento de las consignas del Movimiento en lo que a la Juventud se refiere, en los Centros de Enseñanza y Trabajo¹⁹⁹.

1913an Eibarko Udalak eta industrialek bultzatuta **Armeria Eskola** eraiki zen (54. ird.). «Escuela Especial de Mecánica de Precisión y de Armería» delakoak bertoko industrietan behar zituzten langileak trebatzen zituen. 1947-49 bitartean eskola berritzeko eta handitzeko proiektua egin zuen Raimundo Alberdik. Berritze-lanak fatxadan lekutu ziren: erlaitz, moldura eta entokaduretan, Estatu berriaren armaria ere kokatuz²⁰⁰. Handitzea, berriz, eraikinaren atzeko partean solairu bakarreko bi nabe paraleloen gehitzea izan zen, bertan tailer berriak kokatuz. Urteak aurrera joan ahala handitze gehiagoren beharra ikusi zen, baina udalak obrak egiteko dirurik ez zuenez, Hezkuntza Ministerioari proposatu zion eraikina ematen ziola lanak berak egingo zituelako baldintzarekin. 1953ko abenduan Alfonso Fungairiño Nebot arkitektoak proiektu berria aurkeztu zuen, eta 1955ean Ministerioak eraikina eta inguruko lursailak prezio sinboliko batean erosi²⁰¹.


199. "Ley de 6 de diciembre de 1940 instituyendo el Frente de Juventudes", *Boletín Oficial del Estado*, **342**, 1940ko abenduaren 7a, 8.392-8.394.

200. EUA. 3153 eta 6870.02 (1948): Isasi 36. 1948ko abuztuaren 14ko eta uztailearen 28ko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar: 1948*. A.11-69.

201. 1954ko maiatzaren 5eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1954*. A.11-80. 1955eko abuztuaren 25eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1955*. A.11-82.



53. irudia. Hogar rural para el frente de juventudes. Tipo D. Marino Nasarre, Madril 1953ko uztaia. EAEHAAN / AGAPCAE. Regiones Devastadas. 91 kutxa, Sig. I-354-4.



54. irudia. Armeria Eskola. 1947-49 bitartean Raimundo Alberdik berritu eta handitua. Sagardouy López- Salazar, Domingo (1960): *Ilmo. Ayuntamiento de Eibar. Memoria municipal. Años 1955- 1959*, Nueva Editorial, Donostia, liburuan argiratua.

Herriaren etengabeko hazkundearen aurrean, Eibarko Udalak **Ipuruako** etxadiko **eskola** egin zuen bakarrik, bitartean erabiltzen ez ziren Azitaingo zentral elektrikoa (1955ean) eta Guardia Zibilen egoitza zaharra (1957an) klaseak emateko egokitu zirelarik²⁰². Aurreratu bezala, 1952ko apirila-uztaila bitartean Joaquín Domínguez Elósegui Ipuruako udal-etxebizitzaren proiektua egin eta 1957an bukatu zuen²⁰³. Bertan etxeak, merkatua, eliza eta eskola bat egitea pentsatu zen. Eskolak T moduko egitura zuen, errektangulu formako bloke batean, sarrerak osatzen zuen ardatzaren arabera, modu simetrikoko batean, lau klase eta komunak kokatu zituen. Bloke horren erditik, sarrerako ardatzari jarraituz aterpean zegoen patio ireki bat zegoen. Masa arkitektonikoak, berriz, klasizismo soil baten arabera artikulatu ziren (55. ird.).

202. 1955eko irailaren 14ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1955*. A.11-82. 1957ko irailaren 26ko uda-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1957*. A.11-86.

203. EUA. 3162.



55. irudia. Ipuruako udal-eskola. Joaquín Domínguez Elósegui. 1952-57.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 35.081. HIF.

Garai berean, 1951n lanera zihoazen gurasoek beren seme-alabak norbaiten ardurapean uzteko **hautzaindegi** bat egitea planteatu zen (56. ird.). 1952ko irailaren 24an inauguratu zen Adingabeak Babesteko Probintziako Juntari udalak utzitako lursailean Joaquín Domínguez Elóseguiaren proiektuari jarraitzen zion eraikina²⁰⁴. Bertan Mesedetako Ahizpek 30 ume zaintzen zituzten (Martínez Sostre, 1954; Sagardouy 1960: 151).

Aldiz, ez ziren egin 1940an Regiones Devastadas-en berreraikuntza-proiektuan aurreikusi ziren Lehen Hezkuntza publikoko gelak berrantolatzeako eskola bat edo bi, eta kendutako institutuaren zeregina ordezkatzeko Oinarrizko Komertzio Eskola²⁰⁵. Agian funtzio politikoagoa zuen «Hogar rural para el frente de juventudes» eraiki beharrean, egin ahal izan zen proiektu horietako bat.

Estatuak eta udalak konpondu ez zuten eskolen gabezia inizatiba pribatuak osatu zuen. Hori Alfa enpresak egin zuen bere langileentzat, Elizak zituen ikastetxeak handituz eta berriak eginez. 1951n Eibarko enpresa garrantzitsuenak, **Alfa**, bere fabrikako eraikin batean eta Ramón Martiarenak egindako proiektuari jarraituz, Lehen Hezkuntzako eskola egin zuen²⁰⁶. 1958an zentroak lau irakasle eta 7-10 urte bitarteko 126 ikasle izan zituen²⁰⁷.

204. 1951ko martxoaren 29ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1951*. A.11-74. “En Eibar fue inaugurada una guardería infantil”, *El Diario Vasco*, 1952ko irailaren 25a, 1. eta 3. or.; “El subsecretaria de justicia, señor Oreja, inauguró la Guardería Infantil de Eibar”, *La Voz de España*, 1952ko irailaren 25a, 4. or.

205. Alabaina udalak institutua eta Komertzio Eskola egiteko asmoarekin jarraitu zuen, eta 1956an ideia berreskuratu zuen. EUA. 3155.

206. EUA. 6872.58 (1951). San Andres pasealekua (eraitsia).

207. *Guipúzcoa en la mano. Anuario general de toda la provincia. 1958*, opus cit.



56. irudia. Haurtzaindegia. Joaquín Domínguez Elósegui. 1952.
Sagardouy López- Salazar, Domingo (1960): *Ilmo. Ayuntamiento de Eibar. Memoria municipal. Años 1955- 1959*, Nueva Editorial, Donostia, liburuan argiratua.

Eibarko eskolak.

	Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza	Beste hezkuntza batzuk
Publikoak	Primo de Rivera		Armeria Eskola
	Urkusukua		Musika Eskola
	Frontoi Zaharra		Marrazketa Eskola
	Udaletxea		Artisautza Eskola
	Arrate		
	Santa Kruz		
	Maltzaga		
	Aginaga		
Pribatuak	Hermanos del Sagrado Corazón de Jesús		
	Nuestra Señora de la Providencia		
	Nuestra Señora de las Mercedes		
	Alfa		

Iturria: elaborazio propioa udalaren datuetan oinarrituta.

1904an nesken Lehen eta Bigarren Hezkuntzako klaseak ematen zituen «**Nuestra Señora de la Providencia**» nesken ikastetxea inauguratu zen, eta 1950ean eta 1954an Ramón Martiarenak egin ez ziren handitze-lanak proiektatu zituen²⁰⁸ (57. ird.). Urte bat geroago, 1955-57 bitartean berritze- eta handitze-lanak egin ziren, orduan, Joaquín Domínguez Elóseguiaren eskutik. Handitzea hiru solairuko eraikina zen, klaseak, liburutegiak, bulegoak bai eta kapera eta saloi handiak ere²⁰⁹. Kanpotik adreiluz estalitako egitura soila zen, hainbat leihoz irekia.

208. EUA. 6870.13 (1950), 6879.25 (1954).

209. EUA. 6887.08 (1956) eta 6890.19 (1957): Mekola.



57. irudia. «Nuestra Señora de la Providencia» ikastetxearen handitzea. Joaquín Domínguez Elósegui, 1955-57. Sagardouy López- Salazar, Domingo (1960): *Imo. Ayuntamiento de Eibar. Memoria municipal. Años 1955- 1959*, Nueva Editorial, Donostia, liburuan argiratua.

1922an «**Hermanos del Sagrado Corazón de Jesús**», gero La Salle, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako mutilen ikastetxea ireki zen Eibarko Armeria Eskolaren ondoan, eta 1955ean erakina handitzeko proiektua egin zen, berriz ere, Joaquín Domínguez Elóseguiaren eskutik²¹⁰. Eraikin zaharrari itsatsia, hiru solairuko edifizioa gaineratu zitzaion, bertan klase gehiago eta laborategiak jarri (58. ird.).

Hortaz, Eibarren gerran txikitutako eskolen berreraikuntzaz aparte, gerraosteko hezkuntza-arkitekturaren garapen nagusia inizatiba pribatuaren esku egon zen, batez ere Bigarren Hezkuntzaren formazioa. Estatuak, garapen ekonomikoak biztanleen trebakuntzarekin erlazioa zuela ulertu ez zuen arte, 50eko hamarkadaren bukaera arte, ez zuen hezkuntzarekiko jarrera aldatu eta, hortaz, hezkuntza bermatu eta ziurtatzeko eskolak eraikitzeke planak martxan jarri²¹¹. Orduetik aurrera beste herrietan egiten ari ziren eskola-antolakuntzak kontuan hartu eta hezkuntza-

210. EUA. 6884.11 (1955): Isasi 34.

211. Eta hala 1959an Lehen Hezkuntzak eskolaratze-tasarik altuena lortu zuen (% 75,9), 1942an zegoen % 54,5en aurrean (Carreras eta Tafunell, opus cit.: 210-211).

arkitektura berri zuen, Eibarren kasuan beranduago Alvaro Libanok 1967an egin zuen Lan Unibertsitatea, egun Euskal Herriko Unibertsitateko egoitza dena, horren eredu izan daiteke (Palacio Díaz, 2004: 68-71).



58. irudia. «Hermanos del Sagrado Corazón de Jesús» ikastetxearen handitzea. Joaquín Domínguez Elósegui, 1955. Sagardouy López- Salazar, Domingo (1960): *Ilmo. Ayuntamiento de Eibar. Memoria municipal. Años 1955- 1959*, Nueva Editorial, Donostia, liburuan argiratua.

2.3.4. Elizaren arkitektura

Gerrarekin Eibarko ondare erlijiosoaren parte handi bat txikituta geratu zen: Agustindar Errekoletoen komentua desagertu zen, 1593an sortutako Moja Frantziskotarren Isasi Komentua erortzeko zorian zegoen²¹², Ferrocarriles Vascon-

212. Martín López de Isasik eta haren emazte Domeneja de Orbeak fundatuta. Hernando de Loydi maisuak hasi zituen lanak eta Miguel de Garaizabalek bukatu (Mugica, opus cit.: 254-261).

gadosen jabetzakoa zen San Rafael ermita berria galdu zen, eta zenbait ermita, eta Arrateko santutegia eta San Andres parrokia berreraikuntza-lanen behararekin zeuden.

Eibar **San Andreseko** tenpluaren itzalpean hasi zen eraikitzen, baina historian zehar etengabe handitu eta zaharberritutako elizaren azkeneko lanak XVI. mendean hasi eta 1662rako bukatutzat eman ziren, nahiz eta oraindik ere XVIII. mendean lanek jarraitu zuten²¹³. Gerra bukatu eta berehala, 1937ko urrian, elizak konponketak hasi zituen²¹⁴, gero Regiones Devastadas-en esku geratu zirenak.

Udalak Elizari eman zion lursailean²¹⁵ Regiones Devastadas parrokiaren egoitzaren eraikinaz eta inguruko urbanizazioaz arduratu zen²¹⁶. 1942ko maiatzean Miguel Apraizek proiektua egin zuen, parrokiaren iparraldeko fatxadaren galdutako portiko ireki bat eta eraikin berriak gaineratuz (188 eta 300 m²-koak) (59., 60. eta 61. ird.). Bertan hiru solairutan banatuta, tenpluari zuzenean lotuta zegoen sakristia, bulegoak, parrokoaren etxea, biltegia eta lokalak kokatu ziren: gaueko adoraziorako, akzio katolikorako eta katekesirako.

1940ko urbanizazio-planeko gomendioak bereak egin eta proiektuak ildo tradizionaleri jarraitu zien, garaian ohikoa zen soiltasun eta simetria klasikoan oinarrituz. Patio irekian Escorialeko arkitektura gogoratzen zuten pinakuluak eta gorputz irtena elementu dekoratzaile bakarrak ziren. Arkitektoaren esanetan:

Las composiciones que marcan los ejes de fachada y la arquería sobre los jardines, se inspiran en motivos propios de la arquitectura de la región y del mismo Eibar. Esta es la razón que justifica el empleo de chapado en piedra en cornisas y algunos detalles, a fin que la obra armonice con la vieja y se logre uno de los puntos especialmente considerados respecto a la tradición arquitectónica.

Elizaren egoitza aldapan eraikita zegoenez, Apraizek inguruan altuera ezberdinetako eskailerak, lorategiak eta plaza bat kokatu zituen, nolabaiteko mugimendua lortzeko asmoarekin.

Lurren desjabetzeak egin ostean eta Ego ibaiaren estaltzea egin bitartean, lanak ez ziren 1944ko maiatza arte hasi. Azkenik 1949ko uztailaren 12an José Moreno Torresek, Regiones Devastadas-eko zuzendariak, Gonzalo Cárdenas lagun, obra José Aguinaga Altuno parroko eta artzapezari entregatu zion²¹⁷.


213. *Eibar:1945*, Gráficas Eguren, Eibar, 1945; Peña Puente, 2008: 38-43.

214. 1937ko azaroaren 16ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1937-1938*. A.11-59.

215. 1942ko azaroaren 28ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1942*. A.11-63.

216. AAN. (04) 801.001, 20.262, EAEHAAN. I-353-4, 84, 85.

217. "El Director General de Regiones Devastadas en Guipúzcoa", *ABC*, 1949ko uztailaren 13a, 8. or. Elizaren fatxadako zokaloa konpontzearen beharra ikustean, 1952an José Antonio Pontek egindako proiektuaren arabera lanekin jarraitu zuten.



59. irudia. San Andres parrokiaren handitzearen eta urbanizazioaren maketa.
(Santa María del Villar markesaren argazkia).
EAEHAAN / AGAPCAE. Regiones Devastadas. 84 kutxa, Sig I- 354- 4.

Urte batzuk geroago, 1950ean, udal-korporazioak eliza ondoko plazan 1945ean hil zen **Ignacio Zuloaga** Eibarko pintore ezagunari **monumentua** egitea erabaki zuen²¹⁸. Pablo Zabalo arkitektoak, Txilen erbesteratu ostean Donostiara, bere jaioterrira, 1948an bueltatu zenak (AA.AA., 2007a: 182) diseinatu zuen apirilera idulkiaren proiektua eta Carlos Elguezua eskultore eibartarrak brontzezko bustoa²¹⁹, Madrilera Ricardo Ferrero SAK egin zuena²²⁰. Azkenik monumentua 1951ko ekainaren 24an inauguratu zen²²¹ (62. ird.).

218. 1950eko azaroaren 29ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1950. A.11-72*

219. EUA. 3156.

220. 1950eko azaroaren 17ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Comisión Municipal Permanente. 1950. A.11-72*

221. Zabaloren monolitoan Eibarko eta Gipuzkoako armarriekin batera hurrengo inskripzioa zegoen: «Eibar, a su hijo ilustre Ignacio Zuloaga 1870-1945». Gainean Elguezuaen bustoa paleta eta pintzelarekin ageri da (1951ko otsailaren 2ko bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Comisión Municipal Permanente. 1951. A.11-75*; “El monumento a Zuloaga”, *El Diario Vasco*, 1951ko ekainaren 26a, 1. or.; “Información gráfica del domingo”, *La Voz de España*, 1951ko ekainaren 26a, 1. or. Carlos Elguezuaen eskulturaren inguruan kontsulta daitezke: Cabrero Morales, 1987; Martínez Ruiz, 1981; *VII Exposición de Artistas Eibarreses. Homenaje al escultor Carlos Elguezua*, Caja de Ahorros Municipal, Donostia, 1973 (erakusketaren liburuxka).



**60. irudia. San Andres parrokiaren handitze-eraikina, barruko patioa.
Miguel Apraiz 1942- 1949. Eibarko Udal Artxiboa.
Hirigintza eta Obrak Argazki Funtsa. Sig. 14.006. HIF.**



61. irudia. San Andres parrokiaren handitze-erakina, kanpoaldea (Santa María del Villar markesaren argazkia). MECD, AGA, Obras Públicas, signatura F-04191-003-002.


Eibarko beste tenpluetako bat, **Arrateko santutegia**, XV. mendetik aurrera dago dokumentatua eta ordutik aurrera lanak egin ziren XVIII. mendera arte²²². Gerran santutegiko dorrea eta inguruko portikoa txikituta geratu ziren, eta handik gutxira, 1940an, konpondu ziren²²³ (63. ird.). Jarraian Raimundo Alberdi udal-arkitektoa berreraikuntza-lanez arduratu zen. 1946ko otsaileko proiektuan santutegi ondoko baserria kentzea pentsatu zen, lekua edertzeko asmoarekin, bai eta sakristia handitu eta katekesirako lekua egin ere²²⁴, baina obrak luzatu eta oraindik 1949an bukatu gabe zeuden²²⁵.

222. Santutegiaren inguruko informazio zehatzagoa: Aguirre Sorondo, 1996: 72 eta hur.

223. “Recuerdos de la gesta. El Santuario de Arrate”, *La Gaceta del Norte*, 1940ko martxoaren 17a, 1. or.

224. EUA. 3148.

225. 1949ko uztailaren 18ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Comisión Municipal Permanente. 1949. A.11-71.*



62. irudia. Igancio Zuloagaren monumentua. Pablo Zabalo eta Carlos Elguezua. 1950.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtsa. Sig. 4.203.



63. irudia. Arrateko santutegia txikituta (Indalecio Ojangurenen argazkia, 1937).
AGG-GAO_OA08168 (cc).

Aginaga auzoko **San Migel** ermitaren inguruko berriak, aldiz, XVI. mendekoak dira, eraikinaren obrak XVI. eta XVIII. mendeetan burutu zirelarik²²⁶. 1952 eta 1954 artean, udal-arkitekto berria, Joaquín Domínguez Elósegui, auzokideen laguntzarekin, lanez arduratu zen, nagusiki dorre eta portikoaren zati baten ordez atxikitutako frontoi bat eginez²²⁷. Izan ere, XVIII. eta XIX. mendeetako testigantzen arabera ermitaren murrak pilotan jolasteko erabiltzen ziren jadanik.

Horrekin batera, kalteak jasan zituzten hainbat ermitatan ere konpontze-lanak egin ziren (Santa Kruz, San Pedro, Azitain eta San Lorenzo). San Rafael kapera, Agustindar Errekoletu eta Moja Frantziskotarren komentuak, berriz, bertan behera utzi ziren. Azken bien kasuan okupatzen zuten erdialdeko espazio zabala eraikuntzarako egokiagoa ikusi zutelako.

226. Ermitaren inguruko informazio gehiago: Aguirre Sorondo, opus cit.: 127 eta hur.; Martínez de Moretín de Goñi, 1996.

227. EUA. 3155. 1951ko maiatzaren 11ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Comisión Municipal Permanente. 1951.* A.11-75. 1954ko martxoaren 26ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1954.* A.11-80.

Eraikin erlijioso berrien eraikuntzari dagokionez, jada aipatu dugu nola 1952ko apirila-uztaila bitartean Joaquín Domínguez Elósegui Ipuruako udal-etxebizitzaren proiektua egin zuen²²⁸. Bertan etxeekin batera, **Ama Sorkundetarren eliza-komentua** egin zuen, 1593an fundatu zen gerran kiskalita geratu zen Isasi komentua ordezkatzeko. Udalak ez zuen nahi kongregazioak eta beste batzuek komentu zaharra monumentu historiko-artistiko gisa kontserbatzea eta espazio hori etxeak eraikitzeko aprobetxatu nahiago zuen. Arkitektura ofizialaren ildoari jarraitzen zion komentua Jaime Font Andreu Gipuzkoako gotzainak inauguratu zuen 1955eko abenduaren 11n, Miguel Lasa parroko eta artzapeza eta beste autoritate batzuk lagun²²⁹. Orduetik aurrera (Omaetxebarria, 2002: 266) eta 2009ko urrira arte, komentu okupatuta egon da (64. ird.).



64. irudia. Ama Sorkundetarren eliza-komentua. Joaquín Domínguez Elósegui, 1952-1955
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 34.058. HIF.

228. EUA. 3162.

229. "Bendición del nuevo convento y entrega de 270 viviendas en Eibar", *El Diario Vasco*, 1955eko abenduaren 13a, 1. eta 5. or.

Komentuarekin batera, Karmen kalean, berrogeita hamarreko hamarkadaren bukaeran egin zen **Aita Karmeldarren eliza-egoitza** (65. ird.). 1940an Raimundo Alberdik egoitza nagusiaren ondoan aita guztiak biltzeko eraikinaren planoak egin zituen. Hiru solairuko etxea zen, erlijiositatea gogorarazi nahi zuten leiho gotiko zorrotzekin²³⁰. 1952an Leoncio Arbelaitz arkitekto donostiarrak berriro hartu zuen proiektua, kasu honetan eliza eta egoitza diseinatu²³¹. Egoitza zaharraren ondoan, gotikoa zen eraikin bat proiektatu zuen. Nahiz eta, ziurrenik diru-arazoez baldintzatuta, proiektutakoa baino arkitektura apalagoa egin zen, gotikoak ziren elementuak: leiho zorrotzak eta pinakuluak mantenduz.



65. irudia. Aita Karmeldarren eliza- egoitza. Leoncio Arbelaitz, 1952.
Sagardouy López- Salazar, Domingo (1960): *Ilmo. Ayuntamiento de Eibar. Memoria municipal.*
***Años 1955- 1959*, Nueva Editorial, Donostía, liburuan argiratua.**

230. EUA. 6856.40 (1940).

231. EUA.6857.27 (1952): Karmen 2.

Ondorioz, elizarako arkitektura, garaiko beste hainbat eraikin bezala, zeharo taxidermista izan zen (Delgado, 2006: 26)²³², iraganari begira, jada existitzen ziren forma eta espazioak errepikatu baino ez zituen. Hainbaten ustez, arkitektura modernoa ez baitzeturren bat sentsibilitate eta erlijiositate nazionalarekin (Ferrano, 1942: 27). Miguel Fisacek, zeinak Luis Laorga, Francisco Javier Sáenz de Oiza, Rafael Aburto eta Francisco de Asís Cabrerorekin batera garaiko arkitektura berrii baitzuen, 1950ean *Boletín de Información de la Dirección General de Arquitectura* aldizkarian idatzi zuen bezala:

Creo que se es más continuador de Herrera abominando de que se hagan ahora «Escorialitos» y «Escorialazos», y queriendo traer a la actualidad arquitectónica española las formas nuevas adecuadas a hoy, que todos aquellos que, por miedo a quedar mal o por comodidad, repitan formas y fórmulas que hoy ni tienen contenido, ni nos pueden decir nada, porque están muertas (...) Vestirse hoy con esos trajes es signo de estar loco o de ir a un baile de máscaras (Fisac, 1950: 11).

2.3.5. Aisia eta arkitektura

Erlijiorako, hezkuntzarako eta lanerako espazioak eraikitzearekin batera, urte haietan Eibarren aisialdirako beste batzuk pentsatu ziren ere: futbol-zelaia, frontoiak, aterpeak, ostatuak eta, batez ere, zinemak.


Zinemarekin batera futbola zen garaiko pasio gehien pizten zuen aisialdiko jarduera gogokoena. Regiones Devastadas-ek egindako berreraikuntza-proiektuan **kiroldegi** bat egitea aurreikusi zen: igerilekua, hondartza artifiziala, bainu-etxea, frontoia, teniserako lekua eta gimnasioa. Nahiz eta 1944ko abenduan Ramón Martiarenak proiektua partzialki diseinatu, aurreratu dugun moduan, ez zen inoiz burutu²³³. Aldiz, udalak kirolak Eibarren zuen garrantzia ikusita, erositako eta Regiones Devastadas-ek hondakinak botatzeko erabili zuen eta eraikuntzarako desegokia zen lursailean futbol-zelaia egitea erabaki zuen: Ipuruan. Urteak aurrera joan ahala zelaia txiki geratu eta handitu eta egokitu zen²³⁴, 1950ean Joaquín Domínguez Elóseguik Regiones Devastadas-entzat egin zuen proiektuari jarraituz²³⁵. Zelaiaren handitzearekin batera, inguratzen zuen murrua eta instalazio berriak egin ziren: harmailak, tribuna, aldagelak eta komunak (66. ird.).

232. Garai honetako arkitektura erlijiosoaren inguruan ere aritzen da: Gil, 1999.

233. EAEHAAN. I-353-5, 89. I-354-4, 89.

234. 1948ko martxoaren 15eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1948. A.11-69.* 1949ko otsailaren 28ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Comisión Municipal Permanente. 1949. A.11-71.*

235. EAEHAAN. I-353-5, 89. AAN. (04) 81, 20271. 1950eko otsailaren 17ko eta uztailaren 14ko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Comisión Municipal Permanente. 1950. A.11-73.*



66. irudia. Ipuruako futbol-zelaia, inguruan Carlos Larrañaga etxadia, Guardia Zibiliaren etxe-kuartela eta Ipuruako udal-etxebizitzak.

Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 26.018. HIF.

1904an José Gurruchagak eraiki zuen Astelena frontoi mitikoari (AA.AA., 2004: 478), aipatu berri dugun Aginagako San Migeleko eta Orbeako frontoi irekiak gehitu zitzaizkion. Azken hori Joaquín Domínguez Elóseguik eta José Antonio Pontek 1944an diseinatu zuten Urkizu pasealekuan, Orbea enpresaren enkarguz²³⁶. Urte batzuk geroago, 1954an, Joaquín Domínguez Elóseguik Arrateko santutegiaren ondoan ostatu bat egiteko proiektua aurkeztu zuen²³⁷, eta Diego de Basterrak mendiko aterpe bat²³⁸. Baina gerraosteko urte latz haietan zinema aisialdiko elementurik garrantzitsuena bihurtu zen. Eta hala, urte gutxitan, 1943tik aurrera Italia faxista eta Alemania naziaren pelikulak ordezkatu zituzten Estatu Batuetakoak ohikoak izan ziren Eibarren ireki eta konpondu ziren lau **zinema-aretoetan**.

236. EUA. 6862.30 (1944): Urkizu 11 C. Urte batzuk geroago 1946an Joaquín Domínguez Elóseguik esperientzia errepikatu zuen Donostiako Añorga auzoan Rezola zementu-fabrikak eskatuta egin zuen frontoian, Ramón Martiarenak egindako auzunearen osagarria. DUA. D-11-01. H-02482-21 eta H-025943-01.

237. EUA. 6879.04 (1954): Arrate 6 (Krabelin Ostatua).

238. EUA. 6879.03 (1954): Arrate.

1939an, Rialto aretoa zinematograforako egokitzeko lanak egin ziren Raimundo Alberdiren eskutik²³⁹, eta 1947ko martxoan Victor Eusa arkitekto iruindarrak Coliseoaren proiektua egin zuen Copropiedad Castillorentzat²⁴⁰, merkatu berriaren ondoan, hiriaren erdigune berrian. Eibarko gerraosteko eraikinik esanguratsuenak, garaiko beste proiektu batzuek ez bezala, ez zuen espazioa etxebizitzekin edo beste funtzioekin konpartitu.

Coliseoak trapezio irregular bat osatzen zuen orube handia okupatzen zuen, Merkatu kale eta Blas Etxebarria kaleen artean, eta bertan 1.300 jesarlekurako tokia egin zen. Arkitektoak memorian azaldu zuen bezala:

... este edificio de hormigón armado, y con cubierta de armaduras metálicas, (...) exteriormente armoniza con las construcciones inmediadas, siguiendo la altura de las ya proyectadas en las calles...

Horregatik eraikinean arkitektoaren gerraurreko arkitektura-eredu deco/deko eta modernoetatik aldendu, eta kultura ofizialarekin bat zetorren klasizismoa bereganatu zuen. Kanpoan eraikinaren funtzioak fatxada-tratamendu ezberdinekin landu ziren. Modu horretan sarreran tenplu klasiko bat interpretatu zen, zinemaren tenplua alegia. Bertan sarrera irekiaren gainean ia murru guztia okupatzen zuten pilastra erraldoiak kokatu zituen, tartean eskailekin eta espazio komunekin bat egiten zuten leihoz zulatutako espazioak agertuz. Pilastren gainean, tinpano bat imitatzen zuen errektangulu formako gorputza gaineratu zen, tipografia klasikoari jarraitzen zion «Coliseo» hitza gaineratuta. Bai pilastrek bai eta tinpanoak ere alboko merkatuan erabili ziren antzeko harri-plaketak zituzten. Aldiz, proiektzio-salarekin bat zetozen kale bereko eta alboko kaleko fatxadek adreiluz estalitako egitura itxiagoa zuten, sarreran, tinpanoko altuera bereko zatian salbu, harri-plaka erabili baitzen. Modu horretan arkitektoak, espazioaren sarrera nabarmentzeko ezaugarri bitxiengatik eta eraikina merkatuaren atzean ezkutaturik ez geratzeko, izkina batean kokatu zuen. Barne-antolaketan, kanpoko klasizismo bera presente zegoen, garaiko erosotasunak lagun (berogailu eta aire-egokitua), arkitektoak proiektuaren memorian deskribatu zuen moduan:


(...) sobriedad y riqueza necesarias para desempeñar el papel representativo correspondiente a la industriosa Villa de Eibar.

Funtsean Eusak erromatarren garaiko klasizismo gaurkotu bat egin nahi izan zuela ematen du, jatorriz «Proyecciones» izena zuen tokiari «Coliseoa» izena hautatzeak agerian utz dezakeen moduan. Baina Eibarren egin ziren beste interpretazio epidermiko eta hutsaletatik aldenduz eta, 1953an ireki zen aretoan, oraindik indarra duen egituraketa bat planteatuz. Eraikina 1987an itxi ostean, udalak erosi eta Martín

239. EUA. 6855.13 (1939): Ibarkurutze plaza. Zinemak 565 jesarleku zituen. Sagardouy, opus cit.: 61.

240. EUA. 6865.43 (1946): Merkatu kalea 2. Proiektuaren inguruan kontsulta daiteke: García Nieto, 1988: 1-4; Tabuenca, 1989b: 1-12.

Herrera arkitektoak egindako zaharberritzearen ostean 2007an ireki zen, berriz ere haren funtzio originala berreskuratuz eta handituz (67., 68. eta 69. ird.).



67. irudia. Koliseoa zinema-aretoa. Fatxada nagusiaren plano. Víctor Eusa, 1947-1953
Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtsa. Sig. 6865.43.

Beste zinema-proiektuen artean aipatzekoa da urte batzuk geroago, 1953an, Pablo Zabalok Fermin Calbeton kalean zegoen «Salón-Teatroa» berreraikitzeo proiektua²⁴¹. *Gone with the Wind* proiektatzen zedela erretako saloiaren gainean, Donostiako arkitektoak 826 jesarlekurako tokia pentsatu zuen zinemara bakarrik dedikatuko zen altuera txikiko eta Escorialeko formei jarraitzen zien eraikin batean.

Handik gutxira, 1955ean Ignacio Mendizabal Lujambio arkitektoak Ardantzan «Amaya» zinemak diseinatu zituen auzo-etxe bateko proiektuarekin batera, eraikinari errentagarritasun handiagoa ateratzeko asmoarekin²⁴². Zinema-antzokiak 896 jesarleku zituen, antza denez, probintzia guztiko pantaila handienaren aurrean (Sagardouy, 1960: 61).

241. EUA. 6880.15 (1954): Fermin Calbeton 4.

242. EUA. 6873.05 (1955) eta 6881.23 (1955): San Juan 11. 1955eko martxoaren 23ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Comisión Municipal Permanente. 1955. A.11-83.*

Hortaz aisialdi, hezkuntza, osasun, fede, elikadura edo segurtasun funtzioak biltzeko Eibarren hainbat eraikin berri egin ziren. Nahiz eta hiriko zerbitzu publikorik garrantzitsuena etxebizitza izan zen, bai inizatiba publikoak bai pribatuak, erakundeen diru-laguntzekin, burutu zutena.



68. irudia. Koliseoa zinema-aretoaren eraikuntza-lanak, kanpoaldea.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 13.034. HIF.



69. irudia. Kolisoeo zinema-aretoaren eraikuntza-lanak, barrualdea.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 13.038. HIF.

2.4. ETXEBIZITZA

2.4.1. Etxebizitzaren arazoa

Gerran Eibarko hainbat familiak, senitarteak galtzeaz gain, etxea ere galdu zuten, eta, hala, etxearen gabezia, berreraiki behar zen hiriko arazorik larriena bilakatu zen. Gipuzkoako udalerriaren kasuan, biztanleriaren etengabeko hazkundeak arazoa okertu zuen. Izan ere, gerra bukatzean, 1937an, Eibarren 9.126 biztanle bazeuden ere, handik gutxira 1940an 11.772ra heldu ziren, 13.823ra 1945ean, 16.318ra 1950ean, eta 26.856ra 1957an. Hau da, hogeitun urtean populazioa hirukoiztu zen, eta eraikuntza-industriak ez zion erritmo berari jarraitu.

Gerra bukatzean 439 eraikin eta 1.756 etxe baino ez zeuden Eibarren (García Manrique, 1961: 171). Ondorioz, 1938an 9.837 biztanlerekin 643 etxe behar baziren, 1948an, 14.136 laguneko populazioarekin 887, 1953an udalerrian 17.971 pertsona bizi zirenean 1.079, 1955ean 24.871 biztanlerekin 1.500, eta 1959an eta 30.000 pertsonekin 2.124 etxe. Probintzia guztiko etxe defizita 1958an 13.975ean zegoen bitartean²⁴³. Ondorioz, gutxi gorabehera, Gipuzkoako biztanleriaren % 6 bizi zen udalerrian, probintziaren etxe-gabeziaren % 15 inguru zegoen.

Etxe-gabezia Eibarren. 1938-1959.

Urteak	Biztanleak	Etxe-gabezia
1938	9.837	643
1948	14.136	887
1953	17.971	1.079
1955	23.636	1.500
1956	24.871	2.000
1959	30.000	2.124

Iturria: elaborazio propioa udalaren akta eta memorieta oinarrituta.

Egoera horren aurrean, zeuden etxe gutxien alokairua izugarri igo zen —kasu askotan langile gehienen esku ez zegoena—²⁴⁴, etxearen jabegoa ahal zutenen artean orokortu zen, eta berrakuratzea, jende-pilaketa eta, kasu batzuetan, txabolismoa ohiko bihurtu ziren. Horren ondorioz ezkontzeko adina atzeratu eta familiaren tamaina txikitu ziren, baita hiritar askoren bizitza-proiektu independentea atzeratu ere²⁴⁵.

1941eko inspektzio baten arabera, Txaltzazelaiko etxe bateko gela batean gurasoak eta lau alaba bizi ziren, eta beste batean aitona, bi iloba eta beraiekin familia-erlaziorik ez zuen bikote bat²⁴⁶. Urte batzuk geroago egoerak ez zuen hobera egin. 1950ean familiaburu batek aitortzen zuen alokairuzko logela batean bizi zirela senar-emaztea eta sexu ezberdineko bere bi seme-alabak²⁴⁷. 1955eko datu ofizialen arabera, San Kristobal kaleko etxe batean hiru familiako hogeit hamar pertsona bizi ziren, eta bestean lau familia ezberdinetako hogeita sei pertsona, etxe bakoitzak lau logela eta sukaldea zituelarik. Kasua arraroa barik, arrunta omen zen orduan, eta antzeko egoerak topatu ahal ziren egungo Errebal edo Toribio Etxebarria kaleetako azken

243. *Presidencia del Gobierno. Secretaría General para la Ordenación económico-social. Programa de necesidades de la Provincia de Guipúzcoa. Extracto de los estudios provinciales de ordenación económico-social*, Veritas, Madril, 1950, 44-45.

244. 1942an alokairua % 200-300 inguru igo zen (“El problema de la vivienda. Sus repercusiones públicas”, *La Gaceta del Norte*, 1942ko uztailaren 17a, 3. or.).

245. Egia bada Eibarreko batez besteko adina oso gaztea zela, 34 urte inegurkoa, eta familien seme-alaba kopurua Bilbo edo Donostiakoa baino baxuagoa zen (2,42 familia bakoitzeko 1963an) (García Manrique, 1961: 185; Cio, 1963: 19; Fonseca, 1955: 28).

246. 1941eko martxoaren 28ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1941. A.11-62*.

247. Maria Angela etxadi babestuan etxea alokairuan izateko eskaera. 1950eko martxoaren 26an sinatua. EAEHAAN. I-353-3, 33.

solairuetan. Gehienetan familia bakoitza gela batean bizi zen, nahiz eta familia etxe ezberdinetan banatuta egon ahal zen ere. Besteetan etxearen jabea logela batekin geratu eta gainerakoak prezio altuan alokatzen zituen, sukaldea txandaka erabiltzeko eskubidearekin. Eibarren *Hotel Comercio*, Arrateko ostatua eta pentsioak baziren (Vasca, Iciartarra, etab.) baina 50eko hamarkadan, gizonezkoen artean, ohikoa izan zen beste berrakuratze modu bat, familia bateko etxean logela eta garbiketa kontratatzea, batzuetan janariak ere barne, edota oso ugariak ziren herriko taberna eta jatetxeetan (Martínez Sostre, 1954: 85; García Manrique, 1961: 133).

1958ko datuen arabera, etxe libre baten prezioa Eibarko zentroan 215.000 pezetakoa zen, eta 1.000-2.000 pezeta artekoa alokairua, zentrotik kanpo salmenta 150.000 pezeta eta alokairua 800 pezeta ingurukoa zen bitartean (500 pezeta 1946an, 600 pta.1951n eta 700 pta. 1953an)²⁴⁸. Aldiz, langile askok ordain zezaketen prezio bakarra gela baten alokairua zen, 1954an 300-400 pezeta artean zegoena (500-600 pezeta 1956an)²⁴⁹.

Hego Euskal Herriko eta estatuko hirigune nagusietan ohikoa zen etxebizitzagabezia egoera honen aurrean, erregimen berriak arazoa bere kezka eta egiteko nagusian agertu zuen. Eta haren soluzioa gizarte-justiziaren kontu bihurtu zuen, gobernuaren izaera babeslea islatu eta haren onurak agerian utzi nahi zituen politikari hasiera emanaz. Erregimena finkatzeko, nolabaiteko ongizate eta bake soziala lortzea beharrezkoa baitzen, eta horretarako langileek osasun-babesa, lan-asegurua, opor ordainduak, erretiroa eta etxe propioaren promesa izan zuten. Gainera, aipatu dugun bezala, etxea eta lan-baldintzak hobetzearekin batera, tuberkulosia, garaiko osasun-arazorik larriena, gutxitzearen esperantza zegoen ere.

Mugimenduko idazkari orokorraren hitzetan, José Luis Arrese Bilboko arkitektoaren hitzetan, 1940ko maiatzaren 5ean Malagan inauguratu zen etxadiaren aurrean botatako diskurtsoan:

... tras la guerra no queríamos la Paz, sino la Revolución y que la Revolución es la vuelta a Dios frente a la materia y el ateísmo, la vuelta a lo nacional frente a los nacionalismos y la vuelta a la justicia social frente a los privilegios y la demagogia.

(...) hoy venimos a dar un paso más por el camino de la Revolución, hoy venimos a reparar una injusticia de hace siglos que no podíamos consentir: la injusticia de la vivienda y la miseria.

Hay hermanos que no viven como hermanos; gentes humildes en el aire tuberculoso de la miseria que sólo conocen las amarguras del hombre y del olvido; chozas en las que ni cabe la moral cristiana ni el concepto falangista de la vida.

248. Maria Angela etxadi babestuan etxea alokairuan izateko eskaerak. 1946ko apirilaren 16an, 1951ko ekainaren 11n eta 1953ko otsailaren 16an sinatuak. EAEHAAN. I-353-3, 33.

249. García Manrique, opus cit.: 177; Martínez Sostre, opus cit.: 147-148; Sagardouy, opus cit., 109-112; *Cooperativa de viviendas Cristo Obrero. Eibar*, Imprenta Sindical de Guipúzcoa, Donostia, zenbatu barik.

(...) Patria es hogar y (...) el hogar no se siente en una choza donde se meten hasta los huesos las inclemencias del tiempo, donde la santidad de la familia está pisoteada, donde no hay alegría, ni luz, ni calor.

Vosotros sabéis que el hogar de muchos ha sido hasta ahora la taberna, la cárcel o el hospital, y que por ello estuvimos a punto de tener una Patria mandada por borrachos, por delincuentes y por enfermos.

Camaradas: la Falange se ha rebelado contra esta vida turbia y miserable; queremos unos hogares claros, alegres, porque queremos una Patria alegre y clara...

La Falange no admite la teoría cómoda o cobarde de lo imposible (...). ¿Qué el problema es grande? Precisamente porque es grande entra de lleno en la órbita de la Falange (...). (Arrese, 1966: 1.171-1.176).

Estamos en unas circunstancias en que será posible realizar todo aquello que se considere deseable, —gaineratu zue César Cort arkitektoak (Cort, 1940a: 45-46)—.

Estatuko eliteen diskurtso arranditsuek garaiko etxebizitzaren gabeziak eragiten zuen gaitz endemikoari aurre egiteko ezintasuna ezkututzen zuten. Erregimen totalitarioak erakunde berriak sortu eta haiek kudeatzeko eta garatzeko legeak promulgatu bazituen ere, ekimen publiko eta partikularrek ez zuten arazoa konpontzerik izan. Alabaina, proiektatu ziren etxebizitza-plan guztiak Estatu berriaren propaganda-tresna nagusi gisa erabili ziren, biztanleekiko itxurazko ardura agertu eta, berriz ere, aurreko gobernu demokratikoa kritikatzeko.

Berreraikuntzarekin bezala, etxebizitzaren arazoari aurre egiteko lehen neurriak gerra-garaian hartu ziren, nahiz eta gerra bukatu arte itxaron behar izan zen etxebizitza-politika orokor bat abian jarri arte. Modu horretan, alokairuak barkatzen zituen aurreneko ordena, dekretu eta 1936an sortu zen Etxebizitzaren Fiskaltza moduko organismoen eraketaren ostean, INV eta OSHren jaiotza ahalbidetu zuen 1939ko Etxebizitza Babestuen Legea izan zen gerraosteko gizarte-etxebizitza politika artikulatu zuena.

2.4.2. Gizarte-etxebizitza

2.4.2.1. Etxebizitzaren gabeziari aurre egiteko erakundeak eta ekimenak

1936ko abenduaren 29ko dekretuaren arabera, Gobernazio Ministerioaren barruan sortu zen Etxebizitzaren Fiskaltza, etxebizitzaren arazoari aurre egiteko lehen erakundea izan zen. Jarraian, 1937ko otsailean, Fiskaltzaren araudia eman eta probintzia-hiriburu bakoitzeko Gobernu Zibilaren egoitzan erakundearen bulego bat ireki zen²⁵⁰. Haren helburua, arkitekto, abokatu eta osasun-begiraleen laguntzaz (tokian tokiko probintzia eta udalerriko funtzionarioak), etxeen osasungarritasuna eta higiena bermatzea izan zen, eraikita zeudenen eta eraiki berri zirenen

250. “Decreto 111. Creando el Cargo de Fiscal Jefe de la Vivienda”, *Boletín Oficial del Estado*, **64**, 1936ko abenduaren 22a, 457-458; Sierra, 1940a: 107-113.

inguruko informeak eginez, eta 1939ko ekainaren 6tik aurrera derrigorrezkoa zen Bizigarritasun Txartela ukatuz edo emanez²⁵¹. Fiskaltzaren esku zegoen baldintza egokiak ez zituzten etxe-jabeei konponketak egiteko epea ematea edo/eta haiek itxi edo botatzea. 1940tik aurrera Fiskaltzak ere jende-pilaketak eragozteko inspektzioak eta neurriak hartu ahal zituen, eta hark egindako informeei esker dakigu lehen aipatutako Eibarko etxe batzuen egoera²⁵².

Baina etheen eraikuntza zen arazoari aurre egin ziezaiokeen neurri bakarra, eskuarki, baliabide gutxi zituzten pertsonentzat. Horixe adierazi zuen estatuburuak 1939ko apirilaren 21eko kontraesanez beteta dauden hurrengo adierazpenetan, hasierako urteetako etxebizitza-politikaren nahastea agerian uzten dutenak:

Es una verdadera vergüenza que millares de familias españolas habiten edificios sin condiciones ni siquiera elementales de salubridad. Hay que acabar con eso y os aseguro que acabaremos. Ya se están estudiando el tipo y los tipos de casas que deben construirse sobre todo en lo que se refiere a la vivienda rural. Mediante el pago de un alquiler extraordinariamente barato podrán las familias humildes habitar viviendas nuevas, risueñas, bien ventiladas, en vez de seguir habitando en las actuales zahúrdas.

El esfuerzo en esta dirección de la vivienda llegará hasta donde sea necesario. Construiremos 100.000 o 200.000 casas en un plazo relativamente breve y las haremos con nuestros propios medios, sin acudir a nadie, porque no necesitamos ayuda para ello. España tiene recursos sobrados para resolver el problema fundamental de la vivienda destinada a las clases medias y el proletariado²⁵³.

1939ko apirilaren 14ko Etxebizitza Babestuen Legea gerraosteko etxebizitza-politika aratu zuen marko legala izan zen. Haren helburua: «*Facilitar vivienda higiénica y alegre a las clases humildes*»²⁵⁴ izan zen, eta aurreratu dugun moduan, legearen garapena erakunde ezberdinek egin zuten: INVk, erregulazioa eta kudeaketa, eta OSHk, eta beste onuradun batzuek, eraikuntza (Muguruza, 1940: 10)²⁵⁵.

251. “Reglamto provisional para la organización y funcionamito de la Fiscalía Superior de la Vivienda”, *Boletín Oficial del Estado*, **130**, 1937ko otsailaren 27a, 536-539; “Orden. Dictando normas para la aplicación del Reglamto para la organización y funcionamito de la Fiscalía Superior de la Vivienda”, *Boletín Oficial del Estado*, **174**, 1937ko apirilaren 12a, 970-971; “Fiscalía Superior de la Vivienda. Circular. Dictando reglas a las que habrán de sujetarse los trámites a que deben someterse los proyectos de construcción de nuevas viviendas y reformas de las existentes”, *Boletín Oficial del Estado*, **193**, 1937ko maiatzaren 1a, 1.205-1.206; “Orden obligando a los propietarios a la adquisición de la Cédula de Habitabilidad en la Fiscalía de la Vivienda”, *Boletín Oficial del Estado*, **157**, 1939ko ekainaren 6a, 3.092-3.094.

252. “Decreto de 23 de noviembre de 1940 por el que se dispone la reorganización de la Fiscalía de la Vivienda”, *Boletín Oficial del Estado*, **345**, 1940ko abenduaren 10a, 8.449-8.450.

253. “Instituto Nacional de la Vivienda”, *La Gaceta del Norte*, 1939ko apirilaren 19a, 1. or.

254. Ibidem, 1. or.

255. Etxebizitza eta ekimen legalen inguruan kontsulta daitezke: Álvarez Bermejo, 1961: Cotrueulo, 1960; Futes, 1973 (1965). Gómez Jiménez, 2006.

INV urte bereko apirilaren 19an sortu zen, Antolakuntza eta Gizarte Ekintza Ministerioaren baitan, eta 1941eko otsailaren 13tik aurrera Lan Ministerioaren barruan²⁵⁶. Eraikuntza langile gehien zuen sektorea izatean, haren aktibazioarekin ekonomia suspertu eta langabezia gutxiko zelakoan zeuden. Hortaz, etxebizitza-politika Estatu berreraikitzeke politikatzat eta krisi-garaiari aurre egiteko tresnatzat ulertu zen. Arazoaren okertzearen aurrean, ordura arte etxeez arduratu ziren erakunde guztiak, 1957an José Luis Arreseren zuzendaritzapean sortu zen Etxebizitza Ministeriora pasatu ziren.

Madriilen egoitza nagusia zuen, eta Federico Mayok zuzentzen zuen, INVren egitekoa aurreikusitako laguntzak, kredituak, zerga-salbuespenak eta desjabetzeak kudeatzea, ematea eta erregulatzea zen. INVren esku zegoen ere, besteak beste, etxeen alokairu- eta salmenta-prezioa ezartzea, edo etxebizitza-plan lokalak, eskualde-planak eta estatu-planak egitea. Legeak ezarritako onurak izan nahi zituzten eraikinek Estatu osoan bete beharreko 1939an eman eta 1941ean berritu zen araudia eta ordenantzak bete behar zituzten²⁵⁷.

Araudia eta ordenantzak INVko arkitekto buruak, José Fonsecak, egin zituen gerraurreko esperientzia arrazionalistak kontuan hartuz. Proiektuaren bidegarritasun ekonomikoan oinarrituz (gehienez 30.000 pezeta etxe bakoitzeko edo familia baten hil bateko diru-sarreraren % 20ko alokairua), ordenantzek etxebizitza higienikoak bermatu nahi zituzten barne- eta kanpo-antolakuntzan, besteak beste, industriak, trafiko-bideak, espazio berdeak, patio-antolaketak, altuerak, orientazio, aireztapen eta banaketa egokiak aintzat hartuz.

Ondorioz, gehienez bost pisuko etxeak onartu zituzten. Pisu bakoitza 2,5-3 metro bitarteko altuera eta gutxieneko 58 m²-ko azalerarekin. Bi/hiru logela, sukalde/jantokia eta sarrera independenteko komuna gutxieneko piezak ziren. Sukaldea eta jantokia banatuta edo elkarrekin egoteak azalera ezberdinak eskatzen zituen (sukaldea: 9-12 m², jantokia: 10-18 m²), ez, ordea, logelak eta komunak, gutxienez 9 m²-koak eta 12 m²-koak izan behar zirenak. Baina praktikan araudia ez zen bete eta INVk espazio berderik gabeko, azalera gutxiagoko eta garestiagoak ziren etxeak diruz lagundu zituen. Gerraosteko egoera kaskarra eta etxeen gabezia kronikoa edozein araudiren gainetik geratu baitzen.

256. "Ley estableciendo un régimen de protección a la vivienda de renta reducida y creando un Instituto Nacional de la Vivienda, cargado de su aplicación", *Boletín Oficial del Estado*, **110**, 1939ko apirilaren 20a, 2.190-2.198; "Orden por la que se aprueba el Reglamento de Régimen Interior del Instituto Nacional de la Vivienda", *Boletín Oficial del Estado*, **44**, 1941eko otsailaren 13a, 1.014-1.023.

257. *Reglamento para la ejecución de la Ley de 19 de abril de 1939 de viviendas protegidas y normas y ordenanzas oficiales para su construcción*, Madril: Instituto Nacional de la Vivienda, 1939. *Legislación complementaria de la ley de 19 de abril de 1939 de viviendas protegidas y de su reglamento de 13 de septiembre, normas y ordenanzas de construcción*, Instituto Nacional de la Vivienda, Madril, 1940; "Ordenanzas y reglamento del Instituto Nacional de la Vivienda", *La Gaceta del Norte*, 1939ko irailaren 29a, 1. or.; "Decreto aprobando el Reglamento para la aplicación de la Ley de 19 de abril de 1939, de protección a la vivienda de renta reducida", *Boletín Oficial del Estado*, **275**, 1939ko urriaren 2a, 5.506-5.5162.

INVk nagusiki erakunde publikoak lagundu nahi zituen, nahiz eta partikularrei, kooperatibei, ongintzako higieziei, enpresei, aurrezki-etxeei, elizbarruti eta parrokiei laguntzak eman zizkien. Onuren arabera erakundeek ez zuten kontribuziorik ordaindu behar 20 urtez, eta gastuen % 40ko diru-laguntzak zituzten, interesik gabeko diru-maileguekin batera. Partikularrek, berriz, zerga-salbuespenak eta gastuen % 10-20 arteko laguntzak izaten zituzten, INV, ICRN eta nagusiki *Banco de Crédito Nacional* delakoaren bidez kudeatzen zirenak.

Estatuak diru-laguntzak ematearekin batera, etxeak eraikitzea ere erabaki zuen. 1939tik aurrera Falangeko sindikatu bertikala *Central Nacional Sindicalista* delakoak (CNS) —geroago *Delegación Nacional de Sindicatos* delakoaren baitan sartu zen— Estatuaren beste erakundeekin batera, horretan hasi zen, harik eta 1941eko urritik aurrera Estatuaren etxebizitza-proiektu nagusiak OSHk kudeatu zituen arte. Estatuak ordura arte egin ziren eta ordutik aurrera egin behar ziren etxebizitza-proiektu guztiak bideratzeko erakunde bakarra nahi zuen, ondorioz, OSH estatuko etxebizitza eraikuntza-sustatzailerak nagusi bilakatu zen Federico Mayoren zuzendaritzapean, hau da INVren agintari beraren esanetan²⁵⁸. OSHk Madrilen ezarri zuen bere egoitza nagusia, baina probintzia bakoitzean arkitekto aholkulari eta laguntzaileak izan zituen ere²⁵⁹. Gipuzkoakoan, Sorian udal-arkitekto gisa lan egin ostean, Donostian bizi zen Ramón Martiarena zumaiarra izan zen arkitekto aholkularia (Carrasco, 2004: 318 eta hur.). Horrekin batera, gutxienez urte batzuetan, Eibarren OSHren ordezkariak egon ziren, ditugun datu gutxien arabera, horietako batzuk izan ziren Ignacio Anitua 1947an²⁶⁰, Miguel Martínez Sostre udal-medikua 1950ean²⁶¹, eta Francisco Arrotajauregui 1954an²⁶².

OSHK, Regiones Devastadas-ek eta beste erakundeek egin zituzten etxebizitza-proiektuetan, INVk emandako araudia eta ordenantzei jarraituz, gerraurreko arraziona-lismoarekin bat egiten zuten etxe minimoak egin zituzten. Hala gomendatu zuen gainera 1941ean Gonzalo Cárdenasek Regiones Devastadas-en *Reconstrucción* aldizkarian (Cárdenas, 1941: 25-31), eta hori izan zen Hego Euskal Herriko eta estatuko proiektu askotan sustatu zen etxe-antolakuntza²⁶³. OSHko foiletoetan irakur

258. Martín eta Roca, 1958: 49-75; “Decreto-ley de 29 de mayo de 1954 (rectificado) por el que se encomienda a la Obra Sindical del Hogar, en colaboración con el Instituto Nacional de la Vivienda, la realización de un Plan de construcción de veinte mil viviendas anuales para productores de la Organización Sindical”, *Boletín Oficial del Estado*, **168**, 1954ko ekainaren 17a, 4.096-4.097.

259. *Memoria que eleva al Caudillo y su gobierno el Instituto Nacional de la Vivienda. 1943*, Instituto Nacional de la Vivienda, Madril, 1943, 95. or.; *Delegación Nacional de Sindicatos de las FET y de las JONS (1944)*, Delegación Nacional de Sindicatos, Madril, 1944?, 21. or.; Lasso de la Vega, 2000: 153.

260. *Guipúzcoa, Vizcaya y Álava la mano*, Gráfico Editorial. Editorial Icharopa, donostia, 1947, 213. or.

261. *Guipúzcoa en la mano. Anuario General de toda la provincia*, Artes Gráficas Martín y Ma, Donostia, 1950, 702. or.

262. *Guipúzcoa en la mano. Anuario General de toda la provincia*, Talleres de Escelier, Donostia, 1954, 85. or.

263. Horren adibideak izan daitezke 1942an Francisco de Asís Cabrerok OSHrako Bejarren

daitekeen moduan: «*Los grupos se construyen en bloques abiertos eliminando patios interiores (...) En las viviendas se reducen al mínimo los pasillos para evitar superficie perdidas*»²⁶⁴. Nahiz eta halako etxe-antolakuntzaren inguruko kritikak presente egon ziren ere. Miguel Apraizek Eibarko Guardia Zibilarentzat egin zituen etxeen memorian adierazi zuen bezala, berak ez zuen bat egiten etxebizitzarako beharrezkoak ziren isolamendu eta independentziak ia ezeztatzen zituen etxe-banaketekin²⁶⁵.

Eibarren etxebizitzak eraikitzen hainbat erakundek hartu zuten parte: Regiones Devastadas-ek, OSHk eta udalak. Guztiek, urbanizazio-plan berriari jarraituz, etxebizitzaren gabezia arintzea eta haien baldintza higienikoak hobetzea izan zuten helburu, aurreko urteetako egoera gibelean utziz. Regiones Devastadas-eko arduradunek hala deskribatu zituzten ordura arte eraikitako etxeen ezaugarriak:

El tipo corriente de vivienda es el de grandes manzanas, con casas de poca fachada y gran fondo, en cuyos pisos se reparten habitaciones y talleres, sin orden ninguno. Etre estas manzanas se interponen las fábricas propiamente dichas, algunas de las cuales han sido destruidas por el incendio, y gran número de casas y pabellones aislados, colocados sin ceterior ni alienaciones fijas (Domínguez Elósegui eta Ponte, 1940: 21).

Gerraurreko etxe txiki, ez ondo argiztatu, aireztatu eta espazio sinesgaitzen deskribapena, instituzioak Eibarren etxe higieniko eta hobeagoak eraikitzeko egiten ari ziren esfortzua aldarrikatzeko erabili zen (Domínguez Elósegui eta Ponte, 1940: 71-72).

Etxe babestuak egiten lehena Regiones Devastadas izen zen Maria Angelako etxe-multzoarekin (146 etxe), eta geroago Guardia Zibilaren etxe-kuartela eginez (26 etxe). Bitartean OSHk Carlos Larrañaga auzoa eraiki zuen (199 etxe), eta jarraian udalak etxeak eraikitzeari ekin zion Ipuruako etxadiarekin (308 etxe), zeina 1957an antolatu zen udal-higiezinaren elkartearen abiapuntua izan zen. Guztira 609 etxe egin ziren, 1943an, berreraikuntza-lanak hasi zirenean, Justo Orio Gorostiagak, 1941eko urriaren 3az geroztik Eibarko alkate zenak, *El Diario Vasco* egunkariari egindako elkarrizketan aipatutako 1.500 etxeen kopurutik urrun zegoena²⁶⁶.

(Salamancan) egin zuen proiektua, 1945ean DGAK Madrileko Usera auzoan eraikitako etxeak, Carlos López Romerok Sanlúcar de Barramedan (Cadizen) egindako arrantzale-etxeak, 1954an Rafael Aburtok OSHrako Villaverden eraikitako etxe esperimentalak, edota 1945etik aurrera OSHren liburuxka eta *Hogar y Arquitectura* (1955) aldizkarian argitaratutakoak.

“Viviendas económicas construidas por la Dirección General de Arquitectura en varios suburbios de Madril”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **42**, 1945eko ekaina, 216-227; “Proyecto de barrio de pescadores en Sanlúcar de Barrameda (Cádiz). Arquitecto: Carlos López Romero”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **42**, 1945eko ekaina, 231-234; AA.AA., 2007b, 112 eta hur.; Bergera, 2005: 155-157.

264. *Die Spanisch gewerkschaft und das problem des sozial wohnungsbaues*, Organización Sindical. Obra Sindical del Hogar, Madril, 1963, 32. or.

265. EAEHAAN. I-344-4, 88.

266. “El alcalde, señor Oria, nos habla de los problemas de reconstrucción de la ciudad. Se proyecta la construcción de 1.500 viviendas protegidas para obreros y empleados”, *El Diario Vasco*, 1943ko maiatzaren 19a, 4. or.

Halere, kontuan hartu beharko genuke etxeak eraiki ziren bitartean, udalak eta Regiones Devastadas-ek gerrarekin galdutako hainbat eraikin berrezarri zituztela. Modu horretan 1943ko urriaren 23an Etxebizitzaren Fiskaltzako zuzendari Blas Sierrak Eibarrera egindako bisitan, bi instituzioek 191 etxe berreskuratzeko egin zuten lana goraipatu zuen²⁶⁷.

2.4.2.2. Babestutako etxebizitzak

a) Dirección General de Regiones Devastadas y Reparaciones

Zeharo txikituta geratu zen hirian etxeak ezinbestekoak ziren, eta hala ulertu zuen Regiones Devastadas-ek **Maria Angelako** etxadia burutu zuenean. 1941eko urrirako Joaquín Domínguez Elósegui eta José Antonio Pontek etxadiaren proiektua egin zuten²⁶⁸, Ego ibaiaren, txikitu ziren eta zutik geratu ziren Zuloaga Dorrearen eta tailer eta fabrika batzuen gainean (70. eta 71. ird.). Baina nahiz eta 1942ko uztailean lanak hasi, ibaia estali, zenbait eraikin bota, tailer eta industriak lekuz aldatu eta lursailen desjabetzea egin beharra zegoen. Ondorioz, prezioen etengabeko igoerei eta lanen garestitzearenei aurre egin behar izan zitzairen.

6.900 m²-ko etxadia orratz formako bost bloke perpendikularretan banatuta zegoen, eta espazio libreetan lorategiak egitekoak ziren (3.600 m²). Bloke bakoitzean bi portal zeuden, hots, bost/sei altuerako zortzi eraikin eta 146 etxe eta komertzioetarako lokalak. Arkitektoek memorian azaldu zuten moduan:

... se dispone en él, un bloque alineado con la calle de María Ángela y 4 perpendiculares hacia la de Bidebarrieta, que dejan entre sí espacios abiertos destinados a jardines, muy necesarios en Eibar, dada la densidad de las viviendas.

La escasez de terrenos edificables obliga a llevar al límite la altura de los edificios y por ello se dispone el bloque de cabeza con 6 plantas sobre la rasante y los otros cuatro con 5, más una de áticos para todos²⁶⁹.


267. "El fiscal superior de la Vivienda", *El Diario Vasco*, 1943ko urriaren 24a, 3. or.

268. Félix Calderón hormigoi-egiturez arduratu zen. AAN. (04) 81.001, 20.261, 20.260, 20.262. EAEHAAN. I-354-3, 32, 33, 34, 35, 36, 37, 80, 81, 82 eta 101.

269. *Memoria descriptiva*. Testu mekanografiatua, Donostian 1941eko urrian sinatuta. EAEHAAN. I-354-3, 80.



**70. irudia. Maria Angela etxadiaren inguruko parzelazio berria.
MECD, AGA, Obras Públicas, signatura 26-16428-004.**



71. irudia. Maria Angela etxadiaren oinplanoa. Joaquín Domínguez Elósegui eta Jose Antonio Ponte, Donostia 1941eko abendua.

MECD, AGA, Obras Públicas, signatura 78. Sig. 26-16428-005.

http://www.ueu.org/liburuak/gerraosteko_euskal_herrian_eraikitzea/irudiak/irudiak.php?img=Fig.71.jpg

Etxeak orientazio bikoitzeko eta patio txikien arabera antolatutako 110-116 m² ingurukoak ziren. Sarrera, sukaldea, jantokia, hiru logela eta komuna zuten, zerbitzarientzako lekua izanez gero, gela eta komun txikiago bat zuten ere. Pisuen arteko altuerak 2,70 eta 2,90 metrokoak ziren eta azkeneko solairuan teilatupeko atiko ireki bat zegoen, zeinak Secundino Zuazo arkitekto bilbotarrak Madrileko Las Flores etxadi arrazionalistan 1932an proiektatu bezala, latsarriaren funtzioa zuen (72. ird.).



72. irudia. Maria Angela etxadiaren eraikuntza, 1945eko urtarrilaren 14an.
MECD, AGA, Obras Públicas, signatura 26-16428-001.

Garaiko gabezien aurrean, etheen zimentazioa, euste-murruak eta karga-murruak egiteko hondakinetako harriak erabili ziren, beste murruak, berriz, areazko eta zementuzko morteroarekin, fatxada marmol-plakekin estaliz.

1947rako hirugarren blokea bukatu zuten; bosgarrenak igeltserotza-lanak aurreratuta zituen; laugarrenak, hasi berriak, bigarren blokeko bi etxetik bat bukatuta zegoen, eta besteak hormigoizko egitura erdizka egina zuen; lehen blokeko beste bi etxeetan, berriz, zimentazioa baino ez zuten egin. Hortaz, ez ha harritzekoa 1952an oraindik lorategiak egiteko proiektuarekin egotea (73. ird.).



73. irudia. Maria Angela etxadiaren lorategiak.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 14.041. HIF.

Hala ere, etxeak eta lokalak egin ahala alokatzen hasi ziren, eta 1944ko martxoko prentsan lehiaketa iragarri ostean²⁷⁰, kontratuak egiten hasi ziren. Saltzeko pentsatu ziren etxeak alokairuan jarri ziren 146 eta 250 pezeta arteko prezioan (265 eta 500 artekoak 1953an), langile espezializatu eta langile liberalen artean. Bertokoak ziren herritarrek, etxea galdu zutenek, familia handikoek eta gerran erregimen berriaren alde egin zutenek preferentzia izan zuten. Eskaera gehienak beren etxeetan pilatuta bizi zirenenak edo jabeak kanporatu zituztenenak ziren. Nahiz eta etxe batzuk, inolako lehentasunik ezarri gabe, zuzenean eman ziren²⁷¹.

270. "Dirección General de Regiones Devastadas. Concurso para adjudicar viviendas próximas a terminarse en Eibar", *La Voz de España*, 1944ko martxoaren 24a, 2. or.; "Las viviendas protegidas de Eibar. Condiciones para su ocupación", *El Diario Vasco*, 1944ko martxoaren 24a, 2. or.

271. Hala irakur daiteke Joaquín Domínguez Elósegui 1947ko ekainaren 4an Gonzalo Cardenasi idatzitako gutunean: «(...) nuevamente voy a tratar de la dichosa adjudicación de los pisos que han quedado vacantes en Eibar (...) perdóname que te haya largado esta perdiguera pera que la resuelvas, pero francamente, con las cartas vuestras y presiones que teníaís, no sabía a cuáles tendrías más interés

Urteak aurrera joan ahala, Regiones Devastadas-ek eraikitako jabegoa saltzen joan zen, hala agindu zuen 1955eko martxoaren 18ko Lehendakartzako dekretuak, eta aurrera atera 1956ko uztailaren 9an Donostian eratu zen Probintziako Besterentze Juntak. Modu horretan 1957rako lehen etxeak 105.000-150.000 pezeta artean saltzen hasi ziren.

Regiones Devastadas-ek planteatu zituen etxeak, hortaz, ez ziren langile arruntentzat edo diru-iturri gutxi zutenentzat pentsatuak izan. Ziur asko haien kokapena kontuan hartuz, Eibarren zentro berrian eraiki nahi ziren etxe-ereduak finkatu zituzten. Hortaz, diru publikoarekin eraikitako etxeetan, ostatu apalagoetan arrunta ez zen igogailua, berogailua eta kasu batzuetan zerbitzarietzako lekua zegoen (74. ird.).




74. irudia. Maria Angela etxadiaren eraikuntza merkatu berriaren aurrean. Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 13.026 HIF.

en favorecer, y como no conozco el grado de amistad en cada caso he creído preferible que tratéis José y tú de este asunto» AAN. (4) 78, 26/16427.

1950-55 bitartean Regiones Devastadas-ek aipatutako **Guardia Zibilaren** kuartelean etxeak egin zituen zezen-plazaren ondoan, hau da, hiri-zentrotik kanpo zegoen leku malkartsu batean²⁷². Miguel de Apraizek egindako proiektuan etxeak kategoria profesionalaren arabera antolatu ziren. 1945eko apirilko planoetan hiru etxe mota bereizi zituen guardia ezkondu, ofizialorde eta ofizialentzat, altuera eta azalera ezberdinetakoak. Guztiak Guardia Zibilaren murriz itxitako esparruaren barruan. Lehenak (20 etxe) bost pisuko altuerako luzerako eraikin libre batean, eta bigarrenak eta hirugarrenak familia bakarreko etxe itsatsietan (3 etxe-kategoria bakoitzeko) (75. eta 76. ird.). Baina arkitektoak 1950eko uztailan proiektua berriro hartu zuenean, aurreratu bezala, ziurrenik diru-arazoez baldintzatua, antolaketa aldatu eta ofizial eta ofizialordeen etxeak hiru solairuko bi eraikin itsatsietan bildu zituen, orubearen desnibelari jarraituz, altuera ezberdina zutenak (77. eta 78. ird.).

Etxe guztiak patiorik gabe eta orientazio bikoitzean antolatu eta erdiko korridore-harrera ardatz hartuz banatu zituen. Ofizial ezkonduen etxeetan komuna, sukaldea, balkoia eta hiru gela zeuden. Ofizialordeen kasuan, berriz, hiru gela eta jangela balkoiarekin, eta ofizialenetan aurrekoaren pieza berdina, zerbitzariarentzako gela eta komunarekin batera.

272. AAN (04).081.001, 20.263, 20.768, (4)78, 26/16248. EAEHAAN. I-354-4, 88, 89.




75. irudia. Guardia ezkonduen etxeen banaketaren oinplanoa. Miguel Apraiz, Donostia 1944ko uztaia. MECD, AGA, Obras Públicas, signatura 26-020768-001.



**76. irudia. Guardia ezkonduen etxeak. Miguel Apraiz, 1950-1955.
MECD, AGA, Obras Públicas, signatura F-04091-007-002.**



**77. irudia. Ofizial eta ofizialordeen etxeak. Miguel Apraiz, 1950-1955.
MECD, AGA, Obras Públicas, signatura F-04091-007-001.**



78. irudia. Ofizial eta ofizialordeen etxeen banaketaren oinplanoa. Miguel Apraiz, Donostia 1950eko uztaila. MECD, AGA, Obras Públicas, signatura 26-16428-006.

Urte batzuk lehenago, leku berean, Elgetarako errepidean, OSHk bere aurreneko obra egin zuen Gipuzkoan.

b) Obra Sindical del Hogar y Arquitectura

Regiones Devastadas-ek Maria Angelako etxadia hasi eta berehala, OSHk bere arkitekto Ramón Martiarenaren eskutik, 199 etxe eta 2 dendaren proiektua egin zuen 1943ko maiatzerako, urte bat lehenago Federico Mayo OSH eta INVko zuzendariak, Joaquín Domínguez Elósegui eta beste autoritate batzuen laguntzaz, hautatu zuten 11.290,77 m²-ko lursail batean²⁷³ (79. ird.). Modu horretan 1940an etxeak egiteko hasi ziren gestioek bukaera ikusi zuen²⁷⁴. Auzo berriak, egun Joan Antonio Mogel deitzen dena, **Carlos Larrañaga** izena hartu zuen, 1934ko urriko istiluetan hil zuten Eibarko enpresari karlistaren omenez (Gutiérrez Arosa, 2001: 86-87).




79. irudia. Eibarko ikuspegia. Hondoan, goiko aldean, Carlos Larrañaga etxadi berria. Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 12.006 HIF.

273. EAEHAAN. P-208-1, 12. P-208-2, 13. P-213-6, 416. P-215-1, 499. P-216-5, 600. P-215-1, 498, 500. P-218-4, 713. P-219-4, 785. P-273-6, 417. “El director general del Instituto Nacional de la Vivienda, en Eibar. Donde se construirán doscientas viviendas protegidas para obreros”, *El Diario Vasco*, 1942ko irailare 13a, 3. or.; “200 viviendas protegidas van a ser construidas en Eibar”, *La Voz de España*, 1942ko irailaren 13a, 5. or.

274. “De Eibar. Viviendas para obreros”, *El Diario Vasco*, 1940ko urtarrilaren 7a, 5. or.


Azalera irregular eta altuera ezberdineko orubean, arkitektoak trapezio ireki bat definitzen zuten bost altuerako bloke jarraituak proiektatu zituen. Sartzeko arku batzuk egin ziren, non auzunearen izena eta OSH eta Falangeren ikurrak eta, alde batean ere, Espainiako eta Mugimenduaren banderak kokatzeko hagak ipini ziren. Orubearen barruan beste bi bloke eta umeak jostatzeko aterpe irekiak zeuden (80., 81. eta 82. ird.).

Patiorik gabeko eta orientazio bikoitzeko etxeak ziren. Etxe guztiak bost banaketaren arabera antolatu ziren, 54,13 eta 74,51 m² bitartekoak, guztira 3.220,99 m² eraikiz. Banaketarik ohikoena 134 etxek (90, 40 eta 4 aldaera gutxirekin) zutena zen, korridorerik erabiltzen ez zuen eta distribuzioa sarrera eta sukalde-jantoki batera irekitzen ziren hiru logela eta komuna. Beste 60 etxek korridorerik gabe eta sarrera eta jangela-egongelaren arabera antolatzen ziren sukaldea, komuna eta hiru logela zituzten. Eta gainerako 5 etxek erdian korridorea eta bi alboetan komuna, sukalde-jantokia eta bi logela zituzten. Guztiek 2,80, 2,70 eta 2,65 metrora txikitzen zihoazen altuerak zituen. Etxadiak orientazioan, etxeen azaleran eta altueran ez zituen INVk emandako araudia betetzen baina, beste kasu askorekin gertatu zen bezala, onartua izan zen (83., 84., 85., 86., 87. eta 88. ird.).



80. irudia. Carlos Larrañaga etxadiaren maketa.

EAEHAAN / AGAPCAE. Obra Sindical del Hogar. 785 kutxa. Sig. P-219-4.




81. irudia. Carlos Larrañaga etxadiaren maketa.
EAEHAAN / AGAPCAE. Obra Sindical del Hogar. 785 kutxa. Sig. P-219-4.



82. irudia. Carlos Larrañaga etxadia, sarrera nagusia. Ramón Martiarena, 1943-1949.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 34.009 HIF.




83. irudia. Carlos Larrañaga etxadia, barrualdea.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtsa. Sig. 34.070 HIF.



84. irudia. Carlos Larrañaga etxadiaren oinplanoak: A/e tipoa. Ramón Martiarena, Donostia 1943ko maiatza. EAEHAAN / AGAPCAE. Obra Sindical del Hogar. 785 kutxa. Sig. P-219-4.

http://www.ueu.org/liburuak/gerraosteko_euskal_herrian_eraikitzea/irudiak/irudiak.php?img=Fig.84.jpg




85. irudia. Carlos Larrañaga etxadiaren oinplanoak: B tipoa.

Ramón Martiarena, Donostia 1943ko maiatza. EAEHAAN / AGAPCAE.

Obra Sindical del Hogar. 785 kutxa. Sig. P-219-4.

http://www.ueu.org/liburuak/gerraosteko_euskal_herrian_eraikitzea/irudiak/irudiak.php?img=Fig.85.jpg



86. irudia. Carlos Larrañaga etxadiaren oinplanoak: ½ A tipoa.
Ramón Martiarena, Donostia 1943ko maiatza. EAEHAAN / AGAPCAE.
Obra Sindical del Hogar. 785 kutxa. Sig. P-219-4.

http://www.ueu.org/liburuak/gerraosteko_euskal_herrian_eraikitzea/irudiak/irudiak.php?img=Fig.86.bis.jpg



88. irudia. Carlos Larrañaga etxadia, barrualdea.

Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 34.072 HIF.

1945ean, lanak hasi eta urte bat geroago²⁷⁵, Martiarenak, agian Maria Angelako etxadian inspiraturik, teiltupeko espazioa arropa sikatzeko edo trasteleku gisa atontzea erabaki zuen. Baina OSHko arkitektoaren lanak ez ziren hemen bukatu, hainbat bloketan erabili ziren materialen kalitate eskasagatik, hezetasun-arazo larriak agertu zirelako, 1951n konpondu behar izan zirenak.

OSHK Eibarko Udalaren laguntza izan zuen 4.238 m² inguruko lursaila (desjabetu eta urbanizatuta) eman ziolako²⁷⁶, eta auzoaren ur-hornikuntzaz arduratu zelako ere 1946an egindako eta 1947ko martxoan hasitako proiektuari jarraituz²⁷⁷. Etxadiaren lanak, berriz, 1949rako bukatu ziren, hau da, proiektatu eta sei urte beranduago, tartean izan ziren energia eta material-hornikuntza arazoak zirela-eta.

Udalak 23 etxe erosi zituen herrian lan egiten zuten funtzionarioen artean

275. "En el mes próximo comenzará en Eibar la construcción de ciento noventa y nueve", *ABC*, 1944ko apirilaren 9a, 21. or.; ARRI-ARTE, "200 viviendas protegidas en Eibar. Podrán albergar más de 1.200 personas", *El Diario Vasco*, 1945eko maiatzaren 16a, 1. or.

276. Proiektua Raimundo Alberdi udal-arkitektoak egin zuen. EUA. 3162.1942ko irailaren 28ko eta 1943ko martxoaren 29ko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar*. 1942. A.11-63 eta *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar*. 1943. A.11-64.

277. 1946ko martxoaren 15eko eta abuztuaren 28ko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar*. 1946. A.11-67. 1947ko martxoak 14ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar*. 1947. A.11-68.

banatzeko²⁷⁸. Alfa enpresak ere beste 30, eta *Banco Oficial de Pruebas* delakoak, berriz, ²⁷⁹. 1944ko martxoaren 2ko dekretuaren arabera, enpresek bere onuren % 20 funtzio sozial eta, nagusiki, beren langileentzako etxeen eraikuntzara dedikatu behar zuten²⁸⁰. Dekretua etxe-gabeziari aurre egiteko 1943an abian jarri zen Etxebizitza Lehen Plan Nazionalaren baitan kokatzen zen. Iniziatiba pribatua ere diru-laguntzen bidez inplikatu nahi izan zuen (1944ko azaroaren 25eko Etxe Bonifikatuen Legea) (Mayo Gayarre eta Martín Artajo, 1947: 11) eta etxadi handiagoak eraikitzeke laguntzak urbanizazio eta zerbitzu publikoetara hedatzen zituen²⁸¹.

Etxadiaren inaugurazioa eta etxeen banaketa, aipatu dugun moduan, estatuburuak egin zituen 1949ko abuztuaren 11n, estatuko, probintziako, hiriko, inguruko herrietako eta Elizako hainbat agintari lagun²⁸². Besteak beste bertan egon ziren Justizia eta Atzerriko ministroak (Raimundo Fernández-Cuesta eta Alberto Martín Artajo). Francisco Francok gerraostean Eibarrera egin zuen lehen bisita, ez kasualitatez, etxeak banatzeko izan zen, baita guda bukatu zenetik hirian burututako berreraikuntza-lanak azpimarratzeko ere. Estatuburuaren hitzetan:

Es para mí una verdadera satisfacción venir a Éibar y encontrarme con una nueva Villa, distinta a la que hallamos al reconquistar el pueblo español. Cuando llegué a aquellos momentos a Éibar estaba todavía humeante la mecha, que de taller en taller, de casa en casa, iba a parar a la iglesia, y que momentos antes había sido apagada por uno de los combatientes de la Cruzada. Es decir, que la anti-España, la que negó siempre a España, la España roja pretendía destruir totalmente hasta los cimientos de la sociedad católica española.

Y sobre aquellas ruinas, sobre ese campo asolado, véis como año a año y día a día, van surgiendo estos nuevos edificios, estas modernas construcciones que dan nuevo aspecto, un aspecto bello, generoso y noble, a nuestras ciudades y a nuestros pueblos. Este es el Movimiento nacional; no es una revolución que destruya, no es una revolución de dinamiteros, no es una revolución de holgazanes y de parásitos: es una revolución de trabajadores, de constructores, de hombres que levantan sobre las piedras y sobre el

278. 1949ko irailaren 30eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1949. A.11-70*. 1950eko martxoaren 11ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1950. A.11-72*.

279. EAEHAAN. P-213-6, 416.

280. “Decreto por el que se dispone que las Empresas afectadas por la Ley de 30 de diciembre de 1943, dedicarán el 20 por 100 de las reservas a que se refiere el artículo tercero de la misma, a fines sociales, y preferentemente a viviendas protegidas para su personal”, *Boletín Oficial del Estado*, **76**, 1944ko martxoaren 16a, 2.205. or.; “Las empresas y el problema de la vivienda”, *La Gaceta del Norte*, 1944ko apirilaren 22a, 1. or.

281. “Decreto por el que se establece que la protección de la Ley sobre viviendas protegidas podrá extenderse a las obras de urbanización y servicios públicos complementarios en poblados y barriadas enteras de viviendas de esta clase”, *Boletín Oficial del Estado*, **100**, 1944ko apirilaren 9a, 2.381. or.

282. “El jefe del Estado inauguró en Eibar un grupo de viviendas protegidas”, *El Diario Vasco*, 1949ko abuztuaren 12a, 1. eta 3. or.; “El Caudillo inauguró ayer en Éibar un bloque de docitas viviendas protegidas”, *ABC*, 1949ko abuztuaren 12a, 1. eta 8. or.; “La inauguración del grupo de viviendas Carlos Larrañaga revistió caracteres de apoteosis”, *La Voz de España*, 1949ko abuztuaren 12a, 1. eta 4. or.

suelo casas, viviendas higiénicas y que ambicionan repartirlas entre los trabajadores españoles.

Estas obras, en medio de las desgracias de un pueblo, nos parecen grandiosas, pero son a nuestro juicio, todavía pequeñas.

En España faltan más de quinientas mil viviendas. Fijaros lo que representa esa tragedia; pero esas quinientas mil viviendas, que nosotros, gracias a Dios, levantaremos, suponen trabajo para las fábricas, trabajo para los operarios, trabajo fecundo para todos los obreros españoles, riqueza para la nación, justicia y bienestar. Y eso lo ofrezco yo aquí, en la villa de Éibar.

El Movimiento nacional no estará satisfecho mientras todos los trabajadores, todo el que ansíe una vivienda, no la tenga. Y esto lo haremos con el esfuerzo unido de todos, en un sólo movimiento nacional pensando en Dios y arrimando todos el hombro en el trabajo...²⁸³

Maria Angelako etxadia baino apalagoa zen Carlos Larrañaga promozioaren bidez, Elgetarako bide malkartsua urbanizatzeko urrats garrantzitsu bat eman zen, baita bertan zer-nolako etxe-eraikuntza mota bermatzen zen. Langileak bizitzeko eta industriarik gabeko auzoa. Ondorengo urteetan udalak egin zituen proiektuekin finkatu zen izaera.

c) *Udal-etxebizitza. IMESA. Inmobiliaria Municipal Eibarresa*

1950eko urtarrilean Eibarko Udalak Carlos Larrañaga etxadiarekin hasitako esperientzia zabaldu zuen. Horretarako inguruko beste lursail batzuk eskuratu zituen **Ipuruan**²⁸⁴, bertan OSHk, hiriaren urbanizazio-planari jarraituz, auzo berri bat eraiki zezan. Kasu horretan, etxebizitzekin batera (190 etxe eta 2.800 biztanle inguru), jada komentatu ditugun beste zerbitzu batzuk pentsatu ziren: eskola, merkatua eta Isasiko Ama Kontzepzionistentzako komentua eta eliza.

Alabaina, 1952ko otsailerako, lanak arinago eta egokiago egingo zirelakoan, udalak proiektua berak egitea erabaki zuen, INV, diputazio eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren laguntzarekin²⁸⁵. Modu horretan, 1939tik aurrera udalak izan zuen etxe merkeak eraikitze borondatea gauzatu zen²⁸⁶. 1952ko apirila-uztaila bitartean udal-arkitektoak, Joaquín Domínguez Elósegui, proiektua egin zuen, kasu honetan hasieran pentsatutako etxe kopurua gehituz. Arkitektoak 308 etxe, 22 denda,


283. Ibidem.

284. 1950eko urtarrilaren 26ko eta martxoaren 11ko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1950.* A.11-72.

285. 1952ko otsailaren 28ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1952.* A.11-76.

286. *Ayuntamiento de Eibar. Provincia de Guipúzcoa. Memoria que en cumplimiento del artículo 116 de la vigente ley municipal y circular de la subsecretaría del ministerio de la gobernación de fecha 18 de abril de 1939, inserta en el Boletín Oficial del Estado 109, se eleva a dicho ministerio, sección de administración local. Año de 1939, testu mekanografiatua, 5.-6. or.* EUA. B.2.29.2.

merkatua, eskola, eliza eta haren eratzikia diseinatu zituen²⁸⁷. INVk proiektua 1953ko urtarrilean onartu ostean²⁸⁸, 1954ko martxoan zenbait eraikinetan erabilitako zementuaren kalitate txarraren ondorioz arazoak izan zituzten²⁸⁹. Konpondu ostean, 1957an, etxeak entregatu ziren. Inaugurazioa eta etxeetako giltzen entregatzea, eskola eta Ama Sorkundetarren komentuarien inaugurazioarekin batera, 1955eko abenduaren 11n egin zen²⁹⁰. Bertan gotzaina, gobernadore zibila (Tomás Garicano Goñi), diputazioko presidentea (José María Caballero Arzuaga), INVko probintzia-ordezkarria eta udal-korporazioa egon ziren (89. eta 90. ird.).



89. irudia. Lehen planoan Ipuruako udal-etxebizitzak, eskola, merkatu eta eliza-komentuarekin. Joaquín Domínguez Elósegui, 1952-1957. Sagardouy López- Salazar, Domingo (1960): *Ilmo. Ayuntamiento de Eibar. Memoria municipal. Años 1955- 1959*, Nueva Editorial, Donostia, liburuan argiratua.

287. 1952ko uztailaren 2ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1952. A.11-76* eta EUA. 3162.

288. INVk lanen % 40 aurreratzea onartu zuen, dirua interesik gabe itzultzeko 20 urteko epea utzi zuelarik, bai eta lanen prezio erdiaren % 40 maileguan eman % 4ko interesean. 1953ko urtarrilaren 29ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1953. A.11-78*.

289. 1954ko martxoaren 16ko eta abuztuaren 26ko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1954. A.11-80*.

290. “Bendición de un nuevo convento y entrega de 270 llevas en Eibar”, *El Diario Vasco*, 1955eko abenduaren 13a, 1. eta 5. or.; “Entrega de una barriada de viviendas protegidas en Eibar. Fueron bendecidas 306 pisos, varias tiendas, una iglesia-convento y una escuela”, *La Voz de España*, 1955eko abenduaren 13a, 1. or.



90. irudia. Goian eskumaldean, Ipuruko udal-etxebizitzak, eskola, merkatu eta komenturekin. Joaquín Domínguez Elósegui, 1952-1957.

Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 21.043 HIF.

20.777,25 m²-ko azalera okupatzen zuen errektangulu formako lursail baten gainean zazpi solairuko sei bloke paralelo kokatu zituen udal-arkitektoak. Punta bakoitzean eskola eta merkatua eta albo batean eliza-komentua kokatu zituen. Garai horretan diruz lagundutako etxeen antolaketarekin jarraituz, orientazio bikoitz batean, korridorarik gabeko oinplanoan eta sukalde-jantokia funtzioa zuen erdiko pieza baten arabera, komuna, eta hiru/lau logela antolatzen ziren, batzuek sukaldea eta logela batean balkoia zutela. Kasu honetan proiektua merkatzeko, 2,60 metroko altuera zuen pisu bakoitzak, beheko plantak salbu, 3 metro zituena (91. eta 92. ird.).


Ipuruako etxadia egiten ari zen bitartean, udalak etxe merke gehiago egiteko asmoa zuen eta bere proiektua aurrera ateratzeko lursail gehiago erosteko gestioak egiten hasi zen 1954ko urtarrilean²⁹¹. Urte bat beranduago, 1955eko urtarrilean, kronikoa zen etxe-gabeziaren aurrean eta Ipuruako etxe-multzoko esperientzian oinarritua, udalak, bere intentzioekin modu eraginkor batean jarraitzeko, Higiezin Elkarte bat sortzea proposatu zuen. 1956ko abenduan onartu²⁹² eta 1957ko urtarrilerako errenta mugatuko etxeak eraikitzea helburua zuen «**Inmobiliaria Municipal Eibarresa Sociedad Anónima**» (IMESA) sortua zegoen. 250.000 pezetako kapitalarekin hasi zen, udalarenak ziren mila pezetako akziotan banatuta.

291. 1954ko urtarrilaren 6ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1954. A.11-80.*

292. 1955eko urtarrilaren 27ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1955. A.11-82. 1956ko martxoaren 22ko, ekainaren 28ko eta abenduaren 20ko udal-bilkurak. EUA. Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1956. A.11-84.*

Luis Palacios Motejo, 1955eko otsailaren 18tik alkate zena, administrazio-kontseiluaren presidentea izan zen, eta Jesús Guijarro y Arrizabalaga udaleko kontuhartzailea gerentea.

Elkarte berriaren esku geratu ziren udalak zituen lursail batzuk, eraiki berri zen Ipuruako etxadia eta ordura arteko INVrekin egindako kudeaketarekin jarraitzea²⁹³. Horregatik, IMESAren esku geratu zen Ipuruako etxeak banatzea, besteak beste, udalak erositako 30 ostatu herriko udal, probintzia eta estatuko funtzionarioen artean²⁹⁴. Ondorengo urteetan, IMESAk, INV eta bertoko industrialen laguntzarekin, etxadiak eraikitzen jarraitu zuen, eta 1959rako abian zen 384 etxe eraikitze proiektua (Sagardouy, 1960: 125). Izan ere, OSHk eraikitako etxadiarekin hasi zen Eibarko enpresen kolaborazioa, 1945eko apirilaren 13ko dekretuaren arabera posible baitzen IMESA moduko eraikuntza-entitateetako akzioak edo obligazioak erosiz²⁹⁵.




91. irudia. Ipuruako udal-etxebizitzaren oinplanoa (xehetasuna). Joaquín Domínguez Elósegui, Donostia 1952ko apirila. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtza. Sig. 3.162.

293. 1957ko maiatzaren 9ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1957. A.11-86. Primera copia de la escritura de constitución de la Sociedad Inmobiliaria Eibarresa, Sociedad Anónima. Eibar, 9 de enero de 1957.* EUA. IMESA.

294. 1957ko urriaren 31ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1957. A.11-86.*

295. “Decreto sobre inversión de la reserva especial de empresas destinadas a fines de carácter social en títulos emitidos por entidades constructoras de viviendas protegidas”, *Boletín Oficial del Estado*, **116**, 1945eko apirilaren 26a, 3.328. or.



92. irudia. Ipuruako udal-etxebizitzaren oinplanoa (xehetasuna). Joaquín Domínguez Elósegui, Donostia 1952ko apirila.. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtza. Sig. 3.162.

Ziurrenik Eibarko Udalaren inizatibak gerraostean egin ziren antzeko ekimenak izan zituen eredu. Esanguratsuena Bilboko Udalak, INVk kudeatzen zituen onura ekonomikoak eta higiezin-elkarteak zituzten abantaila fiskalak aprobetxatzeko, 1941ean sortu zuen «Viviendas Municipales Sociedad en Comandita» izan zen²⁹⁶, zeinak 1956rako Bizkaiko hiriburuan 1.400 etxe baino gehiago eraikitzea lortu zuen. Bilboko ereduari jarraituz, eta gero eta larriagoa zen etxebizitza-arazoaren aurrean, 1949an Bizkaiko Diputazioak eta Bizkaiko Aurrezki Kutxak *Viviendas de Vizcaya* eraikuntza-entitatea sortu zuten udal, instituzio publiko, enpresa eta elkarte industrialen laguntzarekin etxeak eraikitzeko²⁹⁷. Urte berean, Gipuzkoan elizaren babesean *Patronato Guipuzcoano de la Vivienda* sortu zen, familia apalenzat ostatu egokiak eraikitzea asmoa zuena²⁹⁸. Bilboko esperientzia Araban ere hartu zuten aintzakotzat eta 1952an sortu zuten «Asociación Nuestra Señora de la Virgen Blanca» izeneko elkarte eta 1958ko «Viviendas Municipales de Vitoria SA», edo VIMUVISA, horren adibideak dira²⁹⁹.

296. *Estatutos de la Institución Viviendas del Excmo. Ayuntamiento de Bilbao*, Escuelas Gráficas de la Santa Casa de Misericordia, Bilbao, 1941.

297. *Viviendas de Vizcaya. Viviendas promovidas 8435, 15 años de 1949 a 1964*, Bilbao, 1965; Álvarez Bermejo, 1961: 444 eta hur.

298. 1950ean Patronatoak 172 etxe eraiki zituen, horietako batzuk Donostiako Loiola (1949-50) eta Martute (1950-51) auzoetan Florencio Mocoarok egin zituen proiektuei jarraituz (*Falange Española Tradicionalista de las JONS. Jefatura Provincial de Guipúzcoa. Catálogo General Informativo de las Obras y Mejoras llevadas a cabo esta provincia desde 1940 a 1949*, Escelicer SL, Donostia, 1950, 38. or.; Muñoz, 2006a: 33-76).

299. *Memoria de las aportaciones para la construcción hechas por la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de la Ciudad de Vitoria*, Caja de Ahorros y Monte de Piedad de la Ciudad de Vitoria, Gasteiz, 1953; Suárez Alba, 1979.

d) *INVren poligonoaren proiektua. Cooperativa de Viviendas Cristo Obrero*

Eibarko Udala IMESA sortzeko erabakiak hartzen zegoen bitartean, 1955eko urriaren 16an José María Ramos Ripoll-en eskutik Eibarko *Cooperativa de Viviendas Cristo Obrero* sortu zen. Kooperatiba Lan Ministerioak etxebizitzaren gabezia endemikoari aurre egiteko egin zuen INVren birmoldaketarekin bat zetorren. 1955eko uztailaren 1eko dekretuaren arabera INVk bost urtetan 550.000 etxebizitza eraiki behar zituen 1954ko uztailaren 15eko Errenta Mugatuko Etxeen Legearen arabera, hau da, etxe babestuetako figura berri baten arabera³⁰⁰.

Kooperatiba sortu eta berehala, etxe sindikalaren ondoan auzo-etxe bat proiektatu zen, INVk onartu ez zuena. Jarraian, 1956ko abuztuaren 26ko dekretuarekin, INVk, udalaren eta enpresen iritzia kontra, premiazko zat jo zuen Eibarren 1.146 etxebizitzako poligonoa eraikitzea, enpresak legez ematera behartuta zeuden diru kopuruak eta beste promotore batzuenak aprobetxatuz³⁰¹. Proiektua Gipuzkoako beste hainbat udalerritan 5.424 etxebizitza gehiagoren eraikitzearekin osatzen zen³⁰².

Eibarrerako dekretuak honela zioen:

El grave problema de la vivienda planteado en el término municipal de Eibar (...), consecuencia del intenso desarrollo industrial alcanzado, motivó en el pasado que distintos organismos del Estado acometieran la construcción de importante número de habitaciones, esfuerzo que, sin embargo, no ha sido suficiente a paliar aquél, considerándose en el momento presente la existencia de un déficit de hogares que asciende a la cifra de dos mil viviendas.

Aprobado por el Gobierno el Plan Nacional del a Vivienda, e incluida Eibar entre las poblaciones cuyas Empresas de determinado censo laboral vienen obligadas a construir viviendas para sus empleados y obreros se hace de muy difícil solución el cumplimiento del precepto, como consecuencia de la falta de terrenos aptos para la edificación, en

300. “Decreto de 1 de julio de 1955 por el que se autoriza al Instituto Nacional de la Vivienda para llevar a cabo la construcción de 550.000 viviendas de ‘renta limitada’ en un plazo de cinco años”, *Boletín Oficial del Estado*, **197**, 1955eko uztailaren 16a, 4.314-4.315; “Ley de 15 de julio de 1954 sobre protección de ‘viviendas de renta limitada’, *Boletín Oficial del Estado*, **197**, 1954ko uztailaren 16a, 4.834-4.841.

301. EUA. C 26 V 3. “Decreto de 21 de agosto de 1956 por el que se declaran de urgencia los proyectos para la construcción de 1.466 viviendas de ‘renta limitada’, correspondientes al Plan Nacional, en el término municipal de Eibar”, *Boletín Oficial del Estado*, **266**, 1956ko irailaren 22a, 6.130-6.131.

302. “Decreto de 21 de agosto de 1956 por el que se declaran de urgencia los proyectos para la construcción de 4.624 viviendas, correspondientes al Plan Nacional, en los términos municipales de Azcoitia, Azpeitia, Escoriaza, Guetaria, Irún, Usurbil, Lezo, Rentería, Oyarzun, Villarreal y Zumaya de la provincia de Guipúzcoa”, *Boletín Oficial del Estado*, **266**, 1956ko irailaren 22a, 6.127-6.129; “Decreto de 21 de agosto de 1956 por el que se declara de urgencia la expropiación forzosa por el Instituto Nacional de la Vivienda de los terrenos de Arechavaleta (Guipúzcoa), para la construcción de viviendas de renta limitada”, *Boletín Oficial del Estado*, **266**, 1956ko irailaren 22a, 6.129-6.130; “Decreto de 21 de agosto de 1956 por el que se declara de urgencia la construcción de 800 viviendas de ‘renta limitada’ en Tolosa (Guipúzcoa)”, *Boletín Oficial del Estado*, **266**, 1956ko irailaren 22a, 6.130. or.

cuanto que buen número de los que en el Plan de Ordenación redactado por la Dirección General de Regiones Devastadas, y apobrado en el año mil novecientos cuarenta, figuraban con ese destino, han sido utilizados para otros diversos que la Corporación municipal, en distintas ocaciones, consideró procedente cambiar de uso.


Redactado por el Instituto Nacional de la Vivienda un Plan de actuación (...) ha sido favorablemente informado por la Dirección General de Arquitectura y Urbanismo, para la construcción de mil cuatrocientas setenta y seis viviendas de ‘renta limitada’, que habrán de construirse por las Empresas que vienen obligadas a construir para su personal, así como por otros promotores que quieran acogerse a los beneficios que concede la Ley de quince de julio de mil novecientos cincuenta y cuatro. En la actuación del Instituto Nacional de la Vivienda se considera necesario el uso parcial de determinada zona del polígono destinada a zona industrial, lo que no se halla en contradicción con las ordenanzas municipales para la edificación aprobadas en mil novecientos cincuenta y que desarrollan el Plan de Ordenación referido. Sometido este plan de actuación al Ayuntamiento de Eibar, la Corporación Municipal ha solicitado la suspensión de éste, hasta tanto se redacta un nuevo plan de Ordenación que las circunstancias presentes aconsejan, introduciendo las pertinentes modificaciones al plan aprobado en el año mil novecientos cuarenta (...) La Corporación municipal es del parecer que no deben mermarse las posibilidades de expansión industrial de la población, si entrar a considerar el grave problema planteado con la necesidad de viviendas.

Ante la imposibilidad de encontrar soluciones distintas a las planteadas por el Instituto Nacional de la Vivienda, y teniendo en cuenta que es preocupación básica del Gobierno el resolver de manera definitiva el problema de la vivienda, que afecta con caracteres especialmente graves a un importante sector de la población trabajadora de dicha localidad, se estima preferente el desarrollo urgente de los proyectos de construcción redactados, sin perjuicio de que por los Organismos competentes se estudien y resuelvan en el futuro los problemas de la ordenación del término municipal, que en la actualidad presenta unas especiales características de gravedad³⁰³.


1956ko apirilean Pedro Arístegui eta Roberto Martínez Anido arkitektoek egin zuten proiektua. 146.666,78 m²-ko auzunea zen, udalak eraiki berri zuen Ipuruako udal-etxebizitzaren ondoan kokatuta. Arkitektoek industrialdea aukeratu zuten beren ustez etxeak eraikitzeko aproposa zen bakarra zelako, nahiz eta auzo egoki bat eraikitzerik ez zegoen: «*En uno de los centros urbanos más congestionados, antihigiénicos y densos apartados de una labor urbanística sana*»³⁰⁴ (93. eta 94. ird.).

303. “Decreto de 21 de agosto de 1956 por el que se declaran de urgencia los proyectos para la construcción de 1.466 viviendas de “renta limitada”, correspondientes al Plan Nacional, en el término municipal de Eibar”, opus cit., 6.130-6.131, azpimarraketa gurea da.

304. EUA. C 26 V 3.



93. irudia. INVren etxe-poligonoa Eibarren. Pedro Aristegui eta Roberto Martínez Anido, Donostia, 1956ko apirila. Cooperativa de Viviendas Cristo Obrero. Eibar, Donostia: Imprenta Sindical de Guipúzcoa, liburuxkan argitaratua.



94. irudia. INVren etxe-poligonoa Eibarren. Pedro Aristegui eta Roberto Martínez Anido, Donostia, 1956ko apirila. Cooperativa de Viviendas Cristo Obrero. Eibar, Donostia: Imprenta Sindical de Guipúzcoa, liburuxkan argitaratua.

Erabakiak Eibarko industrialen eta haien esku zegoen udalaren ezezkoa izan zuen. Enpresa batzuek, Lambretta, Ocamica eta Rubi kasu, udalean aurkeztutako planen arabera, beren fabrikak bertan garatzeko asmoa zuten. Halaber, enpresen ordezkarien arabera, erabakiak industriaren garapena gelditu eta, lekuz aldatzean, industrialdeen eta bizitegi-guneen arteko oreka apurtuko luke, langileen joan-etorri luzeagoak eskatuz. Udalak proiektuaren aurrean alternatiba bat aurkeztu zuen, INVren lankidetzarekin batera, gerran erdi-txikituta geratu zen eta jada IMESAk egina zuen Isasi komentuaren hondakinen gainean etxe-multzo bat eraikitzea (248 ostatu, lonja eta elizarekin)³⁰⁵. Horretarako, hondakinek balio historiko-artistikorik ez zutelako deklarazioaren zain zeuden, berreraikuntza-planaren arabera ez baitzen komentua zegoen lekuan berreraikitzeko asmorik. Gipuzkoako Monumentu Historiko-artistikoen komisioak, Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, Real Academia de Bellas Artes de San Fernando eta mojak mantentzearen aldekoak ziren, eta uzten bazieten mojak komentuaren berreraikuntzaz arduratu³⁰⁶.

Eibarko Udalaren eta enpresen artean 1.146 etxebizitzako poligonoaren proiektuaren kontrako jarrera nagusi zen bitartean, Cristo Obrero Kooperatibak aldeko jarrera azaldu zuen garaiko prentsan eta argitaratutako liburuxken bidez, agian estatuko erakundeek bultzatuta, aldeko iritzi bat lortu nahian³⁰⁷. Egoera horren aurrean, 1956ko azaroaren 19an ministerio arteko komisio bat sortu zen behin betiko

305. 1956ko abuztuaren 10eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno.1956. A.11-84.*

306. AAN. (4) 78. 26/16427.

307. "Intereses de Eibar", *El Diario Vasco*, 1956ko irailaren 29a. Artikulu honi erantzunez idatzi ziren: "Un escrito de la Cooperativa de Viviendas Cristo Obrero", *El Diario Vasco*, 1956ko urriaren 4a; "Cooperativa de Viviendas Cristo Obrero. Aclaración", *El Diario Vasco*, 1956ko urriaren 5a; *Cooperativa de Viviendas Cristo Obrero. Eibar*, Imprenta Sindical de Guipúzcoa, Donostia.

erabaki bat hartzeko asmoarekin³⁰⁸, eta 1957ko abenduan INV Eibarko Udalari zuzendu zitzaion proiektua egin behar zuela aginduz³⁰⁹.

Erakunde publikoetako jarrera kontrajarriek sortutako atzerapenaren ostean, 1961eko urrian etxebizitzaren poligonoa berriro hartu zen, eta lurren desjabetzearekin eta 1957ko maiatzaz geroztik udal-arkitektoa zen Hermengildo Bracons Huguete³¹⁰ eta Carlos Martínez Cebolla Portu eta Ubide ingeniariak egindako urbanizazio-proiektuarekin hasi ziren. Azkenik, bertan behera utzi behar izan zuten (1964ko apirilaren 21eko ordenaren arabera), bertatik autopista egiteko proiektua onartu zelako³¹¹.

Hortaz, poligonoaren eraikuntzak aski ondo uzten du agerian garaiko etxebizitzaren larritasuna, industriak hiriaren antolakuntzan eta garapenean izan zuen garrantzia, eta erakunde publikoen arteko diferentziak arazo komun bati erantzun bateratu bat emateko.

2.4.2.3. *Etxebizitza babestuan mugaketak*

1939ko Etxe Babestuen Legearen arabera eta INVren laguntzarekin, Eibarren 1957ra arte eraiki ziren 679 etxeak (172 Regiones Devastadas-ek, 199 OSHk eta 308 udalak), ez ziren nagusiki pilatuta eta berrakuran bizi ziren udalerriko familia apalen beharrak asetzeko nahikoak izan.

Gerraostean ez zen proiektu gehiago egiteko dirurik egon, eta hortaz ez zen ostatuenez prezioa jaisteko etxe nahikorik egin. Gainera eraikuntza krisian zegoen garaian edozein proiektu izugarri atzeratu zen, finantzatzeko arazoez gain, material, energia, garraio eta eskulan faltagatik. Maria Angelako etxe-multzoa egiteko 11 urte behar izan ziren, Guardia Zibilarena eta udalarenak egiteko, berriz, 5, eta OSHrenak 6.

Eraiki ziren etxe horietako batzuk klase liberaleko pertsonentzat egin ziren (Maria Angela), beste batzuk funtzionarioentzat gorde (Guardia Zibil, eta OSH eta udalaren portzentaje bat), eta beste hainbeste saldu (Maria Angela eta OSH).

Estatuak etxearen jabegoa defendatu zuen, baita etxe babestuen kasuan ere, eta hala adierazi zuen erregimen berriaren definizioan oinarritzkoak ziren «Fuero del Trabajo» eta «Fuero de los Españoles» direlakoetan. Lehenenagoak, 1938ko martxoaren 9ko dekretuaren arabera onartua, honela zioen:

308. Industria Ministerioak izendatutako komisioa hurrengoek osatzen zuten: Gipuzkoako INVko Félix Llanos Goiburu, Alberto Claveria Donazar eta Joaquín Puig Bellacasak; Industria Zuzendaritzako Prudencio Olibera García, Lorenzo Hirusta Aguirre eta Luis Masoliver Martínezek. 1957ko otsailaren 11n Pedro Bidagor gehitu zen. EUA. C 26 V 3.

309. 1957ko abenduaren 28ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1957. A.11-86.*

310. 1957ko maiatzaren 5eko eta abuztuaren 28ko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1957. A.11-86.*

311. EAEHAAN. P-209-3, 107. P-209-2, 96, 89. P-215-4, 536. P-215-4, 537-

... el Estado asumirá la tarea de multiplicar y hacer asequibles a todos los españoles normas de propiedad ligadas vitalmente a la persona humana: hogar familiar³¹².

Eta bigarrenak gaineratu:

El Estado facilitará a todos los españoles el acceso a las formas de propiedad más íntimamente ligadas a la persona humana: hogar familiar...³¹³

Hortaz, ez da harritzekoa 1939ko Etxe Babestuen legearen araudiaren 73. artikuluan irakurtzea:

... será preferido el sistema que permita a los usuarios el acceso a la propiedad de sus viviendas mediante el pago de cuotas de amortización, siempre que altas razones no se opongan a ello³¹⁴.

Gainera, Estatuak 1939ko urrian jabego horizontala legalki basbestu zuen, jarraian aztertuko duguna, ordura arte onartzen ez zuen Kode Zibilaren 396. artikula erreformatuz³¹⁵.

Egia bada ere Ipuruako udal-etxebizitzak alokairuan emateko etxeak zirela, Regiones Devastadas-en Maria Angela etxadia eta OSHk egin zituenak, aldiz, saltzekoak ziren. Gizarte-arrazoiak eta arrazoi moralak tarteko, nagusiki, ekonomikoak ziren arrazoiak zeuden etxe-politika horren atzean, Estatuak diruz lagunduko inizatibei errentagarritasuna ateratzeko eta proiektu gehiagorekin jarraitzeko aukera izan zutelako helburu. *Boletín de Información de la Dirección General de Arquitectura* aldizkarian irakur daitekeen moduan:

Dada la limitación que tiene el Estado para subvencionar la construcción de viviendas en gran escala, vemos la necesidad de plantear ésta sobre la base de obtener del dinero invertido un interés compensador³¹⁶.

Hau da, egin ziren proiektu bakanetan errentagarritasuna bilatzean, etxe gehienak, agian beste baliabide batzuen bidez etxea lor zezaketen pertsonentzat eraiki ziren. Horretan lagundu zuen etxe babestuen araudian onuradunen kontzeptu oso zabal bat egoteak.

Regiones Devastadas-en kasuan, aipatu dugun bezala, 1957an 105.000-150.000 pezeta artean saltzen hasi ziren, batzuetan 13 urteko alokairua ordaindu ostean. OSHk eraikitako pisu bat erosi ahal izateko, berriz, gutxi gorabehera inizatiba pribatuak

312. 31. artikulua. “Decreto aprobando el Fuero del Trabajo”, *Boletín Oficial del Estado*, **505**, 1938ko martxoaren 10a, 6.178-6.181.

313. 31.artikulua. “Fuero de los Españoles”, *Boletín Oficial del Estado*, **199**, 1945eko uztailaren 18a, 358-360.

314. “Decreto de 8 de septiembre de 1939 aprobando el reglamento para la aplicación de la ley de 19 de abril de 1939 de protección a la vivienda de renta reducida”, opus cit., 5.512. or.

315. “Ley de 26 de octubre de 1939 sobre construcción gravamen y régimen de viviendas de pisos o partes determinadas”, *Boletín Oficial del Estado*, 301, 1939ko urriaren 28a, 6.034-6.036.

316. “Plan anual de edificación”, *Boletín de Información de la Dirección General de Arquitectura*, **3**, 1947ko ekainaren 7a, 7. or.

eraikitako etxe baten prezioa izan zitekeena, pisuaren prezio osoaren % 10 ordaindu behar zen aurretik, askok ezin ordaindu eta enpresek edo udalak ordaintzen zuten langileen orde. Jarrian, etorkizuneko jabeak pisuak balio zuenaren prezio erdiaren gaineko mailegua ordaindu behar zuen 20 urtetan % 4ko interesean. Gainerako dirua, interesik gabe aurreratua, 20 urteko hileko kuota finkoetan itzuli beharra zegoen. Pisu baten erosketak behar zuen aurrezki bermatzeko OSHk Posta Kutxarekin batera etxerako aurrezki-libretak asmatu zituen, eta etxe propioaren abantailak eskuorri batzuen bidez ezagutarazi³¹⁷. Modu horretan, etxebizitza publikoaren eraikuntzak aurrezki bermatu eta ekonomia suspertu nahi zuen (Bigeriego de Juan, 1963).

OSHK Eibarren eraiki zuen 77,77 m²-ko eta 49.134,13 pezetako etxe batean, 1949ko urriaren 2ko kontratuko datuen arabera, inkilinoak prezioaren % 10 ordaindu ostean (4.913,41 pezeta) eta beste % 6 prestakuntza sozialeko prima bati esker (2.948,04), 41.272,67 pezeta geratzen zitzaizkion pisua ordaintzeko 76,81 pezetako hileko kuota batekin lehen 20 urteetan, eta 104,41 pezetakoa hurrengo 20 urteetan³¹⁸.

Finantzaketa modu horrekin OSHren etxe bat erostea, kasu gehienetan, hura erosteko dirua eta aurrezkiak zituzten familien esku zegoen bakarrik. Alokairuan zeuden udal-etxebizitzak ziren alternatiba bakarra, baina oso gutxi izateaz gain, ondorengo urteetan IMESA, udal-higiezinaren elkarteak, herriko industrietan kolaborazioan etxeak eraikitzen hastean, ostatu gehienak enpresa laguntzaileen langileentzat izan ziren nagusiki.

Estatuak bazekien zein ziren etxebizitza-politikaren mugaketak, eta Pedro Muguruzak, DGAKo zuzendariak, besteak beste hurrengo puntuak aitortu zituen hura hobetzeko: etxeen ezaugarri teknikoak aldatu, tokian tokiko ezaugarriak kontuan hartu, eraikuntza modu berriak erabili eta haien ikasketa-zentro espezializatuetan bermatu, lehentasunak ezarri, behar demografikoei erantzun, ikerketa urbanistikoak eta estatistikoak burutu, etxebizitzaren eraikuntzan parte hartzen duten erakundeak koordinatu (INVren eta Eibarko Udalaren eta industriaren artean gertatu ez zen bezala), hirigintza- eta etxebizitza-planak koordinatu, eta zorua erregulatu (1956ko legeak egin zuen moduan) (Muguruza, 1943; 1945: 12-14).

Hortaz, ez da harrizkoa arazoa konpontzen ari ez zen etxebizitza-politikak gero eta kritika gehiago izatea, nagusiki berrogeiko hamarkadaren bukaeran. Ondorioz, gizarte-etxebizitzaren inguruko hausnarketak, eztabaidak eta proposamenak ohikoak izan ziren garaiko hitzaldi, lehiaketa, proposamen, ikasketa eta argitalpenetan. Horren adibideak izan daitezke 1948tik aurrera Madrilén Eduardo Torrojak zuzen-

317. *Construye tu casa. Obra Sindical del Hogar y de Arquitectura*, Madril: Rivadeneyra, 1945. *Delegación Nacional de Sindicatos. Obras del Hogar. Departamento Técnico*, Afrodisio Aguado, Madril, 1944?; *Construye tu casa. Obra Sindical del Hogar y Arquitectura*, Rivadeneyra, Madril, 1945; *Una casa para ti. Obra Sindical del Hogar*, Talleres Tipográficos de Sucesores de Rivadeneyra, Madril, 1946; *Viviendas Protegidas. Obra Sindical del Hogar y Arquitectura*, Langa y Compañía, Madril, 1946.

318. EAEHAAN. P-216-5, 600.

tzen zuen *Instituto Técnico de la Construcción y del Cemento* (Lucini eta Nadal, 1952), Madrileko³¹⁹, Bartzelonako³²⁰ eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialen jarrerak³²¹, eta *Informes de la Construcción, Cuadernos de Arquitectura* eta RNA aldizkariaren edukiak³²².

Modu horretan, aldaketak eskatu ziren etxebizitza-ereduetan, banaketetan, kudeaketan, inbertsioetan, legetan, eta zoruan; eta eraikuntza-elementuen prefabrikazioan, arrazionalizazioa eta estandarizazioa aldarrikatu ziren, bertoko industriak, saiakera isolatuak salbu, 60ko eta 70eko hamarkadak arte asimilatu ez zituenak³²³.

Hau da, etxebizitzaren gabezia arazo tekniko baten moduan hasi zen planteatzen, nahiz eta hasieran aurrera egin zuen gauza bakarra etxebizitzaren legeen aldaketa izan zen. Esanguratsuen 1954ko maiatzaren 14ko dekretu-legea izan zen, zeinak etxebizitzaren egoera larria aitortu eta ostatu-dimentsio berriak onartu zituen (42 m², 25.000 pezetatan)³²⁴. Iniziatiba horri beste batzuk gaineratu zitzaizkion 1957an INV, OSH, DGA eta Regiones Devastadas bere baitan bildu zituen Etxebizitza Ministerioaren sorrerarekin bukatu zutenak³²⁵.

Funtsean, gerraosteko gizarte-etxebizitzaren ekarpen nagusietako bat etxebizitza-gabezia estatu-arazo bat bezala ulertzea izan zen, baita gerraurreko arrazionalismoarekin bat egiten zuen gizarte-etxebizitza eta hirigintza-eredu konkretu bat zehaztea ere. Eta hala, gerraosteko etxeetan, komuna (komuna, konketa eta dutxa edo bainuontzia) ezinbesteko pieza gisa gailendu zen, azalera minimoa, orientazio bikoitza eta altueran eraikitako edifizio baten barruan. Erosotasuna eta higiena demokratizatu nahi izan zituen etxearen kontzeptzio dinamikoago bat zen,

319. “Colegio Oficial de Arquitectos de Madril. Concurso de estudios sobre el problema de las viviendas para las clases media y obrera y de anteproyectos para las mismas”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **92**, 1949ko abuztua, 359. or.; Fisac, 1951: 1-9; “El problema de la vivienda en España. Un ciclo de conferencias organizado por el Colegio Oficial de Arquitectos de Madril”, *Cortijos y Rascacielos*, **57**, 1950, 10-12.

320. “El problema de la vivienda económica en Barcelona. Concurso del Colegio de Arquitectos de Cataluña”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **101**, 1950eko maiatza, 191-202; “El problema de la vivienda”, *Cuadernos de Arquitectura*, **15-16**, 1950; Giralt eta Maynés, 1950.

321. *Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro. Estudio sobre la vivienda económica en España. Dedicado especialmente a las provincias vascongadas*, Artes Gráficas Lerchundi, Bilbao, 1949.

322. “Unite d’habitation de Le Corbusier à Marseille”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **110**, 1951ko otsaila, 43-47; “En honor a Le Corbusier”, *Cortijos y Rascacielos*, **47**, 1948ko maiatza-ekaina, zenbatu barik.

323. Fernández Fernández, 1976; *Viviendas en África. Plan de construcción de viviendas en Ifni y el Sahara*, Ediciones del Instituto Nacional de la Vivienda, Madril, 1966.

324. “Decreto-Ley de 14 de mayo de 1954 por el que se encarga al Instituto Nacional de la Vivienda la ordenación de un plan de viviendas de ‘tipo social’”, *Boletín Oficial del Estado*, **168**, 1954ko ekainaren 17a, 4.094-4.095.

325. “Decreto-Ley de 25 de febrero de 1957 sobre la reorganización de la Administración Central del Estado”, *Boletín Oficial del Estado*, **57**, 1957ko otsailaren 26a, 1.231-1.233; *Seminarios del INV. Racionalización de la construcción*, Ministerio de la Vivienda, Madril, 1970.

urteetako esperientzien ostean teknifikatu eta profesionalizatu zena eta inizatiba pribatuak egindako ekimenetan ere eragin zuena.

2.4.3. *Etxebizitza eta ekimen pribatua*

2.4.3.1. *Errentagarritasuna eta Estatuaren laguntzak*

Gerraostean eraiki ziren etxe gehienak ekimen pribatuak eraiki zituen. Horietariko asko Estatuak emandako laguntzekin. José Luis Arresek esaten zuen moduan:

El papel de fomentar la construcción (...) ha de ser llevado a cabo por la vía de la atracción del negocio, porque sólo a través del negocio podemos pretender que el particular se implique con ilusión y perseverancia en la tarea de construir (Arrese, 1966: 182).

Ondorioz, Estatu Batuetan salbu, garaian ez zen egon etxeak eraikitze hainbeste diru-laguntza sektore pribatuari eman eta etxe publikoen hain promozio gutxi egin zituen beste estatuek³²⁶.

Erregimen berriak inizatiba pribatuari etxeak eraikitze eman zizkion diru-laguntzak mota ezberdinetakoak izan ziren. 1939ko maiatzaren 8ko legeak, Salmon Legea izenez ezagun zen 1935eko ekainaren 25eko etxeak eraikitze diru-laguntzak luzatu zituen. Onurak gerrarekin eten ziren lanak eta 1941eko maiatzararte eraikin berrientzat izan ziren³²⁷.

Diru-laguntzak ondorengo urteetan ere eman ziren, errepublika-garaiko Salmon legea berrantolatuz, 1944ko Etxe Bonofikiatuen Legearen bidez, edo hobeto esanda «Ley sobre reducción de contribuciones e impuestos en la construcción de casas de renta media para la denominada clase media» delakoaren bidez³²⁸. Etxe Bonifikatuen Legea izenez ezagunagoa izan zen, 1948an egin ziren erreformengatik. Berau, etxearekin erlacionatutako beste ekimen batzuk bezala, Lan Ministerioaren eskutik garatu zen, etxeak eraikitzearekin batera, langabezia-tasa jaistea eta estatuko ekonomia suspertzea helburu baitzituen. Baina 1939ko Etxe Babestuen Legearen kontrara, 1944ko legearekin diru-laguntzetan eta ondorengoetan ez zen inolako eraikuntza-kostu limiterik jarri, eta hortaz edozein promozio izan ahal zen onuradun.

326. *III Plan de Desarrollo Económico y Social (1972-1975)*, Comisaría del Plan de Desarrollo Económico y Social, Madril, 1972; cfr. Goñi, 1976: 32.

327. “Ley de 8 de marzo de 1939 reanudando el régimen de beneficios concedidos a la edificación por la Ley de 25 de junio de 1935”, *Boletín Oficial del Estado*, **143**, 1939ko maiatzaren 23a, 2.794. or.

328. “Ley de 25 de noviembre de 1944 sobre reducción de contribuciones e impuestos en la construcción de casas de renta media para la denominada ‘clase media’”, *Boletín Oficial del Estado*, **332**, 1944ko azaroaren 27a, 8.959-8.964; “La construcción de casas para la clase media. La preferencia establecida y la reducción de impuestos”, *La Gaceta del Norte*, 1944ko azaroaren 28a, 1. or.; “Orden de 7 de febrero de 1945 por la que se dictan normas para aplicación de la Ley de 25 de noviembre de 1944 sobre reducción de impuestos y contribuciones en la construcción de casas de renta para la denominada ‘clase media’”, *Boletín Oficial del Estado*, **42**, 1945eko otsailaren 11, 1.221. 1.226.

Zehazkiago, 12 hilabete baino lehenago hasi, eta 36 hilabete baino lehenago bukatzen zen edozein berreraikuntzak, handitzek, jarraipenek edo eraikuntza berrik % 90 arteko beherapen fiskalak zituen, eta ICNRNren bidez obren prezioaren % 60 arte izan ahal zuen % 4 intereseko maileguarekin, eta eraikuntza materialen hornikuntzan lehentasuna (1945eko uztailaren 5eko dekretuari esker)³²⁹. Horretarako, etxeek, azaleraren arabera, 200-500 pezeta arteko errenta izan behar zuten, nahiz eta saldu ahal ziren, eta udalerrri bakoitzeko eraikuntza-ordenantzak eta eraikuntza-arau jakin batzuk bete. Komuna (bainuontzi edo dutxarekin) etxearen derrigorrezko pieza bihurtu zen, eta pisuen altueraren eta kategoriaren arabera, baita igogailua ere.

Legeak ez zuen arrakastarik izan, krisiarekin lanak ezarritako epean bukatzea zaila zelako; eta alokairuen prezioak, jarraian ikusiko dugun bezala, ezin zirelako igo, prezioak etengabe eta modu neurrigabe gora egiten zuen garaian. Egoera horren aurrean, 1948ko azaroaren 19ko dekretu-legeak 1944ko legea erreformatu zuen³³⁰, aurreko akatsak zuzendu eta gainera maileguak handitu eta interesak jaitziz (eraikuntza-kostuen % 70eko mailegua % 3ko interesean, 50 urtean bueltatzekoa). Etxeek bete beharreko ezaugarriek, berriz, antzekoak izaten jarraitu zuten.

Alabaina, 1948ko legearen eragina, 1954 arte indarrean egon zena, ez zen 50eko hamarkadaren hasierako urteetara arte nabaritu, hau da, eraikitzen hasitako obrak bukatzen hasi ziren arte. Eta hamarkada horretan ekimen pribatua etheen eraikuntzan laguntzeko disposizioak ugaritu eta gainjarri ziren. Aipagarrienak 1948ko dekretu-legearen luzapena eta lege-testuaren berritzea izan ziren, 1951ko abenduaren 16ko dekretuarekin eta 1954ko uztailaren 10eko ordenarekin egin zirenak. Jarraian, 1954ko uztailaren 15eko legeak, 1955eko ekainaren 24ko dekretuarekin aprobaturak, aurreko disposizio guztiak indargabetu eta terminologia eta etxe-kontzeptu berri bat sartu zuen: errenta mugatuko etxebizitza, aztertzen ari garen garaira arte indarrean egon zena. Azaleraren arabera hiru kategoriaz ezberdin ezarri ziren (50-80 m²; 65-150 m² eta 80-200 m² tartekoak), aurreko disposizioetako antzeko onura eta betebeharrekin (zerga ez ordaintze eta bonifikazioak, maileguak, diru-laguntzak, materialen hornitzea edo desjabetzea), eta haien alokairuan eta salerosketan mugaketak jarri.

Eibarren kasuan Regiones Devastadas-ek eta udalak berreraikuntza gauzatzeko eman zituzten diru-laguntzak ere egon ziren. Lehenak ICNRNren bidez gestionatu, eta bigarrenak 1943ko irailaren 14ko berreraikuntza pribatua (etxegintza eta industria) bermatzeko udal-akordioekin. Horren bitartez, 1944ko urtarrilaren eta 1946ko

329. “Decreto de 5 de julio de 1945 por el que se declara preferente el suministro de materiales para la construcción de viviendas amparadas por la Ley de 25 de noviembre de 1944”, *Boletín Oficial del Estado*, **209**, 1945eko uztailaren 28a, 687. or.

330. Legea 1948ko apirilaren 14an aldatu zen, etxeen inguruko neurrien inprobisazioa agerian utziz (“Orden de 14 de abril de 1948 por la que se modifica la de 7 de febrero de 1945 para aplicación de la Ley de 25 de noviembre de 1944, relativa a la construcción de viviendas para la clase media”, *Boletín Oficial del Estado*, **111**, 1948ko apirilaren 20a, 1.490-1.494).

abenduaren bitarteko eraikuntzei zergak erdira jaitsi eta desjabetuei eraikuntza burutzeko udalarenak edo estatuarenak ziren orubeak eskaini zizkieten³³¹.

Baina:

... como el solar es caro, cara la mano de obra y caro los materiales (...) no se pueden construir cuartos baratos. Añádase a esto los impuestos que gravan la construcción, la renta del inmueble y su uso, y se comprenderá que lo que se edifique no es asequible a las clases modestas (Ubierna, 1945: 62-63).

Eibarren, hiriak zuen espazio txikia eta izugarrizko hazkundera zela-eta, etxe mota ezberdinak landu ziren. Betiere endemikoa zen behar baten aurrean errentagarritasuna eta negozioa bilatzen zituztenak, baina udalak markatutako araudiari jarraituz.

2.4.3.2. *Etxe pribatuen eraikuntza: araudiak eta profesionalak*

Etxe babestuek araudi propioari jarraitu behar zioten bitartean, gainerako eraikuntzek udalaren **eraikuntza-ordenantzei** jarraitu behar zieten. Gerra aurretik 1925ean³³² eta 1933an³³³, Urbano de Manchobasek egin zituen eraikuntza-ordenantzak. Haien arabera, hiri erdian eta kalearen zabalaren arabera (10 m baino gehiago edo gutxiago) ezin ziren behe-solairu eta lau (16 m) edo bost (19 m) pisuko altuera baino gehiagoko eraikinak egin, pisuen altuerak 3,50 eta 2,8 metro bitartekoak izan behar zirelarik. Gainera etxeen barne-antolaketan gutxienez argi zuzen eta ondo aireztatutako sukaldea, eta sarrera propioa zuen komuna behar zuten izan, beste bi piezekin batera.

Gerraostean eta Eibarrek jasandako txikizioaren ostean, aipatu dugun moduan, Regiones Devastadas-ek urbanizazio-plan berriarekin batera, 1943an udal-ordenantza berriak egin zituen ere, ordura arte indarrean egon zirenak ordezkatu zituztenak³³⁴. Hirigintza-planari jarraituz, ordenantzak hiru alde ezberdinetan banatu ziren: urbanoa (alde zaharra, zabalgunea, industria-sektoreak eta lorategi-hiria), landatarra eta mistoa³³⁵. Zentroan eraikuntzek gutxienez 8 metro izan behar zituzten

331. 1943ko irailaren 14ko udal-akordioa. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1943*. A.11-64.

332. *Ordenanzas para la edificación de casas en la villa de Eibar. 1925*, Eibar, 1925.

333. *Proyecto de nuevas ordenanzas para la edificación. 1932*, testu mekanografiatua, Eibar, 1932ko azaroaren 29an sinatuta; EUA. C 5 43 18; *Ordenanzas para la edificación en la ciudad de Eibar. 1933*, Tipografía Saturnino de Diego, Eibar, 1933.

334. Regiones Devastadas-ek ordenantza berriak 1943ko maiatzean igorri zizkion udalari onar zitzan. 1943ko maiatzaren 28ko eta abuztuaren 14ko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1943*. A.11-64; *Villa de Eibar. Ordenanzas municipales de edificación*, testu mekanografiatua. EAEHAAN. 1-354-3, 75; *Ordenanzas municipales para la edificación en la N. y L. Villa de Eibar*, Gráficas Eguren, Eibar, 1943.

335. Art. 24. *El casco comprende toda la zona que en el plano de reforma aparece destinada a la construcción en bloque desde la línea del ferrocarril del Norte, entre la zona deportiva y la unión del paseo de Arrate con el de Urquizu y prolongación de éste, hasta el Matadero de un lado y la ladera del monte, Plaza de Toros y Avida A, hasta la Escuela de Armería del otro.*

etxe sinpleen kasuan, eta 15 metro etxe bikoitzetan. Hondoan, berriz, planoetan markatutakoa izango litzateke, kale batzuetan salbu (16 metrokoa izan ahal zena, asko jota). Pisuen altuerak 3,40 eta 2,80 metro bitartekoak izan behar ziren gutxienez, eta fatxadaren altuera kalearen zabalera gehi zazpi metrokoa, gehienez 22 metro (25 metro aurrean eremu librean egonez gero), eta horri 3,20 metroko azken pisu atzeratu bat gaineratu ahal zitzaion (95. eta 96. ird.).

Hau da, zentroan Bilboko eta Donostiako hiri-egitura dentsuagoari jarraitzen zioten patioen inguruko beheko solairua gehi sei edo zazpi pisuko etxeak onartzen ziren. Modu horretan, ordura arte hiriak izan ez zuen jite urbanoa definitu zen. Inguruko lorategi-hirian (eremu aldapatsuenetan), berriz, 11 metrotako fatxadak eta pisu baxua gehi bi pisuko altuera zuten etxeak baino ez ziren onartzen. Eraikin guztietan suteak ekiditeko egitura sendoak bermatu ziren, zura ekidinez eta material erregaitzak proposatuz. Kasu guztietan komunaren presentzia behartu eta ur zikinen ebakuazioa eta ur-hornikuntza arautu ziren.

1948an Raimundo Alberdi udal-arkitektoak ordenantzak berritzearen eskaera egin zuen, hauek herriaren hazkundera eta topografia modu egokiagoan kontuan har zezaten. Bi urte geroago, 1950ean ordenantza berriak egin ziren Gipuzkoako Antolamenduko Probintzi Kontseiluaren ordenantzetara moldatzeko³³⁶. Kasu horretan 10 alde ezberdindu ziren: eraikuntza publikoak, alde urbanoa (erreforma-plana, lorategi-hiria, alde zaharra, zabalgunea, sektore industrialak), zona mistoa, trenarena, historiko-artistikoa, kirolarena, komunikazioena, landatarra, berdea eta erreserba. Aurreko eraikuntza-araudiak indarrean jarraitzen zuen, baina sektore

Art. 25. El ensanche ocupará los terrenos situados al Sur de la Avida A, y al Este del camino carretil que une la carretera de Elgueta con la nueva de la zona industrial.

La parte de él destinado a edificios aislados, tendrá carácter de Ciudad Jardín, a los efectos de estas Ordenanzas.

Art. 26. Los sectores industriales se sitúan al Este y al Oeste del casco de la población y del ensanche y a continuación de éstos siendo los únicos que se permitirán en la instalación de fábricas de todas clases.

Art. 27. Los sectores destinados a Ciudad Jardín serán los terrenos situados al Norte de la línea del ferrocarril en una profundidad de 70 metros y comprendidas entre la cantera de Barrenengoa y la regata de Ardanza y entre ésta y la regata de Macharia. También se considerará como sector de Ciudad Jardín una zona de igual profundidad a ambos lados de la carretera de Arrate, hasta el encuentro de ésta con la regata de Macharia.

Art. 28. Se considerarán como zona mixta los terrenos situados a ambos lados de las regatas de la cantera de Barrenengoa, Ardanza y Macharia en una profundidad de 50 metros, limitados al Sur por la línea del ferrocarril y al Norte por la zona de Ciudad Jardín de la carretera de Arrate.

También se considerarán como zona mixta los terrenos situados al Este de la regata de Macharia por encima de la vía del ferrocarril.

En estas zonas, y con sujeción a las Ordenanzas del casco urbano, se podrán construir indistintamente edificios para viviendas y edificios industriales.

Art. 29. El barrio de Chonta, a los efectos de estas ordenanzas, se considerará zona mixta.

Art. 30. El resto del término municipal se considera como zona rural.

336. Ayuntamiento de Eibar. Provincia de Guipúzcoa. Ordenanzas para la edificación. Año de 1950, Gráficas Eguren, Eibar, 1950; 1950eko martxoaren 31ko udal-bilkura. EUA. Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1950. A.11-72. EUA. 3157.

espezifikoko bakoitzean aurreko urteetan ez zeuden zehaztapenak eginez (altueran, sakoneran, kanpo-egituran, etheen arteko distantzia), hau da, malgutasun handiagoa agertuz³³⁷. Aurreko urteetan ez bezala, independenteak izan behar ziren, gutxieneko piezak aipatu ziren: sukalde-jantokia, bi oheko bi logela, eta derrigorrez dutxa zuen komuna, hortaz, higienaren garrantzia azpimarratuz.

Gainera udalak ordenantzetan eraikuntza bermatzeko egokitzat hartu zituen aldaketak onartu zituen 1951n³³⁸, 1952an³³⁹ eta 1956an³⁴⁰, etxe mota ezberdinetara moldatzen zirenak.

Etxeek udal-ordenantzak betetzeaz gain, 1940tik aurrera Etxebizitzaren Fiskaltzaren, Regiones Devastadas-en eta 1950az geroztik Gipuzkoako Antolamendu Planeko Kontseiluaren onarpena behar zuten. Hasieran Fiskaltzaren informeak Bilboko bulegoak egiten zituen³⁴¹, Regiones-ekoak Eibarko bulegoak bere arkitekto buruaren oniritziarekin³⁴², eta Kontseiluarenak Donostiako bulegoan zuten arkitektoarekin.

Eraikuntza-lanen hasieran gehien nabarmendu zen **profesionala** Raimundo Alberdi udal-arkitektoa izan zen, 1938 eta 1939 bitartean berak bakarrik lan egin zuen udalerrian. 1940tik aurrera Faustino de Basterra bilbotarra ikusiko dugu lanean, baita Antonio Aguirre donostiarraren proiektu bat ere³⁴³. Pixkanaka eta berreraikuntza aurrera joan ahala, Eibarrera hurbildu ziren profesionalak gero eta gehiago izan ziren, gehienak inguruko herrietakoak. 1941etik aurrera Damian Lizaur oñatiarra, eta José María Ruiz Azpiri, Regiones Devastadas-ekin kolaboratzen zuena. Hurrengo urtean Antonio Zaldua donostiarra, Bergarakoa zen baina Donostian bizi zen Luis Astiazaran, eta batez ere Diego de Basterra bilbotarra aritu ziren lanean. Diego de Basterra gerraurrean Bizkaiko Diputazioko arkitektoa izan zen baina gerraostean lanpostua galdu zuen EAJkoa izateagatik. Hortaz, agian bere anaiordeak Faustinek komentatuta, Eibarren izan zuten lan-aukerak aprobetxatuz, bizitzako azken urteetan Gipuzkoako udalerrian egin zuen lan nagusiki.

337. Modu horretan sektore industrialean etxeek 2,70 metroko altuera izan zezaketen, eta lorategi-hirian 2,60 metro.

338. 43. eta 55. artikulua. EUA-6871. 1951ko ekainaren 30eko eta abuztuaren 30eko udal-bilkurak. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1951*. A.11-74.


339. 83. artikulua. EUA. A G 3 8. 1952ko urriaren 30eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1952*. A.11-76.

340. 7, 202, 203, 204, 205, 206, 207, 208, 209, 210, 211, 212, 213 eta 214. artikulua. EUA. A G 3 29. 1956ko apirilaren 27ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1956*. A.11-84.

341. EUA. 6857.33 (1940).

342. EUA. 6857.07 (1940).

343. Eibarren lan egin zuten profesionalen zerrenda eranskinean ikus daiteke.



95 irudia. Eibarko hiri-erdiguneko eraikuntzak (Santa María del Villar markesaren argazkia).
EAEHAAN / AGAPCAE. Regiones Devastadas. 88 kutxa, Sig. I- 354- 4.



96. irudia. Hiri inguruko eraikuntza mota.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 34.034 HIF.

1944tik aurrera Regiones Devastadas-eko arkitekto arduradunek, José Antonio Domínguez Elósegui eta José Antonio Pontek, hainbat lan egin zituzten, hasieran elkarrekin eta gero Domínguezek bakarrik. 1945ean José Ramon Basterra, Diegoren semea, hasi zen Eibarren lanean. 1946tik aurrera Gipuzkoako OSHko arkitektoa, Ramón Martiarena, enkargu pribatuak egiten hasi zen ere. Garai berean Domingo Aguirrebengoa donostiarrak lan egin zuen udalerrarentzat. Manuel Urcola (1947an), José María Muñoz Baroja (1953an) eta Ignacio Mendizabal Lujambio (1954an) arkitekto donostiarrek proiekturen bat egin zuten, baita Claudio Ibañezek (1954an) eta INVko poligonoa egin zuen Roberto Martínez-Anidok ere (1956an).

Guztien artean, lan gehien egin zuten arkitektoak Raimundo Alberdi eta Diego de Basterra izan ziren, baina baita Damian Lizaur eta Alberdiren udal-arkitekto lekua hartu zuen Joaquín Domínguez Elósegui eta Ramón Martiarena ere. Hortaz, azpimarratzekoa da erakunde publikoentzat lan egiten zuten arkitektoen nagusitasuna etxe-eraikuntzaren negozioan, profesional askoren lana eskatu zuena, tartean, kontratistena.

Gero eta aktiboagoa zen etxeen eraikuntzan, kontratisten artean Martin Churruca gailendu zen hasierako urteetan³⁴⁴, eta 1950etik aurrera haren semeak³⁴⁵, Eliseo Gil (Construcciones Gil) ere aipatzekoa delarik³⁴⁶. Urteak aurrera joan ahala, kontratisten kopurua gero eta handiagoa izan zen, batez ere 50eko hamarkadan. Hots, etxeen eraikuntza oparagoa izan zen urteetan. Modu horretan 1941ean 14 kontratista baldin bazeuden, eta 1947an 9, 1950ean 17, 1954an 18 eta 1958an 25 egon ziren³⁴⁷.

Baina Eibarren, estatuko gainerako hirietan ez bezala, promozioetan ez zuten higiezin-elkartek parte hartu; bai, ordea, partikularrek. Etxe-beharrak eta hirigintzak eta ordenantzek baimentzen zuten dentsitate handia aprobetxatuz, etekin bat atera nahi zutenak.

344. EUA. 6861.17 (1943): Txaltxazelai 2. 6861.10 (1943): Barrena. 6862.09 (1944): Barrena. 6867.26 (1948): Indianukua. 6867.42 (1948): San Juan 17 eta 19.

345. José Agustín, Fermin eta Antonio. EUA. 6869.41 (1950): San Juan 15. 6872.35 (1951). 6871.13 (1951): Julian Etxeberria 16. 6871.21 (1951): Julian Etxeberria 14. 6872.09 (1951): Zuloagatarrak 5. EUA. 6871.49 (1951): Ifar-kale 3. 6874.23 (1952): Julian Etxeberria 3, 5 y 7. 6874.22 (1952): Bidebarrieta 8 eta 10. 6876.15 (1953): Bidebarrieta 23 eta 25. 6876.29 (1953): Bidebarrieta 3. 6876.28 (1953): Julian Etxeberria 13. 6885.20 (1956): Txaltxazelai 18, 20. 6889.14 (1957): Bista Eder 1.

346. EUA. 6867.29 (1948): Bidebarrieta 1. EUA. 6872.06 (1951): Txonta 15 eta 17. 6875.02 (1952): Txonta 13. 6875.05 (1952): Errebal 4. 6879.22 (1954): Txonta 34-40. 6882.17 (1955): Txonta 42, 44, 46, 48.

347. *Guipúzcoa en la mano. Anuario general de toda la provincia. 1941*, Imprenta Arrieta, Donostia, 67-68; *Guipúzcoa, Vizcaya y Álava en la mano*, opus cit., 204. or.; *Guipúzcoa en la mano. Anuario general de toda la provincia. 1950*, opus cit., 57. or.; *Guipúzcoa en la mano. Anuario general de toda la provincia. 1954*, opus cit., 65. or.; *Guipúzcoa en la mano. Anuario general de toda la provincia. 1958*, opus cit., 69. or.

Eibarko etheen eraikuntzan parte hartu zuten promotoreek, eraikitzaile eta arkitektoek, orubeek, topografiak, eraikuntza-ordenantzak eta hiri-antolaketa ahalbidetzen zuten errentagarritasuna eta antolaketa abiapuntu, forma ezberdinetako etxeak eraiki zituzten. Hirigunean edo inguruan kokatu ziren 4-7 solairuko auzo-etxeak izan ziren eraiki ziren etxe gehienak, eremu aldapatsuagoetan berriz dentsitate gutxiagoko etxeak eta etxebakarrak. Espazio gabeziaren aurrean industria eta etxea konbinatzen zituzten eraikinak ere oso ohikoak izan ziren. Emaidza, Miguel Martinez Sostre mediku eta Eibarko osasun buruak 1954an aitortu bezala, etheen orientazio desegokia eta beste batzuen altueragatik eguzkirik ez egotea izan zen (Martínez Sostre, 1954: 11).

2.4.3.3. *Etxe motak eta formak*

a) Auzo-etxeak

Aipatu moduan, auzo-etxea gehien eraiki zen etxe mota izan zen. Baina hasierako urteetako eskasiaren aurrean, ohikoa izan zen gutxieneko txikizioak izan zituzten etxeak berreraikitzea³⁴⁸, zutik geratu ziren etxeei solairuak gehitzea³⁴⁹, bukatu gabe geratu zirenak bukatzea³⁵⁰, proiektu berrien zati bakar bat egitea obren jarraipena gerorako utziz³⁵¹, edo obren martxaren eta baliabideen arabera proiektuari solairuak gehitzen joatea. Altuera handiagoko eraikuntzak onartzen zituzten 1943ko udal-ordenantzak horretan lagungarri izan ziren³⁵². Aitzitik, espazio faltak ez zituen ezarritako baino altuera handiagoko eraikuntzak baimendu, eta etxe-orratzak eraikitzeko proiektuak ez ziren onartu³⁵³.

348. EUA. 6855.66 (1939): Errekatsu 11. 6861.88 (1943): Arrageta 14.

349. EUA. 6854.08 (1938): Ibarkurutze plaza 12. 6855.66 (1939): Bidebarrieta 33. 6858.68 (1941): Fermin Calbeton 14. 6859.31 (1942): Sansaburu 1 eta 3. 6862.25 (1944): Bidebarrieta 54. 6863.44 (1945): Arrata bide 8 eta 10 (eraitsia). 6863.04 (1945): Fermin Calbeton 8. 6865.31 (1946): Bitor Sarasketa 12. 6866.13 (1947): Ibarkurutze. 6866.01 (1947): Isasi 23. 6867.54 (1948): Isasi 3. 6869.38 (1950): Ibarkurutze plaza 6. 6872.20 (1951): Bidebarrieta 26. 6879.06 (1954): Fermin Calbeton 20. 6879.07 (1954): Urkizu 24. 6880.43 (1954): Bidebarrieta 24. 6880.30 (1954): Barakaldo 13. 6878.15 (1954): Eguzki-begi 1. 6881.11 (1955): Estaziño kale 14.

350. EUA. 6856.29 (1940).

351. EUA. 6857.06 (1940): Barrena 2. 6859.04 (1942): Legarre 13. 6861.69 (1943): San Andres. 68861.55 (1943): San Andres. 6861.69 eta 6861.55 (1943): San Andres. 6862.07 (1944): Errebal 14. 6868.32 (1949): Amaña. 6883.14 (1955): San Kristobal 14. 6885.98 (1955): Ubitxa.

352. EUA. 6858.37 (1941): Sansaburu 2. 6858.104: Sostoatar 11. 6858.85 (1941): Ubitxa. 6859.43 (1942): Jardiñeta 18. 6862.05 (1944): Karmen. 6862.09 (1944): Barrena. 6864.24 (1946): Errebal 14. 6865.36 (1946): Errekatsu. 6865.06 (1946): Errekatsu 6. 6864.05 (1946): Arrageta 27. 6865.07 (1946): Isasi 23. 6865.19 (1946): Isasi 19. 6867.42 (1948): San Juan 17-19. 6867.41 (1948): Toribio Etxebarria 21-25. 6868.80 (1949): Toribio Etxebarria 17-19. 6868.59 (1949): Bidebarrieta 5. 6879.19 (1954): Iparragirre 4. 6878.23 (1954): Polonia Etxebarria 4. 6881.15 (1955): Bista eder 4 eta 6. 6881.18 (1955): Bista eder 5. 6887.10 (1956): Murrategi. T34 E 15 (1957): Juan Gisasola 5. 6890.01 (1957): Isasi 9. 68890.11 (1957): Murrategi.

353. EUA. 6872.35 (1951): Julian Etxebarria. 14 solairuko etxe-orratza. Ez eraikia.

Hiriguneko kale garrantzitsuenetan (Arragueta, Barrena, Bidebarrieta, Bista Eder, Errebal, Julian Etxebarria, San Juan, Toribio Etxebarria) sei solairuko etxeak eraiki ziren eta, kasu batzuetan, zazpikoak (Bidebarrieta, Julian Etxebarria, San Juan, Zuloagatarren kalea). Patio itxien arabera antolatzen zen altuera horretako etxeetan azken solairua atzeratuta egon behar zen, gehienetan, balkoi jarraitu bati lekua uzten ziona. Balkoia ere presente zegoen hainbat fatxada nagusitan, baina batez ere patioetara irekitzen zirenetan. Kasu batzuetan balkoi jarraituak solairu guztietan egon ahal ziren (97., 98. eta 99. ird.).

Erdigunetik kanpora joan ahala, inguruko eremu malkartsuetako orografiak baldintzatuta, orubearen eraikuntza-dentsitatea txikiagoa zen, 3-5 solairu artekoa, gehienetan patio inguruko antolaketa saihestuz, eta apalagoak ziren etxeak eraikiz. Eraikin horietan posible zen nagusiki erdigunean komertzioetarako dendak zeuden beheko solairuetan etxeak egitea.

Gutziz berreraiki behar zen udalerriaren kasuan, eraikuntzak urte guztietan aurrera egin zuen, baina 1943tik aurrera, hau da, berreraikuntza-plana jada definituta eta finkatuta zegoenetik, oparagoa izaten hasi zen. 1951tik aurrera, aurreko urteetako krisialdiaren ostean egoera ekonomikoa hobetzean, eta Estatuak ekimen pribatuari emandako diru-laguntzak lehen emaitzak ematen hasi zirenean, eraikuntzak gora egin zuen³⁵⁴. Eraikuntza-aktibitate horren adierazgarri izan ziren, etekin handiagoa ateratzeko asmoarekin, 50eko hamarkadan egiten hasi ziren etxe-promozio handiak. Gehienetan jada saturatuta zegoen hiri-erditik kanpo kokatu ziren, herriaren hazkunde-gune berriak markatuz.

354. Nahiz eta gorde den dokumentazioan ez den beti agertzen hobaria emandako etxea denik. EUA. 6868.100 (1949): Isasi 29-31. 6870.01 (1950): Mekola 8. 6869.41 (1950): San Juan 15. 6883.15 (1955): Jardiñeta 9, 11. 6883.05 (1955): Jardiñeta 7. 6883.11 (1955): Amaña 8. 6884.16 (1955): Arrate bide 1, 3 eta Legarre 2. 6882.05 (1955): Ubitxa 5. 6883.10 (1955): Jardiñeta 22. 6881.09 (1955): Pagaegi 8. 6886.05 (1956): Juan Gisasola 14, 16. 6886.02 (1956): Polonia Etxebarria 14, 16, 18. 6886.01 (1956): Polonia Etxebarria, 3, 5, 7.



97. irudia. Dentsitate handiko auzo-etxea hirigunean.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtsa. Sig. 34.053 HIF.



**98. irudia. Dentsitate handiko auzo-etxea hirigunean.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 34.051 HIF.**



99. irudia. Patio itxien araberako etxe-banaketak.

Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 35.067 HIF.

Horren adibide dira 1952an Joaquín Domínguezek San Kristobal kaleko 3, 5 eta 7an eraikitako 36 etxe, Julian Etxebarria 3, 5 eta 7ko 70 etxe, 1953an Ramón Martiarenak lau bloketan Legarre gain kalean eginiko 32 etxe, edo urte bat geroago Diego de Basterrak San Kristobalen ere proiektatutako beste 30 etxe. 1955ean Joaquín Domínguezek eskutik Juan Gisasola 4, 6 eta 8ko 42 etxe, Txonta 42, 44, 46 eta 48rako proiektua eta Iparragirre 5, 7, 9 eta 11ko 32 etxeak egin ziren. Damian Lizaurrena da Polonia Etxebarria 14, 16 eta 18ko 30 etxe eta kale bereko 3, 5 eta 7ko beste 30 ostatu egiteko proiektua, eta Ramon Martiarena urte bereko Ubitxa 7, 9 eta 11ko 36 etxe egiteko proiektua³⁵⁵. 1956an ere Martiarenak Fermin Churruca, Antonio Churruca eta Estanilao Barinaga kontratistentzat 300 etxeko proiektua egin zuen Txaltxazelairako, nahiz eta hasieran bi bloke eta 36 etxe baino ez ziren egin³⁵⁶ (100. eta 101. ird.).

355. EUA. 6875.19 (1952): San Kristobal 1, 3, 5 eta 7. 6874.23 (1952): Julian Etxebarria 3, 5 eta 7 (70 etxe). 6877.35 (1953): Legarregain 2, 4, 6 eta Arrate bide 17 (32 etxe). 6879.11 (1954): San Kristobal 9, 11 eta 13. 6884.02 (1955): Juan Gisasola 4, 6, 8. 6882.17 (1955): Txonta 42, 44, 46, 48. 6883.12 (1955): Iparragirre 5, 7, 9 eta 11. 6887.12 (1956): Ubitxa 7, 9 eta 11. 6886.02 (1956): Polonia Etxebarria 14, 16, 18. 6886.01 (1956): Polonia Etxebarria, 3, 5, 7.

356. EUA. 6885.20 (1956): Txaltxazelai 18, 20.



100. irudia. Hiri inguruko etxe-promozio handietako bat.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtsa. Sig. 34.061 HIF.



101. irudia. Hiri inguruko etxe-promozio handietako bat.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtsa. Sig. 34.062 HIF.

Eibarko eraikinen zentsua. 1950.

Solairuak	Erdigunea	Arrate	Aginaga	Maltzaga	Guztira
1	32	0	2	4	38
2	155	60	22	2	239
3	76	0	0	1	77
4	71	0	0	0	71
5 eta gehiago	228	0	0	0	228
Guztira	562	60	24	7	653
Etxeak	3370	60	22	5	3475
Lokalak	919	60	22	2	1003

Iturria: elaborazio propioa udal-datueta oinarrituta³⁵⁷.

Eibarko eraikinen zentsua. 1960.

	Erdigunea	Arrate	Aginaga	Maltzaga	Guztira
Eraikinak	640	62	24	7	744
Etxeak	6208	62	22	5	6297

Iturria: elaborazio propioa udal-datueta oinarrituta (Sagardouy, 1960: 25).

Auzo-etxe hauetan, bai forma arrazionalistak, bai kultura ofizialak bultzatutako klasizismoa egon ziren presente. Izan ere, borondate estilistikoko eraikin gehienak, zentro urbanoan baino ez ziren eraiki.

Raimundo Alberdik arrazionalismoari jarraitu zion zenbait etxetan, baina baita tailer eta industria-proiektuetan ere. Arkitekto azkoitiarra Bartzelonako arkitektura-eskolan titulatu zen 1928an, eta bertan arrazionalismoan aitzindari izan ziren Josep Lluís Sert eta Sixte Illescas izan zituen ikaskide eta lagun, eta beraiekin ikasketa-bidaia egin zuen Alemania, Austria, Belgika, Hungaria, Frantzia eta Suitzatik, urte haietan garatzen ari zen arkitektura berriko eredu esanguratsuenak bisitatuz³⁵⁸. Sertek, bere arkitektura berriarekiko grina konpartitzen zuten Madrilén zegoen Fernando García Mercadal eta José Manuel Aizpurua donostiarrarekin batera, 1930ean GATEPAC (Grupo de Arquitectos y Técnicos Españoles para el Progreso de la Arquitectura Contemporánea) izeneko abangardiako arkitektura-taldea fundatu zuen, hiru azpitalde hauekin: Ekialdeko Taldea (Bartzelonan), Erdiko Taldea (Madrilen) eta Iparraldeko Taldea (Donostian eta Bilbon) (Muñoz, 2009a). GATEPACek Europan, besteak beste, Le Corbusier, Walter Gropius, Ludwig Mies eta Erich Mendelsohn-en eskutik garatzen ari zen arkitektura arrazionalistarekin bat egin zuen. Espainiako

357. 1951ko martxoaren 29ko udal-bilkura. EUA. Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Pleno. 1951. A.11-74. *Ayuntamiento de Eibar. Provincia de Guipúzcoa. Memoria que en cumplimiento de la circular de la dirección general de la administración local, inserta en el boletín oficial del estado nº 146 de fecha de 26 de mayo último, se eleva al ministerio de la gobernación sobre la forma en que se desarrollan y tiene organizados sus servicios este ayuntamiento. Año de 1950, testu mekanografiatua, zenbatu barik.* EUA.

358. Bidaia 1928ko utzailaren 22 eta abuztuaren bukaera bitartean egin zen (Illescas, 2008: 39 eta 93).

estatuan batez ere 30eko hamarkadan garatu zen arkitekturak, GATEPACeko taldekideak izan zituen protagonista nagusiak. Eta garapen horretan lagungarria izan zen taldeak argitaratzen zuen *AC* aldizkaria (1931-37), Alberdi eta Euskal Herriko hainbat profesionalak (Luis Astiazaran, Florencio Mocoroa, Ramón Martiarena eta José Antonio Pontek) erosten zutena. 1933an Aizpuruak GATEPACeko Iparraldeko sekzioa, arrakasta barik, berrantolatu eta zabaltzeko asmoa izan zuen, tartean Ponteren eta Alberdiren parte-hartzea izan zuelarik.

Gerraurreko arrazionalismoarekin bat egiten duen Alberdiren eraikin esanguratsuenetakoa bat 1948an San Joan kaleko 17. eta 19. zenbakietan egindako proiektua da³⁵⁹ (102. ird.). Bi kaleen arteko bat-egitean Alberdik egitura zuzena erabili zuen, agian urte batzuk lehenago Florencio Mocoroak Gipuzkoako zenbait udalerritan entseatu zituen proposamenak gogoratu, besteak beste 1936ko Donostiako Lapurdi plazako auzo-etxean (Arsuaga eta Sese, 1996: 186; García Odiaga, 2007). Bietan arrazionalismoan ohikoak ziren okulu formako leiho txikiak eta tonalitate eta testura ezberdinak lortzeko adreilu gorriaren alternantzia agertzen zaizkigu.



102. irudia. San Joan 17 eta 18ko auzo-etxea. Raimundo Alberdi, 1948. Sagardouy López- Salazar, Domingo (1960): *Ilmo. Ayuntamiento de Eibar. Memoria municipal. Años 1955-1959*, Nueva Editorial, Donostia, liburuan argiratu.

359. EUA. 6867.42 (1948): San Juan 17-19.

Joaquín Domínguez Elósegui eta José Antonio Ponterek egin zuten proiektu pribaturen batean ildo berari jarraitu zioten, nahiz eta Regiones Devastadas-eko arduradunek nagusiki klasizismoa bere egin zuten. Haien diseinuen artean aipatzekoak dira kale arteko egitura alakatuak, Erich Mendelsohn-en proposamenei jarraituz, batez ere Bilboko gerraurreko arrazionalismoan oso arruntak izan zirenak. Horren adibideak dira 1946an egindako bi auzo-etxe: Errebal 15, eta Julian Etxeberria 9 (103. ird.).



103. irudia. Errebal 15eko auzo-etxea. Joaquín Domínguez Elósegui eta Jose Antonio Ponte, 1946. Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 13.033 HIF.

Errebal eta Merkatu kaleen arteko auzo-etxea, Coliseo ondoan dagoena, Martín Aranceta industrialaren enkargua izan zen³⁶⁰. Bertan fatxadak, alakako zatia sarrera eta simetria ardatz gisa hartuta, egitura tripartito bat du. Alakako partean azken pisua

³⁶⁰ 360. EUA. 6864.45 (1946): Errebal 15.

ez da atzeratzen eta frontoi batez dago koroatua, eraikinaren presentzia urbanoa azpimarratuz. Aldiz, alaka ondoko beste bi fatxada zatietan, arrazionalismoan ohikoa den behatoki kurboak agertzen ditu (balkoia azken pisu atzeratuan), modu bigun batean alakako egiturarekin bat egiten dutenak. Antzeko egitura alakatua erabili zuen 1945ean Diego de Basterrak ere Urtzaile eta Bidebarrieta kale arteko auzo-etxean³⁶¹, baita 1946an Damian Lizaurrek, José Orue industrialarentzat, Arragueta eta Sarasketa kaleen arteko eraikinean³⁶².

1946an Julian Etxebarria eta Errebal kaleen artean Domínguez eta Pontek proiektatutako eraikina, berriz, nahiz eta planoetan hasieran klasizismorako bidea markatu, azkenik eraiki ahala, arrazionalismoko formak bereganatu zituen³⁶³. Kasu honetan egitura tripartito simetriko bat erabili zen ere, baina alakako azken solairua atzeratuz, nahiz eta berriro frontoi batez koroatu. Alaka ondoko fatxadetan behatoki kurboak erabili beharrean, balkoiak jarri zituzten. Pintura kolore gorriarekin ere Erdiko Alaka inguruko fatxada zatiekin ezberdindu.

1952an Joaquín Domínguezek, eraiki behar zuen orubearen forma ahurrak baldintzatuta, barrura alakatzen ziren hiru auzo-etxe proiektatu zituen Julian Etxebarria kalean³⁶⁴ (104. eta 105. ird.). Kasu honetan ere arkitektoak fatxada hiru zatitan banatu zituen Erdiko Ardatz baten arabera. Sarrera kokatu zuen Erdiguneko gorputza fatxadatik pixka bat irteten zen, azken pisuan frontoi batez koroatua. Alboko gorputzak orubearen egitura ahurrari jarraituz pixkanaka aurrera joaten ziren, eta kasu honetan, arkitektoak proiektuan adreiluaren kolore gorriarekin ezberdindu zituen. Arrazionalismoa, aldiz, hirigunetik kanpoko eraikinetan apalagoa izan zen, 1943an Faustino de Basterrak Arrate Bideko etxean proiektatu bezala³⁶⁵.

Arkitekto berak beste proiektu batzuetan arkitektura ofizialak aldarrikatzen zituen formetara hurbildu ziren. Klasizismo soil bat izan zen³⁶⁶, proiektu landuenetan arbelezko teilatuak³⁶⁷, eta sarreretan (tinpano apurtu, mentsula)³⁶⁸ eta erremateetan (pinakulu, obelisko³⁶⁹) detaile dekoratiboak zituena. Nahiz eta eraikin gehienetan egoera ekonomikoak baldintzatutako bakuntasuna izan zen nagusi, elementu dekoratiboen presentzia etxearen estatusaren arabera zen.

361. EUA. 6863.96 (1945): Urtzaile 2.

362. EUA. 6864.05 (1946): Arragueta 27.

363. EUA. 6864.23 (1946): Julian Etxebarria 9.

364. EUA. 6874.23 (1952): Julian Etxebarria 3, 5 eta 7.

365. EUA. 6861.13 (1943): Arrate Bide 11

366. EUA. 6866.07 (1947): Errebal 23.

367. EUA. 6885.06 (1956): Mekola 1-3. 6862.48 (1944): Merkatu Kalea 1. 6874.03 (1952): Zuloagatarren kalea 1.

368. EUA. 6866.07 (1947): Errebal 23. 6871.21 (1951): Julian Etxebarria 14.

369. EUA. 6867.22 (1948): Julian Etxebarria 17. 6866.38 (1948): Muzategi 2 (eraldatua).



104. irudia. Eibarko erdiguneko ikuspegia. Ezkerrean, markaturik, Julian Etxebarria kaleko 3, 5 eta 7ko auzo-axeak. Joaquín Domínguez Elósegui, 1952.

Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 21.041 HIF.



105. irudia. Julian Etxebarria kalea eraikita, hondoan kale bereko 3, 5 eta 7ko promozioa. Joaquín Domínguez Elósegui, 1952. Sagardouy López- Salazar, Domingo (1960): *Ilmo. Ayuntamiento de Eibar. Memoria municipal. Años 1955- 1959*, Nueva Editorial, Donostia, liburuan argiratua.

Escorialeko formei jarraitzen dieten eraikinen artean, José Antonio Domínguez Elósegui eta José Antonio Ponte Regiones Devastadas-eko lankideek 1944an Blas Echeverriarentzat Merkatu kalean, merkatu berriaren atzean, proiektatu zuten luxuzko auzo-etxea izan daiteke esanguratsuenetako bat³⁷⁰ (106. eta 107. ird.). Kasu horretan, Merkatuaren atzean eta bi kaleen arteko eraikinaren forma zuzenei jarraitzen zien, izkinako parte arabezko teilatua zuen dorretxo batez koroatuta zegoen, Escorial eta XVII. mendeko hispaniar arkitektura klasizista gogoratu. Urte batzuk geroago, 1952an Domínguezek Zuloagatarren kalearen eta Toribio Etxebarria kalearen artean proiektatutako eraikinean, forma kurboa zuen forma alakatua, berriz ere dorre batekin koroatu zuen, behean balkoiak kokatu zituelarik³⁷¹.



106. irudia. Merkatu kaleko 1 zenbakiko auzo-etxea. Joaquín Domínguez Elósegui eta José Antonio Ponte, 1944. Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtsa. Sig. 13.032 HIF.

370. EUA. 6862.48 (1944): Merkatu kalea 1.

371. EUA. 6874.03 (1952): Zuloagatarren kalea 1.




107. irudia. Merkatu kaleko 1 zenbakiko auzo-etxea. Joaquín Domínguez Elósegui eta José Antonio Ponte, 1944. Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtsa.

Sig. 13.031 HIF.

Nahiz eta klasizismoa soilagoa izan, berorri jarraitzen dio Raimundo Alberdik 1947an, Regiones Devastadas-en Maria Angela etxadi aurrean³⁷². Hortaz, inguruko eraikinen izaera tradizionaletara moldatu zen Alberdiren proiektua. Urte berean Alberdik Errebal kalearen eta Ibarkurutza plazaren artean diseinatutako luxuzko auzo-etxean antzeko ebazpena baliatu zuen³⁷³ (108. ird.). Bost solairuko auzo-etxea bolumen konpaktu bat bezala ulertu eta balaustrada batez koroatu zuen, oro har neoklasizismoko garbitasuna gogorarazten zuen egituran, sarrera garaiko arkitektura klasikoko elementu dekoratiboekin nabarmendu zuelarik.

372. EUA. 6866.53 (1947): Errebal 14.

373. EUA. 6866.07 (1947): Errebal 23.



**108. irudia. Errebal 23, Ibarukurutze plazako auzo-etxea. Raimundo Alberdi, 1947.
Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtsa. Sig. 6866.07.**

Baina arrazionalismoak garatutako forma alakatuak erabili ziren ere klasikoagoa zen mintzaira batekin jantiz. Horren adibideak dira, José María Ruiz Azpirik 1948an Bidebarrieta eta Zuloagatarren kaleen arteko auzo-etxearen proposamena³⁷⁴, eta Raimundo Aberdik urte berean Bidebarrieta eta Julian Etxebarria kaleen artekoan³⁷⁵, agian kalearen egiturak eskatzen zuen egitura alakatua (105 eta 109. ird.).

b) Dentsitate gutxiko etxeak

Altuerako auzo-etxeekin batera, Eibarren dentsitate gutxikoak ere egin ziren, gehienetan, inolako borondate estetiko edo formal bako proposamenak zirenak, baina askotan erregionalismoari zeharkako modu batean erreferentzia egin ahal ziotenak³⁷⁶.

374. EUA. 6867.29 (1948): Bidebarrieta 1.

375. EUA. 6867.25 (1948): Bidebarrieta 7.

376. EUA. 6857.07 (1940): Urkizu 13. 6858.50 (1941): Jardiñeta (berriztuta). 6865.18 (1946): Arrate bide 21. 6864.42 (1946): Aldatza (eraitsia).



109. irudia. Julian Etxebarria kalearen eraikuntza eta urbanizazioa 1949an. Ezkerrean, kale bereko eta Bidebarrieta 7 arteko auzo-etxearen eraikuntza. Raimundo Alberdi, 1948. MECD, AGA, Obras Públicas, signatura F-04191-001-001.

Hiriaren urbanizazio-planaren arabera, Ipuruako udal-etxebizitzaren gainean, eremu malkartsu eta hirigunetik urrunenean, lorategidun etxe isolatuak aurreikusi ziren, eta hala hiri-irudi atsegina bat ahalbidetu, nahiz eta espazio faltak eta zati batean kirol-zelaiaren eraikuntzak azkenean aurreikuspena bertan behera utzi zuten. Aldiz, dentsitate gutxiako etxeak udalerriaren inguruko aldapetan eraiki ziren, kokapenagatik altuera handiko auzo-etxeak egiterik ez zegoen lekuetan. Etxebakarrak edo etxe gutxi batzuk biltzen zituzten eraikin txikiak eta isolatuak, eraikitakoaren portzentaje txikia izan zen. Gehienetan eraikuntza eta azalera apalekoak ziren³⁷⁷,

³⁷⁷. Sukaldea, hiru logela eta komun sinplea: dutxarekin edo gabe, nahiz eta handiagoak ziren etxeak ere baziren (jangela eta gela gehiagorekin).

ziurrenik etxe propioa eraikitzeko adina diru zuten pertsonen enkarguak. Nagusiki Ramón Martiarenak eta Diego de Basterrak proiektatu zituzten, nahiz eta beste batzuek ere parte hartu zuten.

Zenbait etxe zituzten eraikinen artean ohikoak ziren bi solairu, bakoitzean etxe bat edo gehiagorekin, eta sarrera independenteekin, barruko eta maizago kanpoko eskailerak lagun³⁷⁸. Horieta batzuk existitzen ziren etxebakarren handitzeak izan ziren, agian familiaren beharrei erantzueko³⁷⁹, edo ostatu-gabeziaren aurrean higiezinaren negozio bat atera nahian³⁸⁰.

Etxebakarren kasuan baziren batzuk nekazari-funtzioa zutenak, nahiz eta agian biztanleen egiteko nagusia ez izan. Eibarren baserri-produktuak oso eskasak eta garestiak baitziren, eta baserri-mundua barik, industria izan baitzen sustatutako sektore ekonomiko bakarra³⁸¹. Halakoetan, eta lursailaren altuera ezberdina bazen ere, beheko solairuak baserri-funtzioa zuen, eta goikoak etxea, betiere sarrera independenteak mantenduz, nahiz eta solairu bakarreko etxeak ere egin ziren (110. ird.).



110. irudia. Nezakaritze-funtzioa duen dentsitate gutxiko etxea.

Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 34.055 HIF.

378. EUA. 6875.16 (1952): Abontza-bide 2.

379. EUA. 6858.120 (1941): Txonta. 6868.84 (194): Arrate bide 12 (eraitsia). 6868.84 (1949): Legarre. 6875.26 (1952): San Kristobal 16.

380. EUA. 6863.60 (1945): Karlos Elgezua 4.

381. EUA. 6881.24 (1943): Bolingua. 6861.24 (1943): Bolingua. 6863.08 (1945). 6874.16 (1952): Miraflores 6. 6874.14 (1952): Miraflores 5. 6874.09 (1952): Miraflores 8. 6874.11 (1952): Amaña 22. 6875.03 (1952): Amaña 5. 6874.21 (1952): Matsaria. 6877.22 (1953): Matsaria. 6877.20 (1953): Otaola. 6877.42 (1953): Miraflores 1.

Eraiki ziren, eta egun kontserbatzen ez diren, etxebakarrak eraikitzeko proiekturik esanguratsuenak industriren jabeek enkargatutakoak dira. 1940an José González Orbeak etxea enkargatu zion Raimundo Alberdiri enpresaren lursailetan, erregionalismoarekin bat egiten zuen azalera handiko proposamena zen³⁸². Urte batzuk geroago, 1951n, leku berean, Joaquín Domínguez Elósegui Orbeari etxe eta bulegoetarako egin zion proiektuan, berriz, Escorial gogoratzen zuten formak erabili zituen, batez ere arbelezko teilatua³⁸³ (111. ird.).



111. irudia. Ezkerrean, trenbidearen alboan, “Orbea” enpresaren lantokiak. Erdian enpresaren bulegoak eta familiaren etxeak. Ezkerrekoa: Joaquín Domínguez Elósegui, 1951. Eskumakoa: Ramindo Alberdi, 1940. Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 21.028 HIF.

c) *Etxea eta tailerra*

Orbearena ez zen izan etxea eta lantokia uztartu zituen proiektu bakarra. Horrekin batera bulegoak eta etxeak konbikatu zituzten beste obra batzuk egin ziren, jada aipatu ditugun banku eta aurrezki-kutxen sukurtsalak esaterako. Nahiz eta modurik ohikoena, etxea eta tailerra edo industria biltzen zituena izan zen.

Eibarren industriak izan zuen garrantziaren eta espazio-gabeziaren ondorioz, gerra aurretik industria eta etxeak konbinatzen zituzten eraikinak oso arruntak izan ziren, baita gerraostean ere.

382. EUA. 6857.07 (1940): Urkizu.

383. EUA. 6871.25 (1951): Urkizu (eraitsia).

Etxea eta tailerra konbinatzen zituzten eraikinak jabeek beren negozioa eta etxea enkargatzen zituzten proiektuak izan ahal ziren³⁸⁴. Nahiz eta batzuetan jabeak, etxe-gabeziaren aurrean eta proiektuari errentagarritasun gehiago lortzeko, etxe gehiago enkargatu alokairuan jartzeko edo saltzeko asmoarekin³⁸⁵. Horrekin batera, jada existitzen zen pabiloi edo tailer baten gainean etxeak eraiki³⁸⁶, edota auzo-etxeetan bezala, obrak aurrera joan ahala solairuak gehitzen zituzten proiektuak topa ditzakegu. Baina denborarekin proiektu gehienak tamaina handiagokoak izan ziren, goian etxeetarako zenbait solairurekin³⁸⁷. Tartean etxe bakarra eta tailerra dituzten proiektuak ere egin ziren³⁸⁸.

Hortaz, etxea eta industria konbinatzeko hainbat eredu garatu ziren. Horien artean aipatzekoak dira, lantokia eta etxea edo/eta bulegoa eraikin-gorputz ezberdinetan zituzten proiektuak, eta bestetik industria eta etxea altuerazko bloke batean egotean, lantokia beheko solairuetan kokatzea. Auzo-etxeak bezala, arrazionalismoa eta, neurri gutxiagoan, forma klasikoagoak konbinatzen zituztenak.

1939an Raimundo Alberdik tailerra eta etxeak eraiki zizkion Agustin Gabilondori Barrena kalean, Ego ibaiaren gainean, gehiagotan errepikatu zen eredu bat planteatuz³⁸⁹. Tailerra altuera gutxiko eta teilatu laua zuen errektangulu formako luzerako gorputz batean kokatu zuen; bulegoak eta etxeak, alakatuta zegoen mutur batean, altuera handiagoa zuen beste gorputzean. Bietan ere arrazionalismoari jarraitu bazion ere, industrialdea tamaina handiko leiho metalikoek ezberdintzen zuten, etxea/bulegoan, berriz, txikiagoak ziren eta arkitektura arrazionalista domestikoan ohikoak ziren elementuak zeudelarik (alaka, balkoi jarraitu, etab.)

1942an Raimundo Alberdik Ciriaco Mendizabali bere tailerra eta etxea eraiki zizkion Ardantza auzoan³⁹⁰. Tailerra altuera gutxiko eta teilatu laua zuen errektangulu formako luzerako gorputz batean kokatu zuen; bulegoak eta etxeak, berriz, aldameneko beste gorputz batean, altuerak, lau isurialdeko teilatuak eta erregionalismotik hurbil zegoen fatxadaren bestelako tratamenduak ezberdindua.

384. EUA. 6857.33 (1940), 6858.41 (1941); Otaola 2. 6858.79 (1941); Bista Eder 23. 6859.16 (1942); Bista Eder 21. 6865.17 (1946); Estaziño kale 18. 6871.25 (1951); Urkizu (eraitsia). 6868.105 (1949); Karlos Elgezua 9.

385. EUA. 6861.29 (1943); Karmen 7. 6865.17 (1946); Estaziño-kale 18.

386. EUA. 6858.05 (1941); Ubitxa. 6859.15 (1942); Urtzaile 1 (Aurrera S.A.). 6860.38 (1942); Ubitxa 8. 6859.36 (1942); Txonta 18. 6862.16 (1944); Legarre. 6864.29 (1946); Txonta. 6865.08 (1946); Txonta. 6865.04 (1946); Matsaria 8. 6863.18 (1945); Ubitxa 16.


387. EUA. 6861.72 (1943); Arrageta 2. 6862.55 (1944); Iparragirre 6. 6862.57 (1944); Karmen 11. 6866.56 (1947); Barrena 32. 6872.06 (1951); Txonta 15 eta 17. 6874.31 (1952); Ubitxa. 6874.04 (1952); Errekatxu. 6875.02 (1952); Txonta 13. 6871.31 (1952); Ubitxa 18, 20. 6875.12 (1952); Bidebarrieta 25. 6875.24 (1952); Bidebarrieta 27. 6879.22 (1954); Txonta 34-40. 6884.16 (1955); Arrate bide 1, 3 eta Legarre 2. 6884.01 (1955); Ubitxa 1 eta 3. 6883.10 (1955); Jardinetza 22. 6887.11 (1956); Isasi 29, 31. 6886.03 (1956); Amaña 26. 6885.15 (1956); Juan Gisasola 5. 6887.01 (1956); Barrena 26. 6890.26 (1957); Bista Eder 8.

388. EUA. 6868.105 (1949); Karlos Elgezua 9. 6875. (1952); Matsari 25, 6858.39 (1941); Sostoatarren 11.

389. EUA. 6855.74 (1939); Barrena 1 eta 3.

390. EUA. 6859.53 (1942); Aldatze (eraitsia).

Antzeko proiektua egin zuen arkitekto berak urte batzuk geroago jada existitzen zen pabiloi industrial baten bulegoen gainean etxea eraikiz³⁹¹, baita Arragueta kalean ere, baina kasu horretan bulegoen gunea eta etxearena gehiago ezberdinduz³⁹² (112. ird.). Beheko bi solairuak enpresaren administrazioenak ziren eta gainerako bostak, balkoi jarraitu batekin ezberdinduak, auzo-etxe bikoitz bat ziren. Kasu honetan pabiloiak eta etxeak antzeko tratamendu formala zuten, garaiko kultura tradizionalarekin bat egiten zuena, agian hirigunetik hurbilago egoteak baldintzatu zuena.



112. irudia. Arragueta kaleko tailerra eta etxea. Izen bereko kaleko planoak. Raimundo Alberdi, Eibarren 1943ko azaroan. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtza. Sig. 6861.72.

Arrazionalismoaren ildoan, antzeko antolaketa erabili zuen Jesús María Ruiz Azpirik Bascaran anaiarentzat 1942an egin zuen proiektuan, kasu horretan, industria eta etxea altueran ezberdinduz³⁹³ (113. ird.). Tailerra beheko solairuan zegoen, murrua zulatzen zuten leiho jarraituak lagun. Aldiz, gunea domestikoak, 4 etxe, azalera gutxiago okupatzen eta egitura alakatua zuen goiko bi solairuetan, bertan leihoak txikiagoak zirelarik. Artikulazio berari jarraitu zion Faustino de Basterrak urte berean Bista Eder kalean egin zuen proiektuan, zeinean aldaparen arabera 2/3 solairuko tailerrari etxeentzako beste bi solairu gehitu zizkion³⁹⁴. Eta beste hainbeste Raimundo Alberdik 1946an Estaziño kalean eskopetak fabrikatzen zituen tailerarentzat egindako eraikin arrazionalistan³⁹⁵. Kasu horretan, beheko solairua eta hurrengo biak enpresarako ziren eta azkeneko biak etxeetarako, azalera txikiago batekin (114. ird.).


391. EUA. 6866.08 (1947): Aldatze (eraitsia). Antzeko proiektua da: 6864.09 (1946): Otaola 20.

392. EUA. 6861.72 (1943): Arragueta 2.


393. EUA. 6860.16 (1942): Ardantza 14.

394. EUA. 6859.16 (1942): Bista Eder 21 (aldatuta).

395. EUA. 6865.17 (1946): Estaziño-kale 18.



113. irudia. Bascaran anaiantzat eginiko tailerra eta etxea, Ardantza kalean. Fatxada nagusiaren planoak. José María Ruiz Aizpiri, Eibarren 1942ko ekainean. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtza. Sig. 6860.16.



114. irudia. Gaspar Arizagarentzat eginiko tailerra eta etxea, Estaziño kalean. Fatxada nagusiaren planoak. Raimundo Alberi, Eibarren 1946ko irailean. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtza. Sig. 6865.17.

Beste eraikin askotan azalera bera okupatzen zuten tailerrak eta etxeak eraiki ziren: lantokia beheko solairuetan eta etxeak goian, gehienetan tratamendu ezberdina zutenak: lantoki-gunea leiho handi metalikoekin³⁹⁶ (115. eta 116. ird.). Horren adibideak 1942an Faustino de Basterrak Barrena kaleko 8-10 zenbakietan eta Raimundo Alberdik Isasi kaleko 24-26 zenbakietan egin zituzten tailerra eta auzo-etxeak izan daitezke (117. eta 118. ird.). Basterraren diseinuan tailerra beheko solairuan zegoen eta etxeak gainerako bostetan; sarrera gainean eskailera modu bertikalean azpimarratzeko egitura nabarmentzen zen³⁹⁷. Alberdiren proiektua, aldiz, altuera ezberdinetako lursail batean zegoenez, tailerrak 4 solairu okupatzen zituen eta etxeak 5³⁹⁸. Halako kasuetan ohikoena zen etxerako sarrera altuera gutxiagoko aldean egitea³⁹⁹.

Batzuetan, aurreko adibideetan bezala, jada eraikitako pabiloi edo pabiloi eta etxe gaineke etxeak ziren⁴⁰⁰. Hala gertatu zen 1942an Diego de Basterrak Ubitxa kalean egin zuen proiektuan⁴⁰¹. Bi solairuko tailerraren gainean, etxeetarako hiru solairu eraiki zituen, baina kasu honetan, tailerra eta etxearen sarrera bereizi zituen. Etxeetan sartzeko, kalean eskailera esentu bat jarri zuen-eta⁴⁰².

Etxea eta tailerra uztartzen dituen proiekturik esanguratsuena «Ayra-Durex» enpresak 1948an Diego de Basterrari enkargatu ziona izan zen. Enpresak Barrenan zuen pabiloiaren gainean etxea topatzeko zailtasunak zituzten langileentzat ostatua (16 logela) eta zerbitzu osagarriak (gimnasioa, liburutegia, sukalde-jantokia, eskola) egin zituen bi solairutan banatuta⁴⁰³.

Etxe mota guztiek, auzo-etxeek, dentsitate baxukoek eta etxea eta industria uztartzen zituztenek, etxe-espazioa antzeko moduan antolatuta zuten.

396. EUA. 6876.12 (1953): Eibarko Txikito Kale 12. 6864.49 (1946): Txonta 3. 6867.06 (19??): Aldatze 4. 6875.12 (1952): Bidebarrieta 25. 6880.18 (1954): Eibarko txikito kale 10. 6863.02 (1945): Jardiñeta 6. 6858.104 (1941): Sostoatarren 11.

397. EUA. 6861.10 (1942): Barrena 8-10. 6887.12 (1956): Ubitxa 7-11.

398. EUA. 6859.09 (1942): Isasi 24, 26.

399. EUA. 6858.79 (1941): Bista Eder 23 (aldatuta). 6862.57 (1944): Karmen 11. 6859.04 (1942): Legarre 13. 6879.10 (194??) Barrena 7-9

400. EUA. 6865.19 (1946): Isasi 19. 6862.16 (1944): Legarre.

401. EUA. 6860.38 (1942): Ubitxa 8.

402. Antzeko proiektua da: 6861.46 (1943): Ubitxa 13.


403. EUA. 6867.16 (1948): Barrena 11?.




**115. irudia. Tailerrak eta etxeak biltzen dituzten eraikinak.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 34.060 HIF.**



**116. irudia. Tailerrak eta etxeak biltzen dituzten eraikinak.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtsa. Sig. 34.054 HIF.**



117. irudia. Auzo-etxea eta tailerrak Martín Churrucarentzat, Barrena kalean.
 Fatxada nagusiaren planoak. Faustino de Bastera, Bilbon 1942ko otsailean.
 Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtza. Sig. 6861.10.



118. irudia. Auzo-etxea eta tailerrak Isasi kalean. Atzeko fatxadaren planoak.
 Raimundo Alberdi, Eibarren 1942ko urtarrilean.
 Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtza. Sig. 6859.09.

2.4.3.4. Etxe-espazioaren antolaketa

Etxeen barne-antolaketa eta banaketa hainbat faktoreren menpe zegoen, besteak beste, ezarritako ohiturak, etxe-estatusa, hiriaren antolaketa, orubeen banaketa, eraikuntza-ordenantzak eta lortu nahi zen errentagarritasuna.

Beheko solairuan sarrera eta industria eta komertzioetarako lokalak edo bulegoak egon ahal ziren. Maria Angelako barne-lorategira irekitzen diren etxeak salbu, erdigunetik kanpo bakarrik ohikoa zen beheko solairuetan etxeak egotea.

Ataria gehienetan fatxadaren erdian zegoen kokatuta, eta haren azalera eta antolaketa etxebizitzaren estatusaren arabera zen. Maiz bi espazio ezberdintzen ziren: sarrera bera eta eskailera, batzuetan, biak maila txiki batzuen ostean zegoen ate baten bidez banatuta zeuden, gutxienetan atezainarekin⁴⁰⁴. Eskailerarekin batera, jada udal-ordenantzak arautzen zuten igogailua kokatzen zen, batez ere bost solairu baino gehiagoko auzo-etxeetan, hau da, erdigunean zeudenetan, eta estatu-laguntzak eskatu zituzten etxe askotan derrigorrezkoa izan zena.

Eskailera-buruan gehienetan bi ate zeuden, baina baita lau⁴⁰⁵, hiru⁴⁰⁶, eta bakarria ere⁴⁰⁷. Etxeek gela kopuru minimo bat izan behar zuten. 1933ko udal-ordenantzen arabera: sukaldea, komuna eta beste bi pieza, 1943koetan komunaren ezinbestekotasuna aipatzen zen, eta 1950ekoa zehatzagoa izan zen, gutxienez, sukalde-jantokia, bi oheko bi logela eta dutxa zuen komuna aipatu zituen, gainera azalera espezifikatuz: logelak (6-10 m², ohe kopuruaren arabera), egongela (10 m²), sukaldea (5 m²), sukalde-egongela (15 m²) eta komuna (1,5 m²).

Etxe gehienek sarrera, jantokia, bi/hiru logela, sukaldea eta komuna zituzten. Nahiz eta etxe-banaketa txikiagoa eta handiagoa izan ahal zen. Murriztagoa zen, gehienetan, hiri-erdigunetik kanpoko etxeetan, aldapetan eraiki ahal zirenak. Horietan jangela kendu eta, eta bi/hiru logela zeuden. Zabalagoa, berriz, kale nagusietan zegoen, logela gehiagorekin, eta nahiz eta salbuespena izan, zerbitzarietako gunea (gela eta komun txiki bat⁴⁰⁸, eta gutxiagotan office⁴⁰⁹ eta sarrera independente bat⁴¹⁰).

404. EUA. 6866.07 (1947): Errebal 23.

405. EUA. 6887.11 (1956): Isasi 33-6867.16 (1954): Txonta-25-29. 6882.17 (1955): Txonta 42-48.

406. EUA. 6880.18 (1954): Eibarko txikito kale 10. 6871.49 (1951): Ipar kale 3. 6868.100 (1949): Isasi 29-31. 6871.09 (1951): Julian Etxeberria 15. 6871.13 (1951): Julian Etxeberria 16. 6887.12 (1956): Ubitxa 7-11. 6869.41 (1950): San Juan 15. 6886.23 (1956): Sostoatarren kalea 1.

407. EUA. 6875.05 (1952): Errebal 4. 6865.26 (1946): Errebal 10. 6870.40 (1950): Errebal 17. 6865.29 (1946) Errebal 21. 6866.07 (1947): Errebal 23. 6867.54 (1948): Isasi 3. 6866.33 (1947): Isasi 27. 6877.37 (1953): Julian Etxeberria 19. 6874.02 (1952): Errebal. 6866.16 (1947): Sostoatarren 9.

408. EUA. 6867.29 (1948): Bidebarrieta 1. 6864.45 (1946): Errebal 15. 6865.17 (1946): Estaziño-kale 18. 6864.23 (1946): Julian Etxeberria 9. 6876.28 (1953): Julian Etxeberria 14. 6874.03 (1952): Zuloaga 1.

409. EUA. 6865.35 (1946): Bidebarrieta 21. 6885.06 (1956): Mekola 1-3.

410. EUA. 6866.07 (1947): Errebal 23. 6862.48 (1944): Merkatu plaza 1. 6871.25 (1951): Urkizu (eraitsia).

Aipatu dugu moduan, erdiguneko etxeak patio itxietako orubeen arabera antolatzen ziren eta kanpokoak ez. Baina bi kasuetan banaketa antzekoa izan ohi zen. Errektangulu/karratu formako garapena hobesten zuten hondo txikiko etxeak ziren. Ondorioz, salbuespenak salbu, guztiz barnekoak ziren etxeak ez ziren ahalbidetu⁴¹¹. Banaketa ohikoenean, etxe erdian kokatuta zegoen korridore txikiaren arabera, kalera edo patioetara orientazio kontrajarriak zituzten gelak zeuden⁴¹².

Kasu batzuetan, ez zegoen korridorarik eta banaketa, gizarte-etxebizitzetan bezala, erdian zegoen sukalde-jantoki batek artikulatzen zuen. Proiektu gehienak ez kasualitatez, OSHrentzat halakoak egin zituen Ramón Martiarenarenak ziren⁴¹³. Etxe apalagoetakoa banaketa zen hau, etxearen azalera oraindik etxe kategoriaren arabera ulertzen baitzuten. Horren adibidea goi-mailako etxeren batean korridorearen ordeztamaina handia zuen hall baten erabilera izan daiteke⁴¹⁴.

Egotekotan jantokia, tratamendurik garrantzitsuena zuen pieza zen, eta horregatik kalera edo fatxada nagusian kokatzen zen, beste logelaren bat lagun. Aldiz, sukaldea, komuna, gainerako logelak eta egotekotan, zerbitzurako espazioa, atzeko fatxadan edo patioaren inguruan kokatzen ziren. Nahiz eta kasu batzuetan jantokia ere patioan kokatu, sukaldearen ondoan⁴¹⁵, edo fatxada nagusian sukaldea ere lagun⁴¹⁶. Sukaldean, komunean/etan eta, egotekotan, zerbitzuaren gunean, zorua harlauzezkoa zen; beste logeletakoa, aldiz, egurrezkoa, ateak eta leihoak bezala. Leiho metalikoak eraikin industrialetan ez baitziren erabiltzen.

Sukaldea etxeko pieza nagusia zen, familia biltzen ohi zen lekua baitzen. Are gehiago etxe-gabeziaren aurrean, jantokia askotan logela funtzioa zuen etxeetan edo jantokirik ez zegoenean. Sukaldeak balkoia edo etxe-egutera izan ahal zuen⁴¹⁷. Sukaldeko elementurik garrantzitsuena hainbat modelo zituen sukalde ekonomikoa zen, egurra edo ikatzarekin funtzionatzen zuena⁴¹⁸ (119. ird.). Eibarren beste hirietan

411. EUA. 6871.49 (1951): Ipar kale 3. 6871.09 (1951): Julian Etxeberria 15. 6871.13 (1951): Julian Etxeberria 16. 6869.41 (1950): San Juan 15.

412. Bazen kalera ematen zuen jangelaren jarraian kokatzen zen leihorik gabeko gelarik. Besteetan espazio aprobetxatu nahian sukaldetik logela batera sartu ahal zen, zerbitzarientzako lekua zuten etxe batzuetan gertatzen zen bezala, edo jantokitik logela batera. EUA. 6863.04 (1945): Fermin Calbeton 8. 6877.18 (1953): Legarre 15-19. 6874.31 (1952): Ubitxa. 6866.15 (1947): San Juan 13. 6879.11 (1954): San Kristobal 9-13. 6870.54 (1950): Sostoatarren 15-17. 6866.01 (1947): Isasi 23. 6887.12 (1956): Ubitxa 7-11. 6882.05 (1955): Ubitxa 5.

413. EUA. 6874.04 (1952): Errekatsu 11. 6883.06 (1955): Fray Martin Mallea 1 eta 3. 6878.18 (1954): Ipurua 7 (Solokoetxeko eredu literala da). 6874.05 (1952): Matsari 28. 6877.42 (1953): Miraflores 1. 6887.05 (1956): Miraflores 4. 6874.14 (1952): Miraflores 5. 6874.05 (1952): Miraflores 28. 6874.09 (1952): Miraflores 8.

414. EUA. 6866.33 (1947): Isasi 27. 6867.18 (1948): Bidebarrieta 5.

415. EUA. 6877.18 (1953): Legarre 15-19. 6872.09 (1951): Zuloaga 5.

416. EUA. 6879.11 (1954): San Kristobal 9-13.

417. EUA. 6864.28 (1946): Bidebarrieta 8-10.

418. 1959an Eibarren 18 ikaztegi zeuden, eta urte berean butano gasaren zerbitzua aipatzen da (Sagardouy, 1960: 136).

ez bezala, gas-zerbitzurik ez baitzegoen; eta sukalde elektrikoa, hasieran, gutxi batzuen esku zegoen luxuzko elementua izan zen. Sukaldearen ondoan granitozko edo marmolezko sukaltarria zegoen, latsarriaren funtzioa izan ahal zuena. Etxeetan orokortu zen ur-hornikuntzaren ondorioz kaleko latsarriak edo arropa-garbitokiak (Matxarian, Isasin, O'Donell eta Bidebarrietan zeudenak) gero eta gutxiago erabiltzen ziren, eta 1959an O'Donellekoa bakarrik zegoen irekita⁴¹⁹.



**119. irudia. 40ko hamarkadako sukaldea Gernikan.
MECD, AGA, Obras Públicas, signatura F-04246-05-09.**

Sukalde batzuetan, edo korridorean, jakitokia egoten zen, elikagai galkorrak, berriz, tranpaduran kokatzen ziren. Garaiko prentsan eta aldizkarietan iragartzen ziren hozkailuak⁴²⁰ hasierako urteetan gutxi batzuen esku zegoen etxetresna garestia zen. Garaian, garbiagoak eta erosoagoak ziren sukalde elektriko eta hozkailuekin batera, gero eta ohikoagoak izan ziren beste etxetresna batzuk ere: ur-berogailua, plantxak⁴²¹, etab. Horietako batzuk Eibarren bertan edo inguruko herri eta hirietan fabrikatzen ziren. Esaterako, 1956an Joaquín Domínguez Elósegui etxetresna elektrikoak egiten zituen JATA konpainiarentzat proiektatutako tailerrean⁴²². Urte batzuk lehenago, 1941ean, Basaurin (Bizkaian) plantxa, sukalde eta berogailu

419. 1949ko uztailaren 8ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. Comisión Municipal Permanente. 1949.* A.11-71; Sagardouy, opus cit.,117. or.

420. “Nevera Frisan. Electro-automática. Último modelo”, *El Diario Vasco*, 1943ko ekainaren 23a, 2. or. Donostian eta Tolosan saltzen zen elektrizitate-tresna ondorengo urteetan ere iragarri zen.

421. 1947an hiru etxek egin zuten publizitatea. *Guipúzcoa, Vizcaya y Álava en la mano*, opus cit., 211. or.

422. EUA. 6886.25 (1956): Arane (eraitsia).

elektrikoak fabrikatzen zituen Edesa edo «Electrificación Doméstica Española, SA» sortu zen⁴²³. Handik urte batzuetara, 1952an, Edesak *Cocina española en la cocina eléctrica izeneko* liburua argitaratu zuen sukalde berriaren erabilera eta abantailak (erosotasuna, garbitasuna, ziurtasuna eta azkartasuna) azaltzeko helburuarekin⁴²⁴. Funtsean etxetresnak ondorengo urteetan gizarte-maila guztien artean orokortzen joan zen sukaldearen teknifikazioa eta makinikazioaren elementu adierazgarriak izan ziren. Baina haien prezio altuagatik Eibarko etxe gehienetan oraindik arrotzak izaten ziren (120. ird.).



120. irudia. «Edesa» etxetresnen iragarkia.

Obras aldizkarian argitaratua, 1950eko uztail-iralean.

423. “La plancha automática Edesa”, *ABC*, 1950eko abenduaren 9a, 12. or.; “La cocina eléctrica Edesa”, *ABC*, 1950eko abenduaren 16a, 2. or. Iragarkiak.

424. Liburuan ere berdurak egoteko sukalde elektrikorako egokia zen presio-eltzea nabarmendu zen. *La cocina española en la cocina eléctrica Edesa*, Elexpuru Hermanos, Bilbao, 1952.

Sukaldearekin batera, **komuna** etxearen teknifikazioa eta higienizazioa zentratu ziren lekua izan zen, eta aldaketa domestikoa modu nabariago batean gertatu zen lekua (121. ird.). Komuna 30eko hamarkadara arte, klase ertainen artean etxeetako ezinbesteko eta garrantzizko espazio bihurtzen hasi, eta ondorengo urteetan, gerraostean orokortu zen pieza dugu. Izan ere, etxeen inguruko normatiba guztietan, 1939ko etxe babestuen legean, edota 1944 eta 1948ko etxe lagunduen legeetan eta ondorengoetan eta Eibarko udal-ordenantzetan, higiena eta komuna etxearen ezinbesteko eta derrigorrezko pieza bat zen. Etxeko piezarik txikienak, eraiki ziren ia etxe guztietan komun-ontzi eta konketarekin batera, dutxa edo bainera zuen, eta etxearen estatusaren arabera baita bideta ere. 50eko hamarkada-aldaketan komunerako pieza berriak fabrikatzen hasi ziren, «bañaseo» kasu, dutxa, jesarritako bainua, umeentzako bainera, oin- eta arropa-garbitokiaren funtzioa izan zezakeen eta Eibarko etxe batzuetan zegoen bainera txikia⁴²⁵ (122. ird.). Gainera Eibarko hainbat enpresatan langileentzako dutxak zeuden, garai hartan higieak zuen garrantzia agerian uzten duena. Aurreko urteetan ez bezala, enpresa eta etxe gehienetan gorputzaren higiena erraztu zuen ur beroa zegoen.



121. irudia. 40ko hamarkadako komuna Gernikan.
MECD, AGA, Obras Públicas, signatura F-04246-05-08.

425. “Hacia una solución del problema. El baño en el hogar moderno”, *Cuadernos de Arquitectura*, **10**, 1949ko ekaina, 482-483; “Bañaseo”, *La Gaceta del Norte*, 1950ko maiatzaren 17a, 7. or. Hurrengo etxeetan erabili zen: 6886.02 (1956): Polonia Etxebarria 14-18.

Al presentar el nuevo aparato

Bañaseo

le ofrecemos **5 SERVICIOS EN UNA SOLA PIEZA**

Bajo la necesidad de atender el saneamiento en las viviendas económicas, ha surgido el «BAÑASEO».

Por ser utilizable como plato de ducha, bañera infantil, lavapies, baño de asiento y lavadero, es muy adecuado para viviendas económicas, casas baratas, etc.

Por extensión, en los hogares donde ya se dispone de cuartos de baño con bañera, este aparato ofrece un espléndido servicio en los cuartos de aseo adicionales, usados por la gente joven o por el servicio.

Las limitadas dimensiones del «BAÑASEO» de 1 m. por 070 m., hacen fácil su instalación aún en los más reducidos espacios.

es un producto

“Roca”

COMPANIA ROCA-RADIADORES

MADRID EXPOSICIÓN ALCALÁ, 21 GAVÀ OFICINAS CENTRALES BARCELONA EXPOSICIÓN. P.º DE GRACIA, 21

DUCHA
BAÑERA INFANTIL
LAVAPIES
BAÑO DE ASIENTO
LAVADERO
VILA

Salvador de HERRERA «BAÑASEO» modelo número más detalles sobre este aparato P.º 21

Nombre: _____
Calle: _____
Teléfono: _____
Profesión: _____

122. irudia. «Roca» etxearen «bañaseo» iragarkia.
La Gaceta del Norte egunkarian argitaratua, 1950eko maiatzean.

Uraren berotzea modu ezberdinetan egiten zen: sukaldearekin berotzen zen ur-galdara, termosifoi edo etxe eta eraikin industrial batzuetan zegoen berogailuarekin (fuel-oil, gas-oil, zur, ikatz edo elektrizitatearekin funtzionatzen zuena⁴²⁶). Hortaz, ordu arte sukalde eta logelarekin (terreina eta eroangarriak ziren konketak lagun) konpartitu zen gorputzaren garbiketarako intimoa zen espazio propioa izan zuen (banakakoa etxean eta askoren artekoa lanean). Eta nahiz eta etxeetan oraindik komunetik kanpoko espazioak erabiltzen jarraitu ziren, gorputzaren higiena gizarte-klase guztien artean orokortu zen. 1954an Miguel Martínez Sostre udal-medikuaren arabera, Eibarren gorputz osoa garbitzea ohikoa zen (Martínez Sostre, 1954: 58).

426. 1947an Eibarren berogailu elektrikoak fabrikatzen zituzten hiru etxek beren burua iragartzen zuten. *Guipúzcoa, Vizcaya y Alava en la mano*, opus cit., 206. or.

2.4.3.5. *Etxebizitza jabegoan. Alokairuen legiazioa eta jabego horizontalaren garapena*

La característica principal de la pequeña propiedad en Eibar la constituye la familia de obrero cualificado, con cuatro a seis hijos, en que el ahorro de los jornales aportados en común por uno y otros permite a aquélla el hacerce propietaria de un piso, por lo común desprovisto de las mínimas condiciones de salubridad, por tratarse de edificios viejos, y contruidos en su tiempo en forma anárquica (Domínguez eta Ponte, 1940: 72)⁴²⁷.

Modu horretan deskribatzen zuten Joaquín Domínguezek eta José Antonio Pontek Eibarren, berreraikuntza-lanak hasi aurretik, ohikoa zen etxearen jabegoa, bai eta hura atzeratu eta korapilatu zuena ere (Moreno Torres, 1941a: 11; Domínguez Elósegui eta Ponte, 1940: 21). Hortaz, ez da harritzekoa, gerraostean Gipuzkoako udalerrian eraiki ziren etxe gehienak salmentarako izatea⁴²⁸. Onura ekonomiko zuzen bat ateratzeko modurik egokiena baitzen, edozein eraikuntza-proiektu aurrera ateratzea heroikoa izan zen garaian, baina baita gerraosteko kronikoa izan zen etxebizitzaren gabeziaren eta estatuaren alokairuen prezioak mantentzeko politikaren aurrean. Hortaz, Lehen Mundu Gerraren ostean etxeen gabeziak ahalbidetu zuen jabego horizontalaren hasiera Eibar, Bilbo edo Donostia bezalako hirietan, gerraostean estatu osoan orokortu zen, eta etxebizitzaren arazoa, etxea erosteko baliabide ekonomikorik ez zuten pertsonen artean zaildu zuen. Hala baieztatu zuten INVko zuzendariak, José Fonsecak (Fonseca, 1955: 19), eta garaiko hainbat juristak:

Desde tiempo muy remoto existía en Bilbao y otras poblaciones del Norte esta forma de dominio, que adquiere hoy en las grandes ciudades españolas un mayor relieve (Ubierna, 1945: 10-11) (...)

El capitalista, bien por sí, bien formando Sociedades Inmobiliarias, construye el edificio de elevado coste y especula con él. Considera los pisos como simple mercancías y los vende, generalmente a quien no encuentra vivienda en alquiler o a quien (...) desea tener vivienda propia (...) Todos estos motivos han hecho que hoy, en España, se haya extendido considerablemente la propiedad horizontal. (...) Se halla muy desarrollada en Santander, Bilbao, San Sebastián, Pamplona, Logroño, Burgos, Zaragoza y Valencia. Empezando ahora a extenderse a Madrid y otras poblaciones (Castillón, 1944: 6).

Estatuak etxe-gabeziaren aurrean eta jabeen gehiegikeriak saihesteko, jada gerra-garaian, alokairu-prezioak izoztea eta egoeraren arabera, bertan behera uztea erabaki zuen, behin betiko errentamendu-lege baten beharra agerikoa zen garaian (Condomines:14-15).

1937ko maiatzaren 31ko eta uztailaren 23ko dekretu-legeen arabera alokairuak partzialki edo bere osotasunean kentzea erabaki zen, gerratik kaltetuta geratu

427. Azpimarraketa gurea da.

428. *Falange Española Tradicionalista y de las JONS. Jefatura Provincial de Guipúzcoa. Veinte años de paz en el movimiento nacional bajo el mandato de Franco. Provincia de Guipúzcoa*, Imp. V. Echeverría, Donostia, 1959, 89. or.; Sagardouy, opus cit., 109. or.

ziren etxeetan edota diru gabe geratu ziren inkilinoen artean⁴²⁹. Egoera horrek gerra bukatzean jarraitu zuen 1939ko ekainaren 9ko legearen, 1939ko abenduaren 4ko ordenaren eta 1940ko urriaren 17ko dekretuen bidez. Azken horren arabera, langabezian ziren eta etxeagatik hilean 150 pezeta baino gutxiago ordaindu behar zuten pertsonak ez zuten alokairua ordaindu behar⁴³⁰. Gainera berreraikuntza-lanen kasuan, 1942ko abenduaren 11ko dekretuaren arabera, «adoptatutako» udalerrietan, Eibar kasu, inkilinoak bidaltzea bertan behera uztea erabaki zen⁴³¹.

Aurreko ekimenekin bat egin zuen 1942ko maiatzaren 7ko legeak, edozein errenta igotzea ez zilegizat eta gehiegizkotzat hartu zuena⁴³². Jarraian, 1944ko abenduaren 30eko lege-dekretuak finka guztietako errentak mugatu zituen⁴³³. Eta adoptatutako udalerrietako politika hedatuz, urte bereko urtarrilaren 24ko eta uztailaren 7ko dekretu-legeek etxe-kanporaketak atzeratu zituzten egiten ari ziren errentamendu-legea promulgatu arte⁴³⁴. Legea 1946ko abenduan onartu zen, eta

429. “Decreto-Ley dictando reglas relativas al pago de alquileres y que facilita la vuelta a la normalidad de contratación urbana”, *Boletín Oficial del Estado*, **223**, 1937ko maiatzaren 31, 1.682-1.683; “Los alquileres de viviendas. Texto del Decreto-Ley sobre condonaciones de los mismos”, *La Gaceta del Norte*, 1937ko uztailaren 23a, 5. or.; “Memoria prestada al Congreso de la Federación de Urbanismo y de la Vivienda por la Cámara de la Propiedad de Madrid”, *I Congreso de la Federación de Urbanismo y de la Vivienda*, Tip. Yagües, Madril, 1940, III. liburukia, 295. or.

430. “Ley de 9 de junio de 1939 reglamentado los arrendamientos de fincas urbanas en los territorios que han estado sometidos a la dominación roja”, *Boletín Oficial del Estado*, **162**, 1939ko ekainaren 11, 3.191-3.192; “Orden de 4 de diciembre de 1939 autorizando a los gobernadores civiles para ordenar, con carácter transitorio, en las localidades en que se estime pertinente, normas sobre prórrogas y condiciones de arrendamiento de fincas urbanas”, *Boletín Oficial del Estado*, **333**, 1939ko abenduaren 8a, 6.894. or.; “Decreto de 17 de octubre de 1940 por el que se amplían los beneficios del decreto número 264 de 1º de mayo de 1937 sobre exención de pago de alquileres”, *Boletín Oficial del Estado*, **315**, 1940ko azaroaren 10a, 7.744-7.745; “Los alquileres condonados a las familias de los combatientes y en paro forzoso”, *El Diario Vasco*, 1939ko martxoaren 15a, 2. or.

431. “Decreto sobre suspensión de desahucios en las localidades adoptadas por el Caudillo”, *Boletín Oficial del Estado*, **360**, 1942ko abenduaren 26a, 10.556. or.; 1942ko abenduaren 28ko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1942*. A.11-63; “Orden de 30 de diciembre de 1942 por la que se declara de aplicación a las ciudades de Eibar e Irún el decreto de 11 del actual sobre suspensión de desahucios en localidades adoptadas por el Caudillo”, *Boletín Oficial del Estado*, **23**, 1943ko urtarrilaren 23a, 810. or.; “Se aplica en Eibar e Irún el decreto del 11 de actual sobre suspensión de desahucios”, *El Diario Vasco*, 1943ko urtarrilaren 23a, 1. or.

432. “Ley de 7 de mayo de 1942 por la que se regulan las rentas o alquileres de arrendamientos de casas, con excepción de las dedicadas a la explotación de industrias y establecimientos mercantiles”, *Boletín Oficial del Estado*, **150**, 1942ko maiatzaren 30a, 3.818-3.819; Robles Fonseca, 1943a: 11-18; 1943b: 102-113.

433. “Decreto-ley de 30 de diciembre de 1944 sobre arrendamientos urbanos”, *Boletín Oficial del Estado*, **718**, 1945ko urtarrilaren 23a, 718. or.

434. “Decreto-ley por el que se prorroga por seis meses la tramitación de juicios y ejecución de sentencias firmes de desahucios”, *Boletín Oficial del Estado*, **33**, 1944ko otsailaren 2a, 904. or.; “Decreto-ley por el que se prorrogan hasta la publicación en el Boletín Oficial del Estado de la nueva Ley sobre Arrendamientos Urbanos, los plazos señalados en el Decreto-Ley de 24 de enero último, referentes a la susenpsión para ejecutar y transmitir las sentencias y juicios de desahucio, con las excepciones en aquél establecidas”, *Boletín Oficial del Estado*, **207**, 1944ko uztailaren 27a, 5.675. or.

haren araudia 1947ko martxoaren 21 arte atzeratu eta urte bereko apirilaren 3an indarren sartu zen⁴³⁵. Legeak behin betiko erregulatu zituen alokairuak, baina aurreko politikarekin jarraituz, hau da, alokairuak mugatuz eta jabeak etxea saldu nahi izanez gero inkilinoari preferentzia emanez. DGAREN esanetan legearen helburu nagusietako bat inkilinoen artean etxebizitzaren jabegoa bermatzea izan zen⁴³⁶, nahiz eta askok etxea erosteko dirurik ez izatean beren burua kalean ikusi zuten⁴³⁷. Jabeek, baina baita zenbait erakundek, juristek, kongresuek, aipatutako DGAK eta José Fonseca arkitektoak salatu zuten egoera⁴³⁸. Guztiek lege berri bat, alokairuen gaurkotzea eta beste estatuetan hartzen ari ziren antzeko neurriak eskatu zituzten⁴³⁹. Baina urteak itxaron behar izan ziren, 1956ko apirilaren 13ko dekretura arte, errenten eguneratzea onartzeko⁴⁴⁰.

Ondorioz, urte horietan alokairuko etxeak ez ziren batere onuragarriak izan kapital pribatuarentzat, eta eraikitzekotan salmentako etxeak egin zituzten nagusiki. Prezio altuko pisuak ziren, saltzaileek etxebizitza-gabeziaren aurrean puzten zituztenak. Izan ere, prezioa urte batetik bestera asko igotzen zen, eta hortaz ez zeuden pertsona guztien esku. Modu horretan, diru publikoarekin inizatiba pribatuak etxe garestiak egin zituen eskuarki.

Gainera, aipatu dugun bezala, Estatuak etxearen jabegoa modu ezberdinetan bermatu zuen. Erregimen berriarentzat jabegoa eskubide bat zen, eta hala onartu zuen Espainiarren eta Langileen Foruetan, edo oinarritzko legeetan, eta bere ezeztatzen zuen Kode Zibilarren eta Hipoteka Legearen erreforman, nahiz eta jabegoa ez zen guztiz erregulatu 1960an Jabego Horizontalaren Legea promulgatu zen arte⁴⁴¹.

435. "Ley de 31 de diciembre de 1946 sobre arrendamientos urbanos", *Boletín Oficial del Estado*, **1**, 1947ko urtarrilaren 1a, 82-110; "Orden de 21 de marzo de 1947 acordada en Consejo de Ministros por la que se dispone la publicación en el Boletín Oficial del Estado del texto articulado de la Ley de Arrendamientos Urbanos, de 31 de diciembre de 1946", *Boletín Oficial del Estado*, **90**, 1947ko martxoaren 31, 1.982-1.984; "Orden de 21 de marzo de 1947, acordada en el Consejo de Ministros, por la que se dispone la publicación en el Boletín Oficial del Estado del texto articulado de la Ley de Arrendamientos Urbanos, de 31 de diciembre de 1946", *Boletín Oficial del Estado*, **90**, 1947ko apirilaren 3a, 1.982-2.066; Goayar y Ayllón, 1947: 597-636.

436. "Comentario a la Ley de Arrendamientos Urbanos", *Boletín de Información de la Dirección General de Arquitectura*, **7**, 1948ko ekaina, 3-7.

437. Maria Angela etxadi babestuan etxea lortzeko eskaerak. 1947ko uztailaren 28an, 1950eko urtarrilaren 13an eta martxoaren 7an sinatuak. EAEHAAN. I-353-3, 33.

438. Fonseca, 1943: 21-23; "Comentario a la Ley de Arrendamientos Urbanos", *Boletín de Información de la Dirección General de Arquitectura*, **7**, 1948ko ekaina, 3-7; *VI Asamblea Nacional de Arquitectos. Tema 2º. El problema de la vivienda en nuestras clases media y modesta. Su solución*, Imprenta Vique Mas, Madril, 1952, 7. or.; Cort, 1940b: 192,194 eta 201.

439. Morales, R., *Ante la posible reforma de la Ley de Arrendamientos Urbanos*, Instituto Nacional de Estudios Jurídicos, Madril, urte barik, 25. or.; cfr. Castán eta Calvillo, 1956: 34.

440. "Decreto de 13 de abril de 1956 por el que se aprueba el texto articulado de la Ley de Arrendamientos Urbanos", *Boletín Oficial del Estado*, **112**, 1956ko apirilaren 21a, 2.602-2.616.

441. "Ley 49/1960, de 21 de julio, sobre propiedad horizontal", *Boletín Oficial del Estado*, **176**, 1960ko uztailaren 23a, 10.299-10.303.

Ondorioz, araudi baten gabeziak arazoak sortu zituen, batzuetan Jabego Ganbera eta Epaitegietan konpondu behar zirenak⁴⁴².

1939ko urriaren 26ko legeak Kode Zibila eta Hipoteka Legeak berritu zituen⁴⁴³. Kode Zibileko 396. artikulua erredakzio berrian jabego horizontala onartzen zen, baita araudi txiki bat eman ere, zeinak jabego komunaleko elementuen erabileran arazoak argitu nahi zituen. Nahiz eta zenbait jabego-komunitatek Kode Zibila osatzen zuten araudi pribatuak zituzten. Halaber, Hipoteka Legearen erreforman (8. eta 107. artikuluetan), aurreko urteetan ez bezala, hipoteka-orri ezberdinak onartzen ziren pisu bakoitzeko.

Egindako erreformak eraikuntza-industria bermatzeko tresna gisa ulertu ziren (Taufel, 1940: 109-115), nahiz eta oraindik egoera arautu behar zuen lege baten beharra ikusi eta aldarrikatu zen. Jada Belgikan 1924an, Italian 1934an eta Bigarren Mundu Gerraren ostean munduko zenbait estatutan egiten ari zen bideari jarraituz⁴⁴⁴. Hortaz, nahiz eta etxeen jabego horizontala 20ko hamarkadatik aurrera gero eta ohikoagoa izan, eta gerraostean orokortu, arrunt bilakatu zen egoerak ez zuen legislazio konkreturik izan; bai, ordea, arazoak.

2.4.4. Etxebizitza: konpondu gabeko arazoa

1969an izendatu berri zuten etxebizitza-ministroak, Vicente Mortes ingeniariak, modu honetan laburbildu zuen erregimen totalitarioak ordura arte garatutako etxebizitza-politika:

... la política de vivienda se ha orientado en España fundamentalmente en pos del máximo lucro —cuya obtención se realiza especialmente a través de la especulación de solares—, y el resultado de ello ha sido la incapacidad para atender a las necesidades sociales de la vivienda (Mortes, 1970).

Ondorioz:

... nos sobran viviendas caras y, en cambio, nos faltan viviendas asequibles (...) es prácticamente imposible que los trabajadores españoles dispongan de viviendas a precios razonables (ibidem).

442. “La Vivienda Obrera en las Ciudades, comunicación de Instituto Nacional de la Vivienda”, *Tercer Congreso de la Federación del Urbanismo y de la Vivienda*, Madril, 1944, 6. or.

443. “Ley de 26 de octubre de 1939 sobre construcción, gravamen y régimen de viviendas de pisos o partes determinadas”, *Boletín Oficial del Estado*, **301**, 1939ko urriaren 28a, 6.034-6.036; Batlle, 1942: 243-267.

444. Hala gertatu zen Uruguai (1946), Austria, Argentina, Kolonbia (1948), Bolivia (1949), Kuba (1950), Alemania, Holanda (1951), Panama (1952), Mexiko (1954), Portugal (1955), Venezuela (1957), Guatemala (1959), Ekuador, Etiopia (1960), Japonia (1962) edo Suitzan (1963). Batlle, 1967: 26 eta hur.; Fernández Martín-Granizo, 1962: 77 eta hur.; Fuentes Lojo, 1990: 31 eta hur.; Zanon, 1964: 28 eta hur.

Hortaz, nahiz eta etxebizitza-politika Estatuaren arduraren nagusi bihurtu, ez ziren beharrezkoak ziren etxeak eraiki. Herrien etengabeko hazkundeak, edozein motatako errekurtsioen gabeziak, krisialdi kronikoak eta instituzioek garatutako politikak ez zuten horretan lagundu. Beraz, ekimen pribatuak eraikitako etxeak, —gehienak Estatuaren diru-laguntzekin—, eta instituzio publikoek egindakoak, ez ziren garaiko gabeziari aurreko egiteko nahikoak izan. Alokairuak mugatzen eta izozten zituen politikak, edo auzo-etxeek ordaindu beharreko zergen igoeren moduko neurriek, kapital pribatuaren inbertsioak atzeratu zituzten eraikuntzan, eta soilik errentagarri ziztaien etxeen salmentetan, edota alokairu altuko etxe berriak egitera zuzenduta. Gainera, gobernu berriak etxearen jabegoa oinarritzko eskubidetzat jo zuen, eta defendatu burututako lege eta erreformatan. Horren emaitza, gerraostean, aurreko urteetan presente zegoen etxeen jabego pribatuaren orokortzea izan zen, beren etxea erosteko errekurtsioak zituzten familien esku baino ez zegoena, gainerakoek berrakura, jende-pilaketa eta txabolismoaren artean aukeratu behar izan zutelarik.

Eibarren, eta beste udalen kasuan, orokorrak ziren arazo horiei, udalerrira zabaltzeko espazio txikia, industria garatzeko eta etxeak eraikitzeko interes ez ondo ulertuak, eta administrazio usteldu baten eskutik gero eta ohikoagoak izan ziren eraikuntza-ordenantza eta plan urbanistikoak haustea gaineratu beharko genizkieke.

Todos hemos visto duplicar y triplicar la altura de los edificios de nuestra calles [esaten zuen Eexebizitza-ministroak] con lo que el aire no se renueva, la circulación se hace imposible, los servicios públicos de agua, electricidad y saneamiento se quedan pequeños; edificios extraños a su naturaleza laceran el paisaje (...) Esa lacra social que es la especulación social del suelo (...) la hemos permitido todos (ibidem).

2.5. INDUSTRIARAKO ARKITEKTURA

2.5.1. Eibar: hiri industrial

Gerra hasi aurretik Eibar tradizio industrial handiko hiria zen eta gerraostean izaten jarraitu zuen ere, azalera txikiko espazioa saturatuz eta hiri guztia tailer handia bihurtuz. 1945eko datuen arabera, populazioaren % 33,17k industrietan egiten zuen lan, horietatik % 44k industria handietan, % 44k txikietan eta gainerako % 12ak tailerretan. 1950ean 300 industria ezberdinetan banatuak, 1953an 400 zirenak⁴⁴⁵, zenbait industriatarako bere etxean lan egiten zuen jendea ere kontuan hartu beharko genukeelarik (Domínguez eta Ponte, 1940: 21).

445. *Ayuntamiento de Eibar. Provincia de Guipúzcoa. Memoria que en cumplimiento de la circular de la dirección general de la administración local, inserta en el boletín oficial del estado nº 146 de fecha de 26 de mayo último, se eleva al ministerio de la gobernación sobre la forma en que se desarrollan y tiene organizados sus servicios este ayuntamiento. Año de 1950.* eta *Ayuntamiento de Eibar. Provincia de Guipúzcoa. Memoria que en cumplimiento de la circular de la dirección general de administración local se eleva al ministerio de la gobernación, sobre la forma en que se desarrollan y tienen organizados sus servicios este ayuntamiento. Año 1953.* EUA. B.2.29.2.

1955eko datuen arabera, azalera txikiko hirian lurzoruaren industriarako gehiegizko erabilerak hektarea bakoitzeko 300 langile inguru izatea ekarri zuen, kasu batzuetan 500 langile izatera heldu ahal zena⁴⁴⁶. Regiones Devastadas-ek egindako urbanizazio-planaren arabera, lantokiak gunen urbano guztian sakabanatuta egon zitezkeen. Batzuk espazio-gabeziak bultzatuta, eta beste batzuk aurreko kokapenak aprobetxatuz, baina gehienak ere altuera ezberdinetako eraikinetan; maiz inguruko espazio, zerbitzu eta etxeekin bateragarria ez zena. Egoera horrek lan-baldintzetan eta bizi-kalitatean eragin ezkorrak izan zituen, hiri-antolaketa egokiago eta ingurumenaren inguruko beste sentsibilitaterik egon ez zen garaian. Gerraosteko krisitik indartsu atera zen industriaren eta ekonomikaren garapenak, txikia zen espazio batean, beste kontsiderazio batzuk gibelean utzi baitzituen. Industria eta etxeen gehiegizko dentsitatea eta kokapen ezegokiak, airearen eta uraren kutsadura eta espazio librean gabezia, besteak beste, gerraostean hasitako garapen ekonomiko eta industrialaren ondorioak izan ziren.

Eibarko industria-sektore tradizionalak armak eta mundu osoan ezagunak ziren damaskinatuak izan ziren. Baina bertoko industria merkatuetara egokitu eta beste sektore batzuetan espezializatu zen. Modu horretan, Eibarren produkzio bariatua zegoen eta hortaz edozein industriak behar zituen osagarriak fabrikatzen ziren. 1949an langile gehien zituzten sektoreetako batzuk metala eta, modu apalago batean, eraikuntza ziren. Berreraikuntza-lanek jatorri ezberdinetako 31 arkitekto eta 10 ingeniariaren zerbitzuak eskatu, eta sektorearekin erlazionatutako hainbat enpresaren sorrera bultzatu zuten.

**Industria sektore nagusiak
eta langileak Eibarren. 1949.**

Sektoreak	Langileak
Metala	5250
Eraikuntza	127
Zura eta kortxoa	83
Oihalgintza	64
Larrua	50
Damaskinatzaileak	44
Industria kimikoak	14
Papera, prentsa eta arte grafikoak	11
Garraio eta komunikazioak	16
Ostalaritza	59
Elikagaigintza	70
Baserritarrak	187
Zerealak	15
Abeltzantza	22
Beste batzuk	63

Iturria: elaborazio propioa udal-datueta oinarrituta (Iturria: Martínez Sostre, 1954: 149-150).

446. Martínez de la Madrid, Adelardo, *Ordenación Urbana de Eibar*, Madril, 1955eko ekaina, testu mekanografiatua. EUA C 26 V 3.

Diru-iturri gehien ematen zituzten industriak, berriz, 1959ko datuen arabera, josteko makinak, armak, burdingintza eta sarrailagintza, 1953tik fabrikatzen hasi ziren ziklomotorrak eta motozikletak, idazteko makinak, aparatu elektrikoak, idazmahairako objektuak eta damaskinatuak ziren (Sagardouy, 1960: 36). Horrekin batera, bizikletak, autoen piezen fabrikazioa, umeentzako kotxeak, bizar-xaflak, ilea mozteko makinak, ileapaindegi eta odontologiarako jesarlekuak, zirujia-materiala, bisuteria eta bestelako objektuak fabrikatzen ziren ere.

Industria nagusiak Eibarren. 1959.

Enpresak	Langileak	Fabrikazioa
Alfa	1541	Josteko makinak
Lambretta	297	Motozikletak
Orbea y Cía.	700	Bizikletak eta ziklomotorrak
Garate, Anitua y Cía.	314	Bizikletak eta ziklomotorrak
Echave, Arizmendi y Cía.	93	Bizikletak eta ziklomotorrak
Gamma	36	Bizikletak
Azpiri, Aranceta y Palacios	88	Bizikleten osagarriak
Tomas Amuategui	42	Bizikleten osagarriak
Hijos de Artamendi	35	Bizikleten osagarriak eta burdingintza
Nicolas Arregui	23	Bizikleten osagarriak eta burdingintza
Ocamica Hermanos	72	Sarrailagintza eta burdingintza
B. Olañeta y Juaristi	28	Sarrailagintza eta burdingintza
Aguirre y Aranzabal	231	Eskopetak
Hijos de V. Aramberri	52	Eskopetak
Hijos de J.J. Sarasqueta	26	Eskopetak
Unión Armera	13	Eskopetak
Martin Ugarteburu	14	Eskopetak
Zamacola Hermanos	20	Eskopetak, kanoiak eta baskulak
Star, SA	195	Pistolak (esportatuak)
Ayra Durex, SA	108	Autoen osagarriak
Industrias Mendizabal	56	Autoen osagarriak
Francisco Gorosabel	50	Autoen osagarriak
Hijos de Valenciaga	112	Malgukiak
Nicolas Correa	53	Fresatzeko makinak
Hijos de Telleria	14	Zuzentzaileak eta beste artikulatuak
Arizaga, Basterrica y Cía.	90	Konpresoreak
José Retenaga	21	Makineria
Francisco Guisasaola	3	Artikulu damaskinatuak
Aurrerá, SA	117	Fundizioa
Lasa y Azcoaga	32	Fundizioa
Hijos de Aristondo	69	Forja
Remigio Echeverria	21	Forja
Garaciaga	8	Forja

Marbil	40	Torlojugintza
Lema	46	Torlojugintza
Francisco Arana	40	Torlojugintza
Philips Screw	12	Torlojugintza
Felipe Telleria	25	Torlojugintza
Mendiguren y Zarraua	114	Estanpazio eta malgukiak
Jacinto Alcorta	41	Elektrizitate-objektuak
Olave, Solozabal y Cía.	168	Idazmahairako objektuak
Imperial Española	85	Idazteko makinak
Industrias Odriozola	14	Esku-zulatzailak
Ereña y Guisasola	132	Zerra-makinak, erremintenzako piezak, mailu pneumatikoak eta autoentzako osagarriak
Bueno Hermanos	62	Artaziak
Industrias Rocandio	15	Prezintu metalikoak, zumitz laminatuak
Industrias Berry	20	Trokelaketa

Iturria: elaborazio propioa udal-datuetan oinarrituta (Iturria: Sagardouy, 1960: 31-32).

Alabaina, industriak hainbat **arazori** egin behar izan zion aurre, eta normalean lantegi edo tailer bakoitza konpontzen saiatzen zen, sektore guztien beharrei erantzun globalak eman gabe. Arazoen artean aipatzekoak dira gerran beste hiri batzuetara (Bilbo, Sestao, Zamudio, Iruñea, Burgos, Ferrol eta Asturias) lekuz aldatu ziren makineria eta produktuak berreskuratzea. Kasu horretan udalak enpresen eskaerei erantzunez⁴⁴⁷, 1938an Udaleko Industria Komisioak burutu zuen, nahiz eta batzuen berreskuratzea ezinezkoa izan zen⁴⁴⁸.

Horrekin batera, aipatzekoa da berritu beharra zegoen makineria zaharkituaren erabilera; eta nahiz eta Armeria Eskolari esker profesional kualifikatuak egon, oraindik eskulan espezializatuaren beharra zegoen. Lanarekin erlazioetatutako gaixotasunak (silikosisa eta dermatosisa) ere aipatzekoak dira. Halaber hornikuntza elektrikoa eskasa zen, eta egoera horren aurrean lantegi eta tailer askok bere motor elektriko propioa muntatu zuten. Burdina fundituaren gabezia, aldiz, Alfa moduko enpresa batzuek beren fundizio propioak muntatzearekin konpondu zuten⁴⁴⁹. Garraio-arazoak ere ohikoak izan ziren, nahiz eta industriaren garapenak Eibarren garraio-nukleo garrantzitsua ahalbidetu zuen.

Azkenik, industrien arazoen artean aipatzekoa da instalazioetarako espazio falta. Aurreratu dugun bezala, industrien gehiegizko kontzentrazioa, zeinak beste batzuen lekuz aldatzea ekarri zuen, esaterako «Beistegui Hermanos» Gasteizen

447. 1938ko otsailaren 15eko udal-bilkura. EUA. *Libro de Actas del Ayuntamiento de Eibar. 1937-1938*. A.11-59.

448. Guztira 653 makina berreskuratu ziren erabiltzen ari ziren 93 enpresatan: 12 Bilbon, 39 Sestaon, 9 Zamudion, 1 Iruñean, 3 Burgosen, 1 Ferrolen, 26 Asturiasen. *Provincia de Guipúzcoa. Ayuntamiento de Eibar. Memoria de la labor efectuada por la comisión municipal de Industria desde la fecha de la liberación de esta Villa por las tropas nacionales. Eibar, febrero de 1938*, testu mekanografiatua. EUA. B.2.29.2.

449. EUA. 6889.09 (1950) eta 6877.48 (1953): San Andres.

ezartzearen erabakia. Baina enpresek gerraren ostean txikituta edo zaharkitua geratu ziren espazio egokiagoak behar zituzten. Eraikin industrialak enpresa bakoitzaren beharretara moldatu behar izan ziren (fabrikazioa, langile kopurua, kokapena, aurrekontua, etab.), industria-arkitektura oparoa utzi diguna.

2.5.2. Arkitektura industrialaren garapena

2.5.2.1. Hasierako lanak

Gerra aurretik Eibarren industria gehiena tailerren arabera antolatuta zegoen, askotan txikiak, ilunak eta txarto aireztatuak eta etxeetako beheko solairuetan kokatuta zeudenak. Nahiz eta enpresa handi batzuk, Orbea eta Alfa esaterako, etxeguneetatik aparte egon baldintza higieniko hobegoko eraikinetan (Martinez Sostre, 1954: 152).

Gerran eta gerraostean Eibarko industriaren antolaketa aldatu zen, lantoki asko txikitu zirelako, beste batzuk hiriaren antolaketa berriaren ondorioz bota eta berriak eraiki behar izan zirelako eta, batez ere, industriaren bultzada ekonomikoak eraikin gehiago eskatu zituelako. Horretarako, hiriaren urbanizazio-plan berriak udalerraren kanpoaldean industria garatzeko espazio espezifikoak aurreikusi zituen, nahiz eta hiri erdian geratu ziren eta hirigintza-plangintza oztopatzen ez zuten industriak mantendu ziren, eta molestatzen ez zutenak orubeetako patioetako beheko solairuetan instalatzea onartu zen. Ondorioz Eibarren arkitektura industrial berri bat garatu zen, mota eta forma ezberdinak jorratu zituena, eta hiria modu erabakigarrian definitu zuena⁴⁵⁰.

Modu honetan deskribatu zituen Miguel Martínez Sostrek, Eibarko medikuak, garai hartako arkitektura industrialak:

... edificios industriales de líneas aiosas y amplias vidrieras, que embellecen la vista general de Eibar tanto como las casas de lujo que se han construido durante estos últimos años (Martínez Sostre, 1954: 1502) (123. ird.).

Gerra bukatu eta berehala, hiria bere industria berrantolatzen hasi zen eta, aipatu bezala, 1938an ezinbestekoa zuen hainbat makineria berreskuratu ostean, lanari ekin zion. Hasieran, beharrezkoak ziren fabrikak berreraikitzen eta eraikitzen ziren bitartean, kalteak jasotako eraikinetan, edo lantokiak ezin erabiltzean etxeetan. Zeharo esanguratsua da 1938an, industria-pabiloi, tailer eta lantegiak eraikitzeke 9 eskaera egin zirela, eta bakarra etxe berri bat eraikitzeke eta kaltetutako beste bat berreraikitzeke. Industriaren berregiteko aktibitateak ondorego urteetan ere antzeko proportzioetan egin zuen gora, 1943an etxebizitzaren eraikuntzak eta industriarenak parekatzen, eta etxeenak pixkanaka gailentzen hasi ziren arte.

450. Nagusiki gerraurreko Eibarko arkitektura industrialaren inguruko informazioa hurrengo liburuan topa daiteke: Apraiz eta Martínez Matia, 2008.



**123. irudia. Leiho metaliko handiko enpresa Merkatu plazan.
Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 13.030. HIF.**

Proiektu gehienak lantoki berrien eraikuntzaren ingurukoak ziren, nahiz eta zeudenen anpliazioak⁴⁵¹, eta zuela gutxi egindakoak handitzen joan ziren ere⁴⁵²,

451. EUA. 6855.85 (1939): Sostoatarren kalea. 6856.36 (1940): Matsaria. 6856.44 (1940): Ibagain. 6857.23 (1940): Urtzaile. 6856.36 (1940): Matsaria. 6856.44 (1940): Ibagain. 6858.71 (1941): San Andres. 6858.81 (1941): Bista Eder. 6858.117 (1941): Toribio Etxebarria. 6855.87 (1939): Torrelekua. 6860.59 (1942): Urtzaile 1. 6861.07 (1943): Estaziño. 6862.66 (1944): Otaola. 6863.23 (1945): Barrena 11. 6863.73 (1945): Ibagain. 6866.55 (1947): Barakaldo. 6866.48 (1947): Urkizu 1.

452. EUA. 6857.28 (1940): Torrekua. 6864.15 (1946): Blas Etxebarria 3. 6865.34 (1946): Txonta. 6867.13 (1948): Torrekua. 6889.09 (1950): San Andres. 6889.02 (1950): Matsaria. 6889.43 (1950): Ego-gain. 68689.52 (1950): Txonta. 6870.47 (1950): San Andres. 6871.41 (1951): Matsaria. 6871.35 (1951): Bista Eder. 6871.52 (1951): Muzategi. 6871.12 (1951): Matsaria. 6871.17 (1951): Sostoatarren. 6872.36 (1951): Bidebarrieta. 6874.25 (1952): Sautxi. 6874.26 (1952): Iparragirre. 6874.10 (1952): Bilbao-Donostia errepidea. 6874.17 (1952): Juan Gisasola 1c. 6875.22 (1952): Torrekua. 6876.25 (1953): Aldatze (eraitsia). 6876.22 (1953): Txonta. 6876.18 (1953): Urkizu. 6877.02 (1953): Txonta. 6876.16 (1953): Matsaria. 6877.48 (1953): San Andres. 6878.20 (1954): Txonta 7 eta 9. 6880.37 (1954): Matsaria. 6879.17 (1954): Otaola. 6883.02 eta 6882.20 (1955): San Andres. 6882.04 (1956): Barrena. 6882.03 (1955): Errekatxu. 6884.17 (1955): Otaola. 6884.14 (1955): Asua-Erreka. 6884.07 (1955). 6882.14 (1955): Barrena. 6882.10 (1955): Barrena. 6885.16 eta 21 (1956): Otaola 3. 6885.01 (1956): San Andres. 6887.07 (1956): Urtzaile. 6886.12 eta 13 (1956): Txonta. 6886.15 eta 16 (1956): Torrekua. 6887.18 (1956): Otaola 5. 6889.23 (1957): Iparragirre. 6889.20 (1957): Txonta. 6888.09 (1957): Matsaria. 68890.09 eta 28 (1957): Barrena. 6889.21 (1957): Txonta. 6890.18 (1957): Urtzaile. 6890.27 (1957): Txonta. 6889.06 eta 01 (1957): San Andres.

gehienetan espazio faltak eta produkzioaren gorakadak behartuta. Aurreratu dugun moduan, industria batzuk espazio-gabeziaren aurrean Ego ibaiaren gainean eraikitzen hasi ziren jada 1939tik aurrera⁴⁵³, Regiones Devastadas-ek pentsatuta zeukan Ego ibaiaren estaltzea bere gain hartu zutelarik. Hala egin zuen Alfa enpresak Amañan, 1950ean Alfredo Bizcarrondo bide-ingeniariak egindako proiektuaren arabera⁴⁵⁴. Eta beste hainbeste gertatu zen 1957an «Nicolas Correa SRC» enpresarekin⁴⁵⁵.

2.5.2.2. Profesionalak: arkitektoak eta ingeniariak

Industriaren espazio berriak eraikitzen nagusiki hirian beste proiektu batzuk egin zituzten arkitektoak nabarmendu ziren, baina baita ingeniari industrialak ere⁴⁵⁶. Berriz ere Raimundo Alberdi izan zen nabarmendu zen profesionaletako bat, 1938 eta 1939an proiektu guztiak berak egin zituen, Emilio Otaduy bilbotarrak 1938an diseinatutako bat salbu. 1940tik aurrera Felipe Anitua industria-ingeniaria industriaren arkitekturarako modu oparoan lan egiten hasi zen, nagusiki tamaina txikiko pabiloiak proiektatzen. Urte berean Lucas Alday eta, batez ere, Faustino de Basterra arkitektoak zeuden lanean. Faustino, bere anaiordeak ez bezala, lantegietarako proiektu gehiago egin zituen. Modu horretan familia arkitektura-tipologia ezberdinetan espezializatu zen, nahiz eta Diegok lantegi-proiekturen bat egin zuen ere, batez ere bere bizitzaren azkeneko urteetan, Faustino jada Eibarren lan egiten ez zegoenean. 1940ean ere Enrique Belda ingeniariak egin zuen lan Castor Uriarte arkitektoarekin batera, azken horren ardura proiektuaren estetika zelarik⁴⁵⁷. Kasu askotan arkitektoek eta ingeniariak egiten zituzten proiektuak ezberdinak ziren. Aurrenekoetan estetikak garrantzi handiagoa zuen, eta bigarrenetan, berriz, funtzionaltasunak, ardura formalak lagatzen zituztelarik. Horregatik agian, 1950eko udal-eraikuntzaren ordenantza berrien arabera, alde urbanoetako eraikin industrialetako konposizio estetikoa eta fatxadak arkitektoek egin behar zituztela erabaki zen⁴⁵⁸. Nahiz eta baliteke eraikuntzan arkitektoen nagusitasuna mantentzeko estrategia bat izatea ere.

José María Ruiz Azpirik (1941ean), Damian Lizaurrek (1946tik aurrera) eta Joaquín Domínguez Elóseguik (1951tik aurrera) industria frogatu zuten ere. Francisco de Asís Alonso (1947an), Pedro María Iñarrategui (1955-57an), Vicente Olave eta Ignacio Millán Mondragón Leibar (1956an) ingeniari industrialek ere egin zuten lan, eta 1954n Manuel Urcola arkitektoak. Guztien artean Raimundo Alberdi eta Felipe Anitua izan ziren lan gehien egin zuten profesionalak.

453. EUA. 6855.74 (1939): Barrena.

454. EUA. 6870.48 (1950): San Andres.

455. EUA. 6890.29 (1957): Matsaria.

456. Ikusi eranskina.

457. EUA. 6856.30 (1940): Barrena.

458. 57. art. *Ayuntamiento de Eibar: Provincia de Guipúzcoa. Ordenanzas municipales para la edificación. Año de 1950*, opus cit., 13. or.

2.5.2.3. Arkitektura industrialaren ezaugarriak eta ereduak

Arkitekto eta ingeniariak gehien eraiki zituzten obrak pabiloiak, fabrikak eta jada landu ditugun etxebizitza eta tailerren proiektuak izan ziren. Baina obra horiekin batera beste eredu industrial batzuk ere landu ziren: bulegoak eta ibilgailuekin erlazionatutako espazioak⁴⁵⁹.

Industria-erakinen berezko ezaugarriak, nagusiki, funtzioak, kokapenak, eta enpresaren garrantziak baldintzatzen zituzten. Baina baziren komuneko ezaugarriak, arkitektura industrialak berezkoak zituenak, eta beste eraikinek partekatzen ez zituztenak. Deigarriena, gehienetan, funtzionaltasunak gidatzen zuen hormigoio armatuaren erabilera zen⁴⁶⁰, arkitektura publikoan eta etxebizitzan ez bezala, eta salbuespenak salbu, ardura dekoratzaileetatik aldenduta zegoena, eta maiz gerraurrean garatzen hasi zen arrazionalismoa gogorarazi ahal diguna, batez ere kaleen arteko elkarguneetan. Arkitektura zibilean bezala, forma kurboei jarraituz alakatzen zirelako, normalean bulegoak eta enpresaren izena bertan kokatuz. Arkitektura industrialean ohikoa izan zen alde administratiboa modu berezi batean ezberdintzea (letrekin, beste material batzuekin, eta batez ere barruko tratamendu arretatsua batekin, maiz materialen kalitateetan agerikoa den bezala). Horrekin batera, lantokiak eskatzen zituen aireztapena eta argiztapena zirela-eta, murrak zulatuta agertzen ziren, eta beste eraikinetan ohikoak ez ziren azalera handiko, eta Eibarren bertan fabrikatzen ziren, leiho metaliko jarraituak oso arruntak izan ziren⁴⁶¹. Baita teilatu lauak ere, urez estali edo erabilgarriak izan ahal zirenak.

Barruko antolaketa industria bakoitzaren berezitasunak baldintzatzen zuten. Baina gehienetan espazio irekiak ziren, inolako banaketarik gabekoak, administrazioa eta komunak kokatzen ziren lekuak salbu. Eraiki berri ziren industria gehienetan oso ohikoak izan ziren komunak eta, industriaren arabera, baita dutxak ere. 1950. urteko udal-ordenantzek, lehen aldiz, lan egiteko lekuei modu espezifikoan egin zieten erreferentzia, eta komuna eta, beharrezkoa balitz, dutxa kopuru egokia agindu zuten. Halaber, hamarkada-hasierako ordenantzetan langile bakoitzaren gutxieneko espazioa eta kubikazioa arautu zen (2 m² eta 10 m³), eta zorua, horma, eta korridore inguruko zehaztapenak ematen ziren, baita sute-arriskua zuten lantokiek bete beharreko ezaugarriak ere⁴⁶².

459. EUA. 6871.33 (1951); Matsaria. 6873.17 (1956): Otaola.


460. Hormigoia egitura nagusian erabiltzeaz gain, murrak ixteko ere erabili zen hormigoio-dararaketazko blokeak (huts zein trinkoak) baliatuz. Lemoan (Bizkaian), Donostian eta Villaverden (Madriren) fabrikatzen zen materiala, antza, merkeagoa, iraunkorragoa zen eta isolatze hobea eskaintzen zuen.

461. 1947an leiho metalikoak egiten zituen eta Isasi kalean zegoen "Treviso y Arrieta" enpresak bere burua iragartzen zuen. *Guipúzcoa, Vizcaya y Álava en la mano*, opus cit., 213. or.

462. 192-197. artikulua. *Ayuntamiento de Eibar. Provincia de Guipúzcoa. Ordenanzas municipales para la edificación. Año de 1950*, opus cit., 39.-40. or.

Industria hirigunean edo kanpoan kokatzeak ezaugarri ezberdinak baldintzatzen zituen. Pabiloiak eta fabrikak kanpo aldean kokatuta zeudenean (Azitain, Matsaria, Txonta edo industrialdean), tamaina ezberdinetakoak izaten ziren, gehienetan errektangulu formakoak eta erdigunean baino solairu gutxiagorekin. Kasu horietan izaera industriala nabariagoa zen, agian ingeniariak proiektatuko lanak zirelako, nahiz eta arkitektoen esku-hartzea ere oso presente egon zen. Industria-eraikinak hirigunetik hurbilago baldin bazeuden, berriz, egitura konpaktuagoa izan ohi zen, bai azalera bai altueran, eta fatxadek bestelako borondate urbano bat agertzen zuten, beste eraikuntza ez-industrialen ezaugarriak bereganatuz.

Aipatu bezala arkitektura industriala modu ezberdinetan antolatu zen, ezohikoenak 1945ean eta 1951n Diego de Basterrak Urtzaile eta Barrena kaleetan, beste eraikinen artean, leihoz zulatutako bulegoetara bakarrik diseinatutako eraikinak ditugu, nahiz eta lehenengoa auzo-etxe batekin batera proiektatu zuen⁴⁶³ (124. eta 125. ird.). Berezia izan zen, orobat, 1951n Ramón Martiarenak Azitaingo gasolindegian egindako proiektua⁴⁶⁴, urte bat geroago garajeetarako eraikuntza batekin eta 1957an autoentzako tailerrarekin handitu zuena⁴⁶⁵.




**124. irudia. Bulegoen eraikina Urtzaile kalean. Fatxada nagusiaren planoak.
Diego de Basterra, Bilbon 1945eko martxoa.
Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtsa. Sig. 6863.96.**

463. EUA. 6863.96 (1945): Urtzaile 4. 6872.22 (1951): Barrena 4.

464. EUA. 6871.51 (1951): Barrena 19. Urkizu pasealekuan ere 1955ean Fernando Carmona Delgado ingeniari industrialak egindako proiektuari jarraituz hiru gasolina-hornigailu kokatu ziren. EUA. 6881.16 (1955): Urkizu.

465. EUA. 6876.07 (1952) eta 6889.03 (1957): Barrena 17.



**125. irudia. Bulegoen eraikina Barrena kalean. Fatxada nagusiaren planoak.
Diego de Basterra, 1951. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtza. Sig. 6872.22.**


Gainerako eraikin industrialetan gehien errepikatu zen egitura lantegi- eta administrazio-espazioak artikulazio ezberdinetan (altuera, formak, materialak) bereizten zituena zen. Nahiz eta egitura konpaktu eta poligonal berean lantokiko zerbitzu guztiak biltzen zituzten pabiloiak egin ziren ere. Gutxiagotan enpresa-gune handiak egin zirelarik.

1957. urtean Ramón Martiarena «Ojanguren y Marcaide SA» enpresarentzat Arane kalean pabiloi berria eraiki zuen egoera kaskarrean zeukatena ordezkatzeko⁴⁶⁶ (126. eta 127. ird.). 235 m²-ko errektangulu formako eta lau solairuko egitura bat zen, bi edo hiru, lursailaren altuera desberdinaren arabera. Arane kaleko murruean arteko bat-egitean arkitektoak berak eta beste profesionalek maiz erabili zituzten forma kurboak agertu zituen, arrazionalismoa gogoan. Alberdik planteamendu berari jarraitu zion «Orbea y Cía.» bizikleten fabrikazioan espezializatu zen lantegirako egin zuen handitze-proiektuan. Altuera ezberdinetako lursailera moldatzen zen 2/4 solairuko eraikina zen (128. eta 129. ird.), erdian konpainiaren izena kokatu zuen eta izkina batean alakatzen ziren eta altuera gehiago zuen gorputzean bulegoak⁴⁶⁷. Beste hainbeste ikus dezakegu 1942an «Otaola eta Vildosola»rentzat eginiko proiektu apalagoan⁴⁶⁸.


466. EUA. 6856.48 (1940): Arane 5.

467. Urte berean pabiloi berria eraiki zen, eta ondorengoetan Joaquín Domínguez Elósegui solairuak gehitu zituen. EUA. 6856.36 (1940): Matsaria 2. 6857.30 (1940). 6889.02 (1950), 6871.12 (1951) eta 6880.37 (1954).

468. EUA. 6859.39 (1942): Asua-erreka 1-3.



126. irudia. Pabiloi berria «Ojanguren y Marcaide SA» enpresarentzat, Arane kalean Ezkerreko alboko fatxada eta fatxada nagusia. Ramón Martiarena, Donostian 1957ko abuztuan. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtza. Sig. 6888.10.



127. irudia. Pabiloi berria «Ojanguren y Marcaide SA» enpresarentzat, Arane kalean Ezkerreko alboko fatxada eta fatxada nagusia. Ramón Martiarena, Donostian 1957ko abuztuan. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtza. Sig. 6888.10.




128. irudia. Eibarko ikuspegia. Behean, erdiko aldean, markatuta «Orbea» enpresa. Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 21.038. HIF.



129. irudia. Eibarko ikuspegia. Behean, eskumako aldean, markatuta, «Orbea» enpresa. Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 26.012. HIF.

Arrazionalismoa gogoan izan zuen urte berean Faustino de Basterrak «Sres. Acha y Basterra» enpresarentzat Matsaria kalean pabiloi bat eraikitzean⁴⁶⁹ (130. ird.). Kasu horretan, hiru solairuko luzerako egitura estu bat zen, bulegoan zeuden sarrerako forma kurbatuei esker malgutasunez moldatzen zena ingurunera. Antzeko planteamendua agertu zuen 1942an Castor Uriartek «Ereña y Guisasola» enpresarentzat Otaola kalean egin zuen egoitzan⁴⁷⁰ (131. eta 132. ird.). Bi-hiru solairuko pabiloia, muturrean zegoen bulegoaren partea egitura kurbo irten batekin nabarmendu zuen, eta enpresaren izenarekin koroatu. Alde administratiboa enpresaren beste zatitik ezberdintzeko nahia agerikoa zen gainera, bertoko leihoak bertikalki banatzeko erabili zituen adreilu-zinta estuengatik. Tamaina eta azalera ezberdinetako proposamenetan konkretatu zen soluzioa izan zen hau, Ramón Martiarenak «Cadenas Iris» enpresarentzat 1955ean egin zuen proiektu txikian bezala⁴⁷¹ (133. eta 134. ird.). Beste batzuetan errektangulu formako luzerako egiturak erremate poligonalak zituen, bertan bulegoetarako tokia nabarmentzen zelarik⁴⁷².




130. irudia. Pabiloia «Acha y Basterra» enpresarentzat, Matsaria kalean. Fatxada nagusiaren plano. Faustino de Basterra, 1941eko ekainean. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtsa. Sig. 6857.46.

469. EUA. 6857.46 (1940): Matsaria 8.

470. EUA. 6860.33 (1942): Otaola 5?.

471. EUA. 6884.10 (1955). Barrena 25.


472. Felipe Anitua G.A.C enpresarentzat. EUA. 6861.25 (143). Txonta 7-9. Ondorengo urteetan handitu zena: 6876.22 (1953), 6878.20 (1954), 6886.12 eta 13 (1956) eta 6889.21 (1957).




131. irudia. Lantegia «Ereña y Guisasola» enpresarentzat, Otaola kalean. Eskumako alboko fatxada eta fatxada nagusia. Cástor Uriarte, Eibarren 1942ko abuztuan. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtza. Sig. 6860.33.



132. irudia. Lantegia «Ereña y Guisasola» enpresarentzat, Otaola kalean. Eskumako alboko fatxada eta fatxada nagusia. Cástor Uriarte, Eibarren 1942ko abuztuan. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtza. Sig. 6860.33.



133. irudia. «Caderas Iris» enpresaren lantegia, Barrena kalean. Fatxaden planoak.
Ramón Martiarena, Donostia 1955eko urrian.
Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtsa. Sig. 6884.10.




134. irudia. «Caderas Iris» enpresaren lantegia, Barrena kalean. Fatxaden planoak.
Ramón Martiarena, Donostia 1955eko urrian.
Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtsa. Sig. 6884.10.

1940an Enrique Belda ingeniariak eta Castor Uriarte arkitektoak «Gaztagaña, Trocaola e Ibarzabal S.L.» enpresaren pabiloia egin zuten Barrena kalean, Azitainen, garaian ohikoa izan zen egitura bat proposatuz⁴⁷³ (135. eta 136. ird.). Enpresa bi gorputzetan ezberdintzen zen: solairu bakarreko eta luzera handiko pabiloia, eta mutur batean hiru solairuko gorputz bat, zeinean jite urbano bati jarraituz, bulegoak kokatzen ziren, eta forma alakatuak zituen enpresaren izena zuen frontoiarekin koroatuta.



135. irudia. Lantegia «Gaztagaña, Trocaola e Ibarzaba» enpresarentzat, Barrena kalean. Errepide aldeko fatxada nagusia eta zehar-sekzioa. Enrique Belda eta Cástor Uriarte, Bilbon 1941eko maiatzean. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtsa. Sig. 6856.30.




136. irudia. Lantegia «Gaztagaña, Trocaola e Ibarzabal» enpresarentzat, Barrena kalean. Errepide aldeko fatxada nagusia eta zehar-sekzioa. Enrique Belda eta Cástor Uriarte, Bilbon 1941eko maiatzean. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtsa. Sig. 6856.30.

473. EUA. 6856.30 (1940): Barrena 11.

1953an motorrak fabrikatzen zituen Lambretta enpresa fundatu zen, eta urte bereko apirilean Joaquín Domínguez Elóseguik egun Ertzaintzaren egoitza den fabrika diseinatu zuen⁴⁷⁴ (137. eta 138. ird.). Arkitektoak Belda eta Uriarteren antolaketari jarraitu zion, hau da, luzerako eta altuera baxuko gorputz bat, eta erpin batean forma alakatuak lau/bost solairu zituen beste bat: guztira 6.706,15 m²-ko eraikina. Fabrikaren sabai lauaren gainean motorrak frogatzeko pista egin zen; 1956ko abenduan berriz ere proiektatu zuen bulegoen gunea, eta altuera ezberdinetako bolumenetan artikulatu zuen, gainera, adreilu gorriarekin ezberdinduz eta azpimarratuz⁴⁷⁵.

Beste kasu batzuetan, Joaquín Domínguez Elóseguik 1955ean «Nicolas Correa S.R.C.» enpresarentzat Matsarian egin zuen bezala, txikiagoa zen bulegoetako parteak forma poligonalak zituen, altueragatik eta adreilu gorriaren erabileragatik ere ezberdintzen zena⁴⁷⁶.




137. irudia. «Lambretta» enpresaren lantegia, Otaola kalean. Ezkerreko alboko fatxada. Joaquín Domínguez Elósegui, Eibarren, 1956ko abenduan. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtsa. Sig. 6855.21.

474. EUA. 6877.01 (1953): Otaola 3.

475. EUA. 6885.21 (1956): Otaola 3.

476. EUA. 6884.04 (1955): Matsaria 27.



Lambretta

Fabricada por **Lambretta Icomociones S.A.** Ventas en España *Serveta, S.A.* comercial **Lambretta**

Apartado 137-**EIBAR** Apartado 120-**EIBAR**

138. irudia. «Lambretta» etxearen iragarkia. *Guipúzcoa en la mano.*
Anuario general de toda la provincia 1958,
 Gráficas Ellacuría, Donostia, 1958, liburuan argitaratua.

1883an arma-sektorearen inguruan sortu zen «Aurrera» enpresak (Calvo, 1997: 138), Belda eta Uriartek proposatutako antzeko egiturari jarraitu zion, pabiloi batzuek osatzen zuten azalera karratu batean. Hiria definitzen zuen Urtzaile eta Bidebarrieta kaleen arteko gurutzadura alakatuan bulegoak kokatu zituen enpresaren izenarekin batera. Lantokia, berriz, inguruko gorputz ezberdinetan eta altuera baxuagoan hedatu zen. Gipuzkoako arkitektura-gidaren arabera bulegoaren lanak José María Ruiz Azpirik egin zituen 1942an, nahiz eta dokumentazio hori topatu ez dugun. Bai, ordea, 1940 eta 1957 bitartean eta geroago ere luzatu ziren lanak. Raimundo Alberdik hasi zituenak jada existitzen zen biltegia eta urtzaileen tailerra erreformatzeko eta handitzeko⁴⁷⁷, eta Pedro Iñarraeraegui pabiloi bat gaineratuz jarraitu zituenak⁴⁷⁸.

1947an, Francisco de Luis Alonso ingeniariak Iparragirre kalean «Echeverría y Cía.» bizikletentzako kateak egiten zituen enpresaren pabiloia egin zuen⁴⁷⁹ (139. eta 140. ird.). Azalera ia karratu batean, hiru solairuko eraikina altxatu zuen, lau pisu bulegoak zeuden alakan, urte batzuk lehenago Belda eta Uriarteren eta Aurrera enpresen proposamenetako administrazio-gorputzean garatutako bokazio urbanoa berreskuratuz.


477. EUA. 6857.23 (1940), 6859.15 (1942) eta 6860.59 (1942) Urtzaile 1.

478. EUA. 6887.07 (1956) eta 6890.18 (1957). AA.AA., *Gipuzkoa. Guía de Arquitectura 1850-1960*, opus cit., 471. or.

479. EUA. 6866.27 (1947): Iparragirre 2.



139. irudia. Pabiloia «Echeverría y Cía» enpresarentzat, Iparragirre kalean. Fatxada nagusia eta eskumako alboko fatxada. Francisco de Luis Alonso, Donostian 1946ko urrian. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtsa. Sig. 6866.27.



140. irudia. Pabiloia «Echeverría y Cía» enpresarentzat, Iparragirre kalean. Fatxada nagusia eta eskumako alboko fatxada. Francisco de Luis Alonso, Donostian 1946ko urrian. Eibarko Udal Artxiboa. Udal Funtsa. Sig. 6866.27.

Garaiko arkitektura industrialak lantegia eta administrazioa ezberdintzen zituen moduan, kasu batzuetan eraikin berean artikulazio ezberdinak ahalbidetu zituen (altuera, forma eta materialetan). Beste batzuetan egitura konpaktu eta poligonal berean integratzen ziren lantokiaren elementu guztiak. Horren adibide izan daitezke 1951n Ramón Martiarenak «BH»rentzat Arragueta kalean eginiko proiektua⁴⁸⁰, egun etxeetarako moldatu dena (141. ird.), edota 1954an Manuel Urcolak «Rodamientos Sarasqueta»rentzat Otaolan egindako fabrika berria⁴⁸¹.

480. AA.AA., *Gipuzkoa. Guía de arquitectura. 1850-1960*, opus cit.,470. or.

481. EUA. 6880.13 (1954): Otaola 13.



141. irudia. Ezkerrean «BH» enpresaren lantoki berria, Urkizu pasealekuan. Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 21.031. HIF.

Alfa Eibarko gerraosteko enpresa nagusia izan zen, eta haren produkzio eta langile kopurua zela-eta, zenbait lantokik osatzen zuten. Hortaz, berezkoa zen antolaketa bat izan zuen, hiriko lantoki-kontzentrazio handiaren. 1920an armak fabrikatzeko sortu zen kooperatiba, nahiz eta sektorearen krisiak bultzatuta, 1924an josteko makinak egiten hasi zen. Gerraostean horretan jarraituko zuen⁴⁸², zehazkiago 1940an gerran fabrika kaltetuta geratu eta Estatuak konfiskatu ostean.

1928an Alfak Bista Ederreko tailerrak utzi eta Ego ibaiaren ondoan instalatu zen Augusto Agirre arkitektoak egin zuen pabiloian, San Andres kalean. Leku berean 1941 eta 1961 bitartean 18.959,12 m²-ko azalera (3.384 m² 1950ean estaltzen hasi zen Ego ibaiaren gainean⁴⁸³), enpresa garatzen jarraitu zuen, jada kontserbatzen ez diren eraikinetan.

Raimundo Alberdik 1941ean handitze-lanak hasi zituen pabiloi originalari jatorrizko estetikarekin bat zetozen hiru solairu gehituz⁴⁸⁴. Jarraian enpresak zituen beharren arabera lantokia handitzen joan zen, alde aurretik egindako proiekturik gabe, baina eraikitzen ari ziren pabiloien arteko lotura eta egitura homogeen bati jarraitzen saiatuz. Enpresaren gerenteak, Fernando Mendozak, 1944an aitortu zuen bezala: «(...) *las instalaciones (...) Nunca son bastantes. Cada año, más. Si en el*

482. Enpresaren inguruan kontsulta daiteke: Iza-Goñola, 2005.

483. EUA. 6870.48 (1950): San Andres. Apraiz eta Martínez Matía, 2008: 391.

484. EUA. 6858.71 (1941)

*anterior calculamos largamente, al siguiente nos vemos abrumados de mayores exigencias»*⁴⁸⁵ (142. ird.).



142. irudia. Lehen planoan Alfa enpresa, atzean ezkerretik eskuinera: Isasi 24-26ko etxeak eta tailerrak, «Hermanos del Sagrado Corazon de Jesús» ikastetxea eta Armeria Eskola.

Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 23.001. HIF.

Alberdik enpresaren beste pabiloi bat egin zuen fase ezberdinetan solairuak eta gorputzak gaineratuz (1943-47)⁴⁸⁶, eta horiekin batera energia gabe ez geratzeko zentral termikoa ere proiektatu zuen (1945)⁴⁸⁷. Modu honetan deskribatu zuen *ABC* egunkariak fabrika berria:

... nos sorprende la presencia del magnífico edificio levantado. Comprende toda una manzana. Recia contextura de cemento armado. Seis plantas. Naves imensas. Luz en abundancia. En el interior, las instalaciones clasificadas por secciones⁴⁸⁸.

1950ean Raimundo Alberdik eta Ramón Martiarenak sinatutako planoari jarraituz, Alfak urtze-tailerra eraiki zuen⁴⁸⁹, jarraian Martiarenak handitu zuena⁴⁹⁰,

485. "Panorama de fábrica. Las máquinas de coser, adelanto de la producción nacional", *ABC*, 1944ko urriaren 1a, 10. or.

486. EUA. 6861.69, 6861.55 (1943), 6862.26 (1944), 6863.55 (1945) eta 6866.46 (1947)

487. EUA. 6863.71 (1945).

488. "Panorama de fábrica. Las máquinas de coser, adelanto de la producción nacional", *ABC*, 1944ko urriaren 1a, 10. or.

489. EUA. 6889.09 (1950).

490. EUA. 6870.47 (1950) eta 6877.48 (1953)

beste pabiloi batzuk egitearekin batera⁴⁹¹, tartean Vicente Olave ingeniariak ere parte hartu zuelarik⁴⁹².

Alfaren administraziorako espazioaren egituraketaz, berriz, Joaquín Domínguez Elósegui arduratu zen, 1955eko abuztuan egin zuen eta 1957an bukatu zen proiektuarekin⁴⁹³. Aurreko urteetan egin ziren industria-bulegoen egiturari jarraituz, alakatua zen zazpi solairuko eraikina zen, hau da, ordura arte egin zen bulego espaziorik dentsoena. Kasu horretan, murrua gehiago irekitzen zuten leiho-gorputz jarraituak erabili ziren. Erich Mendelsohnen arrazionalismoan oinarrituta, Euskal Herriko gerraurreko arkitekturan arrakasta handiarekin erabili zen soluzioa bereganatu zuen, zeina nolabaiteko horizontaltasuna markatzearekin batera, barruko espazioaren argiztapena hobetu eta beste eraikinetatik ezberdintzeko baliagarria baitzen.

Hortaz, garai horretako industriarako arkitektura modu ezberdinetan antolatu zen, jada aipatu ditugun enpresa eta etxeetako espazioak uztartuz. Kasu guztietan Eibarren berreraikuntza eta hiriaren izaera definitu zituen arkitektura eta espazio-antolaketa bat proposatuz.

491. EUA. 6883.02 eta 6882.20 (1955).

492. EUA. 6885.01 (1956) eta 6889.01 (1957)

493. EUA. 6883.02 (1955), 6885.12 (1956) eta 6889.06 (1957).

Ondorioak

Joaquín Domínguez Elósegui eta José Antonio Pontek, Eibarren berreraikuntzaz arduratu ziren Gipuzkoako Regiones Devastadas-eko buruek, modu honetan deskribatzen zuten gerra aurreko hiria:

La disposición actual del pueblo de Eibar, situado en un valle de 150 metros de anchura, es, con toda seguridad, de las que más desfavorables condiciones presentan en toda España para la instalación de viviendas higiénicas. La escasez de terreno utilizable; la configuración topográfica, por lo que un porcentaje levado de sus calles tienen pendientes comprendidas entre 8 y el 14 por 100, y la falta de luz y aire suficiente, han producido en los últimos años un tipo de viviendas insalubres.

Estas circunstancias se han visto agravadas considerablemente por el incremento de la industria, en proporciones tales, que ha llegado a ahogar a la construcción destinada a vivienda, e incluso a desalojar a éstas de plantas bajas y pisos, que las necesidades industriales exigían para sí, mediante instalaciones de fábricas y talleres, en los que el trabajo se desarrolla, por lo común, en malas condiciones, hasta el punto de que en una proporción del 30 por 100 los obreros trabajan de día con luz artificial, influyendo esta aglomeración, naturalmente, en el estado sanitario del pueblo. Este crecimiento de la industria, por la limitación de solares, ha provocado el encarecimiento paulatino de éstos, más rentables que aquélla, obligando a las viviendas a recularse en los de poca fachada y mucho fondo, y aun a utilizar espacios de las formas más inverosímiles (Domínguez eta Ponte, 1940: 71-72).

Domínguez eta Ponteren hitzak irakurrita, Regiones Devastadas-ek aditzera eman zuen errautsen azpian ia desagertu zen hiriaren hiri-antolaketa berria aurreko urteetako akatsetatik alden du eta egituraketa egokiagoari jarraituko ziola. Eibarren txikizioak aukera asko ematen zituen, baina gerraren hondamendiak eragindako kalteak, gerraosteko krisialdiak, erakundeen kudeaketa desegokiak, inizatiba pribatuaren interesak, espazio-gabeziak eta industria eta biztanleriaren etengabeko hazkundeak egitekoa zaildu eta oztopatu zuten.

Modu horretan, Regiones Devastadas-ek, Eibarko Udalak, hainbat instituzio eta ekimen pribatuk 1937tik aurrera burutu zituzten berreraikuntza-lanak hogeituzetaz luze ziren, baina ez bukatu. Eta 1957an amaitutzat eman zirenean, lanak hasi aurreko aipatu berri ditugun deskribapenak, neurri batean, hiribildu berriarentzat egokiak ziren. Hiriko beste negozio aktibo eta nabarmen bilakatu zen berreraikuntza, nagusiki ekimen pribatuaren eskuetan geratu zen eta profesional askoren lana eskatu zuen (143. ir.).



143. irudia. Eguzkia Eibarko etheen patio batera sartzen.

Eibarko Udal Artxiboa. Hirigintza eta Obrak Argazki Funtza. Sig. 35.064. HIF.

Egia da Regiones Devastadas-ek eginiko hirigintza eta eraikuntza arautzen zituzten plana eta ordenantzekin, eta aurreikusi ziren beharrezko proiektu eta zerbitzuekin, egituraketa kontrolatu bat abian jarri nahi izan zela. Espazio gehiago irabazi eta osasungarria ez zen espazio bat saihestea helburu zuen Ego ibaiaren estaltzea izan zen proiekturik esanguratsuena, estolderia, ur-hornikuntza, argiztapena eta kale berrien egituraketarekin batera. Gainera herriaren zabalgunea eta industriarako eta aisialdirako espazio espezifikoak ere planteatu ziren, bai etxeek bai industriek jarraitu behar zituzten gutxiengo argiztapen- eta espazio-ezaugarriak azpimarratuz eta, hortaz, aurreko urteetako egoera hobetuz.

Planak Eibarrek izango zuen garrantzi industrialak aurreikusi zuen, eta industriarako espazioak (bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuz) hiri guztian baimendu zituen. Hiriaren garapena bere esku geratuko zela aurreratuz eta industriarako arkitektura mota aberatsa ahalbidetuz. Gainera, ziurrenik espazio-gabeziak bultzatuta, ordura arte herria izan zena, bokazio urbano baten arabera diseinatu zen, soilik hiriburuetan ezaguna zen dentsitate handiko eraikinak baimendu zirelarik. Betiere eraikin publiko eta esanguratsu berriak lagun (tenplu, merkatu, eskola, osasun, polizia eta mota ezberdinetako egoitza berriak). Horrekin erakunde publikoek eraikitako etxebizitza-proiektuekin batera, jarraitu beharreko arkitektura eta urbanizazio-lekuak markatu ziren.

Baina hutsuneak zituen aurreikusitako hirigintza- eta eraikuntza-plangintzak, ez zuen hiriaren benetako garapenarekin bat egin. Krisi-garaian ezinbestekoa zen

industriaren suspertzearen aurrean, instituzioek haren garapena bultzatzea, eta, gehienetan, haien espazio-nahietara moldatu ziren.

Horren ondorioa, beti defizitarioak ziren eta nahastuta eta saturatuta zeuden produkzio, etxebizitza, zerbitzu, aisialdi eta garraio elementuen kokapen eta urbanizazio ezegokiak izan ziren. Ondorioz, etxe-gabezia hiriaren arazorik larriena izan zen, jende-pilaketa eta berrekuratzeak eta, kasu batzuetan, txabolismoa ere gertatu ziren. Etxeen eraikuntza negozio garrantzitsua bilakatu zen, eskuarki, iniziatiba pribatuak instituzioen laguntzekin burututakoa. Ekimen publikokoak gutxi, geldoak eta aurreikustako inkilinoentzat izan ziren, besteak beste, 1957an udalak etxeak eraikitzeko erakundea sortzera bultzatu zuena (IMESA).

Etxe-gabeziak, Estatuaren eta etxe-jabegoaren aldeko politikekin batera, gerraostean hainbat hiritan arrunta izan zen etxeen jabego horizontala areagotu zuen. Horrekin batera, Estatuaren etxe-banaketen inguruko araudiak, bai gizarte-etxebizitzetan bai etxe libreetan, espazio higienikoak bermatu zituen, eta hala aireztapen kontrajarriak ohikoak izan ziren eta komuna derrigorrezko piezan bihurtu zen.

Alabaina, kudeaketa urbanistikoak ez ziren, garaiko, eta are gutxiago, etorkizuneko erronkei erantzun, eta berreraikuntzarekin batera garatu zen hiriaren hazkundeak ez zion garapen jasangarri bati jarraitu, ingurugiroari bizkarra emanez. Eta hala berreraikuntza-lanak hasi eta urte gutxi batzuetara, espaziorik ez zuen hiria zeharo kutsatuta zegoen.

Eibarko berreraikuntza-lanez arduratu zen *Regiones Devastadas* desagertu zen urte berean, 1957ko uztailaren 18an, Donostian argitaratutako *La Voz de España* egunkariak modu honetan aurreikusi zituen Eibarko eta Gipuzkoako probintziaren arazoak:

El problema de la vivienda y de emplazamiento de la industria, y, por ello, de vigilancia urbanística ha sido y sigue siendo grave, amenazando la provincia con perder la fisonomía de su paisaje urbano, rural y humano⁴⁹⁴.

Hortaz, Gipuzkoako udalerría ezin izan liteke Italo Calvinoren liburuetako hiri galduetako bat, Marko Polok Kublai Kan-i kontaktzen zizkion hiri irreal horietako bat (Calvino, Italo, 2003: 73). Halere, Kublai Kan-ek bazekien hiri horiek ez zirela sekulan existitu, benetako hiriak ez zirela fabuletakoak bezalakoak, bai ordea, agian fikzio literarioan sekulan existitu ez ziren Eibar modukoak, agian literaturakoak izateko errealegiak.

494. *La Voz de España*, 1957ko uztailaren 18a, cfr. Arrieta eta Barandiaran, 2003: 94.

Iturriak eta bibliografia

1. ARTXIBOAK

Administrazioaren Artxibo Nagusia. Alcala de Henares.

Bizkaiko Foru Artxiboa. Bilbao.

Eibarko Udal Artxiboa. Eibar.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Herri Adminitrazioaren Artxibo Nagusia. Gasteiz.

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Artxiboa. Bilbao.

Gipuzkoako Artxibo Nagusia. Tolosa.

2. BIBLIOTEKAK

ABC egunkariaren hemeroteka: <http://hemeroteca.abc.es/>

Biblioteca Col·legi Oficial d'Arquitectes de Catalunya. Bartzelona.

Biblioteca Colegio Oficial de Arquitectos de Madrid. Madril.

Biblioteca Nacional de Catalunya. Bartzelona.

Biblioteca Nacional de España. Madril.

Bidebarrietako Udal Liburutegia. Bilbao.

Bizkaiko Foru Liburutegia. Bilbao.

Boletín Oficial del Estado. Colección histórica (Gazeta):
http://www.boe.es/aeboe/consultas/bases_datos/gazeta.php

Deustuko Unibertsitateko Liburutegia. Bilbao.

Donostiako Udal Liburutegia. Donostia.

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Liburutegia. Bizkaiko Ordezkaritza. Bilbao.

Euskal Herriko Unibertsitatearen Liburutegiak.

Koldo Mitxelena Kuturunea. Biblioteka. Donostia.

Sancho el Sabio Fundazioa. Gasteiz.

3. ARGITALPENAK

Egunkariak

ABC.

El Correo Español-El Pueblo Vasco.

El Diario Vasco.

La Gaceta del Norte.

La Vanguardia.

La Voz de España.

Aldizkariak

Boletín de la Dirección General de Arquitectura.

Boletín de Información de la Dirección General de Arquitectura.

Boletín de la Propiedad Urbana.

Boletín del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro.

Boletín Oficial de la Diócesis de Vitoria.

Cortijos y Rascacielos.

Cuadernos de Arquitectura.

Escorial.

Estilo.

Fondo y Forma.

Hogar y Arquitectura.

Obras.

Reconstrucción.

Revista Crítica de Derecho Inmobiliario.

Revista de Derecho Privado.

Revista de Estudios Políticos.

Revista General de Legislación y Jurisprudencia.

Revista Nacional de Arquitectura.

Vértice.

4. ITURRIAK

- AA.AA. (1939): *Texto de las sesiones celebradas en el Teatro Español de Madrid por la Asamblea Nacional de Arquitectos los días 26, 27, 28 y 29 de junio de 1939*, Servicios Técnicos de F.E.T. y de las J.O.N.S. Sección de Arquitectura, Madril.
- Almagro San Martín, M. (1943): “¿Qué estilo arquitectónico se adapta mejor al carácter de Madrid?”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **15**, 1943ko martxoa, 105-156.
- Álvarez de Miranda, A. (1945): “Arte y política”, *Revista de Estudios Políticos*, **24**, 1-43.
- Apraiz, M. (1944): “Las obras de reconstrucción de Eibar”, *Reconstrucción*, **42**, 1944ko apirila, 159-166.
- Arrese, J. L. de (1966): *Treinta años de política*, Editora Nacional, Madril.
- Ayuntamiento de Eibar (1950): *Ayuntamiento de Eibar. Provincia de Guipúzcoa. Ordenanzas para la edificación. Año de 1950*, Gráficas Eguren, Eibar.
- Ballio, V. (1942): “Las realizaciones del fascismo en el campo de la arquitectura. La nueva plaza de Augusto emperador en Roma”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **8**, 7-13.
- Battle Vázquez, M. (1942): “La reforma del artículo 396 del Código Civil por la Ley de 26 de octubre de 1939”, *Revista General de Legislación y Jurisprudencia*, **13**, 1942ko martxoa, 243-267.
- Bidagor, P. (1939): “Plan de ciudades”, *Texto de las sesiones celebradas en el Teatro Español de Madrid por la Asamblea Nacional de Arquitectos los días 26, 27, 28 y 29 de junio de 1939*, Servicios Técnicos de FET y de las JONS Sección de Arquitectura, Madril, 57.
- , (1941): “Reformas urbanas de carácter público en Berlín”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **5**, 2-25.
- , (1944): “Tendencias contemporáneas de la arquitectura española”, *Fondo y Forma*, **1**, 1944ko otsaila, 8-12.
- Bonatz, P. (1943a): “Tradición y modernidad”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **23**, 1943ko azaroa, 390-397.
- , (1943b): “Sobre la construcción de puentes”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **23**, 1943ko azaroa, 398-400.
- Borobio, R. (1941): “Proyecto de Plaza de Nuestra Señora del Pilar, en Zaragoza”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **1**, 39-46.
- Cámara Niño, A. (1940): “Notas para el estudio de una arquitectura rural en España”, *Reconstrucción*, **6**, 1940, 12.
- Camón Aznar, J. (1947): “Un posible estilo nacional de arquitectura”, *Cortijos y Rascacielos*, **44**, 1947ko azaroa eta abendua, 1-3.
- Camuñas, A. (1943a): “El ladrillo, materia de construcción”, *Reconstrucción*, **33**, 177-190.

- , (1943b): “Autarquía de los materiales de construcción,” *Reconstrucción*, **42**, 150.
- Cárdenas Rodríguez, G. (1940a): *Datos para la reconstrucción del pueblo adoptado de Guernica*, Dirección General de Regiones Devastadas y Reparaciones, Madril.
- , (1940b): “Estudio de un pueblo adoptado. Guernica”, *Reconstrucción*, **1**, 1940eko apirila, 22-27.
- , (1941a). “Arquitectura popular española”, *Reconstrucción*, **8**, 25-31.
- , (1941b): “La reconstrucción nacional vista desde la Dirección General de Regiones Devastadas”, *Segunda Asamblea Nacional de Arquitectura*, Ediciones DGA, Madril, 145-155.
- Castán Tobeñas, J. eta Calvillo Martínez de Araza, J. (1956): *Tratado práctico de arrendamientos urbanos*, Instituto Editorial Reus, Madril.
- Castillón, V. (1944): “Legislación y jurisprudencia. Propiedad horizontal”, *Boletín de la Propiedad Urbana*, 1944ko martxoa, 6.
- Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro (1949): *Estudio sobre la vivienda económica en España. Dedicado especialmente a las provincias vascongadas*, Artes Gráficas Lerchundi, Bilbao.
- Comas, J. (1946): *Antología de El Escorial*, Madril.
- Condomines Valls, F. de A., *Arrendamiento de inmuebles urbanos*, Editorial Revista de Derecho Privado, Madril, urte barik.
- Cooperativa de viviendas Cristo Obrero. Eibar*, Imprenta Sindical de Guipúzcoa, Donostia.
- Congreso Eucarístico. Eibar. Mayo de 1945*, Gráfico-Editora, SL, Donostia.
- Construye tu casa. Obra Sindical del Hogar y de Arquitectura*, Rivadeneyra, Madril, 1945.
- Cort, C. (1940a): “Discurso del señor Cort”, *I Congreso de la Federación de Urbanismo y de la Vivienda*, Tip. Yagües, Madril, I. liburukia, 45-46.
- , (1940b): “Consideraciones sobre el problema de la vivienda y propuestas para su solución”, *I Congreso de la Federación de Urbanismo y de la Vivienda*, Tip. Yagües, Madril, II. liburukia.
- , (1941): *Campos urbanizados y ciudades rurizadas*, Federación de Urbanismo y Vivienda de la Hispanidad, Madril.
- Chueca, F. (1981 [1947]): *Invariantes castizos de la arquitectura española*, Dossat, Madril.
- Delegación Nacional de Sindicatos de las FET y de las JONS (1944)*, Delegación Nacional de Sindicatos, Madril, 1944(?).
- Domínguez Elósegui, J. eta Ponte, J. A. (1940): “Estudio de un pueblo adoptado. Eibar”, *Reconstrucción*, **6**, 1940ko azaroa, 20.
- Domínguez, J. eta Ortigosa, F. (1947): “Nuevo mercado en Eibar, Guipúzcoa”, *Reconstrucción*, **71**, 1947ko martxoa, 101-106.

- Edificios sanitarios para el Seguro de Enfermedad. Exposición y concurso de anteproyectos para el plan nacional de instalaciones sanitarias*, Gráficas Voluntas, Madril, 1947.
- Eibar.1945*, Gráficas Eguren, Eibar, 1945.
- Eibar 1947*, Gráficas Eguren, Eibar, 1947.
- Echevarria, T. (1990 [1968]): *Viaje por el país de los recuerdos*, Eibarko Udala, Donostiako Aurrezki Kutxa, Donostia.
- Echevarria, T. (1992 [1941]): *Recordando la Guerra. Diario de un viaje de un refugiado español*, J.A. Ascunde, Donostia.
- Estatutos de la Institución Viviendas del Excmo. Ayuntamiento de Bilbao*, Escuelas Gráficas de la Santa Casa de Misericordia, Bilbao, 1941.
- Ferrano Roig, J. (1942): *Dos años de arte religioso*, Amaltea, Bartzelona.
- Falange Española Tradicionalista de las JONS. Jefatura Provincial de Guipúzcoa. Catálogo General Informativo de las Obras y Mejoras llevadas a cabo esta provincia desde 1940 a 1949*, Escelicer SL, Donostia, 1950.
- Falange Española Tradicionalista y de las JONS. Jefatura Provincial de Guipúzcoa. Veinte años de paz en el moviminto nacional bajo el mandato de Franco. Provincia de Guipúzcoa*, Imp. V. Echeverria, Donostia, 1959.
- Fisac, M. (1950): "Orientaciones y desorientaciones de la arquitectura religiosa actual", *Boletín de Información de la Dirección General de Arquitectura*, **13**, 1950eko urtarrila, 11.
- , (1951): "Viviendas en Cascada", *Revista Nacional de Arquitectura*, **109**, 1951ko urtarrila, 1-9.
- Fonseca, J. (1943): "Arquitectura y construcción. Alquileres intervenidos", *Boletín de la Propiedad Urbana*, **2**, 1943ko martxoa, 21-23.
- , (1955): *La vivienda en la economía nacional. Discurso de apertura del años académico 1955-56. Pronunciado el día 6 de octubre de 1955*, Instituto Social León XIII, Madril.
- Garay, E. de (1947): *Los hospitales en los Estados unidos. Notas de un viaje de estudios*, INP, Madril.
- García Viñolas, M. (1943): "Sobre la creación de los estilos arquitectónicos", *Revista Nacional de Arquitectura*, **18-19**, 1943ko ekaina eta uztaila, 243.
- Giménez Caballero, E. (1933): *La Nueva Catolicidad. Teoría general sobre el fascismo en Europa, en España*, Ediciones de La Gaceta Literaria, Madril.
- , (1935): *Arte y Estado*, Gráficas Universal, Madril.
- , (1939 [1932]): *Genio de España*, Jerarquía, Madril.
- , (1939): *Roma Madre*, Jerarquía, Madril.
- , (2005): *Casticismo, nacionalismo y vanguardia. Antología 1927-1935*, Fundación Santander Central Hispano, Madril.
- Giralt Casadesús, R. eta Maynés Gaspar, C. (1950): *Estudio sobre la vivienda económica en España*, Cuerpo de Arquitectos Municipales de España, Bartzelona.

- Gómez Aparicio, P. (1940): “El símbolo de los Belchites”, *Reconstrucción*, **1**, 1940ko apirila, 9.
- Goayar y Ayllón, T. (1947): “Exposición sistemática de una nueva ley de inquilinato”, *Revista General de Legislación y Jurisprudencia*, **5**, 1947ko maiatza, 597-636.
- Guidi, G. (1943): “Sección Extranjera. La barriada satélite de Primavalle. Roma”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **21-22**, 1943ko iraila-urria, 343-348.
- Guipúzcoa en la mano. Anuario general de toda la provincia. 1941*, Imprenta Arrieta, Donostia, 1941.
- Guipúzcoa en la mano. Anuario General de toda la provincia. 1950*, Artes Gráficas Martín y Ma, Donostia, 1950.
- Guipúzcoa en la mano. Anuario General de toda la provincia. 1954*, Talleres de Escelier, Donostia, 1954.
- Guipúzcoa en la mano. Anuario general de toda la provincia. 1958*, Gráficas Ellacuría, Donostia, 1958.
- Guipúzcoa, Vizcaya y Álava en la mano*, Gráfico Editorial. Editorial Icharopena, Donostia, 1947.
- Indalecio Prieto. Toribio Echevarría. Espitolario 1941-1946*, Eibarko Udala. Ego Ibarra, Donostia, 1991.
- Informe de la situación de las provincias vascongadas bajo el dominio rojo-separatista*, Universidad de Valladolid, Valladolid, 1938.
- Instituto de Crédito para la Reconstrucción Nacional. Memoria de la gestión realizada desde 1 de julio de 1939 a 31 de diciembre de 1946*, Industrias Gráficas Magerit, Madril, 1947.
- Íñiguez, F. (1948): “Juan de Herrera. Arquitecto, matemático y filósofo”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **81**, 1948ko iraila, 221-336.
- Iturmendi Bañales, A. (1940): *El régimen municipal en los pueblos adoptados*, Dirección General de Regiones Devastadas y Reparaciones, Madril.
- Larrena, J. G. de eta Ondarra, P. R. (1954): “La inundación del 14 de octubre de 1953 en Guipúzcoa”, *Estudios Geográficos*, **54**, 1954ko otsaila, 59-97 [separata].
- Lasso de la Vega Zamora, M. (2000): “Algunas notas sobre la participación de la Obra Sindical del Hogar de Madrid en la política de vivienda durante el período 1939-1959”, *Los años 50: la arquitectura española y su compromiso de la historia*, T6 ediciones, Iruñea, 153.
- Legislación complementaria de la ley de 19 de abril de 1939 de viviendas protegidas y de su reglamento de 13 de septiembre, normas y ordenanzas de construcción*, Instituto Nacional de la Vivienda, Madril, 1940.
- Lindscheidt, F. (1942): “Epílogo a la exposición ‘Nueva Arquitectura Alemana’”, *Reconstrucción*, **26**, 337-342.
- López Otero, M. (1943): “La Nueva Escuela de Arquitectura en la Ciudad Universitaria”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **20**, 1943ko abuztua, 296-300.

- López Serrano, M. (1944): *Biblioteca del Palacio: catálogo de dibujos*, Imp. Blas, Madril.
- Lotz, W. (1943): “La arquitectura en la nueva Alemania”, *Obras*, **51**, 1943ko martxoa, 7-12.
- Lucini, F. eta Nadal, J. (1952): *Viviendas económicas. Una aportación técnica al problema*, Instituto Técnico de la Construcción y del Cemento, Madril.
- Martín Arbues, A. eta Roca Cabanellas, J. (1958): “El derecho a la vivienda”, *Hogar y Arquitectura*, **18**, 49-75.
- Martínez, M. (1950): “Regiones Devastadas y el mejoramiento sanitario de Eibar”, *Reconstrucción*, **97**, 1950ko urtarrila, 1-10.
- Martínez Sostre, M. (1954): *Geografía sanitaria de Eibar*, Talleres Tipográficos Editorial Icharopena, Zarautz.
- Mayo, F. (1941): “El Instituto Nacional de la Vivienda”, *Reconstrucción*, **1**, 31-32.
- Mayo Gayarre, F. eta Martín Artajo, J. (1947): *Viviendas protegidas*, Instituto Nacional de la Vivienda, Madril.
- Mélida, J. R. (1940): *Escorial: cuarenta y ocho ilustraciones*, H. de J. Thomas, Bartzelona.
- Memoria de las aportaciones para la construcción hechas por la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de la Ciudad de Vitoria*, Caja de Ahorros y Monte de Piedad de la Ciudad de Vitoria, Gasteiz, 1953.
- Memoria que eleva al Caudillo y su gobierno el Instituto Nacional de la Vivienda. 1943*, Instituto Nacional de la Vivienda, Madril, 1943.
- Miguel, C. de (1942): “Poblado de pescadores. Maliaño”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **12**, 8-11.
- Ministerio de la Gobernación (1941): *Junta Nacional de Reconstrucción de Templos Parroquiales*, Publicaciones de la Dirección General de Regiones Devastadas y Reparaciones, Madril.
- Morales y Fraile (1939): “Italia. País Hermano. La exposición universal en Roma”, *Vértice*, 1939ko urtarrila, zenbatu gabe.
- Moreno Torres, J. (1941a): “Conferencia del director general de Regiones Devastadas, José Moreno Torres pronunciada pronunciada en el Instituto Técnico de la Construcción en el mes de enero del presente año”, *Reconstrucción*, **12**, 1941eko maiatza.
- , (1941b): “La exposición de Regiones Devastadas en Zaragoza. Discurso del señor Moreno Torres”, *Reconstrucción*, **16**, 1941eko urria.
- , (1944): “La reconstrucción urbana en España”, *II Congreso de la Federación de Urbanismo y de la Vivienda*, Federación de Urbanismo y de la Vivienda, Madril, 345-346.
- , (1946): *El Estado en la reconstrucción de las ciudades y pueblos españoles*, Instituto de Estudios de la Administración Local, Madril.
- , (1948): *La reconstrucción urbana en España*, Madril.

- Moya Blanco, L. (1944): “La ideas de la arquitectura actual”, *Fondo y Forma*, **1**, 1944ko otsaila, 17-22.
- Mugica, G. (1984 [1910]): *Monografía histórica de la Villa de Eibar*, Eibarko Udala, Eibar.
- Muguruza Otaño, P. (1939): “Ideas generales sobre Ordenación y Reconstrucción Nacional”, *Texto de las sesiones celebradas en el Teatro Español de Madrid por la Asamblea Nacional de Arquitectos los días 26, 27, 28 y 29 de junio de 1939*, Servicios Técnicos de FET y de las JONS Sección de Arquitectura, Madril, 5-6.
- , (1940): *Arquitectura popular española*, Imp. A.G. Faure, Madril.
- , (1942a): “Poblado residencia de pescadores. Fuenterrabía”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **11-12**, 4-7.
- , (1942b): “Ampliación del Ministerio de Asuntos Exteriores”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **11-12**, 44-47.
- , (1943): *Estudios para un plan de mejoramiento de las viviendas humildes*, Publicaciones del Instituto de Estudios de la Administración Local, Madril.
- , (1945): *La arquitectura en España*, Ministerio de Trabajo. Escuela Social de Madrid, Madril.
- Muguruza Otaño, P; Oyarzábal, F. J. eta Muñoz Salvador, A. (1942): “Monumento nacional a los caídos”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **11-12**, 55-63.
- Navas, E. (1957): *Gestión del Ayuntamiento de Irun. Índices de los acuerdos adoptados en el periodo de 1926 a 1930*, Gráficas Learla, Irun.
- Ordenanzas municipales para la edificación en la N. y L. Villa de Eibar*, Gráficas Eguren, Eibar, 1943.
- Ordenanzas para la edificación en la ciudad de Eibar. 1933*, Tipografía Saturnino de Diego, Eibar, 1933.
- Ors, E. d’ (1944): *Teoría de los estilos y espejo de la arquitectura*, Aguilar, Madril.
- Ors, V. d’ (1937): “Hacia la reconstrucción de las ciudades de España”, *Vértice*, 1937ko ekaina, zenbatu gabe.
- , (1941): “Sobre el Plan de Urbanización de Salamanca”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **1**, 51-65.
- Palacios, A. (1945): “Ante una moderna arquitectura”, *Revista Nacional de Arquitectura*, **9**, 405-415.
- Palanca y Martínez-Fortún, J. A. (1940): *Aspectos sanitarios en la reconstrucción de España*, Dirección General de Regiones Devastadas, Madril.
- , (1943): *Las epidemias de la posguerra. Discurso leído en la solemne sesión celebrada el día 28 de marzo de 1943 en la Real Academia de Medicina*, Real Academia de Medicina, Madril.
- Peña Boeuf, A. (1940): *Problemas técnicos que plantea la reconstrucción en España*, Instituto Técnico de la Construcción y edificación, Madril.

- Piacentini, M. (1942): "Visión de la Roma Futura", *Revista Nacional de Arquitectura*, **8**, 1-6.
- Pineda, A. (1940): "Estudio de un pueblo adoptado. Villanueva de la Barca", *Reconstrucción*, **5**, 1940ko urria, 8-15.
- Portabales Pichel, A. (1945): *Los verdaderos artífices de El Escorial y un estilo indebidamente llamado herreriano*, Madril.
- Presidencia del Gobierno. Secretaría General para la Ordenación económico-social. Programa de necesidades de la Provincia de Guipúzcoa. Extracto de los estudios provinciales de ordenación económico-social, Veritas, Madril, 1950.
- Programa para necesidades. Ambulatorios y residencias clínicas, INP, Madril, 1946.
- Proyecto de la reconstrucción de la ciudad de Irún, Talleres Offset, Donostia, 1939.
- Reglamento para la ejecución de la Ley de 19 de abril de 1939 de viviendas protegidas y normas y ordenanzas oficiales para su construcción, Instituto Nacional de la Vivienda, Madril, 1939.
- Reina, D. de (1944): *Ensayo sobre las directrices arquitectónicas de un estilo Imperial*, Ediciones Verdad, Madril, 122 [azpimarraketa gurea da].
- Robles Fonseca, J. (1943a): "Arrendamientos urbanos", *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*, **176**, 1943ko urtarrila, 11-18.
- , (1943b): "Arrendamientos urbanos", *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*, **177**, 1943ko otsaila, 102-113.
- Ruiz de Arcaute, A. (1936): *Juan de Herrera, arquitecto de Felipe II*, Espasa-Calpé, Madril.
- Sáenz de Oíza, F. J. (2006): *Escritos y conversaciones*, Fundación Caja de Arquitectos, Bartzelona.
- Sainz de los Terreros, J. (1944): "Trabajos ejecutados por los alumnos de primer años de la Escuela Superior de Arquitectura de Madrid, en la clase de 'Dibujo de conjuntos y detalles arquitectónicos'. Curso de 1942-43", *Revista Nacional de Arquitectura*, **29**, 1944ko maiatza, 197-200.
- Santa María del Villar, Marqués de (1943): "Guernica y su nueva casa consistorial", *Reconstrucción*, **29**, 1943ko urtarrila, 1-6.
- Saracho, L. (1948): "La plaza mayor de Amorebieta", *Reconstrucción*, **82**, 1948ko apirila, 135-138.
- Sarasketa, P. (2000 [1909]): *Eibar. Monografía descriptiva de esta noble y leal Villa*, Eibarko Udala, Ego Ibarra, Eibar.
- Serrano Plaja, A. (1944): *El libro de El Escorial*, Poseidón, Buenos Aires.
- Sierra, B. (1940a): "Discurso del Excmo. Sr. D. Blas Sierra, Fiscal Superior de la Vivienda", *I Congreso de la Federación de Urbanismo y de la Vivienda*, Tip. Yagües, Madril, I. liburukia, 107-113.
- , (1940b): "La vivienda", *I Congreso de la Federación de Urbanismo y de la Vivienda*, Tip. Yagües, Madril, II. liburukia, 181.
- Speer, A. (2002 [1969]): *Memorias*, El Acantilado, Bartzelona.

- Taulet, E. (1940): “La propiedad de casas por pisos, y la ley de 26 de octubre de 1939. Doctrina, comentarios y crítica”, *Revista de Derecho Privado*, **280**, 1940ko maiatza, 109-115.
- Ubierna, J. A. (1945): *El problema de la vivienda en su aspecto legal*, Imprenta Fernando Franco, Madril.
- Una casa para ti. Obra Sindical del Hogar*, Talleres Tipográficos de Sucesores de Rivadeneyra, Madril, 1946.
- Viviendas Protegidas. Obra Sindical del Hogar y Arquitectura*, Langa y Compañía, Madril, 1946.

5. BIBLIOGRAFIA

- AA.AA. (1987): *Arquitectura en Regiones Devastadas*, Ministerio de Obras Públicas y Transportes, Madril.
- AA.AA. (2007a): *Arquitecturas desplazadas. Arquitecturas del exilio español*, Ministerio de la Vivienda, Madril.
- AA.AA. (2007b): *Francisco de Asís Cabrero*, Fundación COAM, Madril.
- AA.AA. (2004): *Gipuzkoa. Guía de Arquitectura. 1850-1960*, Nerea. Gipuzkoako Foru Aldundia, EHAE0, Donostia.
- Aguirre Sorondo, A. (1996): *Las ermitas de Eibar*, Eibarko Udala. Egoibarra, Eibar.
- Almarcha Núñez-Herrador, M. E. (1997): *Arquitectura y urbanismo rural durante el período de la autarquía en Castilla-la Mancha: Dirección General de Regiones Devastadas y Reparaciones e Instituto Nacional de Colonización*, doktore-tesia, Ediciones de la Universidad de Castilla-la Mancha, Cuenca.
- Álvarez Bermejo, E. (1961): *Viviendas amparadas por el Estado*, Imprenta nacional del Boletín Oficial del Estado, Madril.
- Apraiz Sahagun, A. eta Martínez Matia, A. (2008): *Arquitectura industrial en Gipuzkoa*, Gipuzkoako Artxibo Nagusia, Tolosa.
- Areta, N. (2003): *Eibarko efemerideak. Kronika historikua: 1936arte*, Ego Ibarra, Eibar.
- Arrieta, L. eta Barandiaran, M. (2003): *Diputación y modernización: Gipuzkoa 1940-1975*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Arsuaga, M. eta Sese, L. (1996): *Donostia-San Sebastián. Guía de Arquitectura*, EHAE0, Gipuzkoako Ordezkaritza, Donostia.
- Balldellou, M. A. (1995): “Desarraigo y encuentro. Las arquitecturas del exilio”, *Arquitectura*, **303**, 16.
- Baron, J. L. eta Bernabeu-Mestre, J. (2008): *La salud y el Estado. El movimiento sanitario internacional y la administración española (1851-1945)*, Universitat de Valencia, Valentzia.
- Barrena, E. (1999): “La fundación de la villa de Eibar: llegando a Villanueva, desde el Monasterio de San Andrés de Eibar y las ferrerías del Ego, en el valle de Markina”, *Eibar 1346-1996. Ekarpén historikoak*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 17-37.

- Batlle Vázquez, M. (1967): *La propiedad de casas por pisos*, Editorial Marfil, Alcoy.
- Bengoa, J. M. (2002): *Las Agustinas Recoletas de Eibar y su Convento (1603-1940)*, Editorial Augustinus, Madrid.
- Bergera, I. (2005): *Rafael Aburto, arquitecto. La otra modernidad*, Fundación Caja de Arquitectos, Bartzelona.
- Bigeriego de Juan, R. (1963): *La vivienda como posible vía de generación de ahorro adicional en el sector económico*, Ministerio de la Vivienda, Madrid.
- Blanco Lage, M. (1984): “La gran reconstrucción”, *MOPU*, 1984ko maiatza, 66-71.
- , (1985): “La arquitectura en Regiones Devastadas”, *A & V*, **3**, 38-41.
- , (1986): *Influencias formales en la configuración de la arquitectura española de posguerra: la Dirección General de Regiones Devastadas*, doktoresia, Escuela Técnica Superior de Arquitectura. Universidad Politécnica de Madrid, Madrid.
- Bonet Correa, A. (1981): *Arte del franquismo*, Cátedra, Madrid.
- Cabrera García, M. I. (1998): *Tradición y vanguardia en el pensamiento político español (1939-1959)*, Universidad de Granada, Granada.
- Cabrero Morales, J. L. (1987): *Elgezua Karlos Eskultorea Carlos Elgezua*, Aurrezki-kutxa Munizipala, Donostia.
- Calvino, I. (2003): *Las ciudades invisibles*, Siruela, Madrid.
- Calvo, J. L. (1997): *La industria armera nacional 1830-1940. Fábricas, privilegios, patentes y marcas*, Ego Ibarra, Eibar.
- Carrasco García, M. (2004): *Arquitectura y urbanismo en la ciudad de Soria. 1876-1936*, Diputación Provincial de Soria, Soria.
- Carreas, A. eta Tafunell, X. (ed.) (2005): *Estadísticas históricas de España. Siglos XIX-XX*, Fundación BBVA, Madrid.
- Celaya Olabarri, P. (1970): *Eibar. Síntesis de monografía histórica*, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, Donostia.
- Cio, J. M. de (1963): *Plan provincial de urbanismo de Guipúzcoa, 1962. Análisis urbanístico*, INE. Artes Gráficas, Madrid.
- Cirici Pellicer, A. (1977): *La estética del franquismo*, Gustavo Gili, Bartzelona.
- Cotorruelo, A. (1960): *La política económica de la vivienda España*, CSIC, Madrid.
- Culot, M. eta Mesuret, G. (1998): *Hendaye, Irún, Fontarabie. Villes de la frontière*, Norma Éditions, Paris.
- Delgado Orusco, E. (2006): *Entre el suelo y el cielo. Arte y arquitectura sacra en España, 1939-1975*, Fundación Institución Educativa SEK, Madrid.
- Díaz Langa, J. (1977): “Depuración político social de arquitectos”, *Arquitectura*, **204-205**, 43-49.
- Díaz Sánchez, J. eta Llorente Hernández, A. (2004): *La crítica de arte en España (1939-1976)*, Istmo, Madrid.
- Die Spanisch gewerkschaft und das problem des sozial wohnungsbaues*, Organización Sindical. Obra Sindical del Hogar, Madrid, 1963.

- Elorza Maiztegi, J. (2000): *Eibar: orígenes y evolución (siglos XIV al XVI)*, Eibarko Udala. Ego Ibarra, Eibar.
- Etxaniz Ortuñez, J. A. eta Palacio Sánchez, V. del (2003): “Presos políticos: mano de obra barata. El Hospital Penitenciario y el Batallón de Trabajadores durante la reconstrucción de Gernika-Lumo (1938-1945)”, *Congreso. Los campos de concentración y el mundo penitenciario en España durante la Guerra Civil y el franquismo*, Museu d’Historia de Catalunya. Crítica, Bartzelona, 202-217.
- VII Exposición de Artistas Eibarreses. Homenaje al escultor Carlos Elguezua*, Caja de Ahorros Municipal, Donostia, 1973 (erakusketaren liburuxka).
- Fernández Fernández, J. M. (1976): *Realizaciones de la Obra Sindical de Hogar en Construcción Industrializada*, Gabinete Técnico del Sindicato Nacional de la Construcción, Madril.
- Fernández Martín-Granizo, M. (1962): *La Ley de Propiedad Horizontal en el Derecho Español*, Editorial Revista de Derecho Privado, Madril.
- Forcadell Álvarez, C. eta Sabio Alcutén, A. (ed.) (2008): *Paisajes para después de una guerra. El Aragón devastado y la reconstrucción bajo el franquismo (1936-1957)*, Instituto Fernando el Católico, Zaragoza.
- Futes Lojo, J. V. (1973 [1965]): *Suma de arrendamientos urbanos*, Librería Bosch, Bartzelona.
- , (1990): *Suma de la propiedad por apartamentos*, José María Bosch Editor, Bartzelona.
- García Manrique, E. (1961): *Eibar. Inmigración y desarrollo urbano e industrial*, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Zaragoza.
- García Nieto, J. M. (1988): “Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro. Noticias colegiales. Informe sobre la posición del Colegio en relación al cine Coliseo de Eibar”, *Composición Arquitectónica*, **1**, 1988ko otsaila, 1-4.
- García Odiaga, I. (2007): *Florencio Mocoero Gastesi*, EHAE0, Gipuzkoako Ordezkaritza, Donostia.
- Gómez Jiménez, M. L. (2006): *La intervención administrativa de la vivienda en España 1938-2005*, Montecorvo, Madril.
- Goñi Ruesgas, J. B. (1976): *Trabajo, empresa y vivienda*, Seminario de Estudios Sociales Marqués de Narros, Donostia.
- Gutiérrez Arosa, J. (2001): *La insurrección de octubre del 34 y la II República Eibar*, Eibarko Udala. Ego Ibarra, Eibar.
- , (2007): *La Guerra Civil en Eibar y Elgeta*, Eibarko Udala. Elgetako Udala. Ego Ibarra, Eibar. Elgeta.
- Gil, P. (1999): *El templo del siglo XX*, Ediciones del Serbal, Bartzelona.
- Illescas, S. (2008): *Sixte Illescas. Arquitecte (1903-1986). De l’avantguarda a l’oblit*, COAC, Bartzelona.
- Iparragirre Burgoa, G. (2008): *Debarroko oasi liberala*, UEU, Bilbo.
- Iza-Goñola de Miguel, F. J. (2005): *ALFA, S.A. Motor social y económico de la vida eibarresa*, Eibarko Udala. Ego Ibarra, Eibar.

- I Jornadas de sanemamiento de Guipúzcoa 1964*, Talleres Gráficos Sánchez Román, Donostia, 1965.
- Llanos, E. (1988): “La Dirección General de Regiones Devastadas. Su organización administrativa”, *Arquitectura en Regiones Devastadas*, MOPU, Madril.
- Llorente, A. (1995): *Arte e ideología en el franquismo (1936-1951)*, Visor, Madril.
- López Gómez, J. M. (1989): “Arquitectura de Regiones Devastadas en Aragón”, *Actas del VI coloquio de Arte Aragonés*, Unviersidad de Zaragoza, Zaragoza, 27-44.
- , (1995): *Un modelo de arquitectura y urbanismo franquista en Aragón: la Dirección General de Regiones Devastadas. 1939-1957*, Gobierno de Aragón, Zaragoza.
- Marín Muñoz, A. (2007): *La reconstrucción de la provincia de Jaén bajo el franquismo (1939-1957): la Dirección General de Regiones Devastadas*, Marín Muñoz, Lopera.
- Martínez de Moretín de Goñi, L. (1996): *Aguinaga de Eibar. Historia de la Parroquia*, Editorial Centro Unesco, Donostia.
- Martínez Ruiz, J. (1981): *La escultura de Guipúzcoa: breve introducción histórica*, Aurrezki-kutxa Munizipala, Donostia.
- Más Serra, E. *et al.* (1990): *50 años de arquitectura en Euskadi*, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz.
- Mortes Alfonso, V. (1970): *Una política para los años 70*, Ministerio de la Vivienda, Madril.
- Muñoz Fernández, F. J. (2006a): “Reconstrucción y vivienda en el País Vasco de posguerra (1937-1950)”, *Ondare*, **25**, 33-76.
- , (2006b) “Ruinas y grietas en la arquitectura vasca de posguerra. La Dirección General de Regiones Devastadas y Reparaciones en el País Vasco”, *La multiculturalidad en las artes y la arquitectura*, Gobierno de Canarias. Anroart Ediciones, Las Palmas Kanaria Handikoa, 823-830.
- , (2007): “La arquitectura muda. Bilbao durante los años de guerra y posguerra (1936-1944)”, *Bidebarrieta*, **18**, 361-397.
- , (2008): “Tiempo de silencio para la arquitectura. La destrucción y reconstrucción de Guernica”, *Congreso Internacional la Guerra Civil Española*, SECC, Madril [CD liburua].
- , (2009a): “AC/ GATEPAC. Iparraldeko Taldea. Arkitektura berri baten hasiera gerraurreko Euskal Herrian”, *Ondare*, **27**, 237-276.
- , (2009b): “Construir en el País Vasco de posguerra”, *Actas del VII Congreso Nacional de Historia de la Construcción*, Instituto Juan de Herrera, Madril, II. liburukia, 967-978.
- Mur Pastor, P. (1979): *La actuación de la Dirección General de Regiones Devastadas en el País Vasco: el nuevo urbanismo*, lizentziaturako memoria, Facultad de Geografía e Historia. Universidad Complutense de Madrid, Madril.
- , (1987): “La reconstrucción de Guernica”, *Arbola*, **8**, 12-17.

- Narbaiza Azkue, A. (2006): *Eibarko Agirre medikuak. Hiru mende medikuntzan (1860-2006)*, Eibarko Udala. Ego Ibarra, Eibar.
- Noain, E. (1986): “El incendio y proyecto de reconstrucción de la ciudad de Irún”, *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria*, **3**, 251-292.
- La obra de Luis Gutiérrez Soto*, COAM, Madril, 1978.
- Omaetxebarria, I. (2002): *Los Franciscanos en Euskal Herria*, Franciscalia Vasconia, Oñati.
- Ostoloz Esnal, M. (1996): *El garrote de la depuración: maestros vascos en la guerra civil y el primer franquismo (1936-1945)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia.
- Palacio Díaz, D. (2004): *Alvaro Libano*, EHAEO. Bizkaiko Ordezkaritza, Bilbao.
- Paul Arzac, J. I. (1976): *Evolución de la industria armera de Eibar*, Cámara de Comercio Industria y Navegación de Guipúzcoa, Donostia.
- Peña Puente, S. (2008): *San Andrés de Eibar*, Eibarko Udala. Ego Ibarra, Eibar.
- Pieltáin, A. (2007): *Arquitectura para la sanidad pública en España. 1942-1977. Construcción de la red nacional de hospitales*, Ministerio de Sanidad y Consumo, Madril.
- Rodrigo, J. (2003): *Los campos de concentración franquistas, entre la historia y la memoria*, Siete Mares, Madril.
- Rodríguez Domingo, J. M. (2001): “La reconstrucción de la ciudad de Guadix”, *Actas del Congreso dos décadas de cultura artística en el franquismo (1936-1956)*, Universidad de Granada, Granada, II. liburukia, 647-669.
- Ruiz García, A. (1993): *Arquitectura, vivienda y Reconstrucción en la Almería de Posguerra (1939-1959)*, Instituto de Estudios Almerienses. Colegio Oficial de Aparejadores y Arquitectos Técnicos de Almería. Colegio de Arquitectos de Almería, Almería.
- Sagardouy López-Salazar, D. (1960): *Ilmo. Ayuntamiento de Eibar. Memoria municipal. Años 1955-1959*, Nueva Editorial, Donostia.
- Seminarios del INV. Racionalización de la construcción*, Ministerio de la Vivienda, Madril, 1970.
- Sorroche Cuerva, M. A. (2001): “La Dirección General de Regiones Devastadas. El caso de Pitres (Granada)”, *Actas del Congreso dos décadas de cultura artística en el franquismo (1936-1956)*, Universidad de Granada, Granada, II. liburukia, 725-736.
- Suárez Alba, A. (1979): *VIMUVISA*, Viviendas Municipales de Vitoria SA, Gasteiz.
- Tabuenca, F. (ed.) (1989a): *Víctor Eusa arquitecto*, EUNSA, Iruñea.
- , (1989b): “Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala. Elkargoko barriak. Víctor Eusaren arkitektura”, *Composición Arquitectónica*, **4**, 1989ko urria, 1-12.
- Ureña, G. (1982): *Las vanguardias artísticas en la postguerra española. 1940-1959*, Istmo, Madril.

- Urrutia Núñez, A. (2002): *Arquitectura española contemporánea. Documentos, escritos, testimonios inéditos*, UAM. COAM, Madril.
- Vilanova Ribas, M. eta Moreno Julià, X. (1992): *Atlas de la evolución del analfabetismo en España de 1887 a 1981*, Ministerio de Educación y Ciencia, Madril.
- Viviendas de Vizcaya. Viviendas promovidas 8435, 15 años de 1949 a 1964*, Bilbao, 1965.
- Viviendas en África. Plan de construcción de viviendas en Ifni y el Sahara*, Ediciones del Instituto Nacional de la Vivienda, Madril, 1966.
- Zanon Masdeu, L. (1964): *La propiedad de casas por pisos*, Ariel, Bartzelona.

Eranskina

1. EIBARREN LAN EGIN ZUTEN ARKITEKTOAK. 1937-1957⁴⁹⁵

	Izena	Helbidea	Datak
1	ALBERDI ABAUNZ Raimundo	Etxague Generala. Donostia	j. Azkoitia 1899.01.07 t. Bartzelona 1928.08.01
2	ALDAY LASARTE, Lucas	Donostia.	t. 1902.11.25 h. 1968.08.02
3	AGUIRREBENGOA USOBIAGA, Domingo	Iparragirre. Donostia.	t. 1900.12.20
4	APRAIZ BARREIRO Miguel	Prado 4. Gasteiz eta Donostia	j. Gasteiz 1912.11.20 t. Madril 1940.08.20 h. Araba 1998.03.00
5	ARBELAIZ LASARTE Leoncio	Fuenterrabia. Donostia	t. 1931.07.31 h. 1965.12.17
6	ARISTEGUI, Pedro		
7	ASTIAZARAN GALARZA, Luis	Espoloia (Bergara) eta Fermin Calbeton (Donostia)	j. Bergara 1898.10.10 t. Madril 1923.09.23 h. Donostia 1969.05.11
8	BASTERRA BERASTEGUI, Diego de	Colon de Larreategui eta Nafarroa. Bilbao	j. Bilbao 1883.10.29 t. Madril 1911.02.16 h. Bilbao 1959.05.05
9	BASTERRA LARREA José Ramón	Nafarroa. Bilbao	t. 1944.00.00 h. 1994.05.11
10	BASTERRA y ZABALA-AURTENA Faustino	Rekalde Zumarkalea. Bilbao	j. Bilbao 1897.06.27 t. Madril 1924.11.00 h. 1993.01.08
11	BRACONS HUGUET, Hermenegildo		j. 1923.05.21
12	DOMÍNGUEZ ELÓSEGUI, Joaquín	Peñaflorida eta Ramon Maria Lili. Donostia	j. Vigo 1903.09.13 t. Madril 1932.11.22 h 1970.09.04
13	EUSA RAZQUIN, Víctor	Estafeta. Iruñea	j. Iruñea 1894.03.06 t. Madril 1921.02.16 h. Iruñea 1990.06.26
14	FUNGAIRIÑO NEBOT, Ildefonso	Madril	j. Madril 1903.12.05 t. Madril 1929.11.13
15	GAYO, Paulino G.		

495. Erabilitako laburdurak: j.: jaio, t.: titulatu, h.: hil.

16	IBAÑEZ, Claudio			
17	LIZAUR LASA, Damian	Alza-Echea. Oñati	j. t. h.	1885.00.00 1916.07.20 1956.00.00
18	MARTIARENA LASCURAIN, Ramón	Zaragoza. Donostia	j. Zumaia t. Madril h.	1898.10.28 1936.02.11 1966.01.06
19	MARTÍNEZ ANIDO, Roberto			
20	MENDIZABAL LUJAMBIO, Ignacio	Okendo eta Prim. Donostia	t. h.	1929.09.00 1990.01.16
21	MOCOROA GASTESI Florencio	San Marzial eta Beorlegi Koronela. Donostia	j. Tolosa t. Madril h.artzelona	1905.02.01 1929.07.26 1969.11.21
22	MUÑOZ-BAROJA ALVAREZ, José María	Legazpi eta Enbeltran. Donostia	j. Donostia t. Madril h.	1907.01.30 1933.01.24 1978.09.21
23	NASARRE AUDERÁ, Mariano		j. Zaragoza t. Madril	1911.09.29 1940.07.05
24	ORTIGOSA AZUELA Francisco	Donostia	j. Elizondo t. Madril	1896.02.14 1930.08.07
25	OTADUY ECENARRO, Emilio	Sombrereria. Bilbao	j. Portugalete t. Madril	1882.10.14 1908.01.14
26	PONTE PICAWEA, José Antonio	Mendibil. Irun	j. Irun t. Madril h.	1903.05.13 1931.08.27 1969.11.21
27	RUIZ AZPIRI, José María	Donostia	j. Madril t. Madril	1908.00.00 1936.00.00
28	URCOLA ANSOLA Manuel	Hernani. Donostia	t.	1934.07.00
29	URIARTE AGUIRRE- AMALLOA, Castor	Loizaga. Gernika	j. Filipinak t.artzelona h. Bilbao	1892.03.28 1917.09.06 1979.01.02
30	VEGA, José María de la			
31	ZABALO BALLARIN Pablo	Peñaflorida. Donostia	j. Donostia t. Madril h. Donostia	1893.06.07 1918.12.05 1961.06.09

Iturria: elaborazio propioa artxibo eta aldizkari ezberdinetako informazioa erabiliz⁴⁹⁶.

496. Artxiboak: AAN, EHAEOA eta EUA. Aldizkariak: Gipuzkoako urtekariak eta *Boletín Oficial de Colegio de Arquitectos Vasco Navarro*.

2. EIBARREN LAN EGIN ZUTEN INGENIARIAK. 1937-1957

	Izena	Helbidea	Datak
Bide, ubide eta portuetako ingeniariak			
1	BIZCARRONDO, Alfredo		
2	CABALLERO DE RODAS COLMEIRO, Alfonso		
3	CALERÓN GAZTELU, Félix	Donostia	j. 1906.04.02 t. Madril 1929.12.11
4	MARTÍNEZ CEBOLLA, Carlos		
Ingeniari industrialak			
1	ALONSO, Francisco de Asís		
2	ANITUA, Felipe		
3	BELDA, Enrique		
4	IÑARRATEGUI, Pedro María		
5	MONDRAGON LEIBAR, Ignacio Millán		
6	OLAVE, Vicente		

Iturria: elaborazio propioa artxibo eta aldizkari ezberdinetako informazioa erabiliz⁴⁹⁷.

497. Artxiboak: AAN, EHAEOA eta EUA. Aldizkariak: Gipuzkoako urtekariak eta *Boletín Oficial de Colegio de Arquitectos Vasco Navarro*.

Sailean argitaratu diren beste liburu batzuk

Eta tiro baltzari. Abertzaletasuna eta jauntxokeria Bermeon

Mikel Aizpuru

1990ean argitaratua

ISBN: 84-86967-22-8

Historia: Zientzia ala literatura? Historiari buruzko gogoeta sorta

Pruden Garzia eta Iban Zaldúa

1995ean argitaratua

ISBN: 84-86967-66-X

Historia eta fi kzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan

Karmele Artetxe (arg.)

2001ean argitaratua

ISBN: 84-8438-016-5

Ikerketa berriak Euskal Herriko historian

Jurgi Kintana eta Karmele Artetxe (arg.)

2002an argitaratua

ISBN: 84-8438-027-0

Udako Euskal Unibertsitatea euskal kulturgintzan. Hasierako urteak 1973-1984

Mikel Aizpuru Murua

2003an argitaratua

ISBN: 84-8438-041-6

Euskal Herriko Erdi Aroaren Historiarako dokumentu idatzi eta grafi koen iruzkin-ereduak

Amanda Ruiz eta Jaione Agirre

2006an argitaratua

ISBN: 84-8438-080-7

Debarroko oasi liberala

Gotzon Iparragirre Burgoa

2008an argitaratua

ISBN: 978-84-8438-171-6

1936ko gerra Euskal Herrian: historia eta memoria

Mikel Errazkin eta Juantxo Agirre (argk.)

2009an argitaratua

ISBN: 978-84-8438-237-9

Lurralde-antolamendua Euskal Herrian: gaur egungo egoera, gatazkak eta erronkak

Joseba K. Arbaiza Alvarez eta Peio Lozano Valencia (koord.)

2010ean argitaratua

ISBN: 978-84-8438-330-7

Gaur egungo munduaren historia, 1945-2009

Fernando Martínez Rueda eta Mikel Aizpuru Murua

2011n argitaratua

ISBN: 978-84-8438-334-5

Euskara unibertsitatera bidean: eragileak eta proiektuak (1939-1990)

Karmele Artetxe Sánchez

2011n argitaratua

ISBN: 978-84-8438-374-1

Historia Sailean Uztaro aldizkarian argitaratu diren artikuluak

Hezkuntza Gasteizen XIX. mendean
Agirre, Jaione, *Uztaro* **24**, 29-47.

Aditzaren aspektuaz edo gaztelaniazko orainaldi historikoaren baliagarritasuna euskaraz
Agirre, Jaione, *Uztaro* **41**, 15-26.

Abertzaletasuna Araban: Legutianoko jeltkideak XX. mendearen lehen herenean
Aizpuru, Mikel, *Uztaro* **39**, 53-61.

Gerra Zibila Euskal Herrian. Bide berriak: Legutioko erasoaldia
Aizpuru, Mikel, *Uztaro* **67**, 33-56.

XXI. mendearen hasierako euskal abertzaletasuna geldialdian. Egungo egoera politikoari buruzko hausnarketa
Aizpuru, Mikel, *Uztaro* **75**, 49-66.

Aro Berriko Euskal Herriko itsas ekonomiaren historiaren egoera
Alberdi Lonbide, Xabier, *Uztaro* **52**, 9-32.

Frantziako iraultza: modernitate eta tradizionalismoaren artean
Aldekoa, Iñigo, *Uztaro* **0**, 21-35.

Albert Goienetxe (1847-1900) politikari euskaltzale ia ezezagunaren barri laburra
Altonaga, Kepa, *Uztaro* **66**, 43-73.

Eliza, euskal abertzaletasuna eta Ameriketarako erbesteratzea. Ikuspegi orokor bat.
(1898-1940)
Alvarez, Oskar, *Uztaro* **13**, 69-86.

Euskal hezkuntza ikastolak sortu baino lehen: Amerikako euskal ikastetxeak, egitasmoen eta errealitatearen artean (XVIII-XX)
Alvarez, Oskar, *Uztaro* **69**, 5-22.

Esklavo iraultzak erromatar errepublikaren krisialdian: gizarte gatazken eredu bat
Alvarez Pérez-Sostoa, Denis, *Uztaro* **36**, 25-39.

Kontrabandisten aurkako neurriak XVIII. mendeko Euskal Herrian: "leku sakratuen" desagerpena
Angulo, Alberto, *Uztaro* **21**, 45-67.

Arrantza-merkatuan Gasteizko merkatariak izandako partaidetza eta inbertsioak (XVII. mendearen hasieran)
Angulo, Alberto, *Uztaro* **28**, 37-58.

Makiak Euskal Herrian

Apaolaza, Urko, *Uztaro* **37**, 105-118.

Euskal Herriko inprentaren historia

Arana, Jose Antonio, *Uztaro* **12**, 37-53.

Basoa Euskal Herriko historian zehar

Aragón, Alvaro, *Uztaro* **29**, 28-38.

Enirio-Aralar mendietako abereen eta basoen ustiapena aro berrian zehar

Aragón, Alvaro, *Uztaro* **38**, 19-32.

Bengoetxeako Ambrosio. 1552-1625

Aranburu, Pello Joxe, *Uztaro* **20**, 17-69.

Demokrazia Heletan Frantziako iraultza aintzin

Arbelbide, Xipri, *Uztaro* **2**, 103-117.

Europa bakarra, Europa anitzak

Arregi, Joseba, *Uztaro* **15**, 55-66.

Goi paleolitoaren hasierako faseak

Arrizabalaga, Alvaro, *Uztaro* **1**, 53-75.

Psikologiako artikuluen azterketa Uztaro aldizkari oinarri harturik

Artetxe, Karmele, *Uztaro* **56**, 31-50.

«Kristau-elizak, kristau-herriarenak»: ikerketa zail baten oinarriak

Azkoaga Lasheras, Iñazio, Larrambeber Zabala, Migel, *Uztaro* **71**, 31-42.

Gizarte-mobilizazioak eta frankismoaren hondar krisia. Euskal Herriaren ekarpena

Casanellas, Pau, Escribano Riera, Daniel, *Uztaro* **81**, 17-38.

Txabolismoa. XII. mendearen erdialdeko auzo autogestionatuak

Castrillo, Ianire, *Uztaro* **60**, 37-64.

Frantziako kexu-koadernoaren azterketa bat

Chueca, Josu, *Uztaro* **2**, 119-128.

Faxismoa Nafarroan 1936.az geroztik

Chueca, Josu, *Uztaro* **6**, 77-87.

Norena da herriaren ondarea?

Esparza Zabalegi, Jose Mari, *Uztaro* **71**, 17-29.

Faxismoa frantzian: 1918-1930

Gartzia, Pruden, *Uztaro* **5**, 31-45.

Manex Goihenetxeren oroitzapenetan
Gartzia, Pruden, *Uztaro* **72**, 59-77.

Meatzaritza nekazari-herri batean. 1844-1982
Gorrotxategi, Aitziber, *Uztaro* **45**, 3-27.

Europako langile-mugimenduaren protohistoria: Ingalaterrako eta Frantziako langile-
elkarteak Erregimen Zaharraren bukaeran eta Aro Garaikidearen hasieran
Gracia, Juan, *Uztaro* **7**, 55-75.

Pobrezia eta gizarte laguntza XVIII. mendean Bizkaian
Gracia, Juan, *Uztaro* **14**, 3-20.

Bigarren Aintzina
Hernández, Amelia, *Uztaro* **15**, 37-53.

Erljio eta politika Hego Europna Ikerketarako sei (adi)bide
Itzaina, Xabier, *Uztaro* **49**, 23-42.

Zuzenbide penalaren bilakaera historiko-doktrinala: Hamurabiren kodetik Hurgo Grtius-en
teoriara
Jimeno, Roldan, *Uztaro* **51**, 25-43.

Nafarroako erlijio-erainiken jabetza: ikuspegi historiko-juridiko bat
Jimeno, Roldan, *Uztaro* **71**, 71-85.

Nafarroako Konkistaren justifikazio juridikoa
Jimeno, Roldan, *Uztaro* **82**, 32-52.

Nazionalismoaren historia eta ideologia
Kintana Goiriena, Jurgi, *Uztaro* **25**, 3-26.

Lehen gerra karlista bertsoen argitan. Foruak eta erlijioa hiz neurtuetan (1823-1840)
Kintana Goiriena, Jurgi, *Uztaro* **30**, 61-84.

Euskal federalismo foruzalea Seiurteko Demokratikoan (1868-1873)
Kintana, Jurgi; Alfaro, Iñaki, *Uztaro* **40**, 37-62.

‘Irurac Bat’ Konferentzien hezkuntza- eta kultura-proiektuak Artikulu osoa
Kintana, Jurgi, *Uztaro* **55**, 31-46.

Ba al zekien Sabiono Aranak euskaraz mintzatzen?
Kintana, Jurgi, *Uztaro* **63**, 21-29.

Euskal Herriko ondare zibila eta erlijiosoa. Gai oparoa eta eztabaidagarria
Kortadi Olano, Kepa, *Uztaro* **71**, 109-121.

Bizkaitar eta gipuzkoar nekazariak 1718ko matxinadan
Lamikiz, Xabier, *Uztaro* **33**, 21-41.

EAE-ANV: sorrera eta ibilbidea errepublika-garaian (1930-1936)
Larrañaga Uranga, Aitor, *Uztaro* **85**, 49-71

SOVetik STVra. ELAren eboluzioa II. Errepublikan El Obrero Vasco, Lan Deya eta Euzko
Langille argitalpenen azterketaren ildotik
Larrañaga Zubizarreta, Jose, *Uztaro* **77**, 43-58

Erdi Aroko gizartea gaisotasunaren aurrean: erantzunak eta jarrerak
Lema, José Angel, *Uztaro* **18**, 17-39.

Aintzinako Erregimeneko herri baten giza ekonomi azterketa: Villaverde de Trucios,
1753 urtean
López, Ernesto, *Uztaro* **10**, 33-59.

1993: ELA, LAB eta CCOO sindikatuen ekintza bateratua
Lopez Abasolo, Patxi, *Uztaro* **46**, 11-39.

Duela 25 urte: subertsiorako unibertsitatea
López, Emilio, *Uztaro* **23**, 45-63.

Bigarren globalizazioa: amaieraren hasiera?
Manjon Lozoya, Roberto, *Uztaro* **74**, 21-41.

Nazionalismoa eta bere teoria
Mees, Ludger, *Uztaro* **11**, 15-27.

Langileak ba al dauka aberririk? Euzko Langileen Alkartasuna sindikatuaren sorrera
eta garapena
Mees, Ludger, *Uztaro* **11**, 29-36.

Paleolito ondorena Metal-arora arte Euskal Herrian
Mujika, Joxean, *Uztaro* **4**, 33-84.

Metal aroak Euskal Herrian. Eneolito, Brontze eta Burdin Aroa
Olaetxea, Carlos, *Uztaro* **1**, 77-103.

1610. urtea. Nafarroako sorginkeriaren mitifi kazio maltzurri buruz
Paul Arzak, Juaninas, *Uztaro* **43**, 17-51.

Hamarrenak Euskal Herrian: Calahorrako eliz barrutia XI-XIII. mendeetan
Riaño, Eugenio, *Uztaro* **8**, 35-52.

Ideologia eta gatazka Montevideoko euskal etxeen eraketetan
Sanz Goikoetxea, Eneko, *Uztaro* **69**, 25-49.

Euskal Herriko bilakaera geomorfologikoa
Ugarte, Felix M., *Uztaro* 4, 25-31.

Euskal Herrian gizartea eta eliza
Uriarte, Luzio, *Uztaro* 71, 87-107.

Euskal nazionalismo motak –nazioaren ikuskeraren arabera–
Zabalo, Julen, *Uztaro* 26, 27-46.

Nafarroako sorginkeria berriro eztabaidagai
Zabala, Mikel, *Uztaro* 39, 39-52.

Bilboko Erregimendua XVI. eta XVII. mendeen bitartean: bazterketa eta erresistentzia
aurrez aurre
Zabala Montoya, Mikel, *Uztaro* 47, 41-54.

Goi Aro Berriko Bizkaiko Jaurreriko Gobernuari buruzko hurbilketa
Zabala Montoya, Mikel, *Uztaro* 53, 9-29.

Ekonomi historiaren historia: sarrera bat
Zaldua, Iban, *Uztaro* 6, 59-75.